

KEREXETA

KRISTAU-GAIAK

KEREXETA 'TAR JAIME

KRISTAU-GAIAK

Bilbao
1995

EGILLEA:

Kerexeta Gallaiztegi´tar Jaime, abadea.

NIHIL OBSTAT:

Jose Mari Rementeria,

Eliz-aztertzailea.

IMPRIMATUR:

Larrea´tar Koldobika Mirena,

Bilbo´ko Gotzaiña.

Bilbo´n, 1995´eko urtarrillaren 20´an.

WILSEN Editorial.

C/Mayor s/n

31241 OLLOBARREN (Nabarra).

ISBN: 84 - 85918 - 94-0

Depósito Legal: NA-524 - 1995

BERBA BI

Leengo egun baten, millaka nire paperen artean, 1954-1955´garren urteetan egin nebazan berbaldi labur batzuk aurkitu nebazan. Orain berrogei urtekoak!

Egia esan, ez dakit nondik euskeratu nebazan; Gotzaitetik erderaz bialtzen euskuezan orrietatik, urrean. Oneik, 34´garren zenbakian amaitzen dira, 45´garren orrialdean.

Gero datozenak be ez dira nigandik sortuak, erderazko beste liburu batzuetatik euskeratuak baiño, neure erara aukeratuta. Tarteka, barriz, burura etorten yatazan esaldi egokiak ezarten neutsezan.

Emen datozenak baiño askoz geiago be idatzi nebazan, baiña ez dodaz aurkitzen. 1975´garren urtean etxe batetik bestera aldatu nintzan, etxeokaz batera. Orduantxe galdu ziran, urrean. Dana dala, emen doaz aurkitu dodazanak.

Oso gutxi balio izango dabe, bearbada, gaurregunerako. Idatz-mamiñari jaramon aundirik egin bagarik, idazkereari buruz, beintzat, begi onez onartu dagizuzala eskatzen dautsut, irakurle.

Edozela be, nire buruari auxe esan dautsat: «Norbati balio izango dautsoe, urrean... ¿Zegaitik argitaratu ez, zerbait egiteko astia dodan ezker?»

Azkenaldian, berbaldi bakotxa oiñarritzen dan Alkartasun Barriko aitamenak datoz: Mt 11, 2-10, Lk 21, 25-33, eta abar.

Emen dozuz, ba, irakurle. Zerbaitetarako on egin dagitzuela.

Elorrio´n, 1994, orrillak 30.

Kerexeta´tar Jaime.

ESKINTZA

1960'garren urtean
339 Eusko-Abadeen
AGIRIA
izenpetu ebenen
omenez.

BERBALDIAK

1.- Sakramentuak

Leengo egunean, gure Eliza Ama Deunaren Sakramentuai buruz zerbait esaten asi gintzazan. Sakramentuak zetako ziran ikusi genduan: Jesukristoren grazia eta onoimenak (birtuteak) emoteko.

Orain, ba: ¿bearrezkoa etc-da Sakramentu guztiak artzea, zazpi Sakramentuak artzea? Batzuk bear-bearrezkoak dira, eta, artzen ez dauzanak, ezin zerurartu daiteke: oneik, Bateoa ta Autortza dira. Onela, bateatu bagarik ilten dana, ezin sartu daiteke zeruan (gogozko Bateoaz bai, orraitifo). Bardin, Bateo-ostean pekatu astuna egin dauana, ezin zeruratu daiteke bere pekatu astunaz damutu ta Jaunari parka eskatu bagarik, batez be Autortzako Sakramentuaren bidez.

Beste Sakramentu batzuk, batzuetan, artzeko bearrezkoak dira; esate baterako, Jaunartzea edo Eukaristia, baita Autortza bera be. Onela, Elizeak, Pazko-aldian gutxienez, geure Jauna artzea agintzen dausku. Eukaristia artu bear danean pekatu astunean egon ezkeru, baita eriotz-zorian be, Autortzako Sakramentua artu bear da.

Azkenengo Sakramentu biak —Abadegintza eta Ezkontza—, nai edo nai-ezkoak dira.

Sakramentu batzui “bizienak” deritxe, arimea Jaungoikoaren grazian, adiskidetasunean, bizi dala artzekoak; esate baterako, Eukaristia: gure Jauna ezin artu daiteke pekatu astunean, leenen pekatuaz damutu eta Jaunari parka eskatu eta, beti be, aal danean Autortza Sakramentua artzeko asmoz.

Beste Sakramentu batzui “illenak” deritxe: pekatuaz ilda dagoan arimeari, Jaungoikoaren grazi santutzaillea leenengoz edo barriro emoten dautsoenak dira: Bateoa eta Autortza.

Baiña, ¿zeintzuk dira bein bakarrik artu daitekezan Sakramentuak? Iru: Bateoa, Sendotza eta Abadegintza. Iru Sakramentu oneik bein bakarrik artu daitekez. ¿Zegaitik? Ariman ezaugarri bat ezarten dabelako, ifioiz be kenduko ez dan ezaugarria, ez lur onetan ez datorren munduko bizitzan. Bateoak Kristoren seme-ezaugarria ezarten dautso arimeari; Sendotzak, Kristoren gudari-ezaugarria; Abadegintzak, barriz, Kristoren ordezkari-ezaugarria.

2.- Jaungoikoaren grazia (I)

Leengo egunean, Jaungoikoaren graziak bitarikoak dirala esan genduan: santutzailleak eta laguntzailleak. Jarraitu daiogun gaiari.

¿Zer egiten gaitu Jaungoikoaren grazi santutzailleak? Jaungoikoaren adiskide eta seme-ordeko.

Jaungoikoaren adiskide: ona emen Jesukristok bere ikasleai esan eutsena: «Neuk agintzen dautsuedana egiten ba´dozue, neure adiskide zaree. Onezkero, ez dautsuet morroi esango, ... zuei adiskide dirautsuet» (Jn 15, 14-15). Izan be, Jaungoikoaren grazian dagoana, Jaunaren maitasunean dago, eta bi, alkar maite izatean, bat eginda lez dagoz, adiskide dira.

Jaungoikoaren graziak bere seme egiten gaitu; baiña izadiz edo jaiotzetik ez, seme-ordeko baiño. Izadiz, Jesukristo bakarrik da Jaungoikoaren seme, eta gu seme-ordeko Jesukristoren bitartez. Paulo Deunak auxe dirausku: «Zuek artu dozuen biotza ez da morroi-biotza, ... semetzako biotza artu dozue, eta, onen indarrez, Jaungoikoari "Abba, Aita" egiten dautsagu dei» (Erm 8, 15). Eta San Joanek: «Ikusi egizue Aitak erakutsi dauskun maitasuna: Jaungoikoaren seme-izena ta izana doguz-ta» (Jn 1ª, 3, 1).

«Jaungoikoaren seme ba´gara, oiñordeko be ba-gara», dirausku San Paulok (Erm 8, 17). Izan be, Jaungoikoaren graziaren saria auxe da: zeruko oiñordeko izatea, zerua lortzea, Jesukristoren etxean sartzea, zeruan sartzea. Gauza aundia, benetan, Jaungoikoaren grazian bizi izatea eta iltea! Orregaitik San Juanen berbok: «Zoriontsuak Jaunagan ilten diran ildakoak!» (Ag 14, 13). Eta Salmuetan irakurten dana: «Balio aundikoa da Jaunaren aurrean Aren zintzoen eriotza» (Sal 116, 15).

Gaiñera, gure egintzak ezer balio bear ba´dabe, Jaungoikoaren grazian egiñak izan bear dabe; osterantzean, ez dauskue zerurako ezer balio, ezta pekatuen zorrik ordaintzeko be; geien be, pekatutik urteteko. Esate baterako: eskintsari bat beteteko, ba-zatoz oiñez Maiñari´tik Urkiola´ra pekatu astunaz zagozala. Bete dozu eskintsari ori, egitada ona egin dozu; baiña, Jaungoikoaren grazian ez zagozan ezkerro, ez dautsu zerurako ezer balio. Badaiteke egitada ori pekatutik urteteko bidea izatea, bai, baiña zerua irabazteko ez.

Gutziz bearrezko dogu, ba, Jaungoikoaren grazian bizi izatea, gure egintzak betiko bizitzarako baliotsuak izatea gura ba´dogu.

3.- Jaungoikoaren grazia (II)

¿Zer geiago egiten dau Jaungoikoaren graziak, grazi santutzailleak, ariman?

1) Arimako pekatu astunak kendu. Argiak illuna kentzen dauanez, graziak be pekatu astuna kendu egiten dau arimatik. Aditu San Paulok diñoana: «Noizbait illun zintzazen; orain, barriz, argi zaree Jaunagan. Ibili zaitzeze argi-seme lez» (Ef 5, 8). Pekatu astuna eta Jaungoikoaren grazia aurrez-aurre dabiz, alkarren arerio utsak dira, ezin egon daitekez bata bestearen ondoan, alkarregaz. Graziaz, pekatu astuna iges doa arimatik, biak batera ezin bizi daitekez-ta.

2) Grazian dagoan arimea, Espiritu Santuak etxetzat artzen dau beretzat. Emen San Paulok dirauskuna: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?» (Ko 1ª, 3, 16). Irugarren Personea geugan egon ezkerro, Aita ta Semea be egon bear, beste ataltxo baten Jesukristok dirauskunez: «Benetan maite nauanak, nire mandatuan sendo iraungo dau; nire Aitak maite izango dau alakoa, eta nire Aita ta Ni etorri egingo gakioz eta aregan bizi izango gara» (Jn 14, 23). Jaungoikoaren iru Personak dagoz, ba, grazian dagoan ariman: Aita, Semea ta Espiritu Santua, baiña Espiritu Santua batez be, santutasun eta maitasun egintzak Espiritu Santuari ezarten yakoz-ta.

Jaungoikoaren graziaz, Jaunaren laguntasun geiago be ba-dogu; ardura aundiagoa dau Jaungoikoak bere grazian dagoan arimeaz, eta, bere adiskidetasunean dagoan ezkerro, zaindu egiten dau maitasun beroagoaz; Aingeruak be arima orren zain dagoz, arriskueta batez be.

Azkenez, graziak Jaungoikoagaz batasuna zeruan jaristen dausku. Lur onetan be ba-dago batasun ori, baiña zeruan osotzen da, arraiña itsasoan urez inguratuta egoten danez.

¿Eta zelan galtzen ete-da Jaungoikoaren grazi au? Esanda daukatsuet: pekatu astunaz. Pekatu ariñakaz ez da galtzen grazi au, ezta gutxitu be. Baiña aunditu bai egin daiteke, San Joanek bere "Agerpena" izeneko liburuan dirauskunez: «Zuzenak zuzenago jardun dagiala, eta santuak santuago» (Ag 22, 11).

4.- Jaungoikoaren grazia (III)

¿Zer dira grazi laguntzailleak? Kristau-Ikasbideak onelaxe dirausku: «Gaiztakeria itzi eta ona egiteko, Jaunak guztioi emoten dauskuzan laguntzaldiak edo laguntza-erak dira grazi laguntzailleak».

Bere laguntzaz gauza bi egiten doguz, ba:

1) Gaiztakeria alde batera itzi, edo bardin dana, txarto dagoan gauza bat, egitada gaizto bat egiteko gagozanean, grazi laguntzaille orren bitartez, atzeruntz egiten dogu, ez dogu egiten egintza gaizto ori.

2) Gauza ona, egitada ona egiteko indarra emoten dausku. ¿Zelan? Gure adimena, zentzuna, argituz eta gure gogoari bultza egiñez. Adimena argitu, ona ta txarra zein eta zer dan garbiro ezagutzeko, pekatuko bidetik joan ez gaitzan.

Esate baterako: Jaieguna da; goizean goiz mendira joateko asmoa dozu, baiña Mezea entzun bear dozula gogoratzen dozu; ez dakizu zer egin: edo mendira joan eta Mezarik entzun ez (pekatu astuna), edo, lenen, Mezatara joan eta gero mendira. Gogapenok darabizuzala, indar bat bear dozu, laguntasun bat, argi bat, bultzakada bat, bide ona artu eta gaiztoa izteko. Eta zeurekautan diñozu: “Bete dagidan leenen nire jaiegunetako eginbearra eta noian gero mendira”. Eta bai egin be. Orra or Jaungoikoaren grazi laguntzaillea: zure zentzuna garbitu eta zure gogoari bultza eragin dautsan indar ori, bide gaiztoa itzi eta bide ona artzeko indar ori, grazi laguntzaillea izan da.

Bitarikoak dira grazi laguntzaille oneik: kanpokoak eta barrukoak. Kanpokoak: esate baterako, egintza onak ikusi, ustebagako eriotzak, ondezak eta geisoak, liburu onak, jazorikoak... Eta barrukoak batez be, Jaunak bialtzen dauskuzan argi ta gurari onak, txarto dagoana izteko eta ondo dagoana egiteko. Bigarren oneik —barrukoak— dira geien balio dabenak, gure on egiteen gogoia barrutik urten bear dau-ta.

Grazi laguntzaille ori, ¿bear-bearrezkoa ete-da? Alantxe da, eta, beraz, ezin daikegu ez asi, ez jarraitu, ez amaitu zerurako ona danik ezertxo be. Zerurako gaietan, Jaunaren laguntasun ori bear dogu beti: «Nigandik bananduta, ezin ezer egin daikezue» (Jn 15, 5), dirausku Jesukristok. Eta San Paulok: «Iñok be ezin daike Jesus Jauntzat autortu, alakoari Espiritu Santuak eragin ezik» (Ko 1ª, 12, 3).

Eta indar au, grazi au, gizon guztiai emoten dautse Jaungoikoak. Batzuek, indar orri jaramon egiten dautsoe; beste batzuek, ez. Geiso bati jazoko litzakiona: osagille ona eukia-

rren, osatzeko gauzarik artu gura ez ba'dau, ez dago osatzerik, il egingo da.

Guztiok doguz graziak, indarrak, argiak, onbideari jarraitzeko; bide ona artzen ba'dogu, salbatuta gagoz; bide txarretik ba'goaz, galduak gara. Geure eskuan dogu, ba, betiko zoriontsu izatea.

5.- Egintza onak

¿Zetako dira gure egintza onak? Guk egitada on bat egiten dogunean, sari bat irabazten dogu. Lan egiten dauanari lan-saria zor yakonez, Jaungoikoaren grazian egiten doguzan lan edo egitada onai be euren saria zor yake, egintza on orreik sarigarri dira. Baiña, alan be, gure egintzak, aalik eta bikaiñenak izanda be, ez litzakez sarigarri izango Jaungoikoak sari ori agindu ez ba'leusku. Ez dauko iñok, ona dala-ta, arrotzeko biderik. ¿Zegaitik? Egintza onak egiteko goi-indarrak eta bai egintza orrei zor yaken saria be, Jaungoikoak bere errukiz emoten dauskuzalako.

Lau gauza, batez be, bear dabe gure egintzak sarigarri izateko: 1) grazi santutzaillez egin. Pekatu astunean dagozanen egitada onak ez dira ez sarigarri ez ordaingai; eta, geien be, Jaungoikoagandik graziren batzuk jaristeko balio dabe, pekatutik urteteko batez be. 2) Egidadak onak izan bear dabela: jakiña. Jaungoikoak ezin saritu daikez egitada txarrak. 3) Asmo onez egiñak izan bear dabela: txiro bati, beartsu bati, zerbait emotea, egintza ona da; baiña asmo txarrez, norbere burua erakusteko asmoz, arrokeriz... emoten ba'yako, asmo txar orrek egintza ona be zitaldu, usteldu, txartu egiten dau. 4) Azkenez, egitada orrek goitarra izan bear dau: Jaungoikoaren ederrez egin, Jaunagaitik egin, zerua irabazteko egin. Esate baterako: ibillaldi bat egin nai dogu, osasuntsua dala-ta; osasunari begira bakarrik egiten ba'dogu, egintza ori ez da sarigarri; sarigarri izateko, Jaungoikoari eskiñi bear yako, edo Jaungoikoagaitik eta osasunagaitik batera egin.

Amaitzeko, ¿galdu egin ete-daitekez gure on-egiñen sariak? Gure on-egintzen sariak aundi-aundiak ba'dira be, pekatu astun bataz galtzen dira guztiak. Baiña aditu: pekatu astunaz dagoan ori, barrero Jaungoikoaren grazian jarten ba'da, on-egiñen sari orreik barrero biztu egiten dira, eta, pekatuan jausi aurretik lez, sarigarri biurtzen dira zerurako.

Orrela, ba, zure egitada on guztiak balio izango dautsue betiko, ondo egiñak, zuzen egiñak, izan ba'dira eta Jaungoikoaren grazian, Jaunaren adiskidetasunean, ilten ba'zara.

6.- Bitariko graziak

Leengo baten, Sakramentuak zer ziran esan genduan: Jesukristo gure Jaunak bere grazia ta onoiemenak guri emoteko jarri ebazan ezaugarri agiriak. Bere grazia ta onoiemenak emoten dauskuz, ba, Jesukristok Sakramentuen bitartez.

Baiña, ¿ze eratakoea ete-da Sakramentuen bitartez artzen dogun grazia? Sakramentu batzuek leenengo grazia emoten dauskue: grazi santutzaillea. Sakramentu oneik Bateoa eta Autortza dira; eta besteak, beste Sakramentuak, leenengo grazi au geitu egiten dabe. Leenengo, ba, grazi santutzaillea. Gero, barriz, grazi laguntzailleak be bai, gaiztakeria itzi eta ona egiteko indarra emoten dauskuezan graziak.

Baiña, gaiñera, beste era bateko grazia be emoten dauskue Sakramentuak. Berez, grazi bardiña da, baiña Sakramentu bakotxak bere grazi berezi edo apartekoa ezarten dautso arimeari. Zerbaiten aldea egon bear, Sakramentuak zazpi dira-ta. Alde au ez ba'lego, naikoa zan Sakramentu bat, teologoak dirauskuenez. Baiña agirian dago Sakramentu bakotxak bere grazi berezia emoten dauana.

Ikusi dagigun, bestela: Bateoak, arimearen garbikuntza ta jaiotza adierazoten dauz; Sendotzak, sinismen-indarra emoten dausku; Euskaristia, arimearen janari dogu; Autortza, arimearen osasunerako; Azken-Igurtziak (1) bizitzaren azkenerako indarrak emoten dauskuz, deabruaren aurka egiteko, Jaungoikoaren grazian azkenerarte irauteko; Abadegintzak, abade-gintzak ondo egiteko indarra; eta Ezkontzak, ezkontza-gaietarako, ezkongaien batasuna lortzeko.

Berez, egiñaren indarrez —“ex opere operato”— emoten dabe, ba, Sakramentuak Jaungoikoaren grazia.

Sakramentu bakotxak, gaiñera, bere grazi-laguntzailleak emoten dauz.

Sakramentuakaz, beste egite onakaz baiño askozaz grazi geiago lortzen dogu, Sakramentu bakotxean Jesukristo bera dabillelako bitartean, Jesukristo berbera bere ordezkarien bitartez, bere abadeen bidez.

Auxe be kontutan artzekoa da: bardin dala, Sakramentuetan, abade ori ona izan naiz gaiztoa izan; batak eta besteak bardin-bardin parkatzen dabez pekatuak, bardin-bardin bateatzen dabe, bardin-bardin emoten dabe Mezea: Jesukristoren izenean, Jesukristoren ordezi diardue parkatzen, bateatzen edo Mezea emoten-eta. Jakiña, abadeak, pekatu astunean dagoala,

Mezea emoten ba'dau, beste pekatu astun bat egiten dau: donaste edo sakrilejio-pekata; baiña Eukaristi-Sakramentu ori bardin-bardin egiten da, abadea Jesukristoren ordezkari bakarrik da-ta.

(1) Gaurreguean, Sakramentu oni “Geisoen Igurtzia” deritxo.

7.- Onoiemen zerukoia

Ikusi genduan leengo egun baten Sakramentuak zer emoten dauskuen: Jesukristoren grazia. Eta, graziaz batera, Jesukristoren onoiemenak (birtuteak): sinismena, itxaropena eta goi-maitasuna.

¿Zer da sinismena? Ikusi ez doguna sinistea, Jesukristok alan agertu eta Elizeak alan irakasten dauskulako. Sakramentuak biztu egiten dabe sinismena, zezpalak sua biztuten daben antzera. Sakramentu bagarik, ostera, sinismena astiro-astiro otzitzen joaten da eta askotan guztiz galdu be egiten da. Sinismena ez da bat-batean galtzen, astiro-astiro baiño, igarri bagarik. Eta, beste aldetik, sinismena nai ta nai ez euki bear, zeruratu nai ba'dogu. Eta gure sinismena ilda egongo da egintza onak bagarik. Izan be, «Sinismenak egintzarik ez ba'dau, ilda dago beragan... Gizona egintzen bidez zindotzen da, ez sinismenaz bakarrik», diño Santiagok (St 2, 17 eta 24). Egitada on onein bidea, barriz, gure egite onein indarrak gogorrena, Sakramentuak dira, Eukaristia ta Autortza batez be.

Sinismenak beste onoiemen bat dakar beragaz: itxaropena, edo bardin dana, Jaungoikoaren grazi eta gure egintza onen bidez, zerua jadetsiko dogula itxarotea.

Eta azkenez, goimaitasuna. Jaungoikoa, Bera dalako, beste ezer baiño geiago maite izatea eta gure lagun-urkoa Jaungoikoagaitik geure burua lez maite izatea, orixe da goimaitasuna.

Baita beste onoiemen batzuk be emoten dauskue Sakramentuak: esate baterako, apaltasuna, arrokeriaren aurka dagoan onoiemena. Arrokeria da Jaungoikoak ia geien gorroto dauan pekatua, pekatu guztien asiera edo ama dalako, txerrenaren pekatua, Jaungoikoa gurtu nai ez ebanean egindako pekatua. Apala danari, Jaunak edozer emoten dautso, Berari eskatzen dautsan guztia, arimearen onerako ba'da.

Beste onoiemen bat: biotz-garbitasuna, aragikeriaren aurka dagoan onoiemena. Ezin izan

daiteke iñor garbia Sakramentuetatik urrin ba'dabil. Garbitasunean bizi izateko, Eukaristia Sakramentua dogu: Jesukristoren Gorputza, garbien janaria da-ta.

Gaurkoaz amaitzen dogu Sakramentuai buruz berba egitea, ikusi dogu zer eta zetako diran-eta. Datorren egunetik aurrerantz, Sakramentu bakotxari dagokiona aztertuko dogu, Bateoa Sakramentutik asita.

8.- Bateoa (I)

Asi gaitzean gaur Eliza Deunaren leenengo Sakramentua aztertzen: Bateoa.

¿Zetako ete-da Bateoa? Jatorrizko obena kentzeko eta kristau egiteko da Bateoa.

Bateo berbeak "garbitu" adierazoten dau. Uraz milla gauza garbitzen diran antzera, Bateoaren urak be arimak garbitzeko indarra dauko: berez ez, Jesukristo gure Jaunak emondako indarrez baiño. Grazi-bizitzara Bateoaren bidez jaioten gara. Mundu onetara, Jaungoikoaren asarrepean jaioten gara, jatorrizko pekatuaz. Bateoaz, Jaunaren adiskidetasuna jaristen dogu, grazi santutzaillea lorturik.

Bateoa Jesukristok sortu eban. Jesusek Nikodemo'ri auxe esan eutsan: «Bene-benetan dirautsut: uretik eta Espirituagandik jaioten ez dana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren erreñuan» (Jn 3, 5). Eta bere ikasleak munduan zear bialdu ebazanean, Jesusek auxe agindu eutsen: «Zoaze, ba, eta ikasleak egizuez erri guztietako bizilagunen artean, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz...» (Mt 28, 19).

Bateoa egiteko, ¿zer bear ete-da? Bateoa egiteko ura ta berbak bear dira. Estualdian, ilteko arriskuan, edozein ur, ur utsa izan ezker. Bestela, barriz, elizan bateatzen danean, ur garbia, Zapatu santuz bedeinkatua eta krisma-orioz naastua. Berbak, barriz, oneixek dira: "Neuk bateatzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean". Berba oneik, ura burura isuriaz batera esan bear dira.

Ur utsa ba-dakizue zein dan: itsaso, erreka, iturri, oxifeko ura, baita edur, izotz eta txingor urtua be.

¿Nok bateatu daike? Berez, abadeak bakarrik. Baiña estualdietan edo ilteko arriskueta, edonok: elizgizonak leenen, gizonekoak andrazkoak baiño leen, eta onein artean, obeto bateatzen dakianak.

Bateo bagarik —gutxienez gogozko Bateo bagarik—, ezin sartu daiteke iñortxo be zeruko erreñuan. Olan dala, aalbait ariñen ekarri bear dira umeak elizara, bateatzeko, grazi santutzaillearen bidez Jaungoikoaren adiskidetasunean jarteko, eta zeruko eredu ordutixek izateko.

(OARRA: gaurregunean, 1994-an, bateatzea atzeratu egiten da, gurasoak euren umetxoaren Bateorako egoki gertatzeko; ez dago, gaiñera, umetxoa ilteko leen aiñako arriskurik.)

8.- Bateoa (II)

¿Zeintzuk dira Bateoaren ondorenak? ¿Zer egiten dau gudan Bateoak? ¿Zer emoten dausku?

Leenen, Jaiotza barria. Gizon bikotxa daroagu guk aldean. Bata, gizon zaarra, jatorrizko oben eta grifa txarrakaz, Adan'egandik datorrena. Bestea, gizon barria, Kristoren gizona, bateoaz sortzen dana. Bateoaz, Adan'en jatorrizko gizon ori ilda geratzen da, Kristoren gizon barria bakarrik geratzen da bizirik. Ilda jaioten gara, jatorrizko pekatuaz ilda, eta Bateoaz jaiotza barria artzen dogu.

Bateoaz, jatorrizko pekatuaren parkamena jaristen dogu. Pekatu au kendu egiten dau Bateoak, arimea garbi-garbi jarten dau. ¿Zelan? Leenen, grazi santutzaillea emonez. Grazi au da arimearen bizia; Jaungoikoaren seme-ordeko, santu, zuzen, Jaunaren adiskide ta zeruko eredu egiten gaituan bizitza zerukoia. Bateoa da, ba, zeru-bizitzarako sarbidea, atea; bertan emoten yaku leenengo grazia.

Bateoaz pekatua bakarrik ez, pekatu-nekea be oso-osorik parkatzen yaku. Norbait Bateoa artu ta berealaxe ilgo ba'litz, zuzen-zuzen sartuko litzake zeruan, San Paulok eta geroago Trento'ko Batzar Nagusiak dirauskuenez.

Bateoaz, iñoiz be kenduko ez dan ezaugarria ezarten yaku, ez bizitzan, ez eriotzan, ez eriotz-ostean be kenduko ez dan ezaugarri santua. Ezaugarri onek, Kristorenak gareala, Kristoren artaldekoak, eliztarrak gareala adierazoten dausku. Eta, ezaugarri kendu-ezifia dan ezker, Bateoa bein baiño ezin artu daiteke.

Azkenez, Bateoak Elizearen sendiko, etxeko egiten gaitu, Elizearen bazkide, seme. Elizearen buruzagi agiria, barriz, Aita Santua dogu, Jesukristoren ordezkaria. Beraz, Jaungoiko-

aren seme ta morroi eta txerrenaren morroi ezin izan gaitekez. «Nire alde ez dagoana, neure aurka dago» (Mt 12, 30), dirausku Jesukristok. Ez dago bitarterik. ¿Zelan egongo gara Jaungoikoagaz? Jaunaren grazian biziaz, pekatu astunean jausi bagarik egonik.

Zaindu dagizala, ba, bakoitxak norbere bizikera ta norbere barrua.

9.- Bateoa (III)

Bateatzen diranai, ¿izena jarri bear ete-yake? Bateatzen diran guztiai izena jarten yake, bai, kristau-izena ondoen, umearen gurasoak naiz aita-amabitxiak nai daben izena. Kristau-izena jarritz, umea Santuaren ardurapean jarten da. Beraz, gure izeneko santuari maitasun beroa izan bear dautsagu, eta egunoro gogoratu berari otoitz egitea.

Bateatzeko aldia ta tokia ba-dakizuez zeintzuk diran: aalbait lasterren elizara bateatzera ekarte. Eta elizan bateatzen danean, umeak bere aita-amabitxiak izan bear dauz. ¿Zer dira aita-amabitxiak? Umearen guraso ordezkio lez. Umea guraso bagarik geratzen ba'da, edo-ta, arimako gaietan, gurasoak umearen ardurarik artzen ez ba'dabe, aita-amabitxiak euki bear dabe umeaganako ardura ori. Aita-amabitxi eta bateatzen danaren artean, gogozko (espirituzko) senidetasuna sortzen da, eta ezin ezkondu daitekez alkarregaz.

Azkenez, ¿zer egitera beartzen da bateatzen dana? Bere sinistea Jesukristogan jarririk, Jaunaren legeko aginduak betetera beartzen da bateatzen dana.

¿Eta zer iztera? Txerrena eta beronen aundikeri ta egite okerrak: aragikeria, loikeria, eztabaidak, asarreak, burrukak, ikusi-eziñak eta enparaduak. Orrexeik dira txerrenaren egite gaizto batzuk, San Paulok dirauskunez (Ga 5, 19-21).

10.- Sendotza (I)

¿Zetako ete-da Sendotza? Bateoan artu genduan sinismena sendotu ta indartzeko da Sendotza.

Bateoan kristau-izatea artzen dogu; Sendotzan, izate orretan gogor irauteko goi-indarra emoten yaku. Izan be, kristau-bizitza eten bagako burrukea da: mundua, deabrua ta aragia, gure arimako arerioen aurka darabilgun eten bagako burrukea. Sendotzan, Espiritu Santuaren grazia emoten yaku, krisma orioaz bekokian igurtziz, sendoro sinistu eta sinismena autor-tzeko.

¿Nok sortu eban Sendotza? Jesukristok, beste Sakramentu guztiak lez. Eta

aurrerantzean, Apostoluak eurak soillik emoten eutsen Sendotza bateatzen ziranai. Pedro ta Joan Deunak eskuak ezarri eutseezan samaritarrai eta onein gaiñera Espiritu Santua jatsi zan, "Apostoluen Egiñak" deritxon liburuan irakurten dogunez (Ap 8, 14-17).

¿Zer bear da Sendotza egiteko? Iru gauza: krismaz igurtzi, eskuak ezarri eta berbak esan. Krisma au, Eguen Santuz gotzaiñak bedeinkatutako orio ta balsamo naastea da. Naaste oneaz umearen bekokian eskumako atzamar lodiaz gurutze bat egiten dau, ezkerreko eskua umearen buru-gaiñean jarririk, urrengo berbak esaten dauzala: «Gurutze-ezaugarria ezarten dautsut eta salbamen-krismaz sendotzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean».

¿Nor da Sendotza emon bear dauana? Berez, Gotzaiña bakarrik; ilteko arriskuan, barriz, abadeak be bai.

¿Zeintzuk dira Sendotzaren ondorenak, edo zer egiten dau gudan Sendotzak? Leenen, grazi-santutzaillea geitu, eta Espiritu Santua ta beronen zazpi doaiak emon. Espiritu Santuaren zazpi doaiak oneixek dira: jakituria, adimena, burubide zuzena, jakintza, sendotasuna, biozperatasuna eta Jaungoikoaganako bildurra.

¿Zer geiago? Sendotzaz, iñoiz be kenduko ez dan ezaugarria ezarten yaku, ez bizitzan, ez eriotzan, ez eriotz-ostean be kenduko ez dan ezaugarri santua. Bateoaz, Kristorenak gareala adierazoteko ezaugarria ezarten yaku; Sendotzaz, barriz, Kristoren gudari-ezaugarria. Eta, Bateoaren antzera, Sendotza be bein baiño ezin artu daiteke.

11.- Sendotza (II)

¿Artu bearrezkoa ete-da Sendotza? Zeruan sartzeko, Bateoa artzea bear-bearrezkoa dala esan genduan; Sendotza ez, Sendotza artu bagarik be zeruratu gaitekez. Baiña, norbere nagikeriz Sendotza artu bagarik geratzen danak, pekatu egiten dau, eta satarkeriz —Sakramentua aintzat ez artzeko— Sendotza ez artzea, pekatu astuna izango litzake.

¿Eta nok artu daike Sendotza? Bateoa artu daben kristau guztiak artu daikee Sendotza. Beraz, ezin artu Sendotza Bateoa artu baiño leen. ¿Zegaitik? Bateoa Sakramentu guztien atea, sarbidea, dalako, eta kristau bateoaren bidez egiten dalako.

¿Noiz artzen da Sendotza? Leen, umetan artzen zan, geienetan zazpi-zortzi urtez; orain, barriz, geroago, orretarako ondo gertatuta gero.

¿Zelan artu bear da Sendotza? Jaungoikoaren grazian artu bear da Sendotza. Beraz, pekatu astunean dagozanak, Autortza egin bear dabe leenen, beste pekatu astun bat egingo leukee

bestela-ta.

Gaiñera, Sendotzan be aita-amabitxiak bear dira: aitabitxia mutikoentzat, eta amabitxia neskatoentzat.

Azkenez, Sendotza artzen dauana, ¿zer egitera beartzen da? Jesukristoren gudari dan ezkerero, Jesukristo ta beronen lege-aginduak lotsa bagarik autortu bear dauz edonoren aurrean, berbaz eta egitez. Emen ederto dator Jesukristok esan eban au: «Gizonen aurrean neure alde agertu daiten edonor, neu be aren alde agertuko naz zeruko nire Aitaren aurrean. Eta, okerretara: norbaitek gizonen aurrean ukatzen ba'nau, neuk be alakoa ukatu egingo dot zeruan dagoan nire Aitaren aurrean» (Mt 10, 32). Izan be, gudari danak gogor jokatu bear dau arerioen aurrean; Jesukristoren gudariak be bardin. Orretarako indarrak Sendotzan artzen doguz.

12.- Eukaristia (I)

Eukaristian, ogi ta ardaoaren itxurapean, Jesukristo berbera dago. Jesukristok bere burua eskintzen dautso Aitari Jaungoikoari, eta guk Jauna artu egiten dogu gure barruan.

¿Zeintzuk dira Eukaristiaren izenak? Izen asko dauz Sakramentu santu onek. "Eukaristia" esaten yako geienetan; "grazi ona" adierazoten dau, Jaunaren grazirik onena ta bikaiñena dalako. Sakramentu "santu-santua" be esaten yako, Sakramentu guztietarik santuena ta gurena dalako, Sakramentu onetan Jaungoikoa bera artzen dogu-ta. "Maitasun-Sakramentua" be bai, Jesukristoren maitasunik agirierna dalako. Baita "Altarako Sakramentua", "Ostia santua", "Aingeruen Ogia", eta beste izen batzuk be bai.

¿Noiz sortu eban Jesukristok Eukaristia? Eguen Santuz, azken-aparia egiteko bere ikasleak batu zanean. Bere maitasuna agertzeko eta arekaz bat-bat egiteko, bere Gorputza ta Odola emon eutsen jaten eta edaten. Orretarako, ogia artu, bedeinkatu, zatitu eta bere ikasleai emon eutsen, esanez: «Artu egizue ta jan, au neure Gorputza da-ta» (Mt 25, 26). Gero, ardao-ontzia arturik, barriro be eskerrak emonaz, bere ikasleai emon eutsen, esanez: «Artu egizue ta edan onetatik, au neure Odola da-ta» (Mt 26, 27-28). Berba onekaz, Jesukristok ogia bere Gorputz biurtu eban, eta ardao bere Odol, eta orixe egiteko aalmena emon eutsen bere ikasleai munduaren azkenerarte.

Mirari arrigarria, benetan, Jaungoikoak bakarrik egin aal daiken miraria: ogi zati bat eta ardao apur bat Jaungoikoaren Gorputz eta Odol biurtzea. Arrezkerero, barriz, abade guztiak

egin aal daikee mirari arrigarri ori Jesukristoren gomutaz, Berak agindu eutsenez (Lk 22, 19).

¿Zetako jarri eban Jesukristok Eukaristia? Bear danez artu ezkerero, geure arimen janari eta Jaungoikoaren graziaren geigarri izan dakigun. Ez zan Jesukristo Eukaristian geratu geure artean egoteko bakarrik, geure arimen janari izateko baiño. «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da», dirausku Jesusek (Jn 6, 51).

Gorputzari janaria emoten dautsagunez, arimearen janaria Eukaristia da, Jesukristoren gorputza. Geure arimen janarizat egin eban Jesukristok Eukaristia.

13.- Eukaristia (II)

¿Eta zer dago ostian mezerdiko berbak esan baiño leen? Legamin bagariko ogia. ¿Eta kalizan? Ardao, ur-tanta batzukaz.

¿Zer dago ostian mezerdiko berbak esan ezkerero? Jesukristoren gorputza, bere odol, arima eta Jaungoikotasunagaz. Bere gorputza, baiña gorputz bizia, zeruan dagoana; eta, gorputz-gaz batera, bere odola, arimea eta Jaungoikotasuna be bai. Kalizan, barriz, Jesukristoren odola, bere gorputz, arima eta Jaungoikotasunagaz, guk begiakaz ogiaren eta ardaoaren antza baiño ikusi ezarren.

Jesukristo osorik dago ostia osoan, eta osorik ostiaren zati bakotxean be. Jesukristoren egoerea Eukaristian geure arimearen antzekoa da. Gure arimea gorputz osoan eta gorputzaren atal bakotxean be oso-osorik dagoanez, Jesukristo be ostia osoan eta osti-zati bakotxean be oso-osorik dago. Beraz, ostia santua bakarrik artzen dauanak, bietan (ostia ta odola) artzen dauanak aiña artzen dau: Jesukristoren gorputza, odola, arimea ta Jaungoikotasuna ezin banandu daitezke-ta.

Eukaristian artzen doguna, egiaz eta benetan, Jesukristo bera da, Jaungoiko ta gizon egiazkoa.

Gauza berezi bi daukaz Sakramentu onek, beste Sakramentuak ez daukezanak: bata, ogi ta ardaoaren aldakuntza. Beste Sakramentuetan, Bateoan esate baterako, ura ez da aldatzen, ura ur geratzen da. Baiña Eukaristian bai: leen, bere izakeraz, ogi edo ardao zana, Jesukristoren gorputz eta odol biurtzen da.

Beste gauza bat be bai, beste Sakramentuak ez daukena: beste Sakramentuetan Jesukristo bera ez dago. Esate baterako, bateatzen dauana, Jesukristo berbera ez da, abadea baiño, Jesukristoren orde eta izenez. Eukaristian, barriz, Jesukristo berbera artzen dogu,

Jesukristok berberak emoten dausku grazia edo goi-indarra.

14.- Eukaristia (III)

Ikusi genduan zer dagoan ostian eta kalizan mezerdiko berbak esan baiño leen: legamin bagariko ogi apur bat eta ardaoa ur-tanta batzukaz. Eta mezerdiko berbak esan ezker, Jesukristoren gorputza ta odola, bere arima ta Jaungoikotasunagaz. Biurtze edo aldakuntza orri, izana aldatzea esaten yako: ogiaren izanak Jesukristoren gorputzaren izana artzen daualako, eta ardaoa Jesukristoren odolaren izate biurtzen dalako.

Beraz, mezerdia ezker, ez dago ez ostian ogirik, ez kalizan ardaorik, ardaoarene itxurea, antza, usaiña eta enparadu eraskiñak egonarren. Ogia, Jesukristoren gorputz biurtu da, eta ardaoa Aren odol. Mirari arrigarria benetan, gure sinismenaren mirari arrigarria! Sinistu bearezko miraria, Trento'ko Batzar Nagusiak diñoanez. Sinisbageai gogorra be gogorra egiten yake egia ori sinistea, begiz ikusten dabena baiño besterik ez dabela sinisten esaten dabe-ta. Auxe berau jazo yaken judarrak be, Jesukristok esan eutsenean: «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Eta nik emongo dodan ogia, neure aragia da» (Jn 6, 51). Orduan, judarrak alkarri auxe itauntzen eutsoen: «¿Zelan emon daiskegu (leikigu) onek bere aragia jateko?» (Jn 6, 52). Eta Jesusek barriro be: «Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan bizi da, eta ni aregan» (Jn 6, 56). Jesusen ikasleetariko askok be auxe esan eben: «Irakaspen ori onartu-eziñezkoa da. ¿Nok onartu daike orrelakorik?» (Jn 6, 60). Jesusek guzti ori Euskaristiari buruz zirautsen.

Emen daukazue, ba, altarako Sakramentu santuan, betiko bizitza emoten dauskun Jesukristoren gorputza, zeruko janaria, gure arimen janaririk bikaiñena ta onena. Pekatu astunetik urrin ibilteko, emen, Eukaristian, biderik zuzenena, argirik argitsuena, indarrrik gogorrena.

«Neu naz argia, egia ta bizia», dirausku Jesukristok (Jn 14, 6). Artu dagigun Jesukristo gure biotzetan ainbat sarrien, zerurako bide zuzenean aurrera egin dagigun.

15.- Eukaristia (IV)

¿Zer bear da Eukaristia egiteko? Ikusi genduan Bateorako ur utsal bear dala, Sendotzarako krisma santua, orio ta balsamoz egindako naastea; Eukaristia Sakramenturako, barriz, legamin bagariko ogia, gariatz egiten dan ogia, eta ardaoa, maatsetik ataraten dan ardaoa, beste naaste bagariko ardaoa, ardao utsal.

Eukaristia egiteko erea, abadeak mezerdian esaten dauzan berbak dira. Berba oneik, bearbearrezkoak, oneixek dira: «Au, neure gorputza da», ogiarentzat; eta ardaoarentzat, «Au, neure odolaren kaliza da». Berba onekaz, Jesukristoren aal-izatez, abadeak ogia Jesukristoren gorputz biurtzen dau, eta ardaoa Jesukristoren odol. Sakramentu au egiten dabena, abadeak dira, Abadegintza Sakramentua artu dabena abade guztiak.

¿Noiz eta non artu daiteke gure Jauna? Egunoro artu daiteke Eukaristia, Bariku Santuz izan ezik; eta zenbat eta sarriago eta obeto, gure arimen janaririk bikaiñena dalako.

Mezak emon daitekezan ordu guztietan artu daiteke gure Jauna. Eta ilteko arriskuan, edozein ordutan, egunez naiz gabez.

Jaunartzeko tokia, barriz, mezea emon daiteken leku guztiak: erriko eliza nagusia, beste elizatxoak, praille-mojen elizak, baselizak. Geisorik dagoanari, etxera be eroan daitekio gure Jauna.

¿Nok artu daike gure Jauna? Bateatuta dagozan guztiak artu daikee gure Jauna, bear danez gertatuta eltzen ba' dira. Umeak zentzuna izan bear dabe; zentzun au ume batzuek zazpi urte baiño leenago izan daikee, beste batzuek, barriz, geroago (913, 1, Kan.).

16.- Eukaristia (V)

Ikusi dagigun zelan egon bear dabena gorputzak eta arimeak Eukaristia artzeko, Jaunartzeko.

Esan genduan zetako sortu eban Jesukristok Eukaristia: bear danez gertatu ezker, gure arimen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigarri izan dakigun. Bear danez artzeak, bear danez gertatuta egon bear gareala esan nai dau; eta onetarako, arimea ta gorputza gertatu bear doguz.

¿Zelan egon bear dau, ba, arimeak bear danez Jaunartzeko? Jaungoikoaren adiskidetasunean, Jaungoikoaren graziaren, pekatu astun bagarik egon bear dau arimeak bear danez Jaunartzeko. Beraz, Jaunartu orduko, aztertu egin bear dau bakotzak norbere barrua, ea pekatu

astunaren errudun dan. Eta, orrela ba´da, Autortza egin Jaunartu baiño leen, edo, autortu ezin ba´daiteke, pekatuaren damu bizia izan. Pekatu astunez Eukaristia artzen dauanak, donauste edo sakrilejio ikaragarria egiten dau, eta bere ondamendia ta eriotza iruntsiten dauz, San Paulok dirauskunez (Kor. 1ª, 11, 29). Elizeak be ba-dirausku Gorputzi egunean, Akino´tar Tomas Deunaren bidez: «Onak eta gaiztoak artzen dabe, baiña ez daroe zori bardiña: areintzat bizitza, oneintzat eriotza da».

¿Eta zelan egon bear dau gorputzak bear danez Jaunartzeko? Baraurik, gaberditik Jaunartzerarte ezertxo be jan eta edan bagarik, ura eta osakaiak izan ezik.

(OARRA: gaurregunean, ordu bete leenagorarte jan-edan daiteke zertxobait, baita ordu lauren leenagorarte be irurogei urte ezker. — Emen, beste arau batzuk etozan, gaurregunean indarrak ez dabenak.)

17.- Eukaristia (VI)

Eukaristia Sakramentua, ¿Sakramentu baiño ez ete-da? Eukaristia ez da Sakramentu bakarrik, Lege Barrian dogun betiko oparia be ba-da, eta, oparia danez, Mesa santua deritxo. Gure erlejiñoko gauzarik nagusiena Mezako oparia da.

Diran guztiak, Jaungoikoak egin eta Berarentzat izan dira egiñak, Berari aintza ta aintza emoteko. Berak egin dauz zeru-lurreko gauza guztiak, abere ta pisti guztiak, gizonezko ta andrazko guztiak. Personea, bera dan eta berak daukan guztiaz, Jaungoikoarena da: dana Jaunagandik datorkio Eta izatea bera bakarrik ez, baita izaten irautea be, Jainkoagandik datorkio, Beroni zor dautso. Orrela izan ezker, personearen leenengo eginbearra Jaungoikoari bere burua eskiñi ta makurtzea izan bear da: buru-makurtze ta eskintza oni deritxo gurtza. Eta Jaungoikoa ondasun guztien iturri dan ezker, eskerrak zor dautsaguz, eta, ondasun oneik lortzeko, Berari eskatu bear dautsaguz. Iru gauza daroaz, ba, gurtzak beragaz: gurtza, eskergintza eta eskaria.

Oparitzarako gauza bi bear dira: bata ezkutua, ikusten ez dana, espiritu-eskintza; bestea espiritu-eskintzaren ezaugarria. Oparia Jaungoikoari bakarrik eskiñi daitekio; eta, santuen izenez egiten doguzan opariak be, santuen bitartez Jaungoikoari eskintzen dautsaguz.

Gizona izan danetik, beti izan da oparia. Biblian ikusten doguz Abel´en oparia, Melkisedek´en oparia, Abraham´en oparia, Moises´en oparia. Opari oneitan, abereak, akerrak, zeko-

rrak, eta beiak il eta Jaungoikoari eskintzen eutsoezan, euren pekatuen zorrak ordaintzeko. Baiña opari areik gauza txikiak ziran pekatuaren errua kentzeko. Gurutzeko opariak etorri bear izan eban. Jesukristo bera, Jaungoikoaren Semea, etorri zan, gurutzean geugaitik ilteko, gure pekatuen zorra ordaintzeko.

Eta auxe berau egiten da egunoro Meza santuan: gurutzeko oparia barrizten da. Gurutzean, Jesukristok bere odola isuri eban; Mezatan ez da isurten. Onetantxe dago Kalbarioko ta Mezako aldea edo ezbardintasuna: orain ez dala odolik isurten, ezta Jesukristok be ez daua la neke ta oiñazerik izaten.

¿Zer da, ba, Meza santua? Gure altaretan, ogi ta ardaoaren itxurapean, Gurutzeko opariaren gomutaz egiten dan Jesukristoren gorputz eta odol oparia da Meza santua.

Ez da Mezea, norbaitzuek esaten dabenez, abaderen batek asmatutakoa, ezta Gotzaiñak, edo Aita Santuak asmatutakoa be. Jesukristok berberak sortu euskun, bere maitasun arrigariaren agiri barri au. Jesukristok, azken-aparitan, agiriko oparia egin eban eta bere Elizeari itzi eutsan, Onen bidez Gurutzeko odolezko oparia, pekatuen ordaingarri lez, gizaldien azkennerarte betikotu aal izan zeiten, «Au, neure gomutaz egizue», esanez (Lk 22, 19). Beraz, Mezatan, Jesukristok irauten dau oparigille leenena ta nagusia izaten. «Kristok berak eskintzen dautso bere burua Aita Jaungoikoari», diño San Agustin´ek.

Jesukristok Eguen santuz, azken-aparitan, ogi ta ardao bere Gorputz eta Odol biurtu eta oparizat eskiñiz, Gurutzeko eriotza aurretiaz iragarri ta iruditu ebazanez, Mezatan be orixe berori egiñez, Gurutzeko eriotza ta oparia barriztu egiten dauz.

Beraz, Mezako oparigille nagusia, baiña ezkutua, Jesukristo berbera da; oparigille agiria, barriz, Jesukristoren ordezkoa: abadea.

18.- Eukaristia (VII)

Gaur, esan dagigun zerbait Meza santua zetako dan.

Leenen, Jaungoikoa goratu eta Berari eskerrak emoteko, eta Gurutzeko Opariaren irabaziak eta ondorenak geuganatzeko da Meza santua. Opariz, Meza santuak, Gurutzeko opari berbera dan ezker, ez dauko negurririk, ez mugarik. Gure pekatuen zor guztiak ordaintzeko eta Jaungoikoari, Berak emoten dauskuzan ondasunakaitik, eskerrak emoteko, Meza santua da biderik onena. Beste gure egintza on guztiak oso txikiak eta kaskarrak dira, benetan, Meza baten ondoan. ¿Zegaitik? Mezearen balioa negurribagea dalako. ¿Zegaitik negurribagea? Mezan, zeruko Aitari beronen Seme berbera eskintzen dautsagulako. Orrexegaitik

deritxo Jainko-gurtzazko oparia. Opari santua, benetan, sakramentuzko eriotzaz. Seme Jaungoikoa ilten dan oparia! Jaungoikoarentzat oparirik begikoena gaiñera, eta ezin emon daike-ogu gurtza obarik, ezta Aingeru ta Santu guztien gurtzak eskiñirik be.

Gero, ondasun asko ta bikaiñiak be emoten dauskuz gure Jaungoikoak. Meza santuaren bitartez —Ireneo santuak diñoanez—, ederto ordaindu geikioz Jaunari zor dautsaguzan eskeron guztiak. Mezearen bitartez egin daikegu gure esker-gintzarik onena ta baliotsuena.

¿Gure pekatuak gogor estutzen gaituela? Begira Trento´ko Batzar Nagusiak diñoana: «Mezako opariak ba-dauko pekatuen zorrak ordaintzeko aalmena».

Mezea da Jaungoikoari milla mesede eskatzeko biderik zuzenena. Olantxe diño Elizako jakitun eta irakasleak: Mezatan eskatzen doguzan mesede guztiak Jaunak emon egiten dauskuzala, geure onerako ba´dira, diño Jeronimo santuak; eta ori bakarrik ez, sarritan baita eskatu bagariko mesedeak be.

¿Eta norentzat izango ete-da Mezearen balio guzti ori? Guztientzat, Eliza guztiaren onerako, eliztar il eta bizien irabazitarako, baiña Mezea entzuten dagozanentzat batez be. Beste frutua, frutu berezia, Mezea eskintzen edo ataraten dauanarentzat, edo emoten dan asmoen alde. Eta fruturik bereziena, Mezea emoten dauan abadearentzat.

Mezeak ainbeste balio izan ezker, ¿ona izango ete-da Mezak ataratea Garbitokiko arimentzat be? Gauza ona bakarrik ez, guztiz ona be bai benetan, areik eurak euren alde ezertxo be ezin egin daikee-ta; guk Mezea arein alde eskiñiz, oparirik ordaingarriena eskintzen dau-tzagu Jaunari. Orretako, norbera ilten danean mezak ataratea beste batzuen eskuetan itzi baiño obe da norbera bizi dala ataratea. Orrela, bizitzaldian ataratako Mezen ondasunak oso-osorik eltzen yakez ilten diranean, garbitokira joaten diranean edo joaten ba´dira.

19.- Autortza (I)

Sakramentu onek izena Penitentzia be ba-dau. Latiñezko Penitentzia berbeak gauza bi adierazoten dauz: Pekatuen damua eta Autortza Sakramentua; eta, edozela be, pekatuen damuak ikustekorik (zer ikusi) aundia dau Autortza Sakramentua, pekatuak parkatzeko.

Sakramentu oni Autortza esaten yako, Sakramentu onetan gauzarik agiriena autor-entzuleari norbere pekatuak agertzea dalako. Baiña, Sakramentu onetan gure pekatuak parkatzeko bear-bearrezkoa, pekatuen damua da.

Azken era onetan, pekatuen damua onoinen bat be ba-da: egindako pekatuen gorrotoa ta

geiago ez egiteko asmoa eta aurrerantzean zuzen bizi izateko gogoia izatea.

Pekatuen damu onetan beste gogo-egintza batzuk be sartzen dira: pekatuen gorrotoa, Jaungoikoari egindako iraiñaren damua, pekatuak ariman ezarritako loi-lorratza kentzeko naia, Jaungoikoari pekatuen zorra ordaintzeko naia, eta aurrerantzean geiago pekatuak ez egiteko asmoa. Laburkiro, iru egite oneitan geienez sartzen dira esan doguzan gogo-egintza oneik: damua, pekatuen gorrotoa eta pekatuak geiago ez egiteko asmoa.

Damua: pekatu egiñagaitik damu izatea, min izatea. Pekatuen edozein damu ez, orrai-tiño: pekatua Jaungoikoaren naibagegarri dan ezker, ari buruzko damu ta min izatea baiño. Damu onek, nai ta nai ez, Jaungoikoaganako maitasunetik sortua izan bear dau; maitasuna bear dau eragille, zirikatzaile, maitasun oso-osoa ez ba´da be. Olakoxea izan bear dau, ba, pekatuen damua: Jaungoiko aundia iraindu ta naibagetu dogulako damua.

Baiña egiatzko damua ez da bera bakarrik ibiltzen; benetako damuak an izaten dau bere ondoan pekatuen gorroto bizia ta geiago alakorik ez egiteko asmo sendoa be.

¿Eta bearrezkoa izango ete-da guztientzat Pekatuen damua edo Penitentzia? Pekatu astu-nean jausi danarentzat bearrezkoa da Penitentzia, Autorkuntza-barruan, baita Autortzatik kanpo be. Izan be, pekatu egin dauanari, ez yako damurik baga iñoiz be pekatua parkatzen. «Damutzen ez ba´zaree, bardin-bardin galduko zaree guztiok», dirausku Jesukristok (Lc 13, 3).

¿Zetako ete-da, ba, Penitentzia? Jaungoikoaren legea ausiz, gaiztakeria itsusi ta lotsagarria egiten dogu; gaiztakeria oni deritxo pekatua. Eta pekatu astuna ba´da, beragaz dakar zerurako eskubidea galdu eta Jaunagandik urrinduta oiñazetan betiko egon-bearra. Eta, maitasun-damuz eta autortza on baten bidez barru Jaunaren grazia jaristean, pekatua ta pekatuari dagokiozan neke ta oiñazeak parkatu egiten dauskuz Jaunak betiko. Baiña, ala dala be, oraindiño pekatuen lorratzak geratzen dira: mundu onetan edo garbitokian izan bear doguzan nekeak; gaiñera, pekatu eginda gero, espirituz makalago eta txarrerako makurtuago eginda geratzen gara. Beraz, nekeok ordaintzeko eta barru bide zuzenean zear joateko bear diran indarrak izateko, nekeak artu bear doguz, penitentzia egin bear dogu.

Nekegarri onek bitarikoak dira: arimeari eta gorputzari buruzkoak. Arimeari dagokioz-nak, otoitza eta Jaungoikoa goratzea: esate baterako, Jaunartu, Mezea entzun, egun-barruan otoitz laburrak egin, eta orretarikoak. Gorputzari dagokioz-nak, barriz, baraua ta limosnea batez be. Barauaren barruan dago negurria baiño zerbait gutxiago jan-edatea, miiña isilik eukitea, jolas batzuk iztea, orra edo ara ez joatea, eta orretarikoak.

20.- Autortza (II)

¿Zetako da Autortza Sakramentua? Bateo-ostean egindako pekatuak parkatzeko da Autortza deritxon Sakramentua.

Jatorrizko pekatua eta beste edozein pekatu parkatzeko, Bateoa dogu; baiña, Bateoa bein baiño ezin artu daiteken ezkerro, bateatu ta gero pekatuen baten jausi ezkerro, Autortza da pekatua parkatzeko ta Jaungoikoaren adiskidetasuna barriro lortzeko bidea.

¿Nok sortu eban Autortza Sakramentua? Beste Sakramentu guztiak lez, Jesukristo bera izan zan Autortza sortu ta jarri ebana, illen artetik barriro biztu zanean. Aldi onetan emon eutsen Apostolui ta onein oiñordekoai pekatuak parkatzeko naiz lotzeko eskubidea. Olantxe esan eutsen: «Zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuta geratuko yakez; eta zuek pekatuak parkatu ez dagiezuezanai, parkatu bagarik geratuko yakez» (Jn 20, 23). Beste egun batzuk leenago be esan eutsen Jesusek Apostolui: «Benetan dirautsuet: lurrean lotu dagizuen edozer, zeruan be lotuta geratuko da; eta lurrean askatu dagizuen edozer, zeruan be askatuta geratuko da» (Mt 18, 18).

Sakramentu onen indarrrik aundiena —pekatuak parkatzekoa—, abadeak esaten dauzan berbetan dago, parkamen-berbetan.

Auziaren antzera jarri eban Jesukristok Autortza. Baiña Sakramentu onetan norbera izaten da norbere pekatuak esaten dauzana, parkamen-eske. Eta autor-entzuleak, Kristok emondako eskubidez, epaille lez pekatu areik entzun eta parkatu egiten dauz, parkamen-berbak esanaz batera.

¿Eta zeintzuk pekatu parkatzen dira Autortzaren bidez? Edozein pekatu, naiz txikiak izan naiz astunak. Eta pekatu guztiak, diranak dirala, asko ta ikaragarrienak izanda be, parkatzeko gertu dago Jaungoikoa, pekatuok biotzeko damuz autortzen ba´doguz. Entzun, bestela, San Paulori: «Pekatu ugari izan zanean, ugariago sortu zan grazia» (Erm 5, 20).

Ba-dagoz, orraitifio, pekatu astun eta ikaragarrienak edozein autor-entzulek ezin parkatu daikezanak. Parkatzeko aalmen ori Aita Santuak eta Gotzaiñak bakarrik dabe, eta eurokandik jadetsi daikee abadeak orretarako baimena. ¿Eta zegaitik dabe aalmen ori Aita Santuak eta Gotzaiñak soillik? Pekatu areik egitetik kristauak arduratsuago aldendu daitezcan. Baiña... itzi dagigun beste egun baterako pekatu onei buruz berba egitea.

21.- Autortza (III)

Sakramentuak azaltzen asi gintzazanean, Sakramentu izateko, iru gauza bear dirala ikusi genduan: Sakramentu-gaia, ezaugarri agiria, eta emoillea (Sakramentua emoten dauana). Iru gauzok daukaz Autortza Sakramentuak be: Sakramentu-gaia: autortzen danaren pekatuak eta bere pekatuen damua, pekatuak esatea edo agertzea, eta ordaiña. Ezaugarri agiria, autor-entzuleak esaten dauzan berbak pekatuen parkamena emoten dauanean. Autortza-emoillea, barriz, abadea, Jesukristoren eskubidearen bidez.

Aurreko igandean esan genduan, ba-dakigu Sakramentu au nortzuek artu daikeen: bateatuta gero pekatuen bat egin daben guztiak artu daikee Autortza.

Eta Autortza ondo egiteko, ¿zenbat gauza bear dira? Bost gauza: azterketa, biotzeko damua, ontzeko asmoa, agozko autorkuntza, eta txarto egifien ordaiña.

¿Zelan egiten da azterketa? Norbere barruan sartu, gogoa batu eta Espiritu Santuaren argiz, gogapenez, berbaz eta egitez egin doguzan gaiztakeri guztiak gogora ekarteko aalegiñak egifiek. Orixe da azterketa. Ori egiteko, barriz, Jaunari laguntza eskatu bear yako. Toki illunean zerbait aurkitzeko ta idoroteko, argi-bearra izaten dogu, argi biziagoa toki illunagoa izan ezkerro.

Sarritan, personearen gogoa, personearen barrua, ala-olako arazo askotan eta griña ta oitura txarretan sartuta dagoanaren barrua, eta baita urduri ta artega, biotzeko egarriz bizi diranen barrua, toki illuna izaten da benetan, ez da pekatuarek be ikusten. “Iñor ez dot il, ezer ez dot ostu... ¿zelan edo zetan izango naz pekatari?” Eta Adan´egandik jaio gintzazanok, guztiok gara pekatari, gutxitan edo askotan, gai aundietan edo txikietan. «Pekaturik ez dogula ba´diñogu, gure buruari iruzur egiten dautsagu eta egia guban ez dago», dirausku San Joan Ebanjelariak (Jn 1ª, 1, 8).

Gure pekatuak argiro ikusteko, Espiritu Santuari ta Andra Mariari argia eskatu, aztertu orduan barruko sokondoak, eta agertuko dira pekatuak.

Gero, Jaungoikoaren eta gure Eliza Deunaren aginduak eta norbera ibili dan tokiak eta izan dauzan arazoak gogora ekarri. Ikusi ea leen egindako pekatuen bat oraindiño ez dogun autortu, pekatu astun guztiak autortu-bearra dogu-ta.

Gauzak, barriz, diran lez ikusi, ez geuk gura geukezanez, benetan diranez baiño. ¿Agindu au ausi ete-dot? ¿Pekatu onetan jausi ete-naz? ¿Zenbat bidar? ¿Pekatu berezirik edo apartekorik egin ete-dot? Domeka ta jaietan, premiña bagarik, lan luzea egitea pekatu astuna da:

baiña, orrezaz gaiñera, besteri jarraibide txarra emon ba'dautsat, pekatu bikotxa izango da; beraz, autortzaldian ori gogoan izan bear da.

Azkenez, ez dago pekatu ariñak autortu-bearrik, eta batzuk esan eta besteak agertu bagarik itzi geikez. Bearrezkoa ez ba'da be, ona da pekatu ariñak be agertzea.

22.- Autortza (IV)

Leengoan, azterketa zelan egiten zan ikusi genduan. Jo dagigun aurrera.

Biotzeko damua. ¿Zer da damua? Egindako pekatuen gorrotoa eta geiago ez egiteko asmoa emoten dauskun biotz-samintasuna da damua.

Pekatuena parkamena jaristeko ta autortza ondo egiteko bearrezkoena, damua da; damu bagarik, pekatuak ezin parkatu daitezke. «Damutzen ez ba'zaree, bardin-bardin galduko zaree guztiok», dirausku Jesukristok (Lk 13, 3).

Iru gauza doguz damuan: 1) egindako pekatuen gorrotoa, iguifia, egin ez ba'genduz nai izatea, gogo txarrez begiratzea. 2) Biotz-samintasuna: pekatu egin dogulako, tamal izatea, naibage izatea. 3) Geiago ez egiteko asmoa.

Gaiñera, benetako damuak biotzekoa, pekatu guztiena eta zerutarra izan bear dau:

1) Biotzekoa, barrukoa, gogokoa, eta ez azalekoa bakarrik. «Neure Jesukristo Jauna» miñez bakarrik ez da naikoa, biotzez esaten ez ba'dogu. 2) Pekatu guztien damua: ez da naikoa pekatu batzuen damua bakarrik, pekatu astun guztiena baiño. 3) Damu zerutarra: esate baterako, pekatuaz Jaungoikoaren adiskidetasuna galdu edo inpernua irabazi dogulako, tamal izatea.

¿Zenbat eratakoa da biotzeko damua? Bitarikoa: maitasun-damua eta bildur-damua. ¿Zer da maitasun-damua? On utsa ta guztiz maitagarria dan Jaungoikoa iraindu dogulako, biotzeko samintasuna izatea, autortu, ondu eta oben-nekea beteteko asmoz. Maitasun-damua egiteko otoiiza, barriz, «Neure Jesukristo Jauna» otoiiza da.

¿Eta zer da bildur-damua? Pekatuagaitik, inpernua irabazi eta zerua galdu dogulako, biotz-samintasuna izatea, autortu, ondu ta oben-nekea beteteko asmoz.

Biotzeko damu biotarik onena —jakifia—, leenengoa da, maitasun-damua: bere bitartez, edo gero autortzeko asmoz, gure pekatu guztiak berealaxe parkatzen yakuz, autortu aurretik be.

Azkenez, ¿zer da asmoa? Pekaturik bein be ez egiteko eta pekatuak bide guztietatik aldentzeko erabagi sendoa da asmoa.

23.- Autortza (V)

Esan genduan leengoan, autortza ondo egiteko, lau gauza bear dirala: pekatuen azterketa, biotzeko damua, erabagia edo asmoa, agozko autorkuntza eta oben-nekea edo ordaiña. Ikusi doguz zer diran leenengo irurak. Azaldu dagigun orain agozko autorkuntza.

¿Zer da agozko autorkuntza? Pekatu astun guztiak, penitentzi edo oben-nekea beteteko asmoz, guzur eta naaste bagarik, norberak dakizanez, autor-entzuleari esatea da agozko autorkuntza.

Auzi edo epaiketaren antzera jarri eban Jesukristok Autortza. Epaiketan, iñok salatzen gaitu; autortzan, norberak salatzen dau norbere burua. Epaiketan, zigorra ezarteko asmoz salatzen dira gaiztakeriak; autortzan, parkamena jaristeko gogoz. Autor-entzulearen ondoan jarririk eta, apalik eta damuz, geure pekatuak autortzen doguz; eta autor-entzuleak, Jesukristok emondako eskubidez, auzi-epaille lez, pekatuok epaitu ta parkatu egiten dauskuz.

Pekatu guztiak agertu bear dirala esan dogu, gogoratzen diranak beintzat; eta, zenbat diran jakiten ez ba'da, gutxi gora-beera onenbeste.

¿Eta pekatu ariñak be autortzera beartuta ete-gagoz? Ez gagoz pekatu ariñak, txikiak, autortzera beartuta; ona da, orraitifio, ariñak be autortzea, geien egiten doguzanak, beste pekatuen buru ta sustrai izaten diranak batez be, astiro-astiro pekatu astunetara eroaten gaitue-ta.

Emen ondo litzake gauza bat jakitea: pekatu ariñakaz gure Jauna artzeko, ez dala bearrezkoa Jaunartu aurretik Autortza egitea; pekatu ariñak autortzatik kanpo be parkatu daitezke-ta. Esate baterako, «Neure Jesukristo Jauna» esanaz, ur bedeinkatuaz, Mezea entzunaz, «Gure Aita» esanaz, eta abar; baiña beti be Jaungoikoari parka eskatuz.

Azkenez, ¿noiz egongo gara autortzeko beartuta? Ilteko arriskuan, eta Jauna artu baiño leen pekatu astunen bat egin ezkeru (alan be, esan genduan leengo bate(ta)n, autortu ezin aal izan ezkeru, biotzeko damua —maitasun-damua— naikoa dala, beragaz batera autortzeko asmoa izanik).

24.- Autortza (VI)

Autortza Sakramentua azaltzen diardugu.

¿Zer da agozko autorkuntza? Pekatu astun guztiak, penitentzi edo oben-nekea beteteko asmoz, guzur eta naaste bagarik, norberak dakizan lez, autor-entzuleari agertzea da agozko autorkuntza.

Autorkuntza onek, ona izateko, iru gauza daroaz beragaz: osoa, egiazkoa ta apala izan daitela.

1) Osoa, pekatu astun guztiak, naiz azkenez autortu gintzazanetarikoak dirala, naiz leen aaztuta edo lotsaz agertu bagarik itzitakoak dirala. Baita agindu bakotxa zenbat bidar ausi dogun be; eta, zenbat diran zeatz jakin ezean, gutxi gora-beera onenbeste.

Baita iñori eragindako pekatuak be sartu bear dira, geure erruz edo geure jokabide gaiztoaren bidez, beste batzui eragindako pekatuak be bai.

2) Egiazkoa, norberak dakizanez, guzur eta naaste bagarik, ez gutxituta ez geituta, Jaungoikoaren aurrean dagozanez baiño.

3) Eta autorkuntzak apala izan bear dau, apala.

Gero, batzuetan, egitada bataz, agindu bi edo geiago austen dira. Esate baterako, elizan ostuten ba´da, ez da naikoa ostu egin dala esatea, elizan ostu dala baiño. ¿Zegaitik? Elizan ostu dauanak, pekatu bikotxa egiten daualako: bat, zazpigarren aginduaren aurka; bestea, bigarrenaren aurka. Guzurra esatea pekatu ariña da; baiña, guzurra esatetik, norbaiti kalte astuna ba´letorkio, geigarri orrek pekatua ariñetik astunera aldatuko leuke.

¿Eta pekatu astunen bat, aaztuta autortu bagarik izten ba´da, ¿zer egin bear izango ete da? Pekatu ori leenengo autorkuntzan agertu.

Azkenez, ¿nor autortzen da dongaro? Pekatu astunen bat lotsaz autortu bagarik izten dauana, naiz damurik edo ontzeko ta oben-nekea beteteko asmorik ez daukana, dongaro autortzen da. Orrela autortzen danari ez yako pekatu rik parkatzen, eta beste pekatu ikaragarri bat egiten dau gaiñera: donauste edo sakrilejio-pekata. Ba-dira lotsaz pekatu astunen bat agertu bagarik izten dabenak; alakorik! Gure pekatuak autor-entzuleari autortuaz, Jesukristori autortzen dautsaguz, eta autor-entzuleak, autorkuntzan entzundako pekatuak, ezegaitik be ezin esan daikeoz iñori; autorkuntzan entzundako pekatuen bat norbaiti esan baiño leen itziko dau —itzi bear leuke— autor-entzuleak bere burua lau zati egiten!

Ez izan, ba, ezela be, egindako pekatu astunak autor-entzuleari esateko lotsarik.

25.- Autortza (VII)

¿Nor da Autortza entzun daikena, edo nor izan daiteke autor-entzule? Abadegintza Sakramentua artu dauana bakarrik. Baiña, Abadegintza Sakramentuaz gaiñera, Gotzaiñaren baimena bear dau autor-entzuleak autorkuntzak entzuteko.

Alan be, batzuetan, autor-entzuleak ezin parkatu daikez pekatu guztiak. Orrelako pekatuak parkatzeko eskubidea, Aita Santuak eta Gotzaiñak eurakanduta dauke, eta eurak soillik parkatu daikeez. Pekatu orreik astunenak eta ikaragarrienak dira: euron parkamena jaristea gaitz dala konturaturik, kristuak pekatuok egitetik arduratsuago aldendu daitezcan jarri dabez euren ardurapean. Eriotz-aldian, orraitioño, edozein autor-entzulek parkatu daikez aitatu doguzan pekatuok be.

¿Eta ezer esan aal izango ete-dautso autor-entzuleak beste norbaiti berak entzundako pekatuetatik? Ezegaitik be ez, leengo egunean esan neutsuenez. Gure pekatuak autor-entzuleari autortuz, Jesukristori autortzen dautsaguz, eta autor-entzuleak ezegaitik be ezin iñori agertu daikeoz, ez berbaz, ez idazkiz, ez kiñuz, ez beste edozela be; ezta autortzan entzun dauanetik bere burua gordeteko zerbait egin be; ezta autortu dauanari, ordurarte ontzat eta adiskidetzat izan ba´dau be, gero gogo txarrez edo begi txarrez begiratu be. Iñoiz be ezer entzun ez ba´leutso lez jarraitu bear dau autor-entzuleak.

Esate baterako: bere etxeko morroiak ostu egiten dautsala autorkuntzan jakiten ba´dau, morroi ori ezin bialdu daike etxetik, ezta ari etxeko giltzak kendu be, ezta aurpegi txarra agertu be, eta abar.

Eta ezer esan-ezin au ez da autor-entzulearena bakarrik, beste edonok be zerbait entzuten ba´dautso autortzen danari beronen autorkuntza egiten diarduanean, ezin esan daike entzun dauanetik ezertxo be, eta, autor-entzulea lez, ixilik eukiteko guztiz beartuta dago.

26.- Autortza (VIII)

Ikusi dagigun gaurko gaia: ordaiña.

¿Zer da ordaiña? Autor-entzuleak ezarten dauskun oben-neke edo penitentzia da ordaiña. Norbaiti egindako okerra zuzentzeari deritxo ordaiña. Artzekodunari, zor aïña biurtzen dau-tsanak, ordaindu egiten dautso. Nik beste bati kalte bat egin edo gauza bat erosten ba´dautsat, diruaz edo beste edozela zorra kitatzeko, kituan jarteko, ordaindu egin bear izango dautsat. Bardin edo antzera Jaungoikoari be: pekatuaz egiten dautsagun iraiña kentzeko, autor-entzuleak ezarten dauskun oben-neke edo penitentziaz ordaintzen dautsagu.

¿Zetako da, ba, oben-nekea edo autor-entzuleak ezarten dauskun penitentzia? Geure peka-tuak dirala-ta, Jaungoikoari zor dautsagun aldiko nekea ordaintzeko da oben-nekea. Jaungoi-koaren legea ausiz, gaiztakeri itsusia egiten dogu pekatariok Jaunaren aurka; gaiztakeri orri deritxo pekatua.

Pekatu au, astuna edo ariña izan daiteke. Pekatu astunak, beragaz dakar zerurako eskubi-dea galtzea eta inpermuko oiñaze-arteana betiraunez egon-bearra. Autorkuntza on baten bidez, barriro Jaunagana biurtzean, pekatuari dagokiozan neke ta oiñazeak Jaunak betiko parkatzen dauskuz.

Baiña, alan be, gure pekatu ta gaiztakerien lorratz bi geratzen yakuz. Leenengoa: betiko oiñazeen orde, emen edo Garbitokian eroan bear doguzan zigor eta nekeak; betikoak ez, aldikoak baiño, noizbait amaituko diranak. Bigarren lorratza: pekatu eginda gero, gure griñak urduriago ta biziago, gogoa makalago eta, beraz, gaiztakerirako makurrago geratzen gara.

Lorratz bi oneik dirala-ta, autor-entzuleak oben-nekea ezarri bear dausku, leen egindako pekatu-ordaintzat eta barriro pekatuak ez egiteko sendagarritzat.

¿Eta zelako pekatua egiten dau oben-nekea bete bagarik izten dauanak? Oben-nekea bete bagarik izten dauanak, oben-neke ori astuna izan ezkerro, pekatu astuna egiten dau; oben-nekea ariña ba´da, barriz, pekatu ariña.

Beraz, oben-nekea astuna edo ariña izan daiteke; adibidez, Mezea entzutea, barau egitea, Agurtza edo Errosario santua esatea eta onein antzekoak, oben-neke astunak dira. Ariñak, barriz, iru "Agur Mari", "Gure Aita" bat edo beste, eta antzekoak.

Autor-entzuleak ezarritako oben-neke astuna ezarri ta bete bagarik izten dauanak, pekatu astuna egiten dau; oben-neke ariña bete bagarik izten dauanak, barriz, pekatu ariña.

Parkamenak

¿Zer dira Parkamenak? Bizitza onetan edo gero, garbitokian, pekatuakaitik ordaindu bear dan neke-zorra garbitzeko, Elizeak emoten dauskuzan graziak dira Parkamenak.

Jaungoikoaren legea ausiz, gure arimeari gaitz bi ezarten yakozala esan genduan: oben-errua eta oben-nekea. Maitasun-damuz («Neure Jesukristo Jauna» biotzez esanaz) edo autor-kuntza on baten bidez parkatzen yakuz oben-errua eta pekatuari dagokion betiko nekea.

Baiña, betiko nekea parkatuta be, naiz bizitza onetan naiz gero garbitokian, aldiko neke-zorra garbitu-bearra geratzen yaku geienetan. Eta auxe, aldiko neke-zor au ordaintzeko, emoten dauskuz Elizeak parkamenak.

¿Eta zelan parkatzen dauz, ba, Elizeak oben-neke zorrak? Sinismena dogun guztiok gor-putz bat egiten dogu, Gorputz Mistiko bat, Jesukristo Jauna buru dala; etxe bereko umeak gara. Elizea, barriz, Jesukristo, Andra Mari eta santu guztien goi-ondasunen eta irabazien jabe ta Ama. Elizea da goi-ondasunok zabaltzen dauskuzana, emoten dauskuzana, eurokaz Jaunari dautsagun zorra ordaintzeko, kitatzeko. Parkamenok mundu onetan bizi gareanok bakarrik irabazi daikeguz; baiña garbitokiko arimai be ezarri daikeoeguz, geienetan beintzat, ainbat lasterren zeruratu daitezana.

¿Zenbat eratakoak dira parkamenak? Parkamena osoa edo zatika irabazi daikegu. Parka-men osoaz oben-zor guztia ordaintzen dogu; norbait, parkamen oso au irabazita bereala ilgo ba´litz, zuzen-zuzen joango litzake zerura, garbitokitik igaro bagarik. Zatika irabazten dan parkamenaz ez yaku oben-neke osoa parkatzen, zati bat baiño; adibidez, irureun eguneko parkamenak, eunekoak, urtekoak, eta abar.

Azkenez, ¿zelan irabazten dira parkamenak? Iru gauza bear dira parkamenak irabazteko: parkamenak irabazteko asmoa, orretarako aginduta dagoana bete, eta Jaungoikoaren grazian egin. Parkamenak irabazteko asmoa eta Jaungoikoaren grazian egotea, erraza da ulertzen. Aginduta dagoana betetea, barriz, geienetan zortzi egunen barruan autorkuntza egin, Jau-nartu, eta Aita Santuaren asmoen alde otoitz egitea izaten da.

Baiña, ¿zelan irabazi? Otoitz eta egintza onakaz, otoitz eta egintza orreik parkamenak ezarrita ba´daukez; adibidez, Mezea entzunez, otoitz labur edo jakulatoriak esanaz (esate bate-rako, «Jesus, Maria, Jose» esanaz, zazpi urteko parkamenak irabazten dira), eta beste milla eratara, Eliz-liburuetan aurkitu daikezuenez. Aitatu doguzan urte orreik, parkamen orrekaz leenengo aldietan Elizeak ezarten ebazan penitenti-egun edo urte aïña zor ordaindu daikegula adierazoten dabe.

27.- Azken-Igurtzia (1)

Gure Eliza Deunaren 5'garren Sakramentua, Azken-Igurtzia da.

Gure bizitzako burrukaldirik gogorrena, eriotz-aldiko burrukea da. Orduantxe egiten dauz deabruak aaleginiñak aundienak il-zorian dagoan arimea bere atzaperretan jausteko: ba-daki, ondotoxo be, une aretan berea ba'da, beti-betiko berea izango dana-ta.

Burruka ori irabazi ta betiko bizitzan sartzeko daukagu Azken-Igurtzia. Geisorik txarto dagoana Abadearen otoitz eta orio-igurtziz sendotzeko da, ba, Azken-igurtzia. (Gaurregunean, geisorik dagoan edonori emon daitekio. 1004, 1, Kan.)

¿Nok sortu eban Azken-Igurtzia? Jesukristo gure Jaunak, beste Sakramentu guztiak lez. Santiagok, bere idazkian, auxe diño: «¿Zuetarikoren bat geisorik al-dago? Elizearen abadeai dei egin dagitsela, eta oneik aren alde otoitz egin dagiela, Jaunaren izenean orioaz geisoa igurtzirik» (St 5, 14).

¿Zetako da, ba, Azken-Igurtzia? Lau gauzatarako. Lenen: geisoari Jaungoikoaren grazia geitzeko. Mundu onetatik garbiago urten ezkerro, gutxiago garbitu bear izango doguz gure pekatu-zorrak garbitokian.

Bigarren: bizitzaldian egindako orbanak eta pekatu arriñak kentzeko. Pekatutan askotan jausten oituten danak, pekatuak zaletasuna ta makurtasuna izaten dauz; onerako, barriz, nagi, gogo-epel eta makal geratzen da, gorputza geisoaldi baten ostean geratzen danez. Azken-Igurtziak, pekatuak makurtasun ori eta onerako nagi ori, kendu ta aldendu egiten dauz, onerako bizkortasuna ta barruko poza emonez.

Irugarren: baita arerioaren tentaldia garaitzeko eta arimeari indarra emoteko be ba-da Azken-Igurtzia. Guztiok zirikatzen gaitu deabruak, baiña amorratuago bizitzako azkenetan dagozanak. Ba-daki arek, geisoari buruz aldi gutxi daukana, astirik galtzeko ez daukana, eta geiso arentzako betiko zoriona edo betiko neke ta oiñazea ondo edo txarto amaitze orretan dagoana. Beraz, orduantxe bear dauz arimeak, iñoiz baiño geiago, Jaungoikoaren grazia ta laguntasuna bere arerioa azpiratzeko, eta Jaunaren laguntasun ori Azken-Igurtziaren bidez artzen dau.

(1) Gaurregunean, Sakramentu oni "Geisoen Igurtzia" deritxo.

Laugarren: arimearen onerako ba'da, gorputzari osasuna emoteko be ba-da Azken-Igurtzia. Orixe irakasten dausku Elizeak. Gorputz-osasun ori arimeari kaltegarri ez ba'yako, arimearen onerako ba'da, gorputzeko osasuna be emoten dausku Sakramentu onek.

Ikusi dogu, ba, zetako dan Azken-Igurtzia.

28.- Goi-maitasuna

Gaur, goi-maitasun eguna da: ez daukenai, beartsuai, laguntzeko eguna. Au dala-ta, gure Gotzain jaunak oraintxe irakurriko dautsuedan idazkia egin dau, gaur Bizkai'ko eliza guztietan irakurteko. Ona emen:

Beti izan da Bizkaia karitate-zalea. Ez daukenentzat eskuzabalak izan zaitezela, ez da zuei gauza barriren bat eskatzea: Bizkaia'k beti onartu dauz beartsuak-eta; agirian dagoz ainbat geisotegi ta beartsu-etxe, zuen aurretikoen goimaitasuna agertzen.

Mirarituta (arrituta) geratuko litzakez asko ta asko, Bizkai'ko semeok beartsuen alde egiten dozuezan limosnen barri izango ba'lebe. ¿Ez ete-da orregaitik izango, Jaungoikoak Bizkaia'ri orrenbeste aberastasun emoten dautsala, beronen eskuzabaltasun ori saritzeko? Bai, urrean.

Kristau-sinismena, maitasun-iturri bakarra

Baiña gure Elizbarruti au ez litzake onen eskuzabala izango kristau-gogo indarra ez ba'leuke. Kristau-sinismenak bakarrik egin daitez orrenbesterañoko errukizko egintzak. Kristau zintzoa danak, beartsu-bat ikusten dauanean, Jesukristo berbera ikusten dau, «burua non ezarri ez eukan» Jesukristo (Lk 9, 58). Beartsuai buruz esan ebazan Jesukristok urrengo berbok: «Benetan dirautsuet: nire anai oneitariko apalenaren alde egin dozuena, neuri egin daustazue» (Mt 25, 40).

Kristauak ba-daki, eskua luzatzen dauana beartsua izanarren, bere limosnea artzen dauana Jaungoikoa bera dana, San Juan Damasko'k diñoanez. Ondo daki kristauak, bere pekatuen zorrak ordaintzeko eta gure Jaunaren errukia jaristeko biderik ziurrena limosnea dana. «Egizue zuen limosnak barruan dagoanetik, eta orrela garbi geratuko da guztia zuekan», esan eban Jesukristok (Lk 11, 41). Eta San Pedrok: «Batez be alkar maite egizue beti, maitasunak pekatu asko estaltzen dauz-ta» (P 1ª, 4, 8).

Ugaritu egin bear dozuez zuen limosnak

Jarraitu egizue, ba, eliztarrok, beartsuak buruz eskuzabalak izaten, zeuen aurretikoak izan ziranez, eta, aal ba´dozue, areik baiño eskuzabalagoak izan zaitezte: oraingo bizikereak eta aurrerapideak, aberastasun-iturri txikiak iruntsiz, leengo aldietan euren esku-lanen eta beste era batzuen bidez ondo eta erraz bizi izango ziran asko ta asko bearrizanean itzi dauz-ta.

Beraz, beartsuak lar geiturik, zuen goimaitasuna geitu egin bear dozue, limosnak bide dirala.

Baiña goimaitasunak ondo eratua

edo ondo egiña izan bear dau

Gure Eliza Ama Deunak beartsuen alde beti aalegin guztiak egiten jardun izan dau. Eta, izan be, beti izan dauz —eta oraingo aldietan batez be— lagunarte ta erakundeak goimaitasun-apostolutza egiteko. Oraintsu sortu da orretarako mundu guztian zabaldua dagoan “Karitas” deritxon erakunde. Beronen bidez zabaltzen dira beartsuentzat emoten diran limosnak, batu ta ainbat ondoen eta egokien premiña geien dabenen eskuetara eldu daitezcan. Bilbo´ko Elizbarrutian be ba-dago “Karitas” erakunde au, Ekintza Katolikoaren barruan.

Karitas-eguna

Orregaitik, urtean bein goimaitasun-egun bat izentatu dogu, eta egun ori Pentekoste-eguna izango da, gaurko eguna.

Egun au, katoliko guztien gogo ona beartsuen alde berotzeko izango da, eta, elizetan eta elizetatik kanpo, batzen diran limosna guztiak Bizkai´ko benetako beartsuak diranentzat izango dira.

Beraz, Jaungoikoaren izenean, zuen arimen onerako, zuen pekatuen zorrak ordaintzeko, Jaungoikoaren errukia ta betiko bizitza lortzeko, eta baita geure erri dan Bizkaia onen izena goratzeko be, emon egizuez gaur zuen limosnatxoak, pozez beterik, Bizkai´ko beartsuen alde.

Kasimiro [Morcillo], Bilbo´ko Gotzaiña.

29.- Ezkontza

Gaur, Ezkontza Sakramentua azaldu bear dautsuet.

¿Zetako da Ezkontza? Senar-emazteen batasuna santutzeko Sakramentua da Ezkontza. Sakramentu onek ezkonduai alkarregaz baketan bizi izateko eta seme-alabak zerurako azteko grazia emoten dautse.

Betiko bizitza jaristeko, naikoa da Jaungoikoaren eta Elizearen aginduak ondo gordetea. Baiña bizibide asko dagoz zerurako, bi nagusiak batez be: ezkonduena eta ezkondu bagakoenena. Geienak, ezkontzako bidea artzen dabe. Bakotxak Jaunagandiko deia dau: batzuek ezkontzarako, beste batzuek ez. Bide biotatik zeruratu gaitkez.

Ezkontza oso ona da, ezin ukatu, Jaungoikoak sortu eban-eta, Agustin Deunak diñoanez. Eta San Paulok: «Ezkontza, goragarriztat artu egizue guztiok» (Ebr 13, 4). «Bateatuen artean, Ezkontza / Sakramentu izatera jaso eban Jesukristo gure Jaunak», diño Elizearen Legediak (1055 Kan.). Eta Trento´ko Batzar Nagusiak: «Ezkontza, Kristo gure Jaunak Lege Barrian egiaz eta benetan jarri ebazan zazpi Sakramentuetarik bat ez dala norbaitek ba´diño, alakoa galdua (edo anatema) izan bedi».

Baiña, bein ezkondu ezkeru, ¿barriru beste gizon edo emakume bategaz ezkondu ete-daitete? Ezkondu aurretik, gizonak eta emakumeak bere burujabetasun osoa dauko. Ezkondu edo ez ezkondu, bere eskuan dago. Baiña, bein ezkontzen danean, senar bakotxak bere emaztea eta emazte bakotxak bere senarra, bat eta betiko. Orixe da Jaungoikoak jarritako legea.

Bakarra ta ausi-eziña da ezkontza. Aditu Jesukristoren berbok: «Gizona emakume bati alkartuko yako, eta biok persona bakarra lez izango dira. Eta arrezkeru ez dira persona bi, bat bakarra baiño. Beraz, Jaungoikoak lotu dauana, ez dau gizonak askatu bear» (Mt 19, 5-6).

Ezkontzako buztarria betiko da. Emen Jesukristoren berbak: «Beste bategaz ezkontzeko bere emazteagandik banantzen danak, ezkontza urratu egiten dau. Eta emazte banandu bategaz ezkontzen danak be, ezkontza urratu egiten dau» (Lk 16, 18). Eta San Paulok: «Gizon bakotxak bere emaztea izan dagiala, eta emakume bakotxak bere senarra» (Ko 1ª, 7, 2). Eta gerotxoago: «Ezkonduai buruz, auxe agintzen dautse Jaunak, nik ez: emaztea senarragandik ez daitela banandu; eta banantzen ba´da, ez daitela barriru ezkondu, edo bere senarragaz adiskidetu daitela barriru. Senarrak be ez bere emaztea itzi» (Ko 1ª, 7, 10-11).

Ba-dagoz gure artean Ezkontzako buztarri ori ausi nai leukeenak. Orrelakoai benetako alkar-maitasuna palta yake. Galdu egin dabe alkarri agindu eutsoen maitasuna. Ez dabe jakin alkarren utsak parkatzen, alkar ondo eroaten, eta ortxe dago, ain zuzen be, benetako maitasuna. Uts egin dabe euren ezkontzan.

30.- Zoriontasunak (I)

Sarritan esan dogu, Sakramentuak sortu ebazana Jesukristo izan zana.

Baiña Sakramentuak bakarrik ez, baita beste gauza eder asko be irakatsi euskuzan Jesukristok: esate baterako, zortzi zoriontasunak.

“Mendiko berbaldia” deritxona egin ebanean irakatsi euskun Jesusek, zorionekoak, benetan, zeintzuk ziran. Indar eta garrantzi aundikoa berbaldi ori. Munduaren eta Jesukristoren erabagi ta jokabideak alkarren aurka diardue geien-geienetan. Eta ori, Jesukristo ta mundua beti alkarren arerio diralako eta izango diralako.

Berbaldi orretan, argi ta garbi irakasten dasku Jesukristok, ez dirala zorionekoak munduak zorionekotzat dauzanak; adibidez, ez dirala zorionekoak aberatsak, beartsuak baiño. ¿Zegaitik? Zeruko Erreñua beartsuena dalako.

Munduarentzat, beti barre-irrika ta jan-edanetan diarduenak dira zorioneko; Jesukristorentzat, barriz, naibagez eta neke-miñez bizi diranak.

Munduarentzat, bai leen Jesusen aldian eta baita orain be ta beti, apaltasuna, nekeak, zuzenaren alde ekitea, garbitasuna, otoitza, kristau-maitasuna eta onelakoak, gauza ezerezak izan dira beti, munduak ez dau gura beragaz onelako gauzarik, gauza oneik gorputzaren aurka doazalako. Gorputz-nekerik ez dau nai ezela be munduak, arimearen onerako izanarren be.

¿Zegaitik deritxe zoriontasunak? Ba-dakigu, bai, zoriontasun oneik bizitza onetan zorioneko egiteko ez dirana, bizitza onetan benetako zorionik ez dago-ta. Alan be, zoriontasunak deritxe, Jaungoikoa betiko jaristeko eta betiko bizitza irabazteko biderik zuzenenak diralako.

¿Zeintzuk dira, ba, Jesukristok irakatsitako zoriontasun oneik? Zortzi zoriontasunetarik lau bakarrik esango dautsuedaz gaur, zuen barruan zerbait ausnartu dagizuezan (Mt 5, 3-6):

- 1) «Zorionekoak gogozko beartsuak, Jaungoikoaren erreñua eurena da-ta.
- 2) Zorionekoak lur onetan biotz-minduta dagozanak, Jaungoikoak berak poztuko dauzta.
- 3) Zorionekoak apalak, Jaungoikoak lurra emongo dautse-ta, aren jabe izateko.
- 4) Zorionekoak zuzena ta ona dana garaille urtetea gura dabenak, euren guraria bete egingo da-ta».

Orra or lau zoriontasun.

Datorren domekan jarraituko dautsagu gaiari.

31.- Zoriontasunak (II)

Leengo domekan zoriontasunak azaltzen asi gintzazan. Ikusi dagiguzan bakotxean bat.

Jesukristok auxe dirausku: «Zorionekoak gogozko beartsuak, Jaungoikoaren erreñua eurena da-ta».

¿Nortzuk dira gogozko beartsuak, espirituz beartsuak? Gorapen eta aberastasunik nai ez dabenak, biotzez beintzat gura ez dabenak. Espirituz beartsuak izan daitezke benetan, aberatsak diranak be. ¿Zegaitik izan daitezke aberatsak diranak espirituz beartsuak? Euren biotza ta gogoa (espiritua) aberastasunak lotu bagarik euki daikezalako. Bere aberastasun guztiak Jaungoikoaren maitasunez emoteko ta izteko gertu ba´dago, persona dirutsu ori espirituz beartsu izan daiteke.

Izan be, izan dira ainbat santu aberastasunen artean bizi izan diranak, baiña euren espiritua ta biotza diruak lotu bagarik euki dabezanak. Oraintxe be ba-dagoz orrelakoak geure artean be: ondasun asko eukiarren, gauza gutxiaz bizi diranak, ainbat maitasun-limosna egiten dabela. Orreik ez dira diruaren azpian bizi, aberastasunak lotuta; orreik ez dabiz edozein modutan euren ondasunakaz, egoki eta bear dan erara baiño; limosna asko egiten dakie bati ta besteri; euren diru ta aberastasunen ardura aundi-aundirik be ez dabe, euren arimako beste gai batzuen arduraz dagoz-ta; pena aundirik be ez leukee izango euren aberastasunak galduko ba´leukez be. Onei buruz beste au esan daikegu: Zorionekoak dirua bear danez erabilten dabenak, beartsuen premiñak kentzen darabilenak! Oneik, aberastasunak eukiarren, espirituz beartsuak dira, biotzez txiroak, pobreak, eta, beraz, Jaunaren erreñua eurena be izango da.

Eta okerretara: ba-dagoz asko ta asko mundu onetan beartsuak diranak, bizi guztian ondasun-gurariz narraz dabizanak. Oneik, dozenerdi txanpon baiño euki ezarren, gogoz, espirituz, ez dira beartsuak, ez dira txiroak: adore guztiz, gurari osoz, aberastasunak lortu ta pillatu nai dabezalako. Gauza bat da norbere bizikerea obetu nai izatea: adibidez, bere gurasoak edo seme-alabak obetzeko, lantegi edo fabrikara joatea, geiago irabazteko; eta beste gauza bat edozein modutan irabazi nai izatea, edozein modutan dirua pillatzea, esku loiakaz izanda be, gaurregunean ainbestetan ikusten danez. Norberak ondo ikusten dau noiz doan bide zuzenetik eta noiz okerretik.

Zorionekoak, ba, espirituz beartsuak, biotzez txiroak, pobreak, Jaungoikoaren erreñua eurena da-ta.

32.- Zoriontasunak (III)

Aztertu dagiguzan arin-arin urrengo zoriontasunak.

«Zorionekoak lur onetan biotz-minduta dagozanak, Jaungoikoak berak poztuko dauz-ta», diño Jesukristok.

Guk nai ez dogun jazopen batek itun eta naibagez jarten dau gure barrua, eta batzuetan negar-unpuluak be atara daiskeguz. Baiña, ¿negar egiten daben guztiak sartuko ete-dira zoriontasun onen barruan? Ez, oneixek baiño: norberaren eta enparaduen pekatuakaitik tamal diranak, pena dabenak; arimako tentaldi ta arriskuak zapaltzen dabezanak; zeru-gurariz bizi diranak; eta, azkenez, Jaungoikoak bialtzen dautsezan neke-samiñak eroapen santuz artzen eta ondo eroaten dabezanak. Oneixek izango dira poztuak, bai mundu onetan eta baita bestean be: Jaunak emongo dautsen barruko poztasunaz emen eta zeruko betiko poztasunaz gero.

«Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak, aseak izango dira-ta».

Zuzentasunaren gose-egarri izatea, norbere eginbearrak ondo beteteko aalegin guztiak egitea da, norberak egin bear dauzan gauza guztiak ondo egin nai izatea da. Zuzentasuna, egin bear dana egitea da: onoimena, ontasuna, santutasuna...

Gose-egarri izatea, gurari bizia eukitea da, Jaungoikoaren legepean bizi izateko gurari bizia eukitea, Jaunaren legea beteten bizi izatea.

Gauza asko, gura izanda be, ezin lortu izaten doguz. Ona izatea, Jaungoikoaren legea betetea, geuk nai izan ezkerro, beti aal daikegu: Jaunaren graziak ez dausku iñoiz be utsik egingo-ta.

¿Eta zein da zuzentasunaren gurari biziz bizi diranen ordezeko saria? Jaunaren grazia ta laguntza mundu onetan bere adiskidetasunean bizi izateko, eta gero betiko bizitza Jaunagan bat egin dagigunean, zeruan.

33.- Zoriontasunak (IV)

«Zorionekoak errukiorrak, errukia jadetsiko dabe-ta».

¿Nortzuk dira errukiorrak? Euren lagun-urkoai erruki dautsenak; euren adiskideai bakarrik ez, ez-ezagunai eta norbere arerioai be erruki dautsenak. Liburu santuetan ainbat bidar irakurten dogu errukiorrak izan bear dogula. Jesukristok auxe berau dirausku Ebanjelioko beste txatal baten: «Izan zaiteze errukiorrak, [zeruko] zuen Aita be errukiorra danez» (Lk 6, 36). «Jaunak bere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera atarazo eta euria zuzen eta zuzenbageen gaiñera bialtzen dau» (Mt 5, 45). Orrelaxe zeuek be errukiorrak izan bear dozue guztientzat, adiski-deentzat eta ez-ezagunentzat, baita zeuen arerioentzat be. Adiskideai erruki izatea erraza da, eta edonor izaten da errukior adiskideai buruz. «Jentillak be egiten dabe ori», diño Jesusek (Mt 5, 47). Baiña guztiai buruz izan bear dogu errukiorrak.

Kristautasunak dauan legerik aundiena da lege au: gure lagun-urkoari maitasuna ta errukia izatea. ¿Estua ta gogorra dala lege au? Ba-daiteke; baiña kristautasunak dauan oiñarririk berezi ta goragarriena be auxe da: goi-maitasuna edo karitatea, enparaduai erruki izatea.

¿Zein izango da erruki izateagaitik dogun saria? Sari aundia benetan, Jaungoikoak be guri errukia izango dausku-ta. Geure lagun-urkoai buruz erabilli dogun negurri berberaz negurtuko gaitu Jaunak. Orrexegaitik dirautsagu «Gure Aita» otoitz egiten dautsagunean: «Parkatu gure iraiñak, geuk be iraintzen gaituenai parkatzen dautsegunez» (Mt 6, 12).

¿Beteten al-dogu guk «Gure Aita» otoitzean diñogun ori, Jaungoikoa be gutzaz errukiorra izan dadin? Aztertu dagigun zerbait gure barrua.

Azkenez, «zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta» (Mt 5, 8).

Norbere grifa ta zalekeria gaiñoak lotuta daukazana da biotz-garbia, pekatuaren maitasunik ez daukana, batez be pekatu loien zalekeriarik ez daukana.

Askozaz txarrago izango da, benetan, besteai pekatutan jausi-erazotea. Ba-dabe non

aztertu euren barrua gaurreguneko neska ta andrazko batzuek. Aundia da, orraitifio, orrenbeste bero izatea udan, orrelako soñeko ta jazkera lotsagarriz ibilteko! Gaizpide edo eskandalu-pekaturia guztiz aundia dala jakin egizue, gero! Irakurri, bestela, gaizpideari buruz Jesukristok diñoana: «Txiki oneitariko bat pekatutan jaustearen errudun izatea baiño obe litzakio orrelako orri errotarriaz samatik lotuta itsasora jaurtiko ba'lebe» (Lk 17, 2); eta beste bein: «Bai zoritxarrekoa enparaduai pekatutarako bidera bultza egin dagitsena!» (Mt 18, 7).

¿Zein da, oster, biotz-garbien saria? Jaungoikoa ikustea aurrez-aurre zeruan. Ez dira jakitun baten berbak, Jaungoikoaren Semearen beraren berbak baiño: «Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta».

34.- Zoriontasunak (V)

Ona emen zazpigarren zoriontasuna: «Zorionekoak bake-zaleak, orrei Jaungoikoak Bere seme esango dautse-ta», dirausku Jesukristok (Mt 5, 9).

¿Nortzuk dira bake-zaleak? Jaungoikoagaz, norberagaz eta lagun-urkoakaz baketan bizi gura dabenak dira bake-zaleak.

Jaunaren baketan bizi izatea, arimea grazian eukitea da. Grazian bizi garean artean —pekatu astun bagarik gagozan artean—, Jaunaren adiskide gara; adiskideak, barriz, baketan bizi izaten dira, asarratzen ez ba' dira beintzat. Arimea be Jaungoikoaren adiskidetasunean dago, Aren bake-baketan dago. Baiña pekatu astun bat, Jaunaren adiskidetasun eta bake ori galdu egiten dauz, Aren asarrepean jarten dala, Aren arerio egiten dala.

Orrezaz gaiñera, bake-zaleak norbere ta lagun-urkoen bakea gura dabenak dira. Bakea norberagaz eta lagun-urkoakaz. Eta aalegiñak egin besteak be Jaunagaz eta euren artean bakea izaten, auzokoak eta sendiak (edo familiak) be baketan bizi daitezak. ¿Zelan? Arein alde Jaunari otoitz egiñik, areintzat eredu zintzoa izanik, arei burubide onak emonik, areik baketan bizi izateko guk aal dagiguna egiñik.

Iñoren arloan ez sartzea izaten da onena geienetan..., onena ez, errazena baiño; baiña, sarritan, egintza ederra ta onenatarikoa izango litzake sendi ta auzokoen artean guk bakea jarrea, guztien arteko gogo ona beti edo geienetan lortuko litzake-ta.

¿Zein izango da bake-zaleen saria? Arei Jaungoikoak bere seme esatea. Jauna bakezko Jauna dogu, bakezko errege. Belen'en Jesus jaio zanean, auxe esan eutsen aingeruak artzaiñai: «Aintza Jaungoikoari goietan, eta bakea lurrean Aren gogoko diran gizonai!» (Lk 2,

14). Eta, Jesus barrero biztuta gero, bere Apostolui ta ikasleai agertu yakenean, auxe izan zan bere leenengo agurra, eta birritan esan eutsen esan be: «Bakea zuekaz!» (Jn 20, 19 ta 21).

Zortzigarren zoriontasuna: «Zorionekoak zuzenak eta onak izateagaitik aurrean erabiliak, Jaungoikoaren erreñua euren da-ta».

¿Nortzuk dira zuzentasunaren alde dagozanak? Onoimenak bete eta enparaduen artean zabaltzen dabezanak, eta, ori dala-ta, asarreak, gorrotoak, neke-samiñak, ikusi-eziñak eta ainbat eratako kalteak eroapen santuz onartzen dabezanak.

Kristauok ba-dakigu ondotoxo be Jesukristoren berbok: «Zorionekoak izango zaree, neure ikasle zareelako iraindu ta aurrean erabili zagiezenean... Poztu zaitze orduan! Pozik egon zaitze, zeruan sari aundia izango dozue-ta!» (Mt 5, 11-12).

Irabaziko al dogu guztiok saritzat zeruetako erreñu ori!

* * *

Ementxe amaitzen dira urte bi areitan egin nebazan berbaldi laburtzook.

BESTE BERBALDI BATZUK

(OARRA: orain datozen berbalditxoak geroagokoak dira, Gazeta 'ko Andra Mari baselizan eta San Agustin'go elizan egindakoak.)

Abenduko 1º Domekea (Lk 21, 25-33)

Entzun dozuen Ebanjelio-zati onetan, Jesukristok munduaren azken-eguna iragarten dasku: eguzkia illundu egingo da, izarrak jausi eta, batak bestearen aurka jota, birrindu egingo dira; mundu au be, gu bizi garean mundu au be, zatitu ta apurtu egingo da. ¿Noiz ori? Ez dakigu; Jesukristok be ez euskun agertu arriabar ikaragarri ori noiz izango zan. Baiña izango da egunen baten. «Zeru-lurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko», dirausku Jesukristok (Mt 24, 35).

Irakurrita daukazue, urrean, idrojenezko amar lerkai edo bonbaz mundu guztiko bizidun guztiak garbituko litzakezala. Eta eundaka dagoz orrelako bonbak agintari batzuen eskuetan, dan-dana birrintzeko arriskuan gertu. Beraz, gizonak orrelako indarra ba'dauko, ¿zelakoa ez ete-dau izango Jaungoiko Guztialdunak?

¿Noiz izango da, ba, azken-eguna? Iñok ezin jakin, Jaungoikoak izan ezik. Baiña elduko da noizbait, eta orduantxe agertuko da Jesukristo, gizaki guztiak epaitzera, Berak dirauskunez (Mt 24, 29-31). Orduan bai agertuko dirala egintza guztiak diran lez, argi ta garbi, eguerdiko eguzkitan baiño argiago! Orain, mundu onetan, sarritan on-antzera egiten diran egintza askok, antxe agertuko dabez euren ustela ta guzurra. An agertuko da benetan nor izan dan ona eta nor gaiztoa, Jesukristo iñok ezin dau atzipetu edo engaiñatu-ta. Mundu onetako auzi-epailleak sarritan okerretara emoten dabez epaiak, gaiztoari edo errudunari erra-zoia emonez. An ez da orrelakorik izango; an, bakotxari berea, ez geiago ez gutxiago.

Entzuleok: bizi gaitez orain orduan gura izango dogun eraz. Bakotxak berak emon bear izango dau bere buruaren kontua. Gure artean iñor galtzen ba'da, beintzat, bere erruz eta berak gurata galduko da. Ez jaurti iñori errurik.

Gaur, Abenduko lenengo domekea. Aldi ona gure barrua zuzentzeko, pekatu-bidea alde batera itzi eta bide zuzena artzeko. Aldi egokia gure arimea garbitzeko, Jaungoikoagana gartsuago biurtzeko eta Jesus Umearen Jaiotza barrirako bear danez gertatzeko.

Abenduko 2'garren Domekea (Mt 11, 2-10)

Entzun dozue San Mateo Ebanjelariak diñoana.

¿Zegaitik itandu eutsan Jesukristori Joan Bateatzailleak, bere ikasle biren bitartez, ea Mesias zan? ¿Ez ekialako? Ez; ba-ekian arek Jesukristo nor zan, Jordan'go errekan berak bateatu eban-eta; berak ikusi ebazan zeruak edegiten eta Espiritu Santua uso-antzean Jesusen gaiñera jatsiten eta berak entzun eban zeruko Aitak esan eban au: «Auxe da nire Seme mai-tea» (Mt 3, 17), eta, azkenez, berak, Joan Bateatzailleak, esan eban Jesusi buruz guztien aurrean: «Auxe da munduaren pekatua kentzen dauan Jaungoikoaren Bildotsa» (Jn 1, 29).

¿Zegaitik itandu eutsan, ba, Jesusi ea Mesias zan? Bere ikasleak ikusi ta ezagutu egien, Aren irakatsi ta ikasbide zerutarra onartu egien.

Eta ona emen Jesusen erantzuna Joanen ikasle biai: «Zoaze barrero Joanegana eta esan egiozue ikusten eta entzuten diarduzena: itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz, legenar-dunak garbi geratzen dira euren geisotik, gorrak entzun egiten dabe, illak biztu egiten dira, eta beartsuai salbamen-mandatu iragarten yake» (Mt 11, 4-6).

Jesukristok, berbaz bakarrik ez, egintzen bidez erantzuten dautse, ainbeste mirari arein aurrean egiñik. Eta arela, egiatzko Mesias eta gizon egin zan Jaungoikoa zala agertu eutsen, mirariak egiteko aalmena Jaungoikoari bakarrik dagokio-ta.

Geuk be, entzule zintzook, egitadakaz erakutsi bear dogu kristauak eta Kristoren jarrait-zailleak gareana; norbere egitadak agertzen dabe baktotxa nor eta zelakoa dan: «Sasi-profetak euren fruetatik ezagutuko dozuez» (Mt 7, 20), edo bardin dana: euren egitadetatik ezagutuko dozuez.

“Ni kristau naz”, esaten dabe batzuek; baiña, edozein atxakigaitik, jaiegunetan Mezatarra etorri bagarik geratzen dira. “Ni Elizearen seme zintzoa naz”, diñoie beste batzuek; baiña barre egiten dabe Jaungoikoaren edo Elizearen aginduren bat beteteko orduan; Elizearen esaneko dirala, baiña munduzaleen irakatsiai jarraitu. Agoz bakarrik kristauak, egitez ez.

Ikusi dagigun geure artean orrelako zerbait dagoan, eta zuzendu dagiguzan gure okerreko bideak, guztien aurrean geure kristautasuna agertzeko.

(I) Abenduko 3'garren Domekea (Jn 1, 19-28)

1.— «¿Zeu zara etortekoa?» (Mt 11, 3)

¿Nor zara zu?, itauntzen dautsoe Jesusi Joan Bateatzaillearen mandatariak

¿Eta nor naz ni, Jauna? ¿Neure burua ezagutzen ete-dot? ¿Erantzungo ete-daikeot itaun berau egin dagidanari?

Ba-doaz aurrera nire bizitzako egunak, eta nik nai dodazan baiño arriño joan be. Orregaitik Job'ek diñoana: «Emakumegandik jaiotako gizonarentzat, egunak urri, oiñazea ugari; lorea lez zabaltzen eta zimeltzen da, eta, gerizeak lez, iges egiten dau gelditu bagarik» (Job 14, 1-2).

¿Zetan etorri ete-naz ni lur onetara, eta nora ete-noa?

¿Zetan? ¿Bizi izaten bakarrik? Egiteko txikia izango litzake ori. Abereak (animaliak) eurak be egiten dabe orrenbeste. Eta ni ez naz abere utsa: aberea bai, baiña abere adimenduna.

Eta elburu bat dogu aurrean. Elburu ori jaristeko emon bear doguz pausu guztiak. Elburu ori, betiko osasuna da, betiko salbamena, betiko bizitza, Jaungoikoa irabaztea.

¿Nor naz ni? Kristau bat, Kristoren jarraitzaile bat, Kristoren antzeko izan bear dodana.

2.— «Ez naz ni Mesias» (Jn 1, 20).

Bai, Joanez argi ta garbi erantzun eutsen egia: «Ez naz ni Kristo».

Benetako zintzoak apalak izaten dira. Eta Joan Bateatzaillea oso zintzoa zan. Begira, bestela, Jesukristok Joani buruz diñoan au: «Ez dago Joan baiño gizon aundiagorik» (Mt 11, 11). Alan be, bera Profeta ez zala dirautse Joanez gizon arei. Itxuraz, guzurra iñoan, baiña ez zan, ez, guzurra. ¿Zer, ba? Ain apala zan ezkerro, Joanez ez eban uste bera Profeta zanik. Zintzoa ta apala izan ez ba'zan, beste erantzunen bat emongo eutsen, urrean.

Leengo egun baten, Dalí marrazlaria agertu zan telebiziñoan (bera bizi zala, jakiña), eta «jaungoikozko Dalí naz ni» (= yo soy el divino Dalí) esan eban. Baita auxe be: «Dalí, illeziña da» (= Dalí es inmortal). Orrenbeste be!

Jaunak apala gora jasoten dau, eta arroa beeratu, San Lukasen Ebanjelioan Andra Mariak "Magnificat" izeneko Abestian dirauskunez (Lk 1, 51-52).

¿Zer diñot nik? ¿Goian egotea ete-da nire guraria? Sarritan bai. Itzi dagiodan Jaunari arazo ori, eta Berak jasoko nau aldi egokian. Eta beean nagoan artean, poztu nadin, Kristo-

ren antzeko naz-ta. Irakurri, bestela, San Paulok dakarren au: «Kristo gugaitik esaneko egin zan eriotzaraiño, gurutzean ilteraiño egin be. Aregaitik, Aita Jaungoikoak be goratu egin eban, eta izen guztien gaiñeko izena emon eutsan» (Flp 2, 8-9).

Jauna: apala izan nadilla egizu, zeure antzeko izan naiten: Zeu be, Jesus, Jaungoiko Guztiaalduna izanik, umetxo egin zintzazan-eta.

(II) Abenduko 3'garren Domekea (Jn 1, 19-28))

Abenduko irugarren domeka onetan, entzule zintzook, Elizeak bere barruan daukan poza jakiñerazoten dausku. Jauna, izan be, ur daukagu, egun gutxi barru ospatuko dogu gure Salbatzailea jaiotako urteurrena. Elizearen poz eta zorion onen zusterre ez da utsa, ez da edozetarikoa, edozein modutakoa. Orregaitik, kristauok beti pozik egon bear dogu. Eta Jauna urrago eta orduan zorionsuago egon be. «Poztu zaiteze beti Jaunagan —dirausku San Paulok gaurko Irakurraian—; poztu zaiteze, dirausuet barru be. Jauna ur dago» (Flp 4, 4-5).

Baiña, San Pauloren asmotan, urr-egote au, Jesusen jaiotza baiño geiago, Jesukristoren azkenengo aintzazko Etorrerea dogu. Kristauok Jesusen leenengo etorrerea oso pozgarria ba'dogu, pozago artu bear dogu bigarren etorrera goragarria, gure zorion beterako izango da-ta.

Eta orretarako, bideak atondu bear doguz, bear danez atondu bear dogu gure burua, gure barrua. Gaiztakeriaz, pekatu astunaz, jaurti egiten dogu Jainkoa gure barrutik, eta pekatua egiten da biotzaren jabe. Beraz, Jainkoa biotzera barru etortekotan, jaurti egin bear pekatua biotzetik, garbitu egin bear gure barrua, Jainkoa ta pekatua batera biotzean ezin egon daitezke-ta.

Jaunaren bideak atondu, geuk nai dogun lez ez, Jaunak berak nai dauanez baiño. ¿Zelan? San Paulok dirausku: «sinismenez, bakez, mañtasunez eta pozez» (Tm 2ª, 2, 22).

Sinismenez: gure Eliza Deunaren irakatsiai lotuta egonik. Bera dogu bide-erakuslerik trebeena ta ziurrena. Ez egin jaramonik gizonen esanai, munduzaleak ezpanetan guzurra darabille-ta, Bibliak dirauskunez: «Gizonak guzurtiak dira» (Salmuak, 116, 11).

Bakez: iñori kalterik egin bagarik, guztiai biotz onez laguntza emonez baiño.

Maitasunez: alkar ondo eroanez, alkarri buruz ondo berba egitez, batasuna ta alkartasuna izanez, berba batez, gure lagun-urkoa geure burua lez maite izanez.

Pozez: Kristauok baiño pozago ez litzake inor egon bear, Jaungoikoaren grazian bizi izan ezker, gure zaintzaillerik ziurrena ta adiskiderik indartsuena Bera dana ziur be ziur dakigu-ta.

Ea, ba, entzule zintzook: pozez beterik gertatu gaitez Gabon-jaietarako, Jesus Umearen Jaiotza barrirako, gure barruak zeruko graziz eta laguntzaz bete daitez.

Abenduko 4'garren Domekea (Lk 3, 1-16)

1.- «Bide latzak bide-lau izango dira», dirausku San Lukasek gaurko Ebanjelio-zatian.

Guretariko bakotzak be esango geuke, ba, ori: geuk be gura geuke bizitzako bideak leunagoak izatea!

Egia esan, guztiok nai dogu obeto bizi izatea, bizitzako arri koskorak kentzea, buru-austerik eta naasterik ez izatea. Baiña, gauza nekeza izan ori!

Etxe-barruan eta etxetik kanpo, beti daukaguz min egiten dauskuezan arri koskorren batzuk. Enparaduakaz doguzan artu-emonetan bakarrik ez, baita neure buruaz be ba-dodaz nire buru-austeak: geure zalekeri ta gurari okerrak eziten be ez dogu lan makala. Or dagoz, esate baterako, griña txar nagusiak: arrokeria, zekenkeria, aragikeria, asarrekeria, jan-edankeria, ikusi-eziña ta nagikeria.

Emon egidazu, Jauna, zure grazia, bide latzeko arri koskorak zapaltzeko, bide samurragotik Zugana arriñago joan nadin.

2.- «Eta gizaki guztiak ikusiko dabe Jainkoagandiko Salbatzaillea» (Lk 3, 6).

Urteak dirala etorri zintzazan, Jesus Jauna, lur onetara. Belen'en jaio zintzazan gure betiko salbamena erostearren. Adiskide ezin-obeak zenduzan inguruan gau aretan: Andra Mari zure Ama eta zure aitordoko Jose zintzoa. Gorago, barriz, aingeru-taldea kantari: «Aintza goietan Jaungoikoari eta bakea lurrean Aren gogoko diran gizonai!» (Lk 2, 14).

Aurten be gaiñean doguz Gabonak, Gabon-jai ezitsiak, etxekoiak, pozez beteriko egunak.

Jaio zaitez barriro be, Jesus, gure biotzetan. Abegi onez artuko zaitugu: beebarruak, atarteak, etxebarruak, eta, batez be, geure barruak, kolorezko argitxo ta jantzi ederrez apainduko doguz, Gabon-kanta ederrak abestuko doguz zure omenez. Eta zeure Jaiotza ipiñiko dogu, zeure irudia, Jainko gizon egiñaren irudia, zeure amagaz eta aitordekoagaz. Alkarren arteko gure artu-emonak be barrukoiagoak eta zabalagoak izango dira, guztiok adiskideago ta

anaiago egingo gara, alkarganako kristau-maitasuna agerturik.

Zuganako gure asmo onok ikusirik, pozez beterik etzungo zara, Jesus, gure biotzetan. Baiña, nire biotzean ar txarrik ikusten ba' dozu, il egidazu: Gabon-egunean, Zu zatozaneko, nire barrua garbi-garbi aurkitu dagizun, Zuretzat ogetxo bigun-biguna izan daiten. Zatoz, ba, Jesus Jauna!

Onenbestez, antzule zintzook, aurretiaz guztioi Gabon-jai baketsu ta zoriontsuak opa dautsuedaz. Jesus Umeak, zeru-lurren Jaun eta Jabeak, bedeinkatu zagiezala guztiok.

Abenduak 24: Gabon-eguna (Jesukristoren Jaiotza) (Lk 2, 1-14)

Gabon-jaietan sartu gara. Poz-egunak dira kristauarentzat. Gabonetan, Jesusen Jaiotza ospatzen dogu, Jainko gizon egiñaren Jaiotza, geure Salbatzaillearen Jaiotza.

Personeak gorputza ta arimea daukaz. Poz-egun oneik ez dira gorputzarentzat bakarrik, jan-edan egiteko bakarrik, baita geure arimearen ongarrizat be izan bear dabe, geure espirituaren ongarrizat. Egun oneitan geure Salbatzaillea ospatzen dogu Belen-ondoko Aingeruakaz batera: «Aintza goietan Jaungoikoari eta bakea lurrean Aren gogoko diran gizonai!», esan eutsen aingeru-taldeak Belen'go artzaiñai (Lk 2, 24). «Salbatzaillea jaio yatzue gaur Dabid'en urian [Belen'en], Kristo Jauna dana» (Lk 2, 11). Artzaiñak poz-pozik geratu ziran, eta leenbaileen Belen'era joan ziran Jesus Umea gurtzera (Lk 2, 15-16).

Agertu dagiguzan, ba, geuk be geure poza ta alkarganako bakea ta alkartasuna. Apaindu dagiguzan gure etxeak koloreetako argiz, baita piñu-adarrez be; baiña ipiñi dagigun Jesusen Jaiotza be: Gabonetan, kristauok Jesusen Jaiotza ospatzen dogu-ta. Batzuek, Gabonetako jai onei beste usain bat ezarri nai dautsee, jentil-usaiña. Baiña gu ez gara jentillak (Ga 2, 15), kristauak baiño, Kristoren jarraitzailleak baiño.

Barriztu ta bizitu dagigun gure fedea, Belen'go aingeruakaz batera Jaunari esanez: «Aintza goietan Jaungoikoari eta bakea lurrean Jaungoikoaren gogoko diran gizonai!»

Gabonillak 25: Jaunaren Jaiotza

(OARRA: berbalditxo au Meza-ostean egin neutsen.)

* * *

1968 urte dirala, Isarel'go erri txiki baten, Belen'en, Jesus Salbatzaillea jaio zan Andra Mariagandik, Espiritu Santuaren egifiez. Urte asko dira guretzat, baiña Jaungoikoarentzat ez.

Esan dagitzuedan orain, labor-labor, Jesukristo gure Jauna etorri aurretik gizona Euskalerrian zelan egoan.

Jesukristo etorri baiño milloek urte leenago egin eban Jaungoikoak mundu au. Gizonak be —jakitunak diñoenez— ba-daroaz mundu onetan seireun milla urte gutxienez (askoz geiago beste batzuen eritxiz). Gure aurretikoak, euskaldunak geu lez, bizi izan ziran emen orain ogei milla urte gutxi gora-beera, orain lez etxeetan ez, mendietako kobetan baiño, itsasaldeko kobetan batez be.

Orain berrogei milla urte, itsasotik zortzireun metrotik gora egoan lurraldea, dana edurrez eta izotzez beterik egoan, dana leituta. Gaztela'n (Kastilla'n), esaterako, ez zan iñor bizi, izotzezko eremu utsa zan, pistien lurralde otza. España'n millaka urteetan iñor be bizi ez zala, euskaldunak bizi ziran oraingo Euskalerrian. Au, bearbada, ez dakit iñoiz entzun dan emengo irratietan, ezta eskoletako ta ikastetxeetako liburu "ofizialetan" irakurri be, baiña antropoloji-liburu guztiak dakarre, eta olantxe autortzen dabe antxiñako gaietan jakitun diranak, esate baterako, Madril'go Akademiako buru dan Menéndez Pidal gizon oso jakintsuak be.

¿Eta nondik etorri ziran edo non sortu ziran gure aurretikoak?

Itaun orri bear danez erantzuteko itaun gogorra da. Guztietariko eritxiak izan dira antropologuen artean. Esaterako, orain berrogei milla urte baiño leenago, Asia'ko Iran'dik, Persia'tik Europa'ko sortzalderuntz, itsasalderuntz, erri-taldeak etorten asi zirala, bizi izateko lur egoki-billa. Orreitariko erri-talde bat orain bizi garean lurralde onetara etorri zala, eta, euren bizitokitizat, itsasaldeko mendi-zuloak edo kobak artu ebezala.

Beste antropologu batzuek, barriz, ementxe bertan sortu zirala diño. Onein artekoa, D. Jose Migel Barandiaran euskaldun abade jakintsua da, Europa guztian oso ezaguna. Orixe da, urrean, eritxirik sendoena gaurregunean.

Dana dala, orduan ez zan solo-lanik egiten, guzti au basoa zan-eta. Aldi aretako gizonak pistien okeleaz, arraiñaz eta basarboletako frutuaz bizi ziran. Gizonezkoen lana pistiak arrapatzea ta arraiñak artzea zan, eta andrazkoena arboletako frutua batzea eta abar. Aldi orretakoak dira Dima'ko Baltzola'ko koba, baita Gernika-ondoko Santimamiñe izenekoa be, baita Kantabria'ko Altamira deritxona be. Orrean antzeko eun koba ba-dagoz Euskalerrri guztian zear, itsasaldean gora. Gizon areik —geure aurretikoak— eusko-enda edo arrazakoak ei'ziran, antropologuak diñoenez. Eta arrezkero, gizaldiz-gizaldi, gure lurralde onetan, eusko-enda bizi izan da. Gai oni buruz, ainbat luzatuko gintzakez; baiña ez da au, jakiña, une egokia.

Jesukristo etorri baiño 210 urte leenago, Erroma'ko gudariak eldu ziran Euskalerrriko mugetara. Orduan, Euskalerrriko mugak oraingoak baiño askozaz zabalagoak eta luzeagoak ziran: Auñamendi (Pirineo) mendi guztia, Oska (oraingo Huesca), Errioxa guztia, Burgos eta Santarder urietaraiño; eta goi-aldeetik, Prantzia'ko Bordele (Burdeos) baiño gorago zabaltzen zan Euskalerrria, Lourdes bera eta Prantzia'ko Toulouse uri nagusia be barruan artzen ebazala.

Eta urteetan Erromatarrek eta euskaldunak alkarren aurka sekulako burrukak eginda gero, azkenean be alkarregaz bakeak egin ebezan, arrezkero euskaldunak eta Erromatarrek adiskide aundiak izateraiño.

Eta orduan ezagutzen ziran lurralde guztiak bake-baketan egozala, Erroma'ko Tiberio Augusto Enperadore zala, aspaldietatik Profeten bidez iragarritako Mesias eberkeraz, edo Kristo gerkeraz edo Aukeratua euskeraz, Jaungoikoaren bigarren Personea, Israel'go Belen izeneko erri txikitxoan jaio zan.

Egun aundi ta pozgarri au ospatzen dogu kristau guztiok Gabonetan.

Jesus'en jaiotza zelan izan zan, nik esanda baiño obeto, Ebanjelioan daukazue, San Lukasen Ebanjelioan (Lk 2, 1-20). Luzatu ez nadin, datorren domekan irakurriko dautsuet, guztiz jakingarria da-ta; guztiok urteoro irakurri bear gendukena.

¿Noiz sartu zan Jesukristoren Barri Ona (Ebanjelioa) Euskalerrrian?, edo-ta ¿noiz egin ziran kristau euskaldunak? Euskalerrria Kristautasunera biurtzea astiro-astiro egin zala dirauskue istorialariak. Bigarren mendean, Sijeberto zan Baiona'ko Gotzain, eta San Permin Iruñia'koa. Kalagorri'n be —orain Calahorra—, orduan Euskalerrria, Gotzain bat egoan bos-

garren mendean, eta zazpigarren mendean Gazteiz-ondoko Armentia'n be bai, San Prudentzio.

Edozela be, zortzigarren mendean, Kristautasuna Euskalerra osoan sartuta egoan (geure ondoan dagoz Argiñeta'ko illobiak be, bederatzigarren mendekoak, kristau-illobi ospatsuak). Beraz, aldi orretako euskaldunak kristau ziran, agiriak (dokumentuak) dirauskuenez, eta arrezkero euskalduna kristau zintzoa izan da, «euskaldun fededun» esateraino.

Eta onenbestez, naikoa gaurko.

Gabon-osteko Domekea (Lk 2, 33-41)

(OARRA: gaurregunean "Sendi Santua" ospatzen da. Ikusi "Erregen-osteko Domekea".)

* * *

Jesusen jaiotzan argien ikusten dana, apaltasuna dala esan daikegu: Jaungoikoak, bere aunditasunean, apaltasuna, txikitasuna, dauala maiteen.

Izan be, beti ikusi izan dau Jaungoikoak begi onez apaltasuna, arroak Beragandik urrindurik eta baztarturik. Bein baiño sarriagotan irakurten dogu ori Salmutegian be. Andra Mariak berak be auxe diño "Magnificat" izeneko abestian: «Nire biotza pozez beterik dago nire Salbatzaille dan Jaungoikoagaitik, bere begiak neugan jarri dauzalako, Aren mirabe apala naz-ta... (Lk 1, 47-48) Aundikia aulkitik lurrera bota eta apala gora jasoten dau» (Lk 1, 52).

Jesusen jaiotzan apaltasuna da nagusi. Jesukristo, Jainkoaren Semea, ez zan Jerusalem'go etxe aundi ta aberats baten jaio, Belen'go etxe txiki ta ezkutuan baiño, non egon ez eukan andratxo bategandik baiño. Belen'en ez egoan ostaturik areintzat, dirausku Lukas Ebanjelariak (Lk 2, 7), eta estalpe batera joan ziran, eta antxe izan eban Mariak Jesus Umea.

¿Nok uste izango eban Jose ta Mariaren laguntasunaz bakarrik jaioko zanik milloeka aingeru laguntzat daukazan Jaungoiko guztiz aundi ta aaltsua? Orra or Jainkoaren ikasbide ederra mundu onetara etorri zan unean bertan, jaiotzan bertan: apaltasuna.

Gero, barriz, ¿nortzui agertzen dautse leenen aingeruak Jainkoaren Semearen jaiotza? ¿Jerusalem'go agintari, aundiki, aberats eta jakitunai? Ez, artzain beartsu ta apalai baiño, biotz garbi ta zintzoai baiño: oneixek dira, izan be, Jaungoikoak geien maite dauzanak-eta.

Geroago be bardin: Jesus, dana ekiana izanarren, bere gurasoen menpean bizi izan zan, bere aitordekoari, San Joseri, arotzerian laguntzen. Bere Barri Ona (Ebanjelioa) iragarten asi

zanean be, ez ebazan bere laguntzat jakitunak aukeratu, amabi Apostolu ez-jakiñak baiño; eta, gurutzean il arte, noizean bein izan ezik —guztiak salbatzera etorri zan-eta—, beti beartsuen artean ibili zan, geisoak osatzen eta guztiai on egiten.

Emen, ba, entzule zintzook, gure erredua: Jaungoikoa bera. Jesukristok berak dirausku eredutzat Bera artzeko: «Neu naz bidea, egia ta bizia» (Jn 14, 6). «Nire Aitak auxe nai dau: Semea ikusi ta onartu dagien guztiak, betiko bizia izan dagiela; nik, barriz, biztu egingo dodaz alakoak azken-egunean» (Jn 6. 4).

Ikusi, bai, sarri ikusten dogu ezer be ez gareana, ezerez batzuk gareana, geiso batek lurjota izten gaituana, gauza gutxi balio doguna. Ez gaitezana, ba, arrotu gure buruaz, gaur gareana biar ez gara-ta. Jaungoikoaren Semea txiki be txiki egin zan, apal-apal egin zan. Makurtu dagiguzana, ba, gure buruak Jaunaren aurrean, eta ikasi dagigun bere erreduzko bidean ibiltzen, une guztietan eta abagadune (okaziño) guztietan Jesus Umea lez apalak izaten: gure azken-egunean gure apaltasunetik gora be gora jasoko gaituana, Bera izango da-ta.

Gabon-osteko 2'garren Domekea

Datorren martitzenean Erregen-eguna ospatzen dogu, jai osoa.

Erregeak izan ezarren, gizon jakitunak izan ziran, eguzki-sortzaldeko lurraldeetatik Jesus Umeagana etorriak, Berau Jaungoiko lez gurtzera eta Beroni opariak eskintzera.

Arrituta geratu bear geuke gizon onein adorea ikusirik. Areik ba-ekien —zelan-alan, Bibliatik atarata, Jaungoikoak argituta—, erriak itxaroten eben Kristo laster etorrrena. Eta zeruko argitasunez eta aparteko izar bat ikusi ebenean, beingo baten konturatu ziran Mesias edo Salbatzaillea jaio zana. Eta, euren etxeak eta erria itzirik, bereala Jesus billatzera etorri ziran, eurak eukezan gauzarik ederrenetarikoak arturik, Umeari eskintzeko.

Guk, entzuleok, ba-dakigu Jaungoikoa non dagoan: alde guztietan, bai, baiña Altarako Sakramentu santuan batez be. Beste era baten be egoten da Jaungoikoa gugaz, norberagaz bat eginda lez: Jaungoikoren grazian dagoan ariman. Argi-argi diñosku ori Jesukristok berak: «Benetan maite nauanak nire mandatuan sendo iraungo dau; nire Aitak maite izango dau alakoa, eta nire Aita ta ni etorri egingo gakioz eta aregan bizi izango gara (Jn 14, 23). San Paulok be, grazian dagoan arimea Jaungoikoaren etxe dala diño: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareana, eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?...

Jaungoikoaren etxea santua da, eta etxe ori zaree zuek» (Ko 1ª, 3, 16-17). Eta beste ataltxo baten: «Ez al-dakizue zuen Gorputza Espiritu Santuaren etxe-dana? Zeuekan bizi da, Jaungoikoagandik artu dozue-ta» (Ko 1ª, 6, 19). Arima ori, grazian dagoan arima ori, Jaunak maite-maite egiten dau, Jauna ta arimea bat eginda dagoz, alkartasun eta maitasun samurrez.

Alan be, galdu egin daikegu adiskidetasun ori, galdu egin daikegu Jaungoikoa. ¿Zelan? Pekatu astunaz

Baiña, ez gaitezain ain urrin joan. Pekatu astunaz galdu ezarren be, urrindu gaitekez Jaungoikoagandik, ez guztiz, baiña naikoa bai: pekatu ariñakaz, onbidean aurrerapiderik ez egiñez. Orixe dirausku San Bernardo teologo aundiak: «Onbide-bizikeran ez aurreratzea, atzeratzea da, eta astiro-astiro Jaunagandik urrindu egiten gara, azkenean Jaungoikoa galtze-raiño».

Erraza da Jauna geugaz eroatea, eta erraza Jauna galtzea; ori, geure borondatean dago; geuk nai dagiguna egingo da; ez jaurti iñori errurik; bakotzak bere egitadakaz erantzun bear izango dau. ¿Urlia orrelakoa edo arelakoa dala? Berak erantzun bear izango dau egunen baten.

Egon gaitezain gu geure buruaren zain, zoli, zuzendu dagizuzan pekatutara eroaten gaituen bideak, eta eskatu dagiogun Jesus Umeari, Jaungoiko Umeari, jakitun areik izan eben adorea: gure uste ona Beragan jarteko eta geroago ta geiago Bera maite izateko.

Jaunaren Agerkundera (Erregen) (Mt 2, 1-12)

Gabon-osteko domekan, Jesukristo gure Jaunaren jaiotza azaldu genduan. Eta Jesus Umea ikustera ta gurtzera leenen joan ziranak artzain batzuk izan zirala, arima zintzo ta garbiko artzain batzuk, Jesus jaio zan gabean Belen'go inguruetan euren artaldea zaintzen ziarduenak.

Geroago, Mateo Ebanjelariak dirauskunez, jakitun batzuk etorri ziran eguzki-sortzaldetik Jerusalem'era, esanez: «¿Non dago judarren errege jaiobarria? Guk Aren izarra agertzen ikusi dogu, eta gur egitera gatorkioz» (Mt 2, 1-2). Ori entzunik, Erodes erregea larritu be larritu egin zan, eta, angu abadeburu ta Lege-irakasleak batuerazorik, Mesias non jaio-bearra zan itandu eutsen. Erantzuna: Belen'en, Mikeas profetak esan ebanez (Mi 5, 1). Orduan, Erodes erregeak jakitunai: «Zoaze ta jakin egizue ume orretzaz aal dagizuen guztia. Eta, aurkitu dagizuenean, jakiñerazo egidazue, neu be bera gurtzera joan naiten» (Mt 2, 8).

Jakitunak Jerusalem'dik urten ziranean, leen ikusiriko izarra aurretik yoiakien, eta, Jesus

umea egoan tokira eldu ziranean, antxe gelditu zan izarraren argia. Eta, etxe-barruan sarturik, Umea aurkitu eben beronen ama Mariagaz. Orduan, Aren aurrean belaunikoturik, opariak eskifii eutsoezan: urrea, intzetzua eta mirra (Mt 2, 11-12).

Ausnartu dagiguzan, entzule onok, Ebanjelio-zati onetako ikasbideak: jakitun arein adorea, apaltasuna ta bizkortasuna, izarraren bidez Jaungoikoak euren biotzetan ezarri eutsen ikareari jarraitzeko, Jesukristo munduaren Salbatzaillea ezagutzeko ta gurtzeko. Urriñeko jakitun batzuk ziran, ez euken judar-erriagaz artu-emonik; baiña, alan izanarren be, euren jaioterria itzi eta Belen'era datoz, Jaunaren deiari jarraitzen dautsoe.

Geuk be ba-daukaguz gure "izarrak": sinismena, graziaren argitasunak, entzute doguzan ikasbide ta burubide onak...

Amaika bidar izaten doguz gure barruan milla ardura, graziaren indarrak eta ikutuak: ori ez egizu egin, txarto dago-ta, pekatu da-ta; egizu beste ori, egiteko beartuta zagoz-ta; ohea izan zaitez; bide orretatik ez zaitez joan, pekatuko bidea dozu-ta; ez dozu ori egiteko eskubiderik, zure lagun-urkoari kalte egiten dautsazu-ta... eta abar.

¿Jarraitzen dautsagu gure "izarrari"?, Jaungoikoak bialtzen dautsuzan argiai?

Onbideari jarraitzen ba'dautsagu, ba-dakigu Jesukristoren bidetik goazana, azkenean Jesukristo aurkituko doguna, mundu onetako gure azken-arnasetan Jesukristo ta Andra Maria izango doguzana, gure arimea euren besoetan artzeko eta betiko zorionera eroateko. Auxe da guztioi biotzez opa dautsuedana.

(I) Erregen-osteko Domekea:

Sendi (Familia) Santua (Lk 2, 42-52)

(OARRA: gauregunean, jai au Gabon-osteko Domekan ospatzen da.)

* * *

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Ederto erakusten dautsuz gurasoen eta seme-alaben eginbearrak. Maria ta Jose Jesus zaintzen, eta Jesus bere gurasoen menpean.

Gurasoen eginbearrak: euren seme-alabak zaindu, euren seme-alabak nondik zear eta nortzukaz dabizan, gorputz-arimako arriskueta dagozan; euren seme-alaben ibillerak zaindu, orduak —gau-orduak batez be—, jantziak... Eta zuzendu samurkiro, baita asarre egin be

noizean bein. Seme-alabak, gurasoakaz batera bizi izan ezkerro beintzat, gurazoen menpean dagoz, emen eta alde guztietan, eta gurasoak erantzun bear izango dabe sarri be sarri euren seme-alabak egiten dabenaz. Baiña, jakin zuzentzen, jakin asarre egiten, deadarrik atara bagarik, geienetan onean-onean geiago lortzen da-ta (ikus Ef 6, 4, eta Kol 3, 21).

Gurasoen eginbearra da seme-alabentzat eredu ona izatea, berbaz eta egitez. Zuek erakutsi txarra emoten ba´dautsezue, ¿zer egingo dabe zuen seme-alabak? Bide zuzena artzea baiño errazagoa da bide okerra artzea, norbere zalekeriai jarraitzea; errazagoa da norbere burua lotzea baiño gorputzaren atsegiña gura izatea, gorputza arimearen menpean eukitea baiño griña txarrai askatasuna emotea.

Orrezaz gaiñera, gurasoak eurak artu bear dabe leenen aziera ona, eziketa egokia, aziera on ori gero seme-alabai emoteko. Ezkonduen eginbearra ez da seme-alabak bakarrik ekartea, seme-alabai aziera ona emotea be leenen-leenena da. Eta orretarako, ondo gertatu bear da bakotxa: artu liburuak, irakurri, ikasi liburuetan, aldizkarietan...

Azkenez, Jesus bere gurasoen menpean bizi zan, dirausku gaurko Ebanjelio-zatiak (Lk 2, 51).

Gazteok: etxean zagozen artean, gurasoen menpean zagoze. Gai asko dagoz onetzaz esateko. Dirua, bear danean erabilteko da, baiña ez parrastaka ta edozela eralgiteko; eta gaurregunean diru asko modu txarrean gastatzen da. Nik baiño obeto dakizue zuek ori, non eta zelan. Aldi onak aldi txarrak dakaz atzean. «¿Dauanean bonbon, ez dagoanean egon?» Ez. Dirua egoki gastatzeko da, gauza onetarako, premiñetarako. ¿Patxadazko bidea bear dala? Orretarakoxe dirua. ¿Argi ohea bear dala? Orretarakoxe dirua. ¿Etxerako ura ekarri bear dala? Orretarakoxe dirua, buruaz, zentzunez gastatzeko.

Jakin egin bear dogu negurriz bizi izaten, negurriz. Ezin daiteke dirua bide-baztarretan erein, aurreratzen jakin baiño, txindorriak negurako janaria batzen dauanez. Eta orain oparo bizi ba´gara, krisis-aldia be eldu daitekigu. Leengo egunean ekonomilari batek esan eustana: «Onela ba´goaz, laster geratuko dira iru-lau millo langille lan bagarik». Ez daitela orrelakorik jazo!

Seme-alabak gurasoai lotsa ta begirunea zor dautseez. Eta ona emen egikera orren sariak: bizitza luzea, gorputzeko ta arimako ondasunak, eta Jaunaren bedeinkapena. Bibliako "Urteera" izeneko liburuan auxe irakurten da: «Aintzat artu aita ta ama, zure Jainko Jaunak emongo dautsun lurrean luzaro bizi zaitezaz» (Ur 20, 12). Emen egoki be egoki etorriko litzakizue Bibliako "Sirak" deritxon 3´garren atalburua irakurtea, 1-16 atalxoak, gurasoai

eta seme-alabai buruz gai oso interesgarriak dakaz-ta.

Gaur, Jesus, Maria ta Jose Sendi santuaren eguna.

Jaunaren bakean eta zorionean bizi zaitezela zeuen etxeetan be.

(II) Erregen-osteko 1º Domekea

Erregen egunean, eguzki-sortzaldeko jakitunak Jesus Umea zelan ikusi ta gurtu eben azaldu neutsuen. Eta gaur, Sendi santuaren eguna dogu.

Lukas Ebanjelariak dirauskunez, «Jesus umea, gurasoakaz batera Nazaret´era biurturik, arein menpean bizi zan» (Lk 2, 51).

Seme-alabak gurasoen eskuetan, buztin-zati bat oilleruen eskuetan lez dira, argizai biguna edonoren eskuan lez. Oilleruak, buztin-zatiaz, berak gura dauana egiten dau: pitxar bat, lapiko bat; nai ba´dau, aingeru totolo bat edo deabru adardun bat.

Gurasook: ¿seme-alaba on, apal, esaneko ta lotsakorrek euki gura dozuez? Zeuen eskuan dago, geienetan beintzat. ¿Gaiztoak, erantzun txarrekoak eta lotsabagak izan daitezala gura dozue? Ori be zeuen eskuetan daukazue: zelako aziera emoten dautsezuen, bata edo bestea jazoko da, Bibliako "Esakunak" izeneko liburuan irakurten danez: «Emon irakatsia gazteari beronen bidea astean; gero, zaartzaroan, ez dau bide aretatik alde egingo-ta» (Es 22, 6). Edo bardin dana: gazteak gaztetan artzen dauan bideari jarraituko dautso zaartzaroan be. Txikia danean oker datorren zugatza be taketaz lotzen dogu, zuzen azi daiten.

Ba-dakit seme-alaben azierea batzuetan gurasoen eskuetan ez dagoana, eskoletan baiño. Eta eskoletako irakasleak ala-olakoak edo gaiztoak ba´dira, neskato-mutikoak okertzeko arriskuan dagoz.

Zuek beintzat, gurasook, irakatsi txikitatik onbidea. Guraso askoren maitasuna ez da sarritan ona ta zuzena izaten, txarra ta kaltegarria baiño: batzuetan, seme-alabak ez naibagetzearren, euronaz urtetzen izten dautsee, nai daben guztia esan eta egiten, arein zitalkeriak ez dabez azpiratzen, arein gurari biurtuak edo okerrak ez dabez txartzat artzen, arein griña okerrak ez dabez zuzentzen...

¿Eta gero zer? Etxeko asarrea ta negarra aunditxoagoak izan daitezanean. Lotsagarria da etxe batzuetan jazoten dana: ogei urteko semeak edo alabeak gurasoak baiño geiago agintzen dau, gurasoen agoak isillerazo egiten dauz, bera da guztia dakiana, bera egiten da etxeko jabe ta nagusi. ¿Nok esan, gero, ari berba erdi? Isilik egon bear, asarratu ez daiten... Maitasun

bigunegiak dakazan ondorenak!

Auxe be izan gogoan: gurasoak zelakoak? alakoak seme-alabak. Euren eredu ona izan bear dozue, arei zeuen jokabide akats-bagea erakutsirik. Ona da irakaspen onak emotea, baiña ohea irakaspenak egitada onez egiztatzea.

Eta orretarako indarrak eukiteko, zuen guraso-eginbearrak zuzen beteteko, eskatu biotzez laguntza gaurko eguna ospatzen dautsegun Jesus, Maria ta Jose Deunai, Nazaret´eko Sendi Santuari.

Erregen-osteko 2´garren Domekea (Jn 2, 1-11)

(OARRA: berbalditxo au 1969´garren urtarrillaren 17´aren aurreko domekan egin neban, Gazeta´ko Andra Mari baselizan. Aldi aretan Gazeta´n egin neban azken-berbalditxo da.)

* * *

Gaurko Ebanjelio-zatian entzun dozuenez, Jesukristo bere leenengo miraria egiten ikusi dogu, bere Barri Ona agirian zabaltzen asi zaneko leenengo miraria, Kana´ko ezteguetan. Ez yakon eldu arteetan mirariak egiteko aldia, Jesukristok berak dirauskunez; baiña, bere Amaren guraria betetearren, aurreratu egin eban orretarako eguna.

Irakatsi ederra emoten dausku emen Jesusek: esaneko izateko, gure guraso ta nagusien esaneko, Elizearen esaneko, Jaungoikoaren legeen esaneko.

Iñoren esana egitea, sarritan gogortxo egiten yaku; gure buruarentzat emoten dogun eritxia, sarritan ez da zuzen-zuzena izaten, itsutu egiten gara-ta. Entzun dagigun, ba, guk baiño geiago dakianak esaten dauskuna. Gizon zuzen eta buru argikoaren burubideak asko balio dau. Eta, benetan, ez geuke onenbeste uts egingo gizon zuzen eta guk baiño geiago dakian gizon orren burubideai jarraituko ba´geuskie. Guztiok gara zerbait burugogorak gure egitadetan; geurea baiño ez dogu ikusten, geure buruaren gurariai jarraitu bear, geureaz urten gura. Enparaduen errazoiak ez dabe ezer balio izaten; neure borondate oso-osea egin gura; enparaduen eritxiak baztatu, isilduazo ta zapaldu. Guzti au —egia esan— betikoa da: gizonaren barrua, Jainkoagan, Kristogan, sendotuta eta sakonduta ez ba´dago, berez setati edo temati ta arroa da-ta. Baiña ori ez da kristau-jokabidea, bide okerra baiño. Kristoren bidea auxe da, izan be: apaltasuna, esaneko izatea, txiki gareala autortzea. Emen, bestela, San Pauloren berbak: «[Jesukristo] gizon-eraz zala, bere burua txiki egin eban, eriotzaraiño esaneko egiñez [zeruko bere Aita Betikoaren esaneko egiñez], gurutzean ilteraiño egin be» (Fil 2, 7-8), gurutzean josia izateraiño egin be.

Beti dago norbait guk baiño geiago dakiana, gaia zein dan. Gai guztietan ez da iñor jakitun, edo trebe, edo nagusi, edo txapeldun, bakotxa bere arloan baiño: arotza arotzerian eta argiña arri-lanetan danez.

Beraz, artu dagigun burubidea gogo onez gai bakotxean jakintsu danagandik, eta gai orretan gauza danak emon begio laguntza orretarako bearrizanean dagoanari; Jesukristok egin ebana bere leenengo miraria egitean: ardao-premiñan egozala, ura ardao biurtu.

* * *

Eta orain, beste gauza bat: jakitun jarri bear zaituet, Gazeta´ko nire adiskide on, zintzo ta maiteok, aurrerantzean Mesea emotera beste abade bat etorriko yatzuela, kaleko elizako abaderen bat, txandaka-edo. San Agustin´go parroku egin nabe, eta, jakiña, bertako arazoetan jardun bear nik. Bete-beteen be, Miota´n be amabietan dabe Mezea, eta ezin etorri ni ona; bestela, jarraituko neutsan ona etorteari, bai pozik be!

Baiña jakin egizue ni leengoa nazana, guztion adiskide izango nozuela, edozein laguntza emoteko gertu naukazuela, baita "Lagunarte"-ko arazoak eroateko be. Egia esan, oraingo Gotzain barriari, Zirarda jaunari, emengoxe arduradun izateko mesedea eskatu neutsan; baiña, ona bialdu bearrean, San Agustin´era bialdu nau, D. Emiliano Ondarroa´ko parroku egin dau-ta. Eta, jakiña, berak esan ezkeru, nik ezin ezetik esan: San Agustin´era joan bear.

Azkenez, ba —obeto esateko, "azkenez" ez, "barriro" baiño—, orain arte lez, aurrerantzean be alkar ondo eroan dagizuela eskatzen dautsuet, alkar maite dagizuela eskatzen dautsuet, Jesukristoren agindu nagusia da-ta. Gazeta´rrok alkartasun aundia dozuela diño kaletarak; neuk be orixe esan dautset guztiai beti, egia dala. Iraun egizue alkartasun orretan, kristau lez eta euskaldun lez, guztiok Jesukristogan anai-arreba gara-ta.

Nik beintzat, zuek nigaz pozik egoteko aalegin guztiak egin dodaz, eta zuek nigaz ondo jokatu dozue; zuetariko iñok be ez daust uts egin, gauzarik txikienean be, ez berbaz ez egitez.

Eta nigan zerbait txarto edo oker dagoanik ikusi ba´dozue, parkatu egidazue, neu be, zuek lez, personea naz-ta. Eskerrik asko biotz-biotzez.

Jaungoikoak, Andra Mariaren bitartez, lagundu ta bedeinkatu zagiezala guztiok.

Erregen-osteko 3'garren Domekea (Mt 8, 1-13)

(OARRA: berbalditxo au, Gazeta'tik San Agustin'go elizako buru izatera aldatu nintzaneko domekan egin neban, 1969'garren urtarrillaren 17'aren urrengo domekan.

Aldi aretan, San Agustin'go parrokiak bere barruan 72 basetxe artzen ebazan: San Agustin'go auzuneak 19 basetxe; Arabio'koak 3; Arauneta'koak 7; Lekeriketa'koak 12; Berriozabaleta'koak 4; Leaniz (Leiz)'koak 9; eta Miota'koak 18.)

* * *

Jesukristo gure Jaunak, uri, erri ta auzoetan bere berbaldi eder, mamintsu ta Jaungoikozkoak egiten ebazanean, mesedeak be esku-zabalez egiten ebazan. Kafarnaun, Betsaida, Magdala ta Galilea'ko erriak dira egia onen lekukorik (testigurik) argienak.

Oneitariko erri batetik igarotean, legenardun (lepradun) bat urreratu yakon; eta, bere itsutasuna estaldu nairik eta Jesusen aurrean belaunikoturik, apal-apalik esan eutsan: «Jauna, nai ba'dozu, garbitu naikezu geisotik» (Mt 8, 1, 2).

Gizon au legenarduna zan, lepraduna, eta legenarra geiso txarra be txarra zan; oraintxe be olako geisoak nekez osatzen dira (orduana, barriz, osatzen ez zan geisoa). Legenardunak erri-tik kanpora joan bear izaten eben, eurak soillik bizi izatera, enparaduen artean bizi izatea debekatuta euken-eta.

Onetarikoxe gizona zan, Jesukristogana urreraturik, Oni esan eutsana: «Jauna, nai ba'dozu, osatu naikezu!» Otoitz ederra benetan, itxaropenez beteriko erregua. Berba gutxitan, a bai Jesusi eskatzen dautsan mesede aundia!

Alakoxeak izan bear leukez geure erreguak be. Otoitza, Jaungoikoagana biotza jaso ta mesedeak eskatzea da. Biotza jaso, biotzez eskatu, biotzez egin berba Jaungoikoari.

Baiña, geienetan, gure erreguak ganorabageak izaten dira, biotzez egiten ez doguzalako, Jaunari eskatzen dautsagunari berotasunik emoten ez dautsagulako, gure erreguak, biotzez egin bearrean, ezpane bakarrrik egiten doguzalako. Eta, jakiña, onelako erreguak Jaungoikoak ezin entzun, obeto esateko, onelako erreguai Jaunak jaramonik egin ez.

Aita Santua ez da aspertzen Jaungoikoari otoitz egin bear dautsagula esaten. Ez aaztu egunoroko otoitzak, gure lan eta arazoetan indarra emoteko balio dabe-ta.

Gure eliz-abestiak be otoitz ederrak dira, eta, sarritan, bakarrean egiten diran otoitzak baiño obeak. ¿Zegaitik? Kantatzen parte artzean, gorputz bat egiten dogulako, guztiok batean Kristoren Gorputz Mistikoa gareala obeto erakusten dogulako, batera egiten dan otoitza

Jaunak abegi onez artzen daualako: alkartasunez eta anaitasunez egiten dana da-ta. Eta orixe da, izan be, Jesukristoren bigarren legerik nagusiena: alkar-maitasuna. Leenengoa, Jauna maite izatea, eta orren ostean, geure lagun-urkoa geure burua lez maite izatea (Mt 22, 39); baiña alkartasunik ez ba'dago, alkar ondo eroan ezik, ezin izan alkar-maitasunik be, eta, beraz, ezin izan kristau zintzo be, azalezko eta guzurrezko kristau baiño. Alkar-maitasunik ez ba'dogu, oso gutxi balio dauskue enparadu egintzak, alkar-maitasuna kristau-bizitzaren oinarri da-ta. Eta ba-dakizue oinarri gogorrik ez daukan etxeari jazoten yakona: lurrera jausi ta ondatu egiten dala.

Alkar-maitasuna oinarritzat artuta, ikasi dagigun, ba, geuk be, nire eliztar onok, Jaungoikoari berba egiten, biotzez berba egiten, egunoroko gure lanak eta arazo guztiak Berari eskintzen (ori be erregu ta otoitz ederra be ederra da-ta), bere magalpean iraun eta bere laguntza izan dagigun.

* * *

Eta orain auxe jakiñerazo gura dautsuet: Bilbo'ko Gotzain barriak, Zirarda jaunak, bialduta, emen naukazue barriro be, San Agustin'go nire eliztar maiteok, zeuen laguntzarako, edozein laguntzarako, neuk aal daikedanez beintzat. Ondo ezagutzen nozue, 1952 asi ta 1960'garren urtillerarte eliza onetan egon nintzan-eta. Arrezkero be ainbat bidar emon dautsuet amarretako Meza Nagusia, gero amabietako Mezea Gazeta'ko baselizan emoteko.

Gizon aundi bat euki dozue abade, bai gorputzez bai espirituz: D. Emiliano Iturraran. Balio aundiko gizona, benetan! Gotzain jaunak Ondarroa'ko parroku egin dau, bide batez ango gora-beerak leguntzeko ta zuzentzeko.

Nik, nire aldetik, aalegin guztiak egingo dodaz aurreratzean be pozik egon zaitezten, eta, barriro be, neure laguntza eskintzen dautsuet, Gazeta'n eskifi ta emon neutsenez. Eta niri zerbait esan naiz agertzen emon nai dagidazuenean, agertu egidazue, mesedez, argi ta garbi, ni zeuen laguntzarako jarri nabe-ta. Etorri nigana nasai-nasai edozein ordutan, egunez naiz gabez, ba-dakizue ondo artuko zaituedana-ta.

Parkatu, lartxo luzatu nakizue-ta.

Erregen-osteko 4'garren Domekea (Mt 8, 23-27)

Entzun dozuenez, egun baten, Jesus, bere ikasle batzukaz, txalupa baten, itsasorantz jo eban; baiña, bat-batean, ekaitz gogorra sorturik, olatuak txalupea itzultzeko arriskuan jarri eben; eta Jesusek, bere aalmena erakutsirik, aizea ta olatuak baretu egin ebazan.

¿Ze irakatsi emoten dausku Ebanjelio-zati onek? Geure arimea be, txalupa aren antzera, arrisku-artean dabillega, betiko galtzeko arriskueta sartuta gagozala; eta, beraz, kontu aundia izan bear dogula gure arimea zaintzen.

Ez dogu bear dan aifña pentsatzen gure arimeaz; gure arimearen ardura gutxiegi izaten dogu, esku-artean darabilguzan arazo ta ardurakaitik; egunoroko arazo oneik, egunoroko egiteko oneik, lotuta izten gaitue, itsututa izten gaitue sarritan, gure arimako gaiak eta eginbe-arrak ikusteko.

Eta auxe da ikaragarria: arima bat bakarrik dogula, eta berau galtzen ba'dogu, betiko galduak gareala. Gogorapen onek dardar eragiten eutsan Loiola'ko Itigo'ri, eta onexegaitik biurtu zan biotz-biotzez Jaunagana, Ebanjelioan Jesukristoren berbok irakurri ebazanean: «¿Zetako yako gizonari mundu osoa irabaztea, bere bizia galtzen ba'dau?» (Mk 8, 35). Itandu, bestela, eriotz-orduan dagozanai. Leengo egun baten San Agustin'go eliz-ostean esan eustena: Gizon bat eriotz-larrian egoala, bere lagun batzuk ikustera joan yakozan, eta au ta ori berbetan ziarduela, geisoak auxe esan ei'eutsen: «Tira, tira: zagoze isilik, lelokeriak esaten jardun bagarik; orain neure arimeaz pentsatu bear dot, eta zoaze, itzi nagizue bakarrik, Jaungoikoagaz berba egiteko».

Ez dago besterik, entzuleok: mundu onetan daukagun arazorik eta eginbearrik aundiena ta garrantzitsuena arimea salbatzea dala. ¿Gorputza zaindu? Bai, obe ez!, baiña bere negurriz, ezela be ez berak nai dagian guztia emonik; gorputza arimearen morroi da, eta ez okerretara.

Ez sartu arriskueta, gazteok batez be, gaurregunean —¿eta noiz ez?— non-nai eta zenbat gura arrisku daukazuez-ta; eta «arriskuan sartzen dana, bertan galduko da», irakurten dogu Bibliako "Sirak" izeneko liburuan (3, 26).

Esan dagiogun sarritan Jesusi, bere ikasleak itsasoan esan eutsoena: «Jauna, salbatu gagiguz! Ondoratzeko zorian gagoz!» (Mt 8, 25). Izan dagigula bere laguntza beti ta toki guztietan, mundu onetako burruka gogorrean, orain eta azken-orduan, garaille, irabazle, urten gaitzean.

Erregen-osteko 5'garren Domekea (Mt 13, 24-30)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Mundu au, solo baten antzekoa da. Soloan, sarritan, garia (naiz beste solo-ariak) eta bedar txarra batera ikusten dira. Mundu onetan be, alde guztietan, naiz errietan naiz auzunetan naiz etxeetan, gizaseme onak, elizkoiak, zuzenak ikusten dira, baita dongak be, okerrak, gaiztoak. Guztiak naaste, bata bestearen ondoan eta artean, garia ta bedar txarra lez.

¿Zer egingo ete-dau Jaungoikoak? ¿Kendu mundu onetatik gaiztoak? Ez, bere zuzentasuna erakusteko, il arte ez dautse geienetan ezer egiten; eriotz-orduan izango dabe euren auzia ta epaia, eta Jesukristok «bakotxari bere egiñai dagokienez emongo dautse ordaiña», Jesukristok berak dirauskunez (Mt 16, 27).

Baiña, ¿nor izan da bedar txar ori zabaldu dauana? «Arerrioren batek egin dau ori», erantzun eutsen ugazabak bere morroia (Mt 13, 28).

Gure arimearen arerioak iru dira: deabrua, mundua ta aragia; zein baiño zein arerio amorratuagoak. Naikoa dira irurok azi txarra ugari ta eurrez zabaltzeko. ¿Zelan jokatu euron aurka?

Barauaren bidez. Askotariko barauak dagoz. Antxiña Abenduan eta Garizuman egiten ziranak eta osterantzeko beste asko, gorputz-barauak bakarrik ez, baita espiritu-barauak be: edanean eta janarian, esate baterako; edana ta janaria bizi izateko dira; ez, oster, bizitza jan-edanetan igaroteko. Bere taixuan gauzak, bere negurriz: or barau egitea.

2'garren barau-era: lotu gure barrua, lotu ta ezi gure zalekeri ta grifña txarrak. Gaur, antza danez, gorputzeko zentzun guztiai atsegifña emon bear yake, atsegin neugurrigabea; or ikusten dozuez batetik bestera, edozela jantzita, ijituen pare, euren duintasuna galduta. Nekeza da, benetan, negurriz bizi izatea, antxiñako kontua. Orregaitik, Apostoluen idazkietan sarri be sarri irakurten dogu negurriz bizi bear dogula, kristauari dagokionez eta ez jentillak lez: «Iratzarririk egon gaitzean, eta begurriz bizi» (Ts 1ª, 5, 6); eta San Pedrok: «Negurridun izan zaitez, eta zoli egon: deabrua, zuen arerioa, leia orroka lez, inguruan dabil-eta, nor iruntsiko zain» (P 1ª, 5, 8). Leengo eguneko batzarrean abade batek esan euskuna: «Leen, emagalduek Bilbo'ko etxe batzuetan bakarrik egoten ziran; orain, oster, kafeterietan, dantza-tokietan eta kaleetan be ikusiko dozuez, eta txarrago oraindiño, baita zeuen etxebarruan be sarritan: telebiziñuan». Iñok ez genduan ezetzik esan.

3'garren barau-era: otoitz egin. Gorputza ta arimea doguz, entzuleok, bakarrak biak, bein eta betiko. Eskatu Jaunari laguntza, gorputz-arimentzako laguntza.

Aztertu dagigun, ba, gure barrua. Oker ba'gabiz, zuzendu gure kristau-bideak, egin zuzentzeko aalegiñak, aalegiñak egin beintzat, astiro-astiro zerbait lortuko dogu-ta. Egin dagigun zerbait geure aldetik, bestetik Jaungoikoak lagunduko gaitu-ta.

Erregen-osteko 6'garren Domekea (Mt 13, 31-35)

Entzun dozuenez, moztaza-azi ori azi txikia da; baiña, bein erne ezker, geroago ta aundiagoa egiten da, zugatza (arbolea) lakoa egiteraiño, eta txoriak be aren adarretan abiak egiten dabez.

Azi ori pekatu ariñaren antz-irudi da. Pekatu ariña, leenengotan, gauza txikia da, irain txikia egiten dautsagu Jaungoikoari pekatu arin orren bidez, ez gara Jaunaren asarrepean jarten, ez dogu Jaunaren adiskidetasuna galtzen; berba batez, arimeak Jaungoikozko bizitzan irauten dau. ¿Nok ez dau pekatu ariñik egiten? Arrokeri-gogapenak, besteen uts txikiak dirala-ta mormoxetan jardun, guzurtxoak esan, gurasoi, asarre-aldian, alako berba bigun-bigunak be ez diranak esan... ¿orrelako pekatu ariñak nok ez egin? Eta batzuetan edo sarritan, norberaren gogoaren aurka izanarren be jausi gaitkez, gaiztakeri bagarik, gura bagarik, ia gura bagarik, obeto esateko.

Benetako gaiztakeriz egiten diranetan dabe pekatu ariñok arriskua. ¿Zegaitik? Igarri bagarik pekatu astunetara eroaten gaituelako. Deabrua, arimea pekatu ariñez beterik dagoan arte, itxaroten egoten da; eta orduan, sekulako tentaldiak bialtzen dautsaz, eta bultza egiten dautso pekatu astunean jausi daiten.

Gauza bat da pekatu ariñetan jaustea; guztiok jausten gara. Baiña beste gauza bat pekatu ariñak maite izatea.

Ona emen pekatu ariñen aurka egiteko iru bide:

1) Otoitza, sarritan. Labur, nai ba'dozue, baiña sarri egun-barruan eta biotzez eginda: otoitz laburtxoak (jakulatoriak), esate baterako.

2) Egunoro "Jesukristo neure Jauna" esan biotzez, gabea ogerakoan batez be. "Jesukristo neure Jauna" biotz-biotzez esanda, pekatu guztiak parkatzen dira, ariñak naiz astunak izan, autortzeko asmoa beragaz daroa-ta.

3'garren erea: pekatu ariñak egiteko bidetik alde egin.

Txarrena, askok pekatu ariña zer dan be ez dakie, eta pekatutzat be ez dabez orrelako oben txikiak, pekatua pekatu izateko aundia edo astuna izan bear dauala-ta. Bai, ba-dakigu, pekatu ariñetik astunera alde aundia be aundia dagoana; baiña, leen esan dogunez, auxe be izan bear dogu kontutan: pekatu ariñak astunetara eroaten gaituela, eta orregaitik, pekatu ariñai be gorroto aundia izan bear dautsegula.

Aztertu dagigun, ba, gure barrua eta ikusi pekatu ariñai be bear dan jaramonik egiten ete-dautsegun, eta eskatu Jaunari pekatu orreïn aurka egiteko laguntza.

Zazpi-asteko Domekea (Septuagésima) (Mt 20, 1-16)

(OARRA: gaurregunean Urteko Domeketara joten dogu, Garizumako 1º Domekara eldu arte.)

* * *

Jesukristo gure Jaunak, bere Barri Ona irakasten ebanean, sarritan ipuiñen bidez agertzen eutsen Berak esan gura eutsena, Berak irakasten eutsen zeruko bidea argi ta garbi ikusi ta aditu egien, obeto ulertu egien.

Gaurko ipuin onetan, antz-irudi onetan, ugazaba a, bere maastia lantzeko, langilleak batzen ikusten dogu. Langille batzuk goizean-goiz aukeratu ebazan; beste batzuk goizeko bederatzietan, eguerdian, arratsaldeko iruretan, eta, azkenez, bostetan. Enparantzan (plazan) egozan guztiak eroan ebazan bere maastira, lanera; eta illuntzean, bakotxak bere saria jaso eban.

Ugazaba a Jesukristo da; langilleak, geu, guztiok, eta maastia, geure arimea. Jesukristo guztioi egiten dausku dei, gure ariman lan egin dagigun, grazia lortzeko lan egin dagigun; eta, grazia lortuta gero, grazian irauteko lan egin dagigun, onoimen edo birtuteak lortzeko aalegiñak egin dagiguzan, gaur, biar, etzi, egun oro: gure grifia okerren aurka beti burrukan jardun bear dogu-ta.

Eta gero elduko da saria, illuntzean, edo bardin dana, geure eriotzako orduan, mundu onetako gure lana betiko amaitu daitenean.

«Lan luzea, benetan, gure bizitza guztian arimearen zain egotea, arimako gure arerioen aurka, il arte, burrukan jardutea», esan daike, urrean, norbaitek. Lan luzea da, egia, baiña ondo eroan daitekera, gure aldetik borondate ona jarten ba'dogu; bestetik, Jaungoikoaren graziak eta laguntasunak ez dauskue utsik egingo-ta.

Zuen etxean iñor sartu ez daiten, ateak giltzaz isten dozuez, edo bestela, txakur bat

lotzen dozue atartean; gauza erraza ori egitea, ardura ori artzea. Baiña errazagoa oraindiño geure arimea zaintzea, Jainkoaren grazian bizi izatea. ¿Zer bear da orretarako? Geuk gura izatea bakarrik, geuk nai izatea. Geure borondatea sendotu ta indartu; geure griñak ezi, zalekerietara biurtu ez daitezán; geure barruaren zain egon, Kristoren bidetik joan gaitézan. Zoli egon, iratzarririk egon, dirausku San Pedro Apostoluak, gure arerioa inguruan dabilkigu-ta, gu iruntsi nairik (P 1^a, 5, 8).

Norbere gurariz, norberak gura dauanez, jasoko dau bakotzak bere sari ona edo sari txarra, geure egitaden negurriz.

Jesukristok guztioi egiten dausku zerurako dei; erantzun egin bear Aren deiari.

Geure borondatean dago erantzuna, geure eskuan dago erantzuna. Ba-dakigu ondotoxo be zelan jokatu, zeintzuk diran gure kristau-eginbearrak; geure barruak esaten dausku noiz jokutzen dogun zuzen eta noiz oker. Geure eskuan dago zuzen ibiltea, geure eskuan dagoz zeruko saria ta zoriona.

Sei-asteko Domekea (Sexagésima) (Lk 8, 4-15)

Jaungoikoak guztiok gura gaitu beragandu, guztiok nai gaitu zeruratu; baiña indarrez ez, nai ta ezean ez, geure gurariz eta borondatez baiño. Askatasun osoa emoten dausku.

Orretarako, geure barrura egiten dausku berba, geure burura, bere argitasun zerutarrak bialtzen dauskuz, ondibeari jarraitu dagiogun.

Guztion biotzetan ereiten dau azi ona; baiña guztiak ez dautsoe ondo erantzuten; askok, jaramonik be ez dautsoe egiten; lureko gaiez beterik dagozan ezkerok, ez dabe zeruko gairik nai, ez dabe salbamen-bidetik joan nai, ez dabe zerurako bidetik joan nai: Jesukristoren azi ona galdu egiten da orrein biotzetan.

Askotariko azia ereiten dau Jesukristok gure biotzetan. Gure arteko guztiok ondo artu genduan sinismen-azia: bateoaz, leenengo Jaunartzeaz, Sondotzaz, Autortzako Sakramentuaz eta beste elizkizunen bidez be bai. Ba-doguz ugari Jainkoaren argitasunak, zelan jokatu bear dogun jakiteko: Jaungoikoaren amar aginduak, Eliza Deunaren bost aginduak, domeka ta jai guztietan entzuten doguzan irakurgaiak, Jesukristoren Barri Ona edo Ebanjelioa batez be. ¿Zelan beteten doguz? ¿Geroago ta obeto beteteko aalegiñik egiten ete-dogu? Pekatu ariñak egiteko bildur ba'gara, gure arimak ondo jorratuta, ondo landuta egongo dira zeruko graziak eta argitasunak onartzeko, eta beraz, gure arimetan ez da pekatu astunik sartuko. Jesukristoren azia lur onean jausiko da, eta zerurako egintza onak egingo doguz, eta zerua, entzuleok,

egintza onakaz irabazten da, aziaren frutu onakaz. Izan be, bakotxa nor dan, zelakoa dan, frutu onakaz, egintza onakaz ezagutzen da. Jesukristok argi ta garbi dirausku nortzuk diran zuzenak eta nortzuk gaiztoak: «euren frutuetatik —euren egintzetatik— ezagutuko dozuez» (Mt 7, 20).

Batzuek parra-parra esaten dabe eurak kristau zintzoak dirala, elizara be sarri joaten dirala, eta abar. Ez da ori naikoa: berbak ez dira naikoa, egintzak baiño. Sarritan, Jainkoaren aurrean, kristau izanarren, alkar-maitasuna beteten ez dauana baiño zintzoagoa da alkar-maitasun ori ondo ta zeatz beteten dauana. ¿Zegaitik? Kristau izanarren, alakoak kristau-izena bakarrik daroalako, bere eginbear nagusian, alkar-maitasunean, kristau ez danak baiño okerrago jokutzen daualako, Kristoren antzik ez daukalako.

Guztiok daukagu ereinda azi ona gure biotzean; azi ori erne-azo egin bear dogu. ¿Zelan? Berbaz bakarrik ez, egitada onakaz baiño, egintza onakaz; eta egintza oneitatik beifiena ta nagusiena, alkar ondo eroatea, alkar maite izatea; Jesukristok agindu euskun legerik nagusiena auxe da-ta: alkar maite izatea (Mk 12, 31). Eta beste txatal baten: «Agindu barri bat emoten dautsuet: alkar maite izan dagizuela; nik maite izan zaituedanez, zeuek be alkar maite izan egizue. Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean» (Jn 13, 34-35). Jaungoikoa leenen, eta, Jainkoaren ostean, geure lagun-urkoa geure burua lez (Mk 12, 31-33).

Bete dagigun, ba, Berak esana ta agindua.

Bost-asteko Domekea (Quinquagésima) (Lk 18, 31-43)

Entzun dozuenez, Ebanjelioko leenengo zati onetan, Jesukristok bere nekaldi eta eriotza aurretiaz iragarten dauz, baiña irugarren egunean berbiztu egingo dala dirautse bere amabi ikasleai.

Bigarren zatian, barriz, Jeriko'ko itsuaren osaketa entzun dozue.

Itsu a pekatariaren irudi dogu, entzuleok. Itsuak ez dau ezer ikusten; eta pekatu astunean egiten diran egintzak be ez dabe zerurako ezer balio; egintza on-onak izanarren be, ez dabe zerurako irabazirik; geienez, be, pekatu astunetik urteteko ta Jaungoikoaren adiskidetasunean jarteko, grazi santutzaillean jarteko, balio izaten dabe.

Baiña itsu arek, lagunartearen zaratotsa entzun ebanean, ea zer jazoten zan itandu eban, eta Jesus nor zan, andik zetan eta nora yoian, eta abar. Eta, Jesus mirari aundiak egiten eba-

zan gizona zala jakin ebanean, bera be Jesusi deadarka asi yakon, beraganaiño urreratu zedin: «Jesus, Dabid'en seme ori, erruki izan zakidaz!» (Lk 18, 39). Alperrik esan enparaduak are-lako deadarrik ez atarateko: berak orduan eta geiago, osatzeko une egokia galdu ez egian: «Jauna, ikusi dagidala barrero!». Baita lortu be bere gurari bizia: «Ikusi egizu barrero. Zeure sinismenagaitik geratzen zara osatuta», esan eutsan Jesusek (Lk 18, 40-42).

Gutziz benetakoa ta biotzez esana itsu aren erregua. Ikasbide ederra emoten dausku guztioi gizon arek: bearrizanetan Jaungoikoagana jo ta laguntza eskatzea. Agertu egin bear dau-tsaguz gure bearrizanak, Jaungoikoak ikusten ez dauzalako ta ez dakizalako ez, Berari eskatzea gura daualako baiño. Jesusek ondo be ondo ekian gizon a itsua zana; baiña, alan be, zer gura eban itandu eutsan.

Sinismena berotu bear dogu, entzuleok, gure otoitz, eskari ta erreguetan; guk bear doguna sinismen osoz eskatu, biotzez eskatu: gure arimeari komeni ba'yako, Jaungoikoak gure eskariak ontzat artuko dauz-ta. Orixe agertzen dausku Jesukristok bere Ebanjelioan beste mirariak egiten ebazanean be: leenengo, sinismena berotzen eutsen, Berak aal ebalatzen osaketa a, mirari a egitea, eta gero egin.

Esan dagiogun Jaunari: Jesus Jauna, neuk be ikusi dagidala egizu; ikusi ta ezagutu dagidala nor zarean eta ni nor nazan; argitu egidazuz nire zentzuna ta adimena, geroago ta obeto ezagutu zagidazan eta gero ta geiago maite zagidazan, nire inguruko lagun guztiak geiago maite izanez, zeure irudiko ta antzeko dira-ta; eta Zeuk esan zenduan, Jesus Jauna, lagun-urkoa maite izan ezkerro, Zeu maitatzen zaitugula. Emon egidazu orretarako zeure grazia, guzti-guztiak maite izatea batzuetan gaitz egiten yat-eta. Lagun egidazu beti, egon zaitez beti neure ondoan, Jesus Jauna!

Garizumako 1º Domekea (Mt 4, 1-11)

Ebanjelio-zati onetan entzun dozuenez, tentaldiak zelan azpiratu bear doguzan irakasten dausku Jesukristok.

¿Zer da tentaldia? Tentaldia, pekatutarako zirikaldi bat da, pekatutarako bultzakada bat. Tentaldiak, deabruagandik, geu inguratzen gaituen gauzetatik eta geugandik datoz. Gure arimeak iru arerio dauzala ikasi genduan Kristau-Ikasbidean: deabrua, mundua ta geure aragia. Oneixek irurok dira, izan be, gure arimearen tentatzailleak, gure arimearen iru arerioak.

Deabrua, gure areriorik maltzurrena, leoi baten antzera dabilkigu inguruan, gu iruntsi-teko zain, gure arimak galtzeko gurariz (P 1ª, 5, 8).

Mundua, gu inguratzen gaituen gauzak. Amaika tentaldi etorten yakuz munduko gauze-tatik, euren artean bizi bear dogu-ta. Mundu onetan ikustekorik, entzutekorik eta atsegiñik naikoa dago pekatutara bultza egiten dauskuenak; eta, gure zentzunai askatasun larregi emoten ba'dautsegu, eurak gura dabena ikusi, entzun, esan eta egiteko, ainbat tentaldi sortuko dira, geienetan pekatutan ondatuko gaituenak.

Baiña areriorik txarrena, doillorrena ta biurriena, geure aragia, pekatuaren lorratza beti geugaz daroagu-ta. Deabruari ta munduari iges egin daikeoegu; gure aragiari, barriz, ezela be ez, beti geugaz batera dago-ta.

Tentaldiari iñok be ezin iges egin daikeo; toki ta alde guztietan dago tentaldia, eta Jesukristori berari be basamorturagiño jarraitu eutsan. Jesukristoren tentaldia, orraitaiño, ez zan bere aragiagandik izan, Jaungoikoa zan eta da-ta; ezta munduagandik be, munduaren egille ta jabe Bera da-ta; deabruagandik baiño, eta ori Jesusek itzi, laga egin eutsalako, guretzat eredu izateko.

Tentaldia toki guztietan aurkituarren ez gara larritu bear orretzaz. Tentaldia, berez, ez da ona ez txarra: lotuta dagoan txakur gaiztoaren antzekoa da: aausi, zaunka egin daike, bai, baiña aginka iñori be ez, ari urreratzen ez ba'yako. Tentaldian jaustea da txarra, jaustea; tentaldian nagusi urtetzen ba'gara, ostera, tentaldi ori geure alderako irabazi biurto dogu, eta beste tentaldi batzuetan nagusi urteteko indarra emoten dausku gaitzera.

¿Zelan azpiratu tentaldia? 1) Galbide edo pekatu-arriskuetatik alde eginda. Argiro dirausku Bibliako "Sirak" izeneko liburuak: «Arriskua maite dauana, bertan jausiko da» (3, 26). 2) Jesukristoren esanai jarraiturik: «Egon zaiteze iratzarririk eta otoitz egizue, ur dagoan tentaldian jausi ez zaitezen» (Mt 26, 41). Iratzarririk egon, zuur egon, zoli egon, argi egon, eta otoitz egin, erregutu, eskatu Jaungoikoari laguntasuna, Andra Mariaren bitartez.

Esan dagiogun Jesukristori ikasleak itsasoko olatuen erdian esan eutsena: «Jauna, lagun izan zakiguz, galtzeko arriskuan gagoz-ta» (Mt 8, 25.).

Aldi on eta oso egokia Garizuma-aldi au, geure barrua aztertu ta arakatzeko, eta gure jokabide okerrak zuzentzeko.

Garizumako 2'garren Domekea (Mt 17, 1-9)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesus, iru Apostoluen aurrean, zeru-jantziz aldatu zan, bere Jaungoikozko izatea agerturik. Bere aurpegia eguzkia baizen argi eukan, bere soifiekoak edurra baiño zuriago biurtu ziran.

Eta iru Apostolu areik, auzpaz jausi ziran, guztiz ikaratuta. Orduan, «Jagi zaitzeze —dirautse Jesusek—; ez izan bildurrik» (Mt 17, 7).

Sarri jazoten yaku geuri be antzerakoa: gure buruaren ezereza ikusirik, edo-ta gorputzarimearen ainbeste arrisku artean inguratuta gagozala konturaturik, bildurrez jarten gara ea zer jazoko ete-yakun, edo-ta gure arerioak azpiratzeko indarrrik izango ete-dogun, leengo domekan aitatu neutsuezan gure arimearen iru arerio bildurgarriak azpiratzeko.

Milla bidar entzun dogu gure arimearen iru arerio onein aurka beti burrukan jardun bear dogula, egunez eta gabez, etxean eta kanpoan, gure on eginbearraren zain. Baiña, geure indarrakaz bakarrik, ¿ezer egin aal izan ete-daikegu? Ez, borondate onenaz jokatuarren be. Zeruko indarra bear dogu, Jesukristori egin bear dautsagu deadar, bere laguntza bear dogu: eskatu, otoitz egin, erregutu egin bear dautsagu, gure alde bere grazia bialdu daiskun. «Guztia aal daiket bizkortzen nauan Aren indarrez», dirausku San Paulo Apostoluak (Flp 4, 13). Eta beste au: «Naikoa dozu nire grazia, makaltasunean agertzen da bete-bete nire indarra-ta» (Ko 2ª, 9).

Guztiok dakigu zelan egiten yakon otoitz Jaungoikoari, zelan eskatzen dan bere laguntasuna. Ez gaitezala alperkeriz Jesukristogandik urrin bizi, pekatu astunean bizi izanik. Garizuma-aldi au dogu Jainkoagana biurtzeko aldirik egokiena. Ekarri sarritan gogora bere aurrean gagozala, gure egitada guztiak ikusten dauzala, bere aurrean eta inguruan eta Beragan bizi gareala, San Paulok dirauskunez: «Beragan bizi, ibili gabiz eta gara» (Ap 17, 28).

Deadar egin dagiogun, ba, sarritan, guri lagun egiteko. Esan dagiogun gure premifia guztietan eta egun-barruan be bai, ainbeste lortzen dauan otoitz laburtxo au: «Jesusen Biotza, Zeugan dot nire itxaropena». Zigur egon: izango dogu bere laguntza gure larrialdi guztietan.

Garizumako 3'garren Domekea (Lk 11, 14-28)

Ba-dakizue Garizuman gagozana. Ba-dakizue pekatuen damua izateko eta Jaunagana biurtzeko urteko sasoirik egokiena Garizumea dana.

Leengo domekan, San Paulo Apostoluaren berbak ekarri neutsuezan gogora (San Paulo "Apostolua" esan dautsuet: berez, San Paulo ez zan izan Jesukristoren amabi Apostoluetariko; baiña, Jesukristoren Barri Ona zabaltzen ifnok baiño lan geiago egin eban ezkerro, leengo mendeko kristauak izena "Apostolu" ezarri eutsoen, eta arrezkerro "atzeritarren Apostolu" esaten yako).

Ona emen, ba, bere berbak: «Guztia aal daiket bizkortzen nauan Aren [Jesukristoren] indarrez» (Flp 4, 13).

Bai, ori orrelaxe da eta orixe egin dau Jaunak guri buruz: bere jarraitzaileen artean jarri gaitu sinismena emonez, Sakramentuak emonez, bere irakatsia ta grazia emonez; eta, orrezaz gaiñera, San Paulo berak beste idazki baten dirauskunez, «Jesus alkartasun obearen bitarteko izan zan egiña» (Ebr 7, 22), Bera dogu Jainkoaren eta gizonen bitarteko. Bere aldetik, gu salbatzeko bide guztiak agertu dauskuz; geure borondatearen baietza bakarrik bear da. Orregaitik San Agustin'ek: «Jaungoikoak, zeu bagarik egin zaituanak, ez zaitu zeu bagarik salbatuko» (169'-garren Berbaldia).

Zuk eta nik, zuzen jokatu nai ez ba'dogu, zerurako bideari jarraitu nai ez ba'dausagu, geure arimea salbatu gura ez ba'dogu, ifnok ez gaitu salbatuko, Jaungoikoak berak be ezin salbatu izango gaitu geuk nai izan ezik, San Agustin aundiak diñoanez: «Guk ezer egin bagarik egin gaituanak, ez gaitu salbatuko gure borondatearen aurka». Judasek ifnok baiño on-esan geiago artu ebazan, urrean; baiña, alan be, Apostoluen artean bera bakarrik galdu zan, berak arela nai izan ebalako.

Geure artean be jazo daiteke orrelakoren bat: zeruko bideak ba-dakiguz, onbideari zelan jarraitu be ba-dakigu, zuzenak eta zintzoak zelan izan eta gaiztoak zelan ez izan be ba-dakigu; Jaungoikoaren aginduak eta Eliza Deunarenak bete bear doguzala eta zelan bete bear doguzan be ba-dakigu, geienetan beintzat. Baiña indarrez ez gaitu ifnok orretarako beartzen, ez gaitu Meza entzutera ifnok indarrez ekarten; geure naimenaren edo borondatearen baietza bear da orretarako. Jainkoaren indarra edo grazia ba-daukagu; baiña geuk emon bear dogu baiezkua, eta gure baietza egiteakaz agertzen ba'dogu, gure salbamena geure eskuetan dogu, eta ifnok ez dausku eskubide ori kenduko.

Sendotu dagigun, ba, gure borondatea, Jesukristoren maitasunari erantzuteko, Jesukristori baiezkoa emoteko eta onbideari jarraitzeko aalegin guztiak egiñik.

Garizumako 4'garren Domekea (Jn 6, 1-15)

Entzun dozuen Jesukristok egindako mirari au —ogi ta arrain ugaritzea—, Eukaristiaren antz-irudi da.

Israeldar gosetu arei emon eutsen ogia baiño askozaz be gozoagoa ta osasungarriagoa da arimearentzat altarako mai santuan kristau guztioi Jesukristo gure Jaunak emoten dauskun Ogia. Ogi au zeruko ogia da. Ogi au Jesukristoren gorputza da, bere odol, arima ta Jaungoikotasunagaz, sarri be sarri entzun dozuenez.

¿Zer egiten dau gure arimetan ogi onek?, Eukaristia deritxon Sakramentu onek? Beste janariak gorputzean egiten dabena egiten dau janari santu onek gure ariman. Janariak eta gorputzak bat egiten dabenez, geuk be Jesukristogaz bat egiten dogu, Beragaz alkartzen gara batasun osoz.

Ezin bizi gaitেকেz janari bagarik: astiro-astiro argaldu, indar bagarik geratu eta il egingo gintzakez. Auxe berau jazoko litzake gure arimako bizitzaz be, Eukaristi-janaria artuko ez ba'geuke. Argiro esaten dausku Jesukristok: «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Eta nik emongo dodan ogia, neure aragia da. Munduak bizia izan dagian emoten dot nire aragia» (Jn 6, 51).

Janariak, gorputzeko bizitza iraunerazoaz gaiñera, gorputza azi, sendotu ta indartu egiten dau. Eukaristiak be orixe egiten dau ariman: Jainkoaren bizitzan edo grazi santutzaillean iraunerazo bakarrik ez, grazia ugaritu be bai, Jainkoaganako maitasuna berotu, guban onoi-menak sendotu, eta beste milla grazien duin egin, gure arerioen aurka egiteko.

¿Zegaitik uste dozue ainbeste ta ainbestetan, edozein tentaldiren aurrean burua makurturik, pekatutan jausten dala gizon ori, andrazko ori, gazte ori? Zeruko janari au sarritan artzen ez dabelako, edo-ta, sarri artuarren, arimea bear danez gertatzen ez dabelako.

Azken-aparitan emon eutsen lenengoz Jesukristok bere gorputza Apostolui. Orduantxe egin eban Eukaristia Sakramentua. Baiña Apostoluetariko bat —Judas— ez egoan Jaungoikoaren grazian, pekatu astunean baiño, eta Jesusek auxe esan eutsen: «Zuek garbi zagoze, guztiok egon ezarren be». Ba-ekian Jesusek ondotox be nok salduko eban; orrexegaitik esan eban gaiñera: «Ez zagoze guztiok garbi» (Jn 13, 10-11). Edo bardin dana: Arimaz garbi

zagoze, baiña guztiok ez.

Beraz, arimearen aldetik, garbi egon bear da: Jainkoaren adiskidetasuncan, grazian, pekatu astun bagarik; gero, sinismena berotu bear dogu, Bera artzeko gogoa biztu, gure ezereza apaltasunez ikusi, eta Beraganako gure maitasuna sendotu, Eukaristia Maitasunaren Sakramentua da-ta.

Biztu dagigun, ba, entzuleok, gure biotzetan Eukaristiaganako zaletasuna, gizonetako andrazko nagusiok eta gazteok. Gazteok indar geiago dozue gorputzez, baiña arimaz ez, gaztetako grifak eta zalekeriak indartsuagoak eta adoretuagoak izaten dira-ta, pekatutan jausteko arrisku geiagotan egoten zaree-ta.

Gogoan izan dagiguzan Jesukristok bariro esan ebazan berbak: «Ogi au jan dagiana, betiko bizi izango da» (Jn 6, 58). Betiko bizitza, betiko zerua; arakoxe izan gintzazan sortuak; bertako bidetik joan gaitazan Eukaristiaren indarraz eta laguntzaz.

Garizumako 5'garren Domekea (Jn 8, 46-59)

Gaur, Nekaldi-aurreko deritxon domekea da. Erramu-aurreko astea. Gure Eliza santuak Jesukristoren nekaldia ta eriotza gogoratzeko esaten dausku, geure artean batu, geure barruan sartu, Jesukristoren neke-oiñazeak ausnartzeko.

Ba-ekian Jesusek, egun gutxi barru, izugarrizko min, naibage, oiñaze, menperatasunak eta, azkenez, gurutzean eriotza eroan izango ebazala. Eta guzti ori, Beragaitik ez, gizonaren pekatu ta gaiztakeriakaitik baiño, gizona salbatzearren baiño. Orregaitik, argi ta garbi dirautse judarrai: «¿Zuetariko nok egiaztu daike nigan pekatuak?» (Jn 8, 45). Edo bardin dana: ez dago zuen artean bat, nik iñoiz pekatu egin dodala esango daustanik. Eta au be esan eban jarraian: «Egia ba-dirautsuet, barriz, ¿zegaitik ez daustazue sinisten?» (Jn 8, 45). Edo bardin dana: iru urte(t)an diardut zuei neure irakatsia agertzen, zuen aurrean arrigarrizko mirariak egiten, Aita Jaungoikoaren irakatsia zabaltzen diardut zuek argi ikusi dagizuen, Jaunagana biurtu zaitezten eta neure ta zeruko neure Aitaren egia onartu dagizuen.

Baiña alperrik, guztia alperrik; erri a itsututa ta gortuta egoan, eta arriak artu ebezan, Jesusi jaurtiteko, eta andik laster, egun batzuetara, gurutzeko eriotza emongo eutsen. Ikaragarritzko gaiztakeria Jaungoikoaren Semea iltea!

Entzuleok: antzerako iraiña egiten yako Jaungoikoari bere aginduren bat austen dogun bakotxean; bardiña ez, baiña antzekoa bai, Jaungoikoa norberagandik jaurti egiten dogu-ta,

bere arerio biurtzen gara-ta.

Pekatu astun guztiak dabe euren gaiztakeri aundia, egia da. Baiña batez be, Jaungoikoaren izena loitzeak. Pekatu au, biraoa, pekatu guztietarik aundinetarikoa da, biraoak Jaungoikoaren izena aurrez-aurre, zuzen-zuzen zapaldu ta loitzen dau-ta. Deabruaren beraren pekatua esaten yako. Ain zuzen be, biraolaria deabru edo deabrudun dala esan daiteke, deabrua bere barruan daroana. Biblian irakurten danez, alakoa arrika ilten eben, Jaungoikoari egiten yakon iraiñaren ordez, eta enparaduentzat aspergarri izateko. Naiz-ta erderaz esan, geure artean be entzuten dira biraoak.

Judar erriak Jainkoaren Semeari eriotza emon eutsan, bai; baiña munduko erri guztien izenean emon eutsan, guztiok gengozan Kristori eriotza emoten, eta oraintxe be barrizten dogu Kristoren nekaldia gure gaiztakerien bidez.

Autortu dagiguzan gure pekatuak, guztiok gara pekatari-ta; izan dagigun benetako damua, Jauna besoak zabalik dago gu besarkatzeko-ta; biurtu gaitzezan Jaunagana, ibili gaitzezan bide zuzenetik, iguindu dagiguzan bide okerrak, pekatutarako arrisku diran bideak batez be; geure eskuan dago zuzena edo gaiztoa izatea; bakotxak bere egitaden arauz erantzun bear izango dau; ez jaurti iñori errurik, ez esan urlia edo berendia orrelakoa edo arelakoa danik norbere burua zuritzeko, arezaz ez dozu erantzun bear-eta, zeure buruaz baiño. Ari pekatu eragin ba dautsazu, bai, orduan erantzun bear izango dozu aren pekatuaz.

Eliztar maiteok: edo betiko bizia edo betiko eriotza; norbere eskuan dago, norberak aukeratu.

Eguen Santu (Jn 13, 1-15)

Irakurgaian entzun dogunez, gaurko egunez egin eban Jesukristok Eukaristia, bere azken-aparitan, Apostolui bere gorputza emonez, bere odol, arima ta Jaungoikotasunagaz.

Eta auxe esan eutsen: «Au neure gomutaz egizue (Ko 1, 11, 24). Eta arrezkero, orixe egiten dau abadeak Mezatan: ogia ta ardaoa Kristoren gorputz eta odol biurtu, Beronen arima ta Jaungoikotasunagaz. Orregaitik, Mezea guk Jaungoikoari egin daikeogun egintzarik eta oparirik baliotsuena da, Jesukristok berak eskintzen dautso bere burua Aita Jaungoikoari. Gaur, Eguen santuz, ospatzen dogu mirari aundi orren urteurrena, agiriz eta aundikiro ospatzea Gorpuzti egunerako itzirik.

Gaur, beste aldetik, beste egikizun bat be ospatzen dau gure Eliza santuak mundu guztian: alkar-maitasuna.

¿Zelan agertu maitasun au gure lagun-urkoai? Egintzakaz. Euskaldunok, berba gutxi-koak eta egintza aundikoak gareala irakurten dogu liburuetan. Olantxe agertu bear dogu gure alkar-maitasuna be gure lagun-urkoai buruz: egintzakaz.

Begira zer irakurten dogun Ebanjelioan eta Apostoluen idazkietan:

San Paulok: «Zuek, anaiok, askatasunera zaree deituak; askatasun ori ez egizue, orraiño, aragiaren morroitzarako artu, alkarri maitasunez lagun egiteko baiño» (Ga 5, 13).

Jesukristok, San Markos Ebanjelariaren bidez: «Gizaseme au be ez da zerbitzariak eukiter a etorri, zerbitzari izatera eta bere bizia guztien askatasunaren ordaintzat emotera baiño» (Mk 10, 45);

Barrero be Jesukristok, San Joan Ebanjelariaren bidez: «Jesusek Apostolui oiñak garbitu eutsezanean, auxe esan eutsen: "Ikasbidea emon dautsuet: nik zuei egin dautsuedanez egin bear dozue zeuek be"» (Jn 13, 15).

Kristok, azken-aparitan, gure salbamenerako bere gorputza emonda gero, biaramonean bere bizia emon eutsan zeruko Aitari gure alde. Maitasuna agertzeko, ez dago bere bizia eskintzea baiño agiri aundiagorik. Orregaitik, orixe berori irakasten dausku Jesukristok bere Ebanjelioan San Joanen bidez: «Bere adiskideen alde bizia emotea baiño maitasun aundiagorik ez dago» (Jn 15, 13). Eta San Joane bere leenengo idazkian: «Geuk be gure bizia anaien alde emon bear dogu... Ez daigun berbaz eta miñez maitatu, egiñez eta benetan baiño» (Jn 1ª, 3, 16 eta 18). Eta San Paulok: «Legea, oso-osorik, maitasuna da» (Erm 13, 10).

Entzule onok: entzun dozue labur-labur Jesukristok eta Apostoluek dirauskuena: Kristoren agindurik nagusiena Jaungoikoa ta geure lagun-urkoa maite izatea dala, alkar ondo artzea, alkar ondo eroatea, alkarri laguntza emotea. Ez daigun gure burua larregi maitatu, ez gaitzezan zekenak izan; izan gaitzezan, oster a, esku-zabal, eta besteen bearrizanak arintzeko ta osatzeko gertu egon beti. Ba-dogu onen premiña gure artean: «Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean», dirausku Jesukristok (Jn 13, 35).

Obeak izateko aalegiñak egin dagiguzan, zintzoagoak izateko aalegiñak, kristau sutsuagoak izateko aalegiñak, baiña beti maitasunaren bidez.

Ausnartu Jesukristok dauskun maitasuna, gaurko egunez gure arimen janaritzat bere Gorputza itzi euskun-eta.

Pazko-Domekea:

Jaunaren Biztuerea (Mk 16, 1-7)

Leenen, guztioi, Pazko-egun zorientsuak opa dautsuedaz biotzez, bakez eta pozez beterik, Jaunaren grazi ta adiskidetasunaz batera.

Gaiñera, neure eskerrona agertu nai dautsuet, gure Jainko Jaunari ondo be ondo erantzun dautsazuelako, Aste Santuko elizkizunetara etorririk. Guztiz begi onez ikusiko eban gure Jaunak eliza au gizonez eta andraz beterik. Zigur egon: bere bedeinkapena gaiñera etorri yatzue.

Gaur, Jesukristoren Biztuerea ospatzen dogu, guztiok dakizuenez; gure Eliza Deunaren jairik aundiena ta ospatsuena.

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesukristoren biztuera goragarria azaldu dausku Markos Ebanjelariak. Gauza arrigarria gizon bat barrero biztutea; eta arrigarriagoa ilda dagoanak bere burua biztutea. Berak bai, Jesukristok bai, iru gutxienez biztu ebazan, Ebanjelioan irakurten dogunez: Lazaro, iru egunean lurperatuta egon zana; Nain'go mutil gaztea, eta Kafanaun'go amabi urteko neskatillea.

Baiña iñoiz ez da entzun norbere burua barrero biztu dauanik. Ori, Jesukristok bakarrik egin eiketan, Jaungoikoaren Semea zalako, zeru-lurren aal-izatea ebalako, bizien eta illen jabe ta jauna zalako ta dalako.

Iru bidar beintzat esan eutsen Berak aurretiaz bere ikasleai: «Gizaseme au abadeburuen eta Lege-irakasleen eskuetan itziko dabe; areik eriotzara galdu eta jentillen eskuetan itziko dabe; Aren lepotik barre egingo dabe, txistua botako dautsoe, zigorkadaz astindu eta il egingo dabe. Baiña irugarren egunean biztu egingo da barrero» (Mk 10, 33-34; Mt 20, 17-19; Lk 18, 31-34).

Entzun dozuez azken-egunotako elizkizunetan, Jesukristok gugaitik izan ebazan naiba-geak, atsekabeak, neke-miñak eta oiñazeak bere nekaldian eta gurutzeko eriotz-orduan. Baiña etorri zan irugarren eguneko goizalde, eta Jesukristok bere Jaungoikozko aalmena erakutsi eban. Beste batzuk berbiztu ebazanak, bere burua berbizteko aalmena be ba-eukan, Jaungoikoa zan-eta

Poztu gaitazan, ba, entzule zintzook, gure Eliza Deunagaz batera: geu be, egunen baten, Jesukristoren aldamenen jarteko biztuko gara barrero. Orixe dirausku San Paulok: «Jesus il

eta biztu egin zala sinisten ba'dogu, Jesusegan ildakoak be Jaungoikoak Aregaz beragantuko dauz» (Ts 1^a, 4, 14). Izan be, Jesukristo da gure buru ta erakusbide.

Eta ba-dakigu: leenen, bizitza onetan, Jesusen antzera, nekeak eroan bear doguz, eta, azkenean, eriotza datorrigu; baiña neke-samin onekaz irabazten dogu gure zoriona, neke-samiñok iraupen eta eroapenez eroanik, Jaungoikoari eskiñirik.

Izan gaitetzala guztiok zorioneko gure azken-egunean, Jesukristoren lagun izateko. Orixe da kristau guztion elburua, eta orixe opa dautsuet biotzez: pozez beteriko betiko bizitza.

Pazko zorientsuak guztioi.

Pazko-osteko 1^o Domekea (Jn 20, 19-31)

«Bakea zuei!», dirautse Jesukristok bere leenengo agurtzat Apostolui, biztuta gero agertu yakenean. «Bakea zuei!» Berba gutxitan ainbat ondasun. ¿Zegaitik? Bakea, mundu onetako ondasunik ederrena, aundiena ta baliotsuena dalako. Bakeak ondasunak, aberastasunak eta aginpideak baiño askozaz geiago balio daualako, atsegifiak eta gozotasun guztiak baiño geiago balio daualako.

Baketan bizi dana ondo bizi da, aukeraz eta patxadaz bizi da; baketan bizi dana, zerutarren antzera bizi da: zeruan ez dago asarrerik, ez gorrotorik, ez kezkarik, ez ikusi-eziñik, ez larritasunik, ez artegatasunik. An guztia da bakea, atsedena, zoriona. Agurrera ederra, benetan, Jesusek bere Apostolui egiten dautsena: bakea zuei!

Baiña bakea, batzuetan eta toki batzuetan, benetako ta egiazkoa izan bearrean, azalezkoa izan daiteke, itxurazkoa, indarrezkoa be bai, indarkeritik datorrena, espetxeetan eta illobitegietan (kanposantuetan) izaten dan lakoa. Baiña ori ez da bakea, ez da benetako bakea, guzuzrezko bakea baiño.

Orregaitik, entzuleok, bakeak, egiazkoa izateko, iru eratakia izan bear dau: Jaungoikoa-gazko bakea, gure lagun-urkoagazko bakea, eta gure buruagazko bakea.

Jaungoikoa-gazko bakea. «Gaiztoentzat ez dago bakerik, diño Jaunak», Bibliako Isaias'en liburuan datorrenez (Is 48, 22). Izan be, Jaungoikoa-gaz asarre dagozanak, pekatu astunean dagozanak, ez dauke bakerik, pekataria Jainkoaren zigorraren azpian dago-ta; Jaungoikoak berak jarten dau estutasunean aren barrua, pekatariaren barrua; alakoak arra dauko bere barruan, beti zirikatzen dautsan arra, pekatutik urten daiten. Pekatariak ez dauko barruko bakerik, kanpokaldetik bake-antza erakutsiarren be.

Gure lagun-urkoagazko bakea. ¿Zelan bizi baketan gure lagun-urkoagaz? A egiaz eta

benetan maitatuz. Jaungoikoaren legeko aginduak bitan dagoz batuta: Jaungoikoa beste ezer baiño maiteago izatean, eta gure lagun-urkoa geure burua lez maite izatean (Mt 22, 34-40).

Beraz, geure buruari opa dautsaguna, geure lagun-urkoari be opa izan bear dautsagu, eta gure buruari opa ez dautsaguna, ez dautsagu lagun-urkoari be opa izan bear. Baiña au, zoritxarrez, ez dabe guztiak argi ikusten. Euren eritxia bakarrik egin gura dabe, eurak beti errazoa, eurak aginpide bakarra, eurak askatasuna; gaitetikoen eritxiak ez dabe ezer balio, beste errazoiak ez dauke indarririk, besteak ez dauke agintzeko eskubiderik, ez dabe ezer esateko ez egiteko askatasunik; besteak isilik egon bear, apal-apalik egon bear... Ori, entzuleok, ez da ezela be kristau-jokabidea, ez urrik emon be: Kristoren agindurik leenena, nagusia ta beifiena ankaz-gora geratzen dalako. Orregaitik, Batikano 7ko Batzar Nagusiak argi dirausku: Askatasunik ez dagoan errietan, jatorrizko giza-eskubideak zapalduta dagozala. Or, ba, kristau-izena arturik, Kristoren aurka, Kristoren agindurik nagusienaren aurka. Leentxoago aitatu dautsuedaz Jesukristoren berbak: «Enparaduak zuei egin nai dagitzuen guztia, zeuek be egiezue arei» (Mt 7, 12). Edo bardin dana: geure buruari opa dautsaguna, geure lagun-urkoari be opa izan bear dautsagu; eta geure buruari opa ez dautsaguna, ez dautsagu lagun-urkoari be opa izan bear. Eta okerretara egin ezkeru, ezin gaitেকেz baketan bizi, benetako baketan bizi, azalezko ta guzurrezko bake-antzean baiño.

Ikusi-eziña zenbat gura dabil baztarretan; ikusi ezin beste bat ondo egotea; ikusi ezin beste batek nik baiño geiago irabazten daualako, edo-ta ni baiño zoriontsuago bizi dalako. Antxiñako esakera batek auxe diño: «Izanaz eta daukanaz kontentuz izan adi». Burubide ederra. ¿Zegaitik? Izanaz eta daukanaz pozik bizi danak ezeren guraririk ez daukan ezkeru, alakoa baketan bizi da.

Ez da, baiña, erraza gaurregunean baketan bizi izatea; edo geure erruz edo beste baten erruz, laster galdu daikegu gure bakea; barruko bakea, oster, ez ain erraz, geuk galdu nai ez ba dogu beintzat. Jaunaren grazia ta laguntza bear gauza guztietarako, baita baketan bizi izateko be. Berak bialdu daiskula egiazko ta benetako bakea gure artu-emon guztietarako.

(I) Pazko-osteko 2'garren Domekea (Jn 10, 11-16)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Artzain ona dala dirausku Jesusek. Izan be, eliztar guztiok artalde bat egiten dogu; artalde orretako ardiak geu gara, eta Jesukristo, artzaiña. Gorputz Mistiko bat egiten dogu guztion artean, Jesukristo gorputz onen buru dala; gu, barriz, gorputz onen atalak.

«Neu naz artzain ona. Artzain onak ardien alde bere bizia emoten dau», dirausku Jesukristok (Jn 10, 11). Artzain onak ardiak ondo zaintzen dauz, batzuetan bere bizia emoteraiño zaindu be. Eta auxe egin eban Jesukristok gurutzean illaz: gu pekatutik atara, inpernuko sutatik urrindu, Jainkoaren adiskide biurtu, Adan'en pekatuaz itxita egozan zeruko ateari, guztioi betiko zerua ta zoriona lortu (Jainkoaren adiskidetasunean il ezkeru beintzat).

Artzain onak bere artzaiñak zaintzen jarduten dauan antzera, Jesusek be beti diardu gu zaintzen, bere maitasuna ta janari zerutarra emoten batez be, altarako Sakramentu santuan. Bera dana emoten dausku gure arimen janaritzat: bere gorputza, odola, arimea ta Jaungoikotasuna. ¿Zer egin daike geiagorik? Ezer be ez geiago, ezin asmatu izan eban bere gorputza janaritzat emotea baiño geiago, guk Jaungoikoa bera geure gorputzean artzea baiño gauza obe ta ederragorik. Izan be, ¿asmatu daiteke artzaiña ta bere ardien artean, Jesukristok gugaz daukan batasun au baiño batasun aundiagorik? Ez orixe, ezela be ez!

Orain, ba, entzuleok: ¿zelakoak dira gure artu-emonak eta alkartasuna Beragaz, gure Artzain onagaz? ¿Agertzen dautsagu gure eskerrona bere maitasunari?

Jesukristo da gure zaindari aundia Jaungoikoaren aurrean, San Paulok dirauskunez: «Bakarra da Jaungoikoa, baita Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa be: Jesukristo gizona, bere burua guztien erospenerako ordaintzat emon ebana» (Tm 1ª, 2, 5-6), baita gure adiskiderik zigurrena ta zintzoena be. Gure adiskiderik aundienak be saldu egin gaitkez, sarri jazoten danez. Abagadunetan (okaziñoetan) ezagutzen dira benetako adiskideak, egiazko lagunak. Kontuz ibili bear abagadune orreitan, lepoa emon ez daiskuen! Izan be, ez da erraz izaten benetako adiskidea nor dan ezagutzea, uts egin daikegu erraz; okasifoetan jakiten da nor nor dan, nor zelakoa dan. Irribarrea aurpegian, berba gozoak ezpanetan aurrean zaukezanean... Kontuz!, biotzean edena eroan daikee-ta, adiskide ustelak izan daitekez-ta. «Ez jarri ustea bereala ifogana» (Sirak 6, 7), uts egin ez dagitzun. «Ez zabaldu zure biotza edonori, eta orrela ez dozu zoriona zugandik urrunduko», irakurten dogu Bibliako "Sirak" izeneko liburuan (Si 8, 19). Askozaz errazago da auzi bat itxurazko adiskide batez baiño arerio

yatana dakidan bategaz eroatea. Iguingarri da, benetan, aurpegi biko personea; min aundia emoten dau, itxuraz adiskide izanik, lotsagarrero saltzen zaituanak. Ez dot au zure arteko inogaitik esaten, zuek beste batzuek onetan kontu aundia izan dagizuen baiño.

Baiña ez izan orren bildurrik Jesukristogaz: Jesusek ez gaitu salduko, ez gaitu bakarrik itziko, ez gaitu bertan-beera itziko (Jn 14, 18).

Sartu gaitez, ba, gure barruan, eta ikusi dagigun zelakoak diran gure artu-emonak eta alkartasuna Jesukristo gure Artzain onagaz. Gure adiskiderik jatorrena Bera dan ezker, erantzun daiogun bear dan lez guganako bere adiskidetasun orri.

(II) Pazko-osteko 2'garren Domekea (Jn 10, 11-16)

Gaur, Jesus berbiztuaren lekuko (testigu) aundiagaz egin daiegu alkarrizketa gozo bat: Tarso'ko Saulo'gaz, San Paulo Apostoluagaz.

Tarso uria, gaurko Turkia'ko barren-aldean egoan, eta bertan jaioa Saulo, gero izena Paulo artuko ebana. Gutxi gora-beera, Jesusen sasoikoa zan, Jesusen adifiekoa. Judarra, bere etxeok lez, baiña erromatar-txartela be ba-eukan, Tarso uri askatukoa zan ezker.

Paulo, zaartua, Erroma'ko espetxe-ondoan aurkitu dogu.

—Ezpatatz ilgo zaituela diño laguntaldeak. ¿Zer jazo yatzu?—, itandu daiegu guk. Eta arek guri:

—Oso ondo dakit nire sinismena nogan jarri dodan; zigur nago, barriz, egun a eldu arte nire gordezuna zaintzeko aaltsua dana» (Tim 2ª, 12). «Niretzat bizitza Kristo da; eriotza, barriz, irabazia» (Flp 1, 21).

Arritzekoa da gizon onen sinismena. Beretzat, Jesukristo baiño ez dagoala emoten dau. Aundiak, benetan, Pauloren gorapenak Jesukristori buruz! Orregaitik, auxe itauntzen dautsagu:

—Zuk uste dozuzan gauza orreik, ¿ez ete-dira zelanbait susmatuak?

Eta Paulok guri:

—Nik Jesukristo il eta berbiztua sinisten dot. Ori, gauza jakifia da guretzat. Leenen, Pedrori agertu yakon eta gero amabi Apostolui. Gero, bosteun anairi baiño geiagori batera agertu yakon; oneitariko geienak bizi dira oraindiño; batzuk, barriz, il egin dira. Gero, Santiagori agertu yakon; gero, apostolu guztiai; eta, neuri be agertu yatan, sein-galdu lako oni (Ko 2ª, 15, 4-8). Ildako bat zuri agertzea, ez da olgetako gauzea. Eta guri orixe jazo yaku. Ildakoa, berbiztuta ikusi dogu.

Eta guk Paulori:

—Bai, orixe diño. Emakume batzuek bizirik ikusi ebela. Gero, Pedrori be agertu yakola, baita beste askori be. Baiña, zuk zeuk, ¿ikusi al-do zu bizirik?

—Bai —erantzuten dausku Paulok—. Orixe jazo yatan. Jesusen jarraitzaileen aurka nenbilla su ta gar. Damasko'ako bidean niñoian, zaldiz. Ango kristauzaleak lotuta Jerusalem'era erakarteko, emen zigortu egiezan. Baiña bidean Jesus berbiztua agertu yatan.

Paulo zearo bigundu da ori esatean. Ia-ia, negar-malkoak darie bere begi biai. Baretzen itzi dautsagu alditxo baten, eta gero barrero ekin dautsagu alkarrizketeari:

—Zu, Paulo, ¿eta zer jazo yatzun, ba?

Eta Paulok guri:

—Bat-batean zeruko argi ditziratsu batek inguratu nenduan. Lurrera jausi nintzan, eta berbots au entzun neban: “Saulo, Saulo! ¿Zegaitik narabizu aurrean?... Zuk aurrean narabizun Jesus Nazaretarra naz ni” (Ag 9, 4-5). Argi aren ditziragaitik, ezer ikusten ez nebala geratu nintzan.

Eta guk Paulori:

—¿Ori bakarrik esan eutsun? Gero, ¿zelan asi zintzazan barrero ikusten? ¿Zer somatzen zenduan zure barruan?

Eta Paulok guri:

—Bai, gauza asko jazo yatazan. Nire bidelagunak, niri eskutik eldurik, Damasko'ara eroan nenduen. An, Ananias'ek emon eustan barrero ikustea. Gero, Jerusalem'era joan nintzan. An, barrero be, Jesus berbiztua agertu yatan, eta Berak esan eustan bere lekuko (testigu) izan bear nebala urriñeko errietan be. (Guzti au “Apostoluen Egifia” izeneko liburuan irakurri daukeue: Ap 9, 1-30.)

Arrezker, Paulok, alde guztietan, Jesukristoren Barri Ona iragarten jardun eban. Orregeaitik datorkio izena “atzerritarren Apostolu”. “Alkartasun Barria” izeneko liburuan aurkitu daiekeue aren Idazki interesgarriak.

Berak biztu daiskula gure barruan Jesus berbiztuaganako maitasuna.

Pazko-osteko 3'garren Domekea (Jn 16, 16-22)

Entzun dozuezan Ebanjelio-zati onetako berbak, Jesukristok bere bizitzako azkenengo egunean esan ebazan, Eguen santu gabea, apalostean. Mundu au itzi eta Goiko bere Aitagana joateko eguna urreratzen zan, eta bere ikasleai samurkiro dirautse: «Laster, ez nozue ikusiko; baiña zerbait geroago barrero ikusiko nozue... Orain, mundua itzita, Aitagana noa barrero» (Jn 16, 16 eta 28).

Ona emen Jesukristok mundu onetako ondasunak zelan zatitu ta banatzen dauzan: sarri be sarri, onai, zuzenai, bere jarraitzaileai, neke-samiñak, ezbearrak, gurutzeak izten dautsez; mundukoiai, barriz, munduzaleai, lureko ondasunak, atsegifiak eta poztasunak. ¿Eta zegaitik egiten ete-dau banatze au Jesukristok, batzui neke-samiñak eta besteai atsegifiak eta poztasunak? Neke-samiñak arimea garbitu egiten dabelako, pekatuen orbana edo errua kendu egiten dabelako, gero zeruan sari aundiagoa izan dagien.

Egia au gure biotzean ondo sartuta eukiko ba'gendu, pozik egon bear geukean, Jesukristogaitik edozein neke-samin eroateko. Paulo Apostoluak eta santuak pozik egoten dira sekulako penitentziak egiten, eurak dirauskuenez. «Atsegifiaz beterik gairiezka nago gure atsekabe guztietan», diño San Paulok (Ko 2^a, 7, 4); eta beste atalxo baten: «Atsekabez gagozala, baiña beti pozik» (Ko 2^a, 6, 10). Jakiña, santuak ondo dakie Jesukristok esan eban zorientasan au: «Zorionekoak lur onetan biotz-minduta dagozanak, Jaungoikoak berak poztuko dauz-ta» (Mt 5, 4).

Jesukristoren irakatsi au aurrean izan dagigun geuk be, ondo ausnartu ta sakondu dagigun, gairera eldu dakiguzan uneetan bear danez jokatu aal dagigun. Esate baterako, emoten dauskuen atsekabe edo ezbear bat ondo eroaten ba'dogu, zerurako irabazi aundia izango yaku; egiten dauskuezan iraiñak, edo eskertxarrak, gure arimearentzat balio dabena! Mesede bat egin eta eskertxarrez ordainduko dautsue, bearbada, mundu onetan eskertxarreko ugari dagoz-ta. Eskertxar-egite oneik min aundia emoten dauskue: abagadune ederra Jesukristori eskintzeko gure pekatuen parkamenerako. Eta onela beste neke-samin guztietan be, «baiña beti pozik», San Pauloren antzera.

Orretarako, beti lez, eskatu daiogun laguntasuna Jesukristori, Andra Mariaren bitartez.

Pazko-osteko 4'garren Domekea (Jn 16, 5-14)

Guztiok dakigunez, Jesukristoren biztuera-aldian gagoz, eta Jesukristok bere ikasleai egin eutsezan agerpenak azaltzen dauskuz gure Eliza Deunak domeka oneitako Ebanjelio-zatietan.

Gaurkoan be, Jesukristok bere ikasleakaz izan eban alkarrizketa ederra agertzen dausku, San Joan Ebanjelariagandik jasota. Jesusen azkenetariko agerpena zan. Egun gutxi barru, Goiko bere Aitagana joan bear eban guztiz, bere biztuera-egunetik berrogeigarren egunera. Oso pozik egozan apostolu ta ikasleak Jesukristoren ondoan; baiña Jesusek zerura igo bear eban, andik Espiritu Santua bialtzeko, eta areik euren eginbearra beteteko, edo bardin dana, mundu guztian zear zabaldu eta Jesukristoren irakatsia, Ebanjelioa, jakifierazoteko. Orrexe-gaitik dirautse Jesukristok: «Egokiago yatzue ni joatea... Ni ez ba'noa, ez yatzue Bitartekoa etorriko; ni ba'noa, barriz, neuk bialduko dautsuet... Egiaren Espiritua etorri daitenean, Berak zuzenduko zaitue egia guztia ulertu aal izan dagizuen» (Jn 16, 7 eta 12).

Jesukristo bere Aitagana doa, Beronen eskumakaldean jarteko. Zerutik jatsi zan, Espiritu Santuaren egifiaz Andra Mariagandik sortu ta jaio zan, giza-gorputza arturik; geroago, iru urte(t)an bere Barri Ona zabaltzen jardun eban; gizona salbatzearren, bere gogoz gurutzean il eben; il eta irugarren egunean biztu egin zan barrero, eta laster Goiko bere Aitagana doa aintzaz beterik.

Entzuleok: egun baten geu be jaio gintzazan, gurasoen bitartez; Jaunak arimea emon euskun; ba-goaz, astiro-astiro, bizitzako urteak igaroten; elduko yaku eriotza gutxien uste dagigunean eta Jaunaren aurrera joango gara, mundu onetako gure ibillaldiaren kontuak garbitzera: izango al da beti-betiko saria artzera!

Igarri bagarik yoaku lur onetako ibillaldi au: urte gutxi dala, zazpi, amabost, berrogei urte zenduzan; orain, barriz, irurogei, irurogetamar... eta pozik ainbeste urtetaragiño eldu zarealako, Jaunak ainbeste urtetarako bizitza emon dautsulako! Gauza ariña gure bizitza lur onetan; itsasoan zear doan itxasontzi baten antza dauko: geure begien aurrean ikusten dogu itxasontzi ori igaroten, astiro-astiro geroago ta urriñago joaten da, eta azkenez, guztiz aldentzen yaku, gure begiak ezin ikusi, ezkutatu, ostendu egin da, joan da...

Urte gutxi oneitan, egin dagigun zerua irabazteko zerbait, gure eriotz-orduan esku-utsik agertu ez gaitezkan. Aberastu gaitezkan egitada onez, onak eta zuzenak izaten ez da neke-nekeza-ta: geuk nai izatea da guztia. Batez be, gure lagun-urkoari buruz ona izan, biozpera

izan, ez egin iflori kalterik, ez izan ikusi-ezifik, ez arrotu, ez arropuztu, ezer be ez gara-ta. Arroa Jaunak iguindu egiten dau, ondatu egiten dau, eta apala gora jasoten dau, Biblian sarri irakurten dogunez (Lk 1, 47-53).

Eta ontasunean irauteko, eskatu argia ta indarra Jainkoari, Jesukristoren eta Andra Mariaren bitartez, eta erraz be erraz beteko doguz lur onetan gure kristau-eginbearrak.

Pazko-osteko 5'garren Domekea (Jn 16, 23-30)

Gaurko Ebanjelio-zatiak Jaungoikoari egiten yakon otoitzaren indarra agertzen dauku.

«Benetan dirautsuet —diño Jesusek—: Aitari neure izenean eskatu dagiozuen edozer, Aitak emon egingo dautsue. Orain arte ez dozue nire izenean ezer be eskatu. Eskatu egizue, eta artu egingo dozue, zuen poza bete-betea izan daiten» (Jn 16, 23-24).

Gaiñeko iru egunak —biar, etzi ta etzilimo— Errogatiba-egunak dira. Iru egunotan, eliza guztietan eta abade ta praille guztiak Letaifiak esango dabez.

Baiña, ¿zer dira Errogatibak? Beti ez dira euria eskatzeko; beste gauza asko eskatzeko be ba-dira. Errogatibak, otoitzak dira, Jaungoikoari egiten yakozan eskari sutsuak, Aita Santuak iru egunotarako egiteko aginduta daukazan otoitz bereziak, apartekoak.

Zuek guztiok be bat egin bear zeukee mundu guztiko abadeakaz, Jaungoikoari mesede bardiñak eskatzeko, Elizea guztiok, zuek eta guk, osotzen dogu-ta.

Eskari ederrak, benetan, Letaifi orreitan egiten diranak; arimearentzako ta gorputzerako eskariak. Lar luzatuko nintzake eskariok azaltzen. An agertzen da, esate baterako, Jaunak ustebagako eriotzatik gorde gagizala; ekaitz, arriabar eta urioletatik gorde gagizala; geiso txar, izurrite, gosete ta gudutik (gerratik) gorde gagizala, eta abar.

Eta azkenetariko eskarietan, zuei guztioi dagokizuen eskari au agertzen da: «Lurreko frutuak emon eta zaindu eiguzuz, Jauna!» Eskari onuratsu ta guztiz bearrezkoa zuentzat: zuen soloetako frutuak Jaunak emon eta zaindu dagizala. Benetan eta biotzez eskatu bear dautsazue Jaungoikoari. Ezpane bakarririk ez, batez be egunoroko zuen eginbear, arazo ta lanak Berari eskifiirik baiño. Eta ez aaztu Jesukristok dirauskunaz, leen esan dautsuedanez: «Aitari neure izenean eskatu dagiozuen edozer, Aitak emon egingo dautsue», egoki ba'yaku beintzat.

Pazko-osteko 6'garren Domekea (Jn 15, 26-27; 16, 1-4)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Amaitu dau Jesukristok bere Apostolu ta ikasleakaz egotea. Biztu zanetik zerura igo arte, berrogei egun egin ebazan arein artean, arein ondoan. Egun oneik igarota, Goiko bere Aitagana joan zan. Baiña Espiritu Santua bialduko eutsela agintzen dautse, Pozkillea, Indartzaillea, Bitartekoa.

Ondo ekian Jesusek, Apostoluak eta bere ikasle ta jarraitzailleak bere Barri Ona (Ebanjelioa) munduan zear zabaltzera joan zeitezanean izango ebezan eraso, aldi txar, estutasun eta zoritxarrak. Baiña, bildurtu ta ikaratu ez daitezcan, Zuzendari indartsu bat agintzen dautse, euren lan neketsuetan laguntza ta indarra izan dagiezan.

Zerura igo ta amargarren egunean bete eban Jesukristok bere agintzaria: Espiritu Santua bialdu eutsen eta Aregaz argituta ta indartuta geratu ziran Apostoluak eta enparadu ikasleak, Jesusen irakaspena toki guztietan iragarteko. Aurrerantzean ez eben izan gizon areik ifloren bildurrik ez epeltasunik guztien aurrean Jesukristoren ikasbidearen alde egiteko; etorri zeitezala erasoak, zigorkadak, giltzapean sartzea ta beste edozer; pozago, adoretsuago ta gartsuago egozan, Jesukristogaitik nekeak eroateko.

¿Nok kendu eutsen leengo bildurra? ¿Nok emon eutsen arenbeste indar, arenbeste adore? Espiritu Santuak, Pozkilleak, Indartzailleak.

Geuk be, entzuleok, Jesusen ikasle ta jarraitzaille garean ezkerok, izango doguz, negarrezko mundu onetan gagozan artean, erasoak, gorrotoak, ikusi-eziñak, estualdiak, zoritxarrak, naibageak, atsekabeak, edozenbat neke...

¿Izango ete-dogu eroapenik naikoa, iraupenik naikoa, neke guztiok Jaunari eskintzeko? Espiritu Santuaren indarra ta laguntza ba doguz, bai; osterantzean, ez.

Beraz, eskatu daiogun Jesukristori Espiritu Santua bialdu daiskula. Datorren domekan da Pazko-Pentekoste, Espiritu Santuaren eguna. Aste onetan, Eliza Deunak otoitzez eta erreguz jardungo dau Espiritu Santuaren egunerako gertatzen, Aren doaiak eskatzen.

¿Zertzuk dira doai orreik? Jaungoikoaren bultzakadak, kristau-bizitzan erraz ibili gaitetzan; Jaunak emoten daukuzan grazi ta aparteko indarrak, aal-izate zerutarrak dira Espiritu Santuaren doaiak. Zazpi dira: jakituria, adimena, burubide zuzena, jakintza, sendotasuna, biozperatasuna, eta Jaungoikoaganako bildurra.

Geuk be gogoratu dagigun, aste onetan batez be, Espiritu Santuari erregu egitea: gure adimena argitu, gure biotza bere maitasunean sutu eta gure naimena edo borondatea sendotu daiskun, onbideari bear danez jarraitzen ikasi ta jakin dagigun eta, geure egintzen bidez, benetan jarraitu daiogun.

(I) Pentekoste:

Espiritu Santuaren Etorrerea (Ap 2, 1-11; Jn 14, 23-31)

Entzun dozue Irakurgai San Lukasek bere "Aptoluen Egiañak" izeneko liburuan dirauskuna. Jerusalem go etxe baten Apostoluak alkarregaz batuta egozan. Eta, bat-batean, zerutik aize zakarrena lako burrundarea sortu zan, eta areik egozan etxe guztia bete eban. Eta su-antzeko miiñak ikusi ebezan, baktxaren gaiñean ezarten zirala. Eta guztiak Espiritu Santuaz bete ziran eta beste izkeraz berba egiten asi ziran, Espiritu Santuak berba-eragiten eutsenez.

Ondo dakizuenez, Espiritu Santua Jaungoikoaren irugarren Personea da, Aitagaz eta Semeagaz batera Jaungoiko bakarra, eta, Aita ta Semea lez, betikoa ta guztiaalduna.

Leengo domekan zerbait esan neutsuen Espiritu Santuari buruz.

Baiña, ¿zetako agertu dausku Jaungoikoak Espiritu Santua?

Begira: Aita, batez be, egille lez agertzen da, zeru-lurren egille lez; Semea edo Jesukristo, barriz, gizonaren salbatzaille lez, bere nekaldi ta biztuera goragarriaz. ¿Eta Espiritu Santua? Onexegaitik batez be: 1) Jaungoikoagan iru Persona dagozala jakiñerazoteko; 2) guztion biotzak barriztu ta garbitzeko. Orregaitik, San Bernardo jakintsuak auxe dirausku: «Espiritu Santuak irakatsi, bultza egin eta eragin egiten dausku onbidean. Irakatsi: burua argituz; bultza egin: zuzena ta ona dana aukeratu dagigun; eta eragin: onbidean aurrera egin dagigun» (Pentekoste ko Berbalidia, 1, 5).

Gure egitadak irabazkorrak izateko, bear-bearrezkoa dogu Espiritu Santuaren laguntza. San Paulok dirauskunez, «Iñok be ez daike Jesus Jauntzat autortu, alakoari Espiritu Santuak eragin ezik» (Ko 1^a, 12, 3). San Agustin aundiak, barriz, auxe diño: «Gorputzaren bizirako arimea nai ta naiezkoa danez, Espiritu Santua be bear-bearrezkoa da graziazko bizitza artzeko ta bertan irauteko» (Pentekoste ko Berbalidia, 2)..

¿Zer egiten dau geiago gudan Espiritu Santuak? Entzun dozue oraintxe, Irakurgai-

ostean, Eliza Deunak Espiritu Santuari dirautsana.

Beraz, eliztar maiteok, ekarri dagigun gogora sariago Espiritu Santua, eta eskatu daiogun laguntza gure premiñetan. Zerbait aaztuta eukiten dogu Espiritu Santua gure otoitzetan. Ona da, bai, San Antoniori, Berrio-Otxoa zorientsuari eta enparadu santuai eskariak egitea, Jaungoikoaren eta gure arteko bitartekoak dira-ta; baiña, jo dagigun zuzenago Jaungoikoa-gana beragana, Aita ta Espiritu Santuari Jainko Semearen bitartez erregutuz, gure Eliza Deunak bere otoitz guztien amaieran egiten dauanez, Mezatako otoitzetan entzuten dozuenez.

(II) Pentekoste (Jn 14, 23-31)

Irakatsi ederra Ebanjelio-zati onetan Jesukristok emoten dauskuna.

Irakurri dagitzuedan barriro be: «Benetan maite nagianak, nire mandatuan sendo iraungo dau; nire Aitak maite izango dau alakoa, eta nire Aita ta ni etorri egingo gakioz eta aregan bizi izango gara» (Jn 14, 23).

Loiola ko Iñazio santuak auxe idatzi eban bere "Gogo-jardunak" deritxon liburuan: «¿Zetako egin eban Jaungoikoak gizona? Jaungoikoa maitatu, otseindu ta goratzeko emen lurrean eta, au egiñaz, zerua irabazteko». Baiña antxiñagotik Jaungoikoak berak emon eutsan Moises i agindu au berau: «Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zeure arima guztiaz eta zeure indar guztiaz izango dozu maite» (Dt 6, 5). Orixe berori dirausku Jesukristok be (Mk 12, 30).

Baiña, ¿zetan dago Jaunaganako maitasun ori? Maitasuna, egiazkoa ta guzurrezkoa izan daiteke. Egiazko maitasuna ez dago agoan, biotzean baiño; ez dago berbetan, egitadetan baiño. Orrexegaitik dirausku San Joan Ebanjelariak: «Semetxook: ez daigun berbaz eta miiñez maitatu, egiñez eta benetan baiño» (Jn 1^a, 3, 18).

Eta Jesukristoganako benetako maitasuna, ¿non dago, ba? Jaunaren esana betetean, bere lege santua gordetean. Agozko maitasuna, berba utsezko maitasuna, guzurrezko maitasuna da; berbak aizeak daroaz; egintzak, barriz, ez. Ibiltea ibiliz agertzen danez, maitasuna be egintzakaz agertzen da.

Egiazko maitasuna daukanak, maitearen esana egiten dau; maiteari poza ta alaitasuna emoten aalegintzen da, eta ez dautso ezegaitik be naibagerik emoten. Era ta alde guztietan maitasun-ezagungarriak agertzen dauz eta bere maiteagaitik edozein neke eroateko be beti gertu dago.

¿Orrelakoa izango ete-da Jaungoikoaganako gure maitasuna? Pekatu astun bat azpurtzen da Jaunaganako maitasuna. Birao edo Jaunaren izena loituaz be guztiz ausita geratzen da Jaunaganako maitasuna; domeka ta jaietan, premiña bagarik, lan gogorra egíñez; norbaiti gorroto izanez, irain gogorra egíñez, ikasbide gaiztoa edo gaizpidea emonez..., berba batez, Jaungoikoaren lege bat austen ba´da, Jaungoikoaganako maitasuna be beragaz austen da.

¿Zer egin Jaunaganako maitasunean irauteko? Geure naimen edo borondatea sendotu egite onen oituraz; oitu egintza onak egiten, arriskueta garaille urten gaitez.

Eta orrezaz gairera, Espiritu Santuaren indarra ta argitasuna eskatu. Berak sutu daiskula gure biotz au geroago ta geiago Jaunaganako maitasunean, eta iraunderaz daiskula maitasun au gure bizitza guztian.

(III) Pentekoste

1.- «Egokiago yatzue ni joatea» (Jn 16, 7). (Jesukristoren berbak.)

Espiritu Santua: askoren ez-ezaguna. «Espiritu Santua danik be ez dogu entzun», irakurten dogu Bibliako «Apostoluen Egíñak» izeneko liburuan (Ap 19, 2). Orixe izan zan kristau barri batzuen erantzuna San Paulori, Efeso´n, San Joan Bateatzaillearen bateoa bakarrik artu izan ebenen erantzuna.

Ulertzekoa da ori arekan, arteetan kristau-bateoa ez eben artu izan-eta. Baiña ez da ainbeste ulertzen berba orreik kristau askoren agoan izan daitekezanik; izan be, euren egitadetan, ez dauke Irutasun Deunaren irugarren Personearen ekintzaren barririk ezertxo be.

Ekintza orrek gure ariman eta Elizearen bizitzan daukan garrantzi aundia ikusteko, Jesu-kristok azken-aparitan dirauskunak asko balio izango dausku: «Egokiago yatzue ni joatea» (Jn 16, 7). Aundia, benetan, Jesus zerutik bialduko dauskun doaia! Irugarren Personearen etorrereak Elizearen gaireran adierazoten dauana argi ikusteko, naikoa da Pentekoste-egunetik aurrera Espiritu Santuak Apostoluakan egin eban aldakuntza miragarria ausnartzea: Jesusen irakatsiak ulertzeko eta zabaltzeko arein adimenak izan ebezan argitasuna ta adorea.

Espiritu Santua Aitagandik eta Semeagandik nortu, bereiztu, egiten da. Eurokandik dator betidanik: Aitak Semeari eta Semeak Aitari dautsan maitasun neurribagea da Espiritu Santua. Geugan isuritako Jaungoikozko maitasuna da.

2.- Jaungoikoaren doai edo mesede aundia.

Izakiari dagokiozan Jaungoikoaren ekintza guztiak iru Personai dagokiez, iru Personak

artzen dabe parte. Alan be, Persona bakotxari bere ekintza bereziak (apartekoak) dagokioz: Espiritu Santuaren ekintza / gizonakanako Jainkoaren maitasunari dagokio. Orrela, Espiritu Santua, Bateoan, geure arimen jabe egiten dala esaten dau San Paulok, eta Aren etxe ta eliza gareala: «¿Ez al-dakizue zuen gorputza Espiritu Santuaren etxe dana? Zeuekan bizi da, Jaungoikoagandik artu dozue-ta» (Ko 1ª, 6, 19). Eta Jesusek: «Zeuekan bizi da eta zeuen erdian dago (Jn 14, 17). «Bizilagun atsegin» esan dautsagu gaurko Mezatan, Ebanjelio-aurretiko Jarraikian.

«Santutzaille» lez be ba-dago gugan: garrantzi aundikoa, benetan, santutzaille-lan ori! Berak egin bear dauz leengo domekan irakurri genduzan ondorenak: argitu, bizkortu, poztu, busti, osatu, garbitu, bigundu, berotu, zuzendu; Berak emon bear dauskuz grazi santutzaillea ta goi-onoimenak; Berak egin bear dau gure alde, eta orrexegaitik diño Jesusek geure «Bitarteko» dala (Jn 14, 16); Berak irakatsi bear dausku otoitz egiten, Jesusen irakatsiak ulertzen; Berak emon bear dausku pekatuen parkamena; Berak sendotu bear gaitu. «Jaungoikoaren doaia ezagutu ba´zengi...», dirautso Jesusek samaritar emakumeari (Jn 4, 10); Jaungoikoaren doai ori Espiritu Santua da.

3.- Elizearen arimea lez.

Orixe da Espiritu Santua Kristoren Gorputz Mistikoarentzat.

Eskatu daiogun gaur, emon dagiozala Elizeari arima bakotxaren barruan sartzen dauzan ontasun, ondasun eta mesede guztiak. Batez be Elizearen Artzañai bere graziaz lagun egin dagitsela eskatzen dautsagu; argitu ta sendotu dagizala euren zuzendari-arazoa egoki ta bear danez beteteko. Eta geuri be, guztioi, buruko argia ta biotzeko adorea emon daiskuzala, kristau-bidean zuzen eta artez aurrera egin aal dagigun.

(IV) Pentekoste.

(Ekintza Katolikoaren eguna)

Gaur, Ekintza Katolikoaren eguna dogu. Esan dagigun, ba, zerbait Ekintza Katolikoari buruz.

¿Zer da Ekintza Katolikoa? Gotzain eta Eliz-gizonak alkartuta, eliz-gizon ez diranak Kristau-apostolutza egitea da Ekintza Katolikoa.

Abadeak soillik ez dira, sarritan eta toki guztietan, kristau-apostolutza egiteko naikoa. Orregaitik, eliz-gizon ez diranen laguntasuna bear, lan bikain orretan.

«Ez dago zeruaren azpian arimak zerura eroaten aalegintzea baiño arazo ederragorik», ifioan gure Gotzain entzutetsua izan zan Mateo Mujika agurgarriak. Batikano'ko azkenengo Eliz-Batzar Nagusiak auxe eskatzen dau, "Elizearen eraketa" izeneko saillean, 4'garren atalburuan: «Beti be bai, baiña gaurregunean batez be, kristau guztiak artu bear dabe parte kristau-arloan, alde ta abagadune guztietan kristau lez jokutzen, kristau-eraz bizi izaten, kristau-jokabide guztiai laguntzen, bakotxak bere saillean, bakotxari ondoen dagokionez batez be».

Jakiña, Batzar Nagusiak ori oraintsu esanarren, ori beti orrelaxe izan da Jesukristogandik ona; izan be, Kristoren jarraitzaille danak, ¿zelan jokatu dau, ba, zelan jokatu bear dau, ba, kristau lez izan ezik? Entzun Aita Santu Pio 12'garren berbok: «Ez dira abadeak soillik Jaungoikoaren eta zeruko gaien alde urten bear dabenak; guztiak dagoz, abadeak eta abade ez diranak, orretarako beartuta». Eta Pio 11'garrenak: «Guztiok, aal dagizuen negurriz, lagundu bear dautsazue Ekintza Katolikoari, guzti-guztiok, pizka bat baiño ez ba'da be».

Beraz, bakotxak bere buruari dagokionez bakarrik ez, beste batzukaz dauzan artu-emonetan be kristau lez jokatu bear dau, "or konpon" egin bagarik. Gaurregunean batez be, zeuen premiña geiago dauko Elizeak, abadeak gutxituaz doaz-ta. Gure artean, orraitifio, ez dira oraindifo onenbeste gutxitu, baiña bai beste errialde batzuetan; eta geurean be, Euskalerrian, orain baiño askozaz gutxiago izango dirala dirudi.

Utsunok, abadea sartzen ez dan tokiok, zeuek bete bear dozuez, zeuen laguntasuna emonik. Ba-dago egitekorik naikoa gauzak bide onera ekarten, gauzak bere lekuan jarten, zuzentasunaren alde jokutzen, bakotxari berea emoten, oitura onai eutsiten, oitura txarren aurka egiten, ago zikiñak isillerrazoten, egia zabaltzen, guzurraren aurka egiten, burubide onak emoten, urliari, berendiari, sandiari laguntzen, guztion alkartasuna, batasuna, anaitasuna lortzen.

Ez da naikoa zuen seme-alabatxoan azierea eskoletako irakasleen eskuetan jartea; zeuek zaree, batez be, gurasook eta nagusiok, zuen seme-alabai edo anai-arreba txikiak aziera ona emon bear dautsezuenak, eta ez itzi guztia irakasleen eskuetan. «Gurasoak dira leenen-leenen —difo Batikano'ko Batzar Nagusiak— euren seme-alabai azibidea, azierea emon bear dautseenak, eta gero irakasleak eta enparaduak».

Zeuen arazoa da, zeuena batez be, zuen umeai ikasbide ona emotea, egintzakaz batez be: zeuekan ikusten eta entzuten dabena, axe egiten eta esaten dabe-ta. Kontuz zuen etxeetako telebistaz; umeak ez dabez ikusi bear an jarten dabezan gauza asko —ezta sarritan nagusiak be—; lotsabaga ugari agertzen dira an, batak besteari irabazi naiez. Zoritxarrekoa gaizpidea emoten dauana, bide okerrera bultza egiten dauana! «Bai zoritxarrekoa enparaduai pekatuta-

rako bidera bultza egin dagitsena!», difio Jesukristok bere Ebanjelioan (Mt 18, 7).

Izan be, umeak nagusiakan ikusten dauana nai izaten dau egin. Ikasbide ona artzen ba'dau, ona dana egingo dau; txarra artzen ba'dau, barriz, txarra. Zeuen arazoa da umeari egunoroko otoitzak eta Kristau-Ikasbideko otoitzik bearrezkoenak irakastea. Ezkontza ez da seme-alabak ekarte bakarrik; arei aziera egokia emoteko lain izan bear dira senar-emazteak, eta bestela, ez ekarri seme-alabarik. Ez dira nire berbak, Elizearen azken-Batzar Nagusiarenak baiño.

Kristau lez jokatu etxe-barruan eta etxetik kampo, lotsatu bagarik, kikildu bagarik; guztien eginbearra da guztien aurrean ekintza katolikoa egitea, kristau-apostolutza egitea, kristau jator lez jokatzera.

Eta orretarako, eskatu daiogun indarra Espiritu Santuari, Bera da Indartzaillea-ta, Bera da orretarako adorea emoten dauana-ta.

(I) Irutasun Deuna (Mt 28, 18-20)

1.— Misterio aundi bat jakiñerazoten yaku.

Jaungoiko askotzaren arriskuagaitik, ez yakon jakiñerazo Israel'í ezkutapen (misterio) au; auxe bakarrik esaten yakon: Jaungoiko bakar bat dago. «Entzun, Israel: Jauna da gure Jaungoikoa, Jauna bakarrik» (Dt 6, 4).

Kristoren bitartez, Jaungoikoaren barru-barruko garrantzi aundiko zerbait ezaguerazoten yaku. Norbait norbere etxean artzea biotz-zabaltasun ezaugarri bat danez, Jaunak be gutzaz biotz-zabaltasun aundia dauko, guri Jaungoikotasunaren barruko biziari buruz berba egitean. Jaungoiko bakarra, Jaungoiko Izate bakarra, baiña iru Personetariko bakotxak bete-betea artuta: Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak. Iru Personak bardifñak aundi-izatean, santutasunean eta aal-izatean; ifio sortubageak, dan guztia artzen dabenak. Gure adimen laburrak ezin artu ta ulertu daiken ezkutapena. Ba-dakizue San Agustin'í ondartzan (plaiian) jazo yakona: ume batek, ondartzako zulo baten, itsasoko ur guztia sartu nai eban; ezin sartu zeitekeala esan eutsan San Agustin'ek. Orduan, umeak auxe esan eutsan: «Zeuk be ezin ulertu daikezu iru Personak Jaungoiko bakarra zelan egiten daben».)

2.— Misterio argia da.

Agerpen onen mamiña ezin ulertu daikegunarren be, ez da guretzat alperreko jakite bat:

1) Jaungoikoagan bizi, ezaguera eta maitasun-aberastasun negurribagea dagoala; 2) Jaungoi-

koa izaki bakartia dala gure burutik kenduaz gaiñera, lagunkoitasunak Jaungoikoaren barru-barruan parte artzen dauala aurkitzen dogu. Ondo dakigu / gizona, berez, izatez, gizarte-zale dana, eta, enparaduakandik banantzen ba' da, ez dana bear dan lez ulertzen; orrexegaitik be Egillearen irudiko ta antzeko gara; 3) gizonen artean izan bear dan ezaguera ta maitasuna / Jaungoikoagan osotasuna daneko ditzira da; 4) Irutasunaren iru Persona bakotxagaz barru-barruko artu-emona egin aal daitekela be ba-dakigu. Guzti ori argi dago.

3.- Jaungoikoa, Bakarra ta Irukotxa, geugan eukitea.

Askozaz be ondasun aundiagoa dogu oraindiño / Jaunaren aginduz Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuta, Irutasun Santua, aparteko eraz, geure ariman bizi izatera datorrela jakitea: «Nire Aita ta ni etorri egingo gakioz eta aregan bizi izango gara... Nire izenean Aitak bialduko dautsuen Bitartekoak, Espiritu Santuak, gogorazoko dautsue nik irakatsi dautsuedan guztia eta Berak azalduko dautsue dana», dirausku Jesukristok (Jn 17, 23 eta 26); Aitagaz eta Semeagaz eta Espiritu Santuagaz; orregaitik, San Paulok Espiritu Santuaren etxe gareala dirausku: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeukan bizi dana?» (Ko 1ª, 3, 16). Eta San Agustin'ek: «¿Zegaitik ibili izartegiko gaiñetan zear eta lurreko sakonetan zear geugan bizi dan Aren billa?»

Jaungoikoa geure barruan billatu bear dogu, Aregaz alkarrizketa etengabea asteko ta izateko. Artu-emon onek Zeruan izango dau bere goien-unea: antxe ikusiko dogu Jaungoikoa, Bakarra ta Irukotxa, aurpegiz-aurpegi, eta antxe maite izango dogu Ondasun azkenbage ori / emen antzik be ezin emon daikeogun maitasunaz.

(II) Irutasun Deuna (Mt 28, 18-20)

Gaurko eguna eta Gorpuzti-eguna alkartuta lez dagoz.

Entzun dozuez Jesukristoren berbak gaurko Ebanjelio-zatian: «Zoaze, ba, eta ikasleak egizuez erri guztietako bizilagunen artean, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz, eta neuk agindu dautsuedana beteten irakatsiz. Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte» (Mt 28, 20).

Eta egia: beti dago Jesukristo gugaz Jaungoiko lez, alde guztietan egon be, Aitagaz eta Espiritu Santuagaz batera; alde guztietan, bai, baiña batez be Altarako Sakramentu Santuan, Kristau-Ikasbidean ikasi genduan. Eta agirian, Mezako Oparia egiten danean.

¿Zer da, izan be, Meza santua? Mezea, Jaungoikoari eskintzen yakon oparirik ederrena ta baliotsuena da.

Asieratik asita, erri guztiak eskiñi dautsoez opariak Jaungoikoari, Berari dagokion menpetasuna erakutsirik eta autorturik. Jaungoikoaganako menpetasun ori erri bakotxak bere erara agertu dau, sarritan guzurrezko jainkoak gurtuz, euren jainkotzat artuta: eguzkia, illargia, urrezko irudi ederrak, urrezko txala (Ur 32, 4, 8, eta 20), eta abar.

Opariak eskiñi. ¿Zetariko opariak ziran, ba? Leengo opariak, antxiñako opariak —Biblian irakurri daikegunez— askotarikoak ziran: gauzak, tresnak, edozer, eta batez be abereak (animaliak): beiak, idiak, auntzak, ardiak eta abar.

Oparia, Jaungoikoari gauza bat eskifiñi eta gauza ori ondatzea da, Jaunaren jabetza edo jauntza edo aginpidea edo agintaritza agerturik.

An ikusten dogu Biblian antxiñako Abel, Kain'en anaia, baita Kain bera be, sutan abereak erre eta Jaungoikoari eskintzen. Abel'en opariak Jaungoikoak onartu egin ebazan; baiña Kain'enak ez, onek ez eutsazan zuzen, bear dan eraz, eskintzen-eta (As 4, 1-16).

Baita Noe be ikusten dogu opari ori egiten: uriola-ostean kutxatik urten eta altara bat egizue: orretaraxe emon eutsazan eskerrak Jaungoikoari, uriolatik onik atara ebalako. Eta antzera munduko beste erri guztiak be, gutxi-asko, euren erara.

Baiña Jesukristok Oseas profetak (Os, 6, 6) aurretiaz esan ebana beteteko esan euskun: «Nik ez dot nai zuen opari-eskintzarik, errukiorrak izan zaitezela baiño» (Mt 9, 13). Eta beste era bateko oparia itzi euskun: bere burua eskiñi eutsan oparizat gurutzean bere Aitari, zeruko gure Aitari.

Opari ori berori egin eban leenengoz azken-aparitan, Eguen santu-egunean, baiña odolik isuri bagarik. Baiña opariz, bardiña zan. Eta orduantxe esan eban Jesusek: «Au, neure gorputza da, zeuen alde eskiñia. Au, neure gomutaz egizue» (Lk 22, 19). Orduantxe izan zan leenengo Mezea, leenengo Meza-oparia, Jesusen azken-aparitan. Eta arrezkero Mezak bardiñak dira: opari bat dira. Jesusek berak eskintzen dautso bere burua zeruko Aitari Mezako opari guztietan. «Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte» (Mt 28, 19).

Eta orixe ospatzen dau gure Eliza Deunak datorren egunean, Gorpuzti-egunean.

Geure barrua be Jesukristoren espirituzko elizea izan daitela beti, gure egintza guztietan bere jarraitazille zintzo ta egiazkoak izanik.

Pentekoste-osteko 1° Domekea (Lk 6, 36-42)

«Izan zaiteze errukiorrak, zuen Aita be errukiorra danez», dirausku Jesukristok Ebanjelio-zati onetan. Errukiorrak izateko bakarrik ez, gure errukia Jainkoaren beraren antzeko izan dadilla gaiñera.

Errukia, onoimen da; beragaz, laguntza-bearrean dagozanai laguntzen dautsegun onoi-mena.

Iru gauzatan dago errukiaren oiñarria, San Alberto Aundiak diñoanez: 1) emotean; 2) parkatzean, eta 3) gaiñezka emotean. Olakoxea da Jainkoaren errukia eta olakoxea izan bear dau geure errukiak be.

Leenen: laguntza emon laguntza-bearrean dagoanari. Jainkoak bere grazia emoten dautso pekatariari, pekatutik urten, Jainkoaren adiskidetasuna lortu eta pekatuaren errutik askatzeko. Antzerakoa izan bear dau geure errukiak be: lagundu egin bear dautsagu gure lagun-urkoari beronen bearrizanetan. ¿Zelan eta zetan? Milla era ta gauzatan: mesede bat egifnez, aurpegi ona erakutsiz, aal dogun eraz lagunduz... norberak daki zelan eta zetan iñok baiño obeto.

Bigarren: ¿Zer parkatzen dausku Jaungoikoak? Pekatuz irabazitako zigorra, pekatuak beragaz daroan errua, nekea, zigorra; orregaitik, beste munduan zigortu bagarik, sarritan bizi-tza onetan emoten dausku zigor ori: esate baterako, geisoren baten bidez, atsekabeak eta estualdiak bialdurik, eta abar.

Geuk be antzera egin bear dogu gure lagun-urkoari buruz. ¿Zelan? Egin dauskuzan iraiñak, egite txarrak eta kalteak parkatuz.

Alan be, kontuz emen: norbaitek itandu daisket niri: «Urliak amar milla peseta zor daustaz eta ez daustaz biurto nai. ¿Zorra parkatu egin bear izango ete-dautsat?» Jakifña da, sekulako egintza ona egingo zeukela parkatuko ba' zeuskioz millaka pesetok; baiña ez zagoz parkatzeko beartuta, zuk zure peseta orrein eskubide oso-oso dozulako, eta besteak zure eskubide ori ausi nai dautsulako. Zuk, arek egiten dautsun iraiña, zorra ez emonez egiten dautsun iraiña parkatu bear dautsazu, iraiña; baiña zorra, dirua, ez daukazu zetan parkatuenik.

3) Irugarren erruki-era: berez bearrez baiño geiago lagunduaz, gaiñezka lagunduaz. Auxe egiten dau Jaungoikoak: pekatuaren errua zeatz-meatz parkatu ta kendu, eta betiko zoriona emon zeruan.

¿Eta geuk be gure lagun-urkoari orrelako antzekorik aal izango ete-dautsagu egin? Bai. ¿Zelan? Iraiñak parkatuaz bakarrik ez, baita Jaunari are alde erregutuaz be. Leen esan

doguna: ez dozu zor dautsun dirua parkatu bearrik, bai ostera zor dautsuna ez emonez egiten dautsun iraiña; eta gaiñera, Jaunari are alde erregutu bear dautsazu. Auxe egiten dogula esaten dautsagu beintzat "Gure Aita" esaten dogun bakotxean: «Parkatu gure iraiñak, geuk be iraintzen gaituenai parkatzen dautsegunez».

Ikusi dagigun, ba, gure errukia zelakoa dan, azkerteka labur bat egifiaz, gero gure uts-egifiak zuzendu aal dagiguzan.

Gorpuzti (Ko 1ª, 11, 23-29; Jn 6, 56-59)

Gaur kristau guztiok mundu guztian Eukaristia ospatzen dogu agiriz, aundikiro.

Jesukristok Eukaristia egin eban eguna, Eguen santu izan zan; baiña egun orretan isilean lez ospatzen da, egun areitan Jesukristoren nekaldia ta eriotza gogoratzen doguz-ta.

Ba-dakizue Eukaristia zer dan: ogia Kristoren gorputz biurteza, bere odol, arima ta Jaungoikotasunagaz. Orixe egiteko agindu eutsen Jesusek Apostolui ta ondorengoai, Berak egin ebanez: «Au, neure gomutaz egizue» (Lk 22, 19). Biurte au Mezerdian egiten dau abadeak, Jesukristok berak esan ebazan berba berberak esanaz. Mezerditik aurrera, altaran dagozan ogi biribiltxoak ez dira ogi, Kristoren gorputz baiño. Antza, ogiaren antza dabe, begien aurrean ogia dirudie; alan be, izatez, Kristoren gorputza dira. ¿Zelan ori? Mirariz, Kristok berak emondako indarrez, Jaungoikozko indarrez. Berez, ezin azaldu daiteke zelan izan daiteken aldatze ori, biurte ori. Jesukristok berak dirauskulako sinisten dogu ori.

¿Zetako da Eukaristia? Batez be, eragin bi egiten dauz Eukaristiak: arimea janaritu eta Jaungoikoaren grazia geitu, onbideari jarraitzeko indarrak emonik. Auxe dirausku, gaiñera, Jesukristok: «Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dauko, eta neuk bizituko dot alakoa azken-egunean» (Jn 6, 54). Betiko bizitza, il osteko betiko bizitza, betiko zoriona.

¿Zer bear da gure aldetik Jauna artzeko? Arimearen aldetik: Jauna artzeko gogo bizia izan, eta Jaungoikoaren adiskidetasunean egon, Jaunaren grazian. Beraz, Jauna artu bear dozun bakotxean, ¿Autortzako Sakramentua artu bear ete-dozu, ba? Ez; gauza bi dira Eukaristia Sakramentua eta Autortza Sakramentua. Pekatu ariñak «Jesukristo geure Jauna» biotzez esanda parkatzen dira; beraz, gertu zagoz Jauna artzeko, beti autortzen eta autortzen jardun bagarik. Irakatsi egiezue au, gurasook, zuen seme-alabai, Jauna artzetik urrindu ez daitezcan.

Gorputzaren aldetik, barriz, auxe da bearrezkoa: ordubete leenago ezer jan eta ezer edan bagarik egotea. Irurogei urtetik aurrerakoak, barriz, ordu lauren aurretik artu daikee jan-edari apur bat. Ura, barriz, edonoiz edan daiteke, urak ez dau baraurik austen-eta; baita, geisorik naiz ondezik egon ezkeru, edozein osakai artu be. Olakoxe erraztasunak emon dauskuz Aita Santuak azken-urteotan, gure Jauna sarriago artzeko bidea zabaldurik.

Erantzun egiozue bere deiari, gure Jaun eta Jabea, gure Egille ta Errege indartsua gogotsu ta sarriago arturik.

Gorputzi-osteko Domekea (Lk 14, 16-24)

Gaur Gorputzi-osteko domekea dan ezkeru, esan dagitzuedan beste zertxobait Eukaristiari buruz.

Eukaristia ta anaitasuna.

Eukaristia, anai-artean batasun-ezagungarri ta egille da. Maitasuna geitu ta batasuna sendotzen dau. Ogi berbera artzen dabezan bi ez dira ez-ezagun bi.

Eukaristia batasun-ezagungarri lez.

Bigarren mendean apostolu batek "Didajé" izeneko liburutxo bikain bat idatzi eban; antxe dator urrengo au: «Ogi-zati au soloetan zabaldua egoanez eta, batuta, bat egin danez, zure Elizea be lureko baztarretatik zeure Erreñuan batua izan daitela» (IX, 4).

Agirian dago ezaugarria, eta orixe berori diñoe Eliz-guraso santuak be. Gari-garau askok, batera, bat eginda ta orea eginda, ogi bakarria egiten dabenez, eta maats-garau askok ardaoa egiten dabenez, ogi ta ardao orretatik jan-edaten dogun guztiok be gorputz bat egiten dogu, espirituzko gorputza.

Gure artean egiteko, Kristok beste izaki batzuk aukeratu eikezan, baiña batasuna adierazoten daben ogia ta ardaoa aukeratu ebazan. Guztiak bat egiten dabe.

Trento'ko Eliz-Batza Nagusiak be auxe diñoe: «Gure Salbatzailleak bere Elizeari batasun eta maitasun-ezagarriz itzi eutsan Eukaristia, kristau guztiak batuta eta alkartuta egon zeitezan».

Eukaristiak, batasun-ezagarririk bakarrik ez, baita egin be egiten dau batasuna. Eukaristiak, bere barruan, Jauna artzen dabenak alkartzeko indarra dauko.

Leenengo kristauak buruz auxe irakurten da «Apostoluen Egifiak» deritxon liburuan: «Kristauak, Apostoluen irakatsian, anai-batzaurretan, ogia zatitzean eta otoitzetan arduratsu irauten eben» (Ap. 2, 42). Beraz, ogia zatitzeko batzen ziran (ogia zatitzeko, edo bardin

dana, Mezako oparia egiteko, Eukaristia egiteko, Jesukristok egin ebanez). Arazo onek biotz-biotzez alkartzen ebazan, eta maitasun aundia zan kristauen artean, alkar-maitasuna, Kristoren jarraitzaileen ezaugarriak agiriaren. Orregeitak diño San Paulok Korinto'koai egin eutsen idazkian: «Guk bedeinkatzen dogun bedeinkapen-ontzia, ¿ez ete-da Kristoren odolaren alkartasuna? Eta guk zatitzen dogun ogia, ¿ez ete-da Kristoren gorputzaren alkartasuna? Ogia bat dan ezkeru, guztiok gorputz bat bakarria egiten dogu, guztiok ogi bakar orretatik artzen dogu-ta. (Ko 1ª, 10, 16-17).

Izan be, Jaunartzen dogun guztiok Kristo bat bakarria jaten dogu, guztiok bat egiten gara. ¿Zegaitik ez dogu agertzen, ba, alkar-maitasun bardiña?, eta alan, ¿zegaitik ez dogu gauza bardiña egiten? Ori, antxiñako gure kristauen artean bai, egiten zan, "Apostoluen Egifiak" izeneko liburuan agertzen danez: «Sinistedun-taldearen biotza bakarria zan, baita arimea be» (Ap 4, 32). Orregeitak, "Didajé" liburutxoak auxe diño: «Bere anaiari buruz asarrerik izan dagian edonor, alkarregaz adiskidetu arte, ez bedi zuekazu batu, zuen oparia loitu ez daiten» (XIV, 2).

Eta Jesukristok argi ta garbi: «Zure opari-gaia Jaungoikoaren altaran eskintzean, zure anaiak zure aurka zerbait ba-daukala gogoratzen ba'dozu, itzi egizu zure opari-gaia antxe bertan, altara-aurrean, eta zoaz leenen zure anaiagaz adiskidetzera. Gero, barrero etorrita, orduantxe eskifiñ aal izango dozu zure opari-gaia» (Mt 5, 23-24).

Beraz, nik zuetarikoren bati iraiñen bat egin ba'dautsat, parka eskatzen dautsat, ez gero azalezko parkamena, biotzez baiño. Eta zuetariko batek besteren bati iraiñik egin ba'dautso be, parka eskatu bear dautso, batez be irain ori beste batzuen aurrean egin ba'dautso, eta geiago oraindiño, guzur baltza zabaldu ba'dautso. Eta orrela izan ezkeru, alperrik dau alakoak ogei bidar autortzera joatea: Autortzako Sakramentuak ez dautso pekatu ori parkatzen, leenen irainduari parka eskatu bagarik eta irainduaren izen onaren aurka egin dauan kaltea ordaindu bagarik. Eta orduantxe joan autortzera, eta gero Jaunartzera.

Otoitz egin dagigun biotzez: Jesus Jauna, emon egidazu fede pizka bat, arbi-azia lakoa gutxienez, Jaunartzeak gizaki guztiai lotu nagian. Zugaz bat izan naitela, Jauna, zugaz mentu eginda, kristau guztiakaz gorputz bakarria egifiñik.

Espiritu Santu, batasun-Espiritu, poz-emoille ta indartzaille bizkor ori: isuri egidazu zure Arnasea, nire anai-arrebakan neure buruaren zerbait ikusi dagidan eta, neure burua lez, geroago ta geiago ondo artu, onetsi ta maitatu dagidazan, alkar-maitasun ezaugarri ta oifarririk dan Eukaristiaren bitartez.

(I) Pentekoste-osteko 2'garren Domekea (Lk 14, 16-24)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Ipuin bat dakarkigu Jesukristok: gizon batek apari eder bat emon eban, eta askori egin eutsen dei apari aretara; baiña ez eben joan nai izan, batzuk atxaki bategaitik eta beste batzuk beste bategaitik. Orduan, beste askori egin eutsen dei, batez be beartsuai ta txiroai, apaltokia bete arte.

¿Zer jakifierazo nai dausku Jesukristok ipuin au azaltzean? Apari eder ori Eukaristiaren irudi da. Eguenean ospatu genduan aundikiro Gorpuzti-eguna, Eukaristiaren eguna, Kristoren Gorputzaren eguna ("Gorpuzti", euskeraz, latinezko "Corpus Christi"-ren lagurpena da). Berez, guztiok dakizuenez, Jesukristok Eukaristia, leenengoz, Eguen Santuz egin eban, bere azken-aparitan; baiña egun aretan ez da agiriz ospatzen, Gorpuztiz baiño.

Leengo domekan, Eukaristia opari lez zer dan azaldu neutsuen. Baiña, beste zerbaiteko be ba-da, Akino'ko Tomas Deunak diñoanez, onetarakoxe batez be:

1) Guri poza ta adorea emoteko. Izan be, Jesukristok bere eriotz-aurregunean emon eutsen leenengoz Eukaristia Apostolui, arekandik alde egin bear ebanean: «Ez zaituet bertan-beera itziko; zeuekaz egotera etorriko naz barriro»... «Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte» (Jn 14, 18, eta Mt 28, 20).

2) Bere nekaldi ta eriotzaren gomutagarri izateko. Orixo dirausku Jesukristok bere Ebanjelioan: «Au, neure gomutaz egizue» (Lk 22, 19, eta Ko 1ª, 11, 24). Eta arrezkero, egunoro egiten da Eukaristia, Meza santuko oparia egiten dan bakotxean.

3) Jaungoikoarentzako oparizat. Mezako oparitan, Jesukristok berak eskintzen dautso bere burua Aita Jaungoikoari, pekatuen asarrea ta ordaiña kentzeko.

¿Zer atara bear dogu, ba, onezaz? Gure Jauna artzera aalbait sarrien urreratu zaitezela. Gutxi eskatzen dausku orretarako: 1) arimearen aldetik, pekatu astun bagarik egotea. Ez da bearrezkoa gure Jauna artu bear dan bakotxean autortzea; pekatu astunik euki ezik, ez dago autortu bearrenik. 2) Gorputzaren aldetik: ordu bete leenago ezer jan eta edan bagarik egotea. Irurogei urtetik aurrerakoak, barriz, ordu lauren aurretik artu daikee jan-edari apur bat. Ura, edonoiz edan daiteke; baita, geisorik naiz ondezik egon ezker, edozein osakai artu be.

Urte batzuetatik ona, gure Jauna artzeko erraztasun aundiak emon dauskuz Elizeak, Jauna aalbait sarrien artu dagigun eta bere grazi ugariak eta bere laguntza aundia izan

dagiguzan.

(II) Pentekoste-osteko 2'garren Domekea (Lk 14, 16-24)

Ebanjelio-zati onek gogorazoten dauskun aparia, Jaunartze santuaren irudi da. Jesukristo berbera da mai santu onetara dei egiten dauskuna, bere Gorputza geure janarizat emon nai dauskulako, Beragaz gure arimako bizitza indartu ta sendotu dagigun.

Ondo ekian Jesus argalak gintzazala, beingo baten alde txarrera biurtzen gareala, tentaldi aundiak izaten doguzala, bai gure griña gaiztoen aldetik, baita gure arimako arerioen aldetik be. Orregaitik, laguntza sendo bat, indartsu bat, emon nai izan euskun: Eukaristia, bere gorputz, odol, arima ta Jaungoikotasunagaz batera.

Jauna arima garbiz eta bear dan gertaeraz artzen dauanak, egin daiteken egintzarik ederrera egiten dau, eta Jainkoagandik ezin esan alako mesedeak eta graziak eskuratzen dauz. Jauna bein artzea, santutzeko naikoa dala irakurten da liburu santuetan.

Jauna arima garbiz artzen dauanak Jesusegaz beragaz bat egiten dau. Jesukristok berak dirausku ori: «Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan bizi da, eta ni aregan» (Jn 6, 56). Bat-egite au, graziatzkoa, maitasunezkoa da. Santo Tomas jakitunak irudi batz adierazoten dausku bat-egite au: «Zugatz bat (arbola bat) mentatzen dogunean, mentuagaz bat egiten danez, Jauna artzen dogunean be Jesusegaz bat egiten gara».

¿Eta zelan ez gara izango, ba, indartsuak, Jesukristogaz bat eginda ba'gagoz? Burruka baten, ¿nor izaten da nagusi? Indarrik geien daukana; indar gutxikoa, barriz, azpiratua izaten da. Bardin jazoten da arimako gaitan be: Jesukristo bear dan gertaeraz artzen dauan arimea, indar bereziz beteten da, eta alakoak erraz azpiratuko dauz bere griña gaiztoak eta arerioak.

Beraz, ¿zelan egon bear dau arimeak gure Jauna artzeko?

1) Jaungoikoaren grazian, Jaungoikoaren adiskidetasunean, pekatu astun bagarik.

2) Jauna artzeko guraria biztu bear dau, bere barrua gertatu, atondu egin bear dau, sinimen, itxaropen eta maitasun gertaerak egiñaz.

Eta Jauna artu bear dozun bakotxean, ¿zeure pekatuak autortzera urreratu bear izango ete dozu? Pekatu astunaz egon ezker, bai; osterantzean, ez. Eta autortzeko astirik edo aldi egokirik ez ba' dozu, naikoa dozu "Jesukristo geure Jauna" biotzez esatea, autortzea beste egun baterako itzirik.

Gorputzak zelan egon bear dauan, barriz, bein baiño sarriagotan esan dautsuet.

Beraz, eliztar zintzook, gorputzerako janaria artzen dozuenez, arimako Janaria be egoki etorriko yatzue, Jaunagaz maitasunez bat eginda bizi zaitezten.

(3) Pentekoste-osteko 2'garren Domekea (Lk 14, 16-24)

Gaur amabost, Pentekoste ospatu genduan, Espiritu Santuaren eguna. Ez zan izan gomutapen-eguna bakarrik, bere etorrerearen zain gagozanon jaia baiño. Beraz, Bera artu gura dogu gugan, benetan bere etxe izan gaitezten. Orretarako, begira San Paulok dirauskuna: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?... Jaungoikoaren etxea santua da, eta etxe ori zaree zuek» (Ko 1ª, 3, 16-17).

San Paulo berak, Galazia'koai egindako idazkian, azaltzen dau Espiritu Santua aurrean dagoanean jazoten dana: bere doaiak emoten daukuz. Olantxe diño: «Ibili zaitezte Espirituaren eraz, eta ez dozuez beteko aragiaren gurariak. Aragiak espirtuaren aurka diardu; espirtuaren gurariak, barriz, aragiaren aurka... Espiritu [Santuaren] frutuak oneixek dira: maitasuna, poza, bakea, biotz aundia, biotz zabala, ontasuna, zintzotasuna, otzantasuna (edo apaltasuna), neurribidea» (Ga 5, 16-17 eta 22-23).

Eta Espiritu Santuari sarritan egin bear dautsagula otoitz esan neutsuen. Egin daiogun, oraintxe berton, Sevilla'ko Isidoro Santuaren otoitza:

«Emen gagoz, zure aurrean, Espiritu Santu ori, oraindiño be geure pekatu-pilloak zapal-duta, baiña zeure izenean batez be batuta.

Zatoz geugana. Zagoz geugaz. Sartu zaitez geure biotzetan. Irakatsi egiguzu norantz jo bear dogun. Irakatsi egiguzu egin bear doguna. Burutu egizu guk egin bear doguna.

Gure eragitearen iturri bakarra eta gure senaren egille bakarra izan zaitezala, Aita Jaungoikoagaz eta Aren Semeagaz izen aintzatsua dozun Ori!

Gorde gagizuz zuzenbidea ez naasten, zuzena dan guztia era gorenez maite dozun Orrek!

Ez-jakiteak ez gagizala gaiztakerirantz eroan.

Ondoren onak ez dagiala gugan zirkiñik egin.

Iñongo saririk eta iñongo norkeriarik ez gagizala okerreratu.

Batu gagizuz, ostera, benetan Zeugana, graziaren doai bakarraren bidez, Zugan bat izan gaitezten eta egiatik ezetan be banandu ez gaitezten.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen».

Pentekoste-osteko 3'garren Domekea (Lk 15, 1-10)

Aste-barruan, zuetariko batek auxe esan eustan: «Zuk, aurreko domeka baten, Autortza dala-ta egin zenduan berbaldian, ez neban zerbait ondo aditu».

Begira, ba —esan neutsan—. Nik domekan Autortzari buruz, auxe esan neban: Norbaitek besteren bati irain astunik egiten ba'dautso, batez be beste batzuen aurrean, autortzera joan baiño leen, irainduari zelan-alan parka eskatu bear dautsala; bestela, Autortzak ez dautsala ezer parkatzen. Bardin, norbaitek beste bati izen ona kentzen ba'dautso be. Bardin, norbaitek beste bati guzur baltza ezarten ba'dautso be: guzur ori zuzendu arte eta irainduaren izen onaren aurka egin dauan kaltea ordaindu arte, Autortzak ez dautso ezer parkatzen.

¿Zegaitik ori? Begira: lapurretan egiten dauanari naiz ostu dauanari, kendu dauana atzera jabeari biurto bagarik, ez yako ezer parkatzen. Orrexegaitik esaten dabe teologoak zazpigarren agindua dala amar aginduetarik nekezen parkatzen dana, orrexegaitik: parkatzeko, leenen jabeari berea biurto bear izaten yakolako. Ori materi-gaiakaz jazoten ba'da, geiago espirtu-gaiakaz, norbere izen onak eta personeari zor yakon begiruneak diruak baiño askozaz geiago balio daualako. Eta ori argiago ikusteko, Jesukristoren berbak eta bigarren mendeko «Didajé» liburuko atal bat ekarri neutsuezan gogora.

Beraz, lenen, irainduagaz bakeak egin, eta gero joan autortzera ta Jaunartzera.

Izan be, miiña lotzea ta ezitea nekeza izaten da. Ainbat on eta ainbat kalte egin daike miiñiak, zelan erabilten dan. Ba-ekian ori Santiagok, eta bere idazkian auxe diño: «Bere miiña ezi bagarik, zintzoa dala uste dauanak, bere buruari sartzen dautso ziria, eta orrelakoaren zintzotasuna alperrekoa da» (St 1, 26). Irugarren atalburuan be ekiten dautso gai orri: «Miiña sua da, gaiztakeri-sorta» (St 3, 6), eta abar. Segura kardenal ospatsu ta santuari entzun neutsana: «Batzuen arimako biziena enparaduakaitik txarto esatea da».

Eta onetzaz naikoa.

* * *

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Ikusi dogu artzain onak zelan zaintzen dauzan bere ardiak: eun ardiatariko bat galtzen ba'yako, beste larogeta emeretziak basoan itzirik, galduaren billa asten da, idoro (aurkitu) arte.

Artzain on ori Jesukristo bera da, arima-artzaiña. Jesukristok guzti-guztiok maite gaitu, guztiok zeruratu nai gaitu, on eta gaizto, zintzo ta pekatari, guztiok. Orixe agertu eban bere bititza guztian: batzuetan bere ikasle zintzoai egiten dautse berba, eta geienetan arekaz dabil;

baiña, beste batzuetan, pekatariakana doa, areik be beraganatzeko ta bide onera ekarteko. Jesusen arerioak ez eben ori ondo ikusten, eta auxe esaten eben: «Zuen Irakasleak, ¿zegaitik jaten dau diru-batzaille ta entzute-txarreko gizonakaz?» (Mt 9, 11). Eta Jesusen erantzuna: «Ni ez naz zintzoai dei egitera etorri, pekatariai baiño» (Mt 9, 13). Eta beste une baten: «Diru-batzaille ta entzute-txarreko guztiak Jesusi entzutera batzen ziran. Ori ikustean, parisaitar eta Lege-irakasleak mormoxetan asi ziran: “Ori pekatariakaz dabil eta jan be egiten dau orrek arekaz”» (Lk 15, 1-2).

Jakiña da: gure artean, gaiztoakaz dabillena, gaiztoen antzekoa egiten da, gaiztotu egiten da geienetan, sagar ustelak bere ondoko sagarrak usteltzen dauzanez. Baiña ori ezin jazo zeitekion Jesukristori, Jaungoikoa zan-eta; ezin gaiztotu edo okertu zeitekean, ezta pekatu txiekienik egin aal izan be.

Jesukristok guztiokanako errukia dau, Jesus guztiakana doa; eta, pekatari bat onbideratzen danean, zeruan poz aundia izaten dala dirausku Berak, Mezako Ebanjelio-zatian entzun dozuenez: «Zeruan poz aundiagoa izaten da, onbideratze-bearrik ez daben larogeta emeretzizintzogatik baiño onbideratzen dan pekatari bategatik» (Lk 15, 7).

Geuk be, entzuleok, egin daikegu zerbait Jesukristogandik alenduta dagozanen alde. ¿Zelan? Jaunari arein alde erregutuaz beintzat bai. Geienetan, geure alde bakarrik eskatzen dautsagu Jaunari; baiña pekatarien alde be erregutu bear dogu, misifioen alde, Jesukristo eza gutzen ez dabenen alde; eta pekatari ori geure artean ba´dago, elizatik otzituta ba´dago, zelan-alan aalegiñak egin be bai Jaungoikoagana ekarten, Jaunagaz bakeak egin dagizan.

Izan egizue gogoan Santiagok bere idazkian diñoan au: «Zuetariko batek egiatik okertzen ba´da, eta beste norbaitek alakoa bide onera biurtzen ba´dau, jakin begi pekataria bide okerretik zuzenera ekarri dagianak, bere arimea eriotzatik onik atarako dauana eta pekatu-pillo aundia estalduko dauana» (St 5, 20). Berba batez esanda: Norbaitek pekatari bat zeruratzen ba´dau, bere burua zeruratu dau.

(I) Pentekoste-osteko 4´garren Domekea (Lk 5, 1-11)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Pedroren txalupea itsasoan, gabez, arrainketan. Ez dabe arraiñik artu. Baiña, Jesusen esana egitearren, Pedrok sareak barriro zabaltzen dauz, eta arrain-pillo aundia artzen dabe, sareak urratzeko zorian artu be.

Pedroren txalupa ori Elizearen irudi da. Bi milla urte dirala dabil gure Elizea munduan zear, ekaitz-artean, arriskuen erdian, illunetan, arerio-artean, guzurrezko adiskide-artean. Baiña ondatu bagarik, beti bere bidean aurrera, Aita Santua agirizko buru dauala, ikusten ez dan buru Jesukristo dauala. Beti ur-gaiñean, murgildu bagarik, ondoratu bagarik, Jesukristoren laguntza dauko-ta: «Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte» (Mt 28, 20).

Pedro Elizearen agirizko buru, eta gero, aren ostean, Erroma´ko Gotzaiña, Aita Santua. «Pedro (Arria) zara zu —dirautso Jesukristok—, eta arri orren gaiñean jasoko dot nire Elizea, eta illobiko indarrak ez dau azpiratuko» (Mt 16, 18). Orixe da Aita Santua, Pedroren ondorengoa, Elizearen buru, Kristo Jainkoaren argiz eta indarrez Elizea zuzentzen dauana, kristau guztion arima-zaintzaillea, agintari nagusi ta aita. Beragandik artzen dabe agintaritza munduko Gotzain guztiak, eta bere esanera jokatu bear dabe: Aita Santua, Elizearen buru lez berba egiten eta irakasten dauanean, utseziña dalako, Elizearen gaietan ezin utsik egin daike-lako. Berak dauko beti azken-berbea oitura on eta moral-gaietan. Enparadu gaietan, politika gaietan esaterako, uts egin daike beste edozein jakitunek lez, baiña iñoiz be ez Elizearen buru ta maisu lez irakasten dauanean.

Entzuleok: gaurregunean be guzurrezko jakintsu asko dagoz, sasi-jakintsu asko, sasi-kristau asko. Orregaitik, leengo baten, gure Gotzain jaunak esan ebana: Kontuz ibili zaitzeze gunkarrietan (periodikuetan) eta aldizkarrietan (errebistetan) irakurten dozuenez, an datozen albistak sarritan guzurrezko albistak dira-ta; beste barri batzuek, barriz, egia estaltzen dabe-zanak, eta azkenengo oneik, sarritan, egia osoa ez esatea baiño guzur txarrago eta kaltegarriago biurtzen dira.

Izan be, egia ta zuzentasuna ez erabiltea, orixe da gauzak naastea, orixe edenezko azia ereitea, deabruaren beraren egikera maltzurra zabaltzea. Zuzentasuna dagoan tokian antxe dago egia. Zuzentasuna ta egia darabillena ez da naastaille, zintzoa ta zuzena baiño. Jesukristori be naastaille zala esan eutsoen, San Lukas Ebanjelariak dakarrenez: «Geure erria naas-

ten artu dogu au..." [Abadeburuak] gogorrigo ziarduen esaten: "Bere irakaspenaz Judea guztian erria naasten diardu. Galilea'n asi zan, eta onaxeño eldu da"» (Lk 23, 2 eta 5).

¿Egizalea naastaille? ¿Zuzen jokutzen dauana naastaille? ¿Norbere eskubideak gorde ta zaindu nai dauzana naastaille? Leentxoago edo gerotxoago, argiak argi egiten dau, eta Jesu-kristok diñoanez, «Egiak askatu egingo zaitue» (Jn 8, 32).

Jauna, Jesus Jauna: argi egin daiskula beti zure argiak, zure Barri Onak, zure ordezeko dan Aita Santuaren bidez zuzentzen gaituen irakatsiak eta egiak.

(II) Pentekoste-osteko 4'garren Domekea (Lk 5, 1-11)

Ebanjelio-zati onetan ikusten dogunez, gau osoa egin eben San Pedrok eta beronen lagunak arraiñak artu gurarik, baiña bat bera be ez eben artu. «Eroan egizu txalupea itsaso zabalera —esan eutsan Jesusek—, eta jaurti an sareak arrantzarako». Eta Pedrok: «Irakasle, gau guztia lanean egin dogu, eta ez dogu arrain bat be atara» (Lk 5, 4-5).

Ezkutapen arrigarri bat dabe San Pedroren berbok: gau guztian jardunarren, ez dogu arrain bat be artu.

Gaba ta illuna pekatuaren irudi dirala dirauskue Elizako irakasleak; eta pekatupean gagozan artean (pekatu astunean egon ezker), gure egintza guztiak, on-onak izanarren be, ez dirala zeruaren duin, ez dabela zerurako ezer balio. Argia atzamatzen (amatatzen) danean, edo bardin dana, arimeak Jainkoaren grazia galtzen duanean, pekatuaren illuntasunak inguratzen dau.

Illunetan, gauza asko ezin egin daitekez; ezin idatzi daiteke, ez irakurri, ez josi; gauza bat galtzen ba'da, ezin aurkitu daiteke: argia iziotu bear, galdu dan gauza ori idoroteko, aurkitzeko.

Bardin jazoten da arimako gaietan be: pekatua da arimako illuntasuna; argia, barriz, Jaunaren grazi santutzaillea; grazi ori da gure egintza guztiai bizia emoten dautsena. Au argiro dirausku Jesukristok: «Nigandik bananduta, ezin ezer egin daikezue» (Jn 15, 5). Jauna bagarik, Jaunaren grazi edo laguntasun bagarik, ezertxo be ezin egin daikegu: ez gogapen edo pentsamentu on bat euki, ez gurari naiz asmo on bat euki, ez oinkada bat aurreratu onoi-men-bidean, ez maillatxo bat igo santutasun-bizitzan...

¿Eta zegaitik ori? Pekatu astunean dagoana Jaungoikoaren arerio dalako.

Gizarteko arazo ta artu-emonetan be bardin jazoten dala esan dautsuet. Egin dagiguzan argiz gure egitekoak, argitan euki gure lanak: ezkutuan dabillena, leentxoago edo gerotxoago, jausi egingo da-ta. ¿Zeuek be ez dozue ikusten, ba? Kontuak argi ta garbi euki egizuz, eta beti buru-tente joango zara. Kontu-garbitzeak argi ta garbi emon egizuz; bestela, leentxoago edo gerotxoago, guztien aurrean agertuko dira. Erruki nakie kontuak ixillean eta ezkutuan eukiten dabezanai; erruki nakie, diru-kontuak argi ta garbi emon bearrean, ezkutuan gorde ta guzurrezkoak emoten dabezanai: leentxoago eta gerotxoago arriabarra etorriko yake gaiñera-ta.

Zoritxarrekoa ustea Jaungoikoagan jarri bearrean, gizonagan jarten dauana, irakurten dogu Bibliako Jeremias'en liburuan (Jer, 17, 5). Zoritxarrekoa bere lagun-urkoa atzipetzen (engaiñatzen) dauana, illuna gaiñera jausiko yako-ta.

Entzuleok: «Bide bi dagoz —diño "Didajé" liburuak—: bata bizitzakoa, eta bestea erioztzakoa» (1, 1). Jesukristogandik jasotako berbak dira orreik: «Sartu zaitzeze ate estutik. Ondamendira daroan atea zabala da, eta bidea erraza, eta euroatik sartzen diranak asko dira. Betiko bizitzara daroan atea, ostera, estua da, eta bidea nekeza, eta eurok aurkitzen dabezanak gutxi dira» (Mt 7, 1-314).

Bide bi: bata bide illuna, bestea bide argia. Norberak aukerata beintzat, norberak gurata beintzat, ez daitela emen gagozanetarik iñor bide illunetik joan, bere ondamendira joango litzake-ta.

Emen gagozan guztiok ba-dakigu bide argitik zelan joan, zelan jokatu bear dogun gure bizitzan, kristau-bizitzan. Ba-dagoz lurreko baztarretan beste asko nondik eta zelan joan ez dakienak. Guk ori ezin esan daikegu, eta, beraz, ez geuke errazoirik bat bera be atarako gure alde Jainkoaren aurrean. Bide illunetik ba'goaz, geuk nai dogulako da; ez atara atxakirik, alperrik izango litzake-ta.

Jesus Jauna: emon egiguzu zure bide argitik aurrera egiteko laguntza.

Pentekoste-osteko 5'garren Domekea (Mt 5, 20-24)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zaitia.

Entzun Jesusek bere ikasleai esan eutsena: «Zuen Lege-irakasleak eta parisaitarrak baiño obeak ez ba'zaree, ez zaree Jaungoikoaren erreifuan sartuko» (Mt 5, 20).

Ona izatea eta zuzena izatea alkarren ondoan dagoz. Zuzentasuna, bakotxari berea emon tera beartzen gaituan onoinena da. Baiña, bakotxari berea emon aal izateko, bakotxari zor dautsaguna jakin bear dogu.

Jaungoikoari: maitasuna, gurtza, menpetasuna ta eskerrona zor dautsaguz; gurasoai: maitasuna, lotsa, begirunea ta laguntasuna; gure ongilleai: euren on-egin eta mesedeen gomuta ta ordaiña; nagusi ta zaaragoai: menpetasuna, lotsa ta begirunea; geure bardintsuak: adiskidetasuna ta txera ona; txiro ta beartsuak: biotz ona ta laguntza.

Baiña zuzentasun au ez da azalezkoa bakarrik izan bear, biotzez egiña baiño. Zuzenak biotzez eta benetan, onak barrutik eta kanpotik; enparaduak ikusi gagiezan bakarrik ez, izatez onelaxe izan bear dogulako baiño, Jaungoikoak beti ikusten gaitualako baiño.

Nik limosna bat egiten ba'dot beartsuari laguntza emotearren, premiña bat betetearren, estualdi bat osatzearren, norbaiten negarra kentzearren, egintza ederra egiten dot. Baiña ori gogo txarrez egiten ba'dot, edo-ta besteen begiak ikusi nagien, urlia baiño gutxiago ez izatearren, orduan ez daust gauza aundirik balio, bear dan zuzentasunez egin ez dodalako, Jainko-agaitik egin ez dodalako. Eta, aal dala, ixillean egin zure egintza onak, «eta ixillean egiten dozuna ikusten dauan zeruko zure Aitak ordaiña emongo dautsu», Jesukristok dirauskunez (Mt 6, 3-4). Eta onelaxe beste gure egintza guztietan be.

Zuzenak barrutik eta kanpotik. Guztiak anai-arreba lez artuaz, guztiai abegi ona, txera ona egiñaz, txalogarri diranak goratuaz, eta txalogarri ez diranak ez goratuaz. Urliak egitada oker bat egin eta guk a txalotu egiten ba'dogu, ez gara zuzenak, gure zuzentasuna ustela da, orretan beintzat. Urliak jauntxo dala-ta, aren gaiztakeriak ontzat artzen ba'doguz, ez gara zuzenak. Eta beste aldera, berendiak egitada onak egin eta persona ori, ezkerreko begitik begirutzen dogulako, bere egitada onak onartzen ez ba'doguz, ez dogu aretzaz gizonki jokutzen. Gizon bat, aundiki izan, naiz agintari izan, naiz Estaduko nagusi izan, gizon txarra ba'da, lapurra ba'da, bere erruz giza-ilteak sortu ba'dira, beste erriak zapaldu ta azpiratu ba'dauz, alako gizon ori Jainkoaren aurrean deabruaren antzekoa da, eta guk

alaketzat artu bear dogu, bere egitada gaiztoak ontzat artu eta txalotu bearrean. Doillorkeria da arerioaren garaipena ospatzea ta goratzea. Erri batek, txikia dalako, erri aundi baten azpian egon bear dauala norbaitek esaten ba'dau, basoko pistien bizierea beretzat be ontzat artzen dau: basoan pistirik indartsuena da nagusi, eta beste iñok ez dauko eskubiderik indartsuenak izan ezik. "Indartsuenaren legea" esaten yako orri. Eta gizon ori gaiztoa, lapurra naiz iltzaillea dala esateko aurpegirik ez ba'dogu, besterik ezean ixilik egon gaitez, baiña iñola be ez olakoari txalorik jo, zuzentasunaren aurka egin ez dagigun. Aurpegi biko personak guztien iguingarri dira. «Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala» (Mt 4, 9).

Izan gaitez, ba, beti zuzenak, zintzoak, egizaleak, barrutik eta kanpotik.

Pentekoste-osteko 6'garren Domekea (Mk 8, 1-9)

Argi ta garbi ikusten da, entzule onok, Ebanjelio-zati onetan Jesukristoren biotz ona ta errukiorra! Iru egunean ziarduan gizatalde aundi arek, lau milla gizon arek, basamortuan Jesusen irakatsiak entzuten. Aldean ekarri ebezan jan-edariak amaitu egin yakezan, eta janik eta edanik ez eukela geratu ziran; baiña arek geldi an, Jesusen berbaldiak entzuten. ¿Zer egin eban Jesukristok? ¿"Or konpon" egin eta joan zeitezala euren etxeetara? Ez; ederto dirausku Markos Ebanjelariak: «Erruki nakio laguntalde oni... Bialdu ta baraurik joaten izten ba'dodaz, ondezik jarriko dira bidean. Eta batzuk urrindik etorri dira...» (Mk 8, 2-3).

Garrantzi aundiko egintza zan lau milla gizon arei ezerezetik janaria gertatzea, ataratea: zazpi ogitik eta arraintxo batzuetatik lau milla gizoni gosea kentzea. Mirari bat egin bear, eta egin be aundia egin eban Jesusek. Guztiak gura-aiña janda gero, geratu ziran ondarrakaz, ondakiñakaz, zazpi otzara bete ebezan.

Ikusi dagigun, baiña, mirari aundi au egin aurretik Jesusek egin ebana: zazpi ogiak arturik, Goiko bere Aitari eskerrak emon eutsazan.

Irakatsi ederra Jesusek emoten dauskuna: ezer egin aurretik, Jainkoari otoitz egin, Jainkoari erregutu, argitasuna eskatu, egin bear doguna ondo egiteko laguntasuna eskatu. Ez eban Jesusek iñoren laguntasan-bearrik egitekoak ondo, zuzen eta artez egiteko, Jaungoikoa zan-eta; baiña geuk zelan egin bear doguzan erakustearren egiten dau ori.

Ba-dakigu guk ondotoxo be, geu gareanez, gauza gutxirako balio doguna, gauza gutxi egin daikeguna, beti bearrizanetan gagozana, gorputz-arimako arerioak asko ta indartsuak dirana, laguntasuna bear doguna! Jaunari eskatzea baiño ez daukagu, Jesukristok

dirauskunez: «Eskatu egizue, eta emon egingo dautsue [zeruko Aitak]» (Mt 7, 7).

Geure eskuan daukagu, ba, entzuleok, laguntasun au ta indar au lortzea. Jaso dagiogun goizero ta egun-barruan Jaunari gure biotza, gure barrua, laguntza-eske, egunoroko gure eginbear, lan eta arazo guztiak ondo ta egoki egin dagiguzan, Jaungoikoaren aintzarako, lagun-urkoaren onerako eta geure arimearen irabazirako.

Jarri orretarako bitarteko gure Andra Mari, gorputz-arimako grazi, mesede ta ondasun guztiak beraren bitartez datorkiguz-ta.

Pentekoste-osteko 7'garren Domekea (Mt 7, 15-21)

Amaikatxo gauza irakasten dausku gaurko Ebanjelio-zatiak! «Jauna, Jauna!» agoz esanaz bakarrik ez dogu zerua irabaziko, ezta oneraspen edo deboziño askoaz be, Jainkoa biotzez maitatu eta bere Legea beteten ez ba' dogu.

Asko dira or, elizara sarritan etorriarren, aal daben guztian enparaduai buruz txarto esaten eta egiten diarduenak; eskapularioa edo domiñea eroanez, edozein modutan biziarren, zeruratu egingo dirala uste dabenak; ba-dira, katoliko sutsuak dirala-ta, besteai zelan kalte egin dabi-zanak, ixilleko ta agirizko lapurretak egiten diarduenak, goizean Jaunartzen eta arratsaldean edozelako egikeretan sartzen diranak (antxiñakoak esaten ebena: goizean Jainkoari iziotzen dautsoe kandela bat; arratsaldean, barriz, deabruari).

Guzti orreik «Jauna, Jauna!» esaten dautsoe Jainkoari, baiña ez dira zeruko erreñuan sartuko, enparaduai egin dautsezan zorrak eta kalteak ordaindu arte, enparaduai bizikera zuzena, legezko bizikerea erakutsi arte, bide oneko bizikerea eurakanatu arte.

Egitadetan ezagutzen da personea, bere egitadetan. Esan, ainbat gauza esan daitekez; erraza da esatea, baiña egitea edo burutzea, orixe nekeza (neugandik asita). Esateak ez dau asko balio, egiñez beteteak baiño. Orrexegaitik dirausku Jesukristok: «Ez dira Jaungoikoaren erreñuan sartuko "Jauna, Jauna!" diñoen guztiak, zeruko nire Aitaren naia egiten dabenak baiño» (Mt 7, 21); edo bardin dana: Jainkoaren aginduak banan-banan bete dagizana baiño: orixe sartuko da zeruko erreñuan.

Ikasi dagigun, ba, guztiok gure burua kristau lez agertzen alde guztietan eta beti; guztiak kristau jatortzat artu gagiezala, enparaduai ikasbide ona emonez, «zuek egiten dozuezan egintza onak ikusi dagiezan eta orrela zeruko zuen Aita goratu dagien», Jesukristok dirauskunez (Mt 5, 16).

Leenengo aldietan, kristauak alkari eutsoen maitasunean, batez be, ezagutzen ebezan kristau zirana. Jesusen agindua beteten eben: «Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zarena: alkar maite izatean» (Jn 13, 35). Gaur be benetako kristau agertzeko ezaugarriarik agiriena orixe dala dirauskue Elizako gurasoak, Eliz-Batzar Nagusiko gurasoak. Orixe da, izan be, agindurik nagusiena, Jesukristok dirauskunez: «Jaungoikoa maite izatea eta geure lagun-urkoa geure burua lez» (Mt 22, 34-40); agoz bakarrik ez baiña, egiñez eta benetan baiño, San Joan Ebanjelariak bere 1º idazkian dirauskunez (Jn 1º, 3, 18).

Pentekoste-osteko 8'garren Domekea (Lk 16, 1-9)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

¿Nor da mundu onetako ugazaba? Jaungoikoa, Jaungoikoa gauza guztien eta ondasun guztien Jaun eta Jabe bakarra. Bera da danaren egille eta dana iraunerazoten dauana. «Neureak dira gauza guztiak», esan eutsan Jainkoak Moises'i (Ur 13, 2).

Eta gauza guztiok zaintzen dauzana, barriz, norbera, geu, andra ta gizon guztiok. Jaun-gandik artu doguz ondasun guztiak, eta ez dira gutxi be, ugari, ederrak eta zenbat gura gaiñera. Begira:

Arimako ondasunak: grazi zerutarra, jatorrizko pekatutik ataratea, Jesukristoren bitartez Jaungoikoaren adiskidetasunean jartea, il-osteko zoriona zeruan.

Berezko ondasunak: edo-ta bardin dana: gizonari gizona dalako dagokiozan ondasunak: gogorramena, adimena, naimen edo borondatea, norberak gura dauana egitea edo askatasuna, jakituria, zentzuna, buru ona, eta abar.

Gorputzeko ondasunak: osasuna, indarra, adorea, geure arteko ta geure azpian daukaguzan beste milla gauza.

Gauza guzti onein zaintzaille geu gara. Ez gara gu benetako jabeak, arduradunak baiño. Eta elduko da eguna, geure eriotzako egunean bertan, gure Jabe ta Jaunak kontuak eskatuko dauskuzan eguna, ea zelan zaindu doguzan guk erabili doguzan ondasun guztiak. Zoritxarrekoak gu, Jaunaren aintzarako ta geure arimearen onerako izan ez ba'dira!

Jaungoikoak gu zoriotsu izatea nai dau, zoriotsu mundu onetan eta bestean ¿Nok esan dau beste gauzarik? Gauza guztiak dira onak andra-gizonentzat, bear diran lez erabili ezker, negurriz erabiliko ezker. Negurriz erabilten ez diranean biurtzen dira kaltegarri: orduan, gizonak areik azpiratu bearrean, eurak azpiratzen dabe gizona-ta. Orregaitik, oraingo aurrera-

pide guztiak, eurenez, onak dira, guztiak goratzen dabe Jaungoikoa gizonaren jakituriaren bidez. ¿Bedarra segeaz ebagi bearrean, makiñeaz ebagi? Gizonari laguntzeko eta ainbat neke kentzeko berebiziko aurrerapidea, eta, beraz, gizonari zoriontsuago izatera laguntzen dautsan tramankulua. Izan dadilla ondo etorria, jakifia! Eta bardin beste gauza ta aurrerapide guztiak be, negurriz erabili ezkerro. Guztiok dakizue: ona da ardaoa negurriz erabilten dan artean; edan egizu bear baiño geiago, eta ba-dakizu zer jazoko yatzun.

Zoritxarrez, sarritan, Jaungoikoaren legea baiño atsegin labur bat geiago nai izaten dogu; baita diru apur bat irabaztearren, Jaungoikoari buruz doguzan eginbearrak alde batera iztea be.

Ez daitezala izan gure ondasunak geure kalterako, geure galbiderako, zeruko zorion aundia irabazten laguntzeko baiño.

Pentekoste-osteko 9'garren Domekea (Lk 19, 41-47)

Gauza arrigarria, benetan, Jesukristo gure Jauna, Jaungoikoaren Semea, Jerusalem'era begira negarrez ikustea! ¿Zegaitik negar Jerusalem ikustean? Jerusalem, Israel'go urietatik ederrena zan; "uri santua" eritxon, Jaunak bere erriaren uri nagusitzat aukeratu ebalako.

Baiña, alan be, gaiztakeriz beterik egoan, ainbat profeta santu il ebezan, eurotarik bat Joan Bateatzaillea; eta azkenez, Jesukristo bera ilgo eben, eurak itxaroten eben Mesias. Alperrik egin Jesusek sekulako mirariak: areik sinistu ez, areik Jesus artu ez Kristotzat.

Aregaitik, Jerusalem uria ondatua izango zan, eta arri-gaiñean arririk ez zan an geratuko. Alantxe jazo zan andik berrogei urtera: Erroma'ko gudariak, an su ta ke sarturik, Jerusalem osoa apurtu ta birrinduta itzi eben. Eliza nagusiari be sua emon eutsoen. Millo bat judar il ziran. Orregaitik, Jesukristok negar egin eban Jerusalem'en aurrean, uri ari jazo izango yakona ondo ekian aurretiaz-ta.

Entzuleok: Jaungoikoa, gure Aitarik onena, maitakorrena ta samurrena izanarren, zuzena be guztiz zuzena da. Gizonen eta errien gaiztakeriai mugak ezarri dautsez, itsasoari jarri dautsazanez. Onaxeifio elduko zara —dirautso gizonari—, eta ementxe ezereztuko dira zure arrokeri ta gaiztakeri guztiok. Gizonaren gaiztakeriak gutxitan zigortzen dauz mundu onetan, askotan ez beintzat; geroko izten dau geienetan gizon bakotxari saria edo zigorra emotea. (Irakurri "Gari arteko galbedarraren ipuiña", Mt 13, 24-30.)

Baiña erriak ez dauke geroko bizitarik: emen berton saritzen edo zigortzen dauz Jaunak

errien egintza on edo gaiztakeriak: geisoak, lurrikarak, uriolak, gudu (gerra) eta osterantzeko zoritxar aundiak, ¿ez ete-dira izaten Jaungoikoak erriai bialtzen dautsezan zigorkadak? Sarri be sarri bai, gerrateak eta goseteak batez be; gudua (gerrea), Jainkoaren zigorra da, eta zigorrerarik aundiena ta txarrena, berez bakarrik ez, baita beronek izten dauzan ondoren kaltegarriakaitik be. Begira Bibliako Samuel'en 2'garren liburuan irakurten doguna: Jainkoak Dabid erregeari auxe esan eutsan: Zigortu egin bear dot Israel nire erria, gaiztakeria aundiak egin dauz-ta. «Iru zigor jarten dautsudaz aurrean: aukeratu egizu iruretariko bat, eta Nik burutu egingo dot. ¿Zein zigor aukeratzen dozu? ¿Iru urteko gosetea zure lurraldean, zure arerioen aurrean iru illabeteen igesi ibiltea, ala iru eguneko izurria (pestea) zure lurraldean?» Eta Dabid'ek izurria aukeratu eban. Jaunak bere erriari azken-zigor au bialdu eutsan, eta irurogeta amar milla gizon il ziran (S 2ª, 24, 12-16).

Niri neuri, samindu egiten yat barrua leengo gerratea goratzen eta orduko egitadak gogora ekarten dauskuezan bakotxean. Kristautasun-aztarrenik be ez agertzea da ori, enparaduakanako maitasuna ukatzea ta zapaltzea, Kristoren legerik nagusiena austea ta baztartzea. Egia esan, kristau lez —eta gutxiago abade lez—, ez dot egikera ori ulertzen, ezetara be ez dot onartzen...

Ez aaztu, ba, pekatu bakotxak bere zigorra daukala emen edo gero, biotzez damuturik, Jaunari parka eskatzen ez ba'dautsagu beintzat.

Pentekoste-osteko 10'garren Domekea (Lk 18, 9-14)

Entzun dozuen Ebanjelio-zati onek otoitzari buruz esan dauskun zerbait.

Jaungoikoari erregutu, otoitz egin. ¿Zer da otoitza? Jaungoikoari biotza jaso ta mesedeak eskatzea, eta Berari eskerrak emotea, eta Bera goratzea. Biotza jaso: Jaungoikoagaz berbetan asi, Jauna burura ekarri, Ari zerbait esateko, zerbait eskatzeko, zerbait eskintzeko.

Egun-barruan egiten dogun guztia otoitz biurtu daikegu, otoitz luze bat izan daiteke, gure arazo ta egiteko guztiak Jaunari eskiñi ezkerro. Ezin egon gaitেকে, egia da, beti Jaungoikoa gogoan dogula; baiña ona be ona da Jauna gogora sarritan ekartea, berbaz ez ba'da, gogoz, biotzez bakarrik, otoitza bi eratakoea da-ta: gogo-utsezkoa eta agozkoa; baiña, beti be, biotzez egiña, geure barrutik sortua.

Otoitzik egiten ez dauana, Jaunari erregutzeaz gomutatzen ez dana, ezin bizi daiteke Jaungoikoaren adiskidetasunean, nai ta nai ez pekatutan jausi bear.

Beraz, entzuleok: ¿zelan egiten doguz egunoroko gure otoitzak? ¿Otoitzik egiten ete-dogu? ¿Naikoa deritxazu, ogetik jagikeran, "Aitaren" bakarrik egiteari? ¿Ekarten dozu gogora gure Andra Mariari, zeruko gure Amari, laguntasuna eskatzea? Eta gero, egun-barruan, ¿zer? Ba-dakizuz otoitz laburtxoak be; ez da bearrezkoa ezpanez esatea; zeure barruan esaten ba´dozuz be bardin da. ¿Otoitz egiten dozu zure jatorduetan "Gure Aita" edo? Eta gabea, ogerakoan, "Jesukristo neure Jauna" be bai, egun-barruan egin doguzan pekatuakaitik parka eskatzeko.

Esan dagiogun Jesusi: Jesus Jauna, nire egun guztia otoitz biurtu daitela, nire egun guztia, egunoro, otoitz luzea izan daitela, lurreko aldi onetan Zeugaz bat eginda bizi naiten, geroko beste bizitzan be Zure ondoan zoriontsu izan naiten.

Pentekoste-osteko 11´garren Domekea (Mk 7, 31-37)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesusi gizon gor eta mutua ekarri eutsoen, eta Jesusek osatu egin eban, ari entzumena ta berbea biurturik.

Kanpotik gorra eta mutuak dagozanez, ba-dagoz barrutik gor-mutuak diranak be. Gorra Jesukristoren Barri Ona ta Elizearen irakatsiak entzuteko, gorra euren barruak dirautsena entzuteko; entzun bai, baiña ez-entzun egiten dabe. Eta orregaitik, "entzun nai ez dauana baiña gor txarragorik ez dago". Beste batzuek, ostera, entzun bai, egiten dabe, baiña entzundakoari ez dautsoe jaramonik egiten.

Eta gorra dana, mutua be izaten da, jaiotzatik gorra ba´da beintzat. Barrutik mutua ba´da, iñoren aurrean onbidea ta bere sinismena autortzen lotsatu egiten da, eta ixildu. Jainkoaren, erlejiñoaren naiz Elizearen aurka egiten entzuten ba´dau be, orrelakoa isilik egoten da, mutututa. Norbaitek gure gurasoen aurka berba egingo ba´leu, ez gintzakez, orraitño, isilik geratuko; baiña gure barruko gaietarako mutuak izaten gara sarri be sarri.

Eta Jesukristok barriro be guztioi esaten dausku, Ebanjelioko gor-mutuari lez: Zabalduegizuz belarriok eta ago ori, eta asi zaitez Jaunaren gorapenak iragarten, Jaunaren alde egiten! Eta ez uste izan ori abade gareanon arazoa danik, geurea bakarrik danik, guztiok gagoz, zuek eta ni, ori egitera beartuta.

Izan be, beti dago egitekorik naikoa: gaiak bide onera ekarri, oitura onai jarraitu, oitura txarren aurka egin, ago zikiñak isillerazo, urliari burubide ona emon, berendiari laguntza emon, sandiari zerbait gogo onez itzi naiz emon, gurasoak euren seme-alabai eta nagusiak txikiak irakatsi ona emon, irakatsi ori batez be egintzakaz agertu... Ori, guztion arazoa da.

Entzun, bestela, Aita Santu Pio 10´garren berbok: «Ez dira abadeak soillik Jainkoaren eta Elizearen gaien alde urten bear dabenak; guztiak dagoz, abadeak eta osterantzeko guztiak, orretarako beartuta; bakotxa bere erara, bere giza-maillan». Eta Pio 11´garrenak: «Ez dago zeruaren azpian arimak zerura eroaten aalegiñak egitea baiña arazo ederragorik». Eta Santia-gok beste au: «Zuetarikoren bat egiatik okertzen ba´da, eta beste norbaitek alakoa bide onera biurtzen ba´dau, jakin begi pekataria bide okerretik zuzenera ekarri dagianak, bere arimea eriotzatik onik atarako dauana eta pekatu-pillo aundia estalduko dauana» (S 5, 19-20).

Beraz, entzule onok, bizkortu bedi bakotxa: aal dauan eraz eta edonun, zuzentasunaren eta onbidearen alde jokutzen, guztien aurrean eredu ona, zuzena ta zintzoa izaten.

Pentekoste-osteko 12´garren Domekea (Lk 10, 33-37)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Gure lagun-urkoai buruz zelan jokatu bear dogun dirausku batez be.

Baiña beste zerbait be ikasi bear geuke Ebanjelio-zati onetan: Lege-gizon arek Jaungoikoaren Legea jakiteko eban ardura aundia. Itaunka diardu Jesusi: «Irakasle (edo maisu): ¿zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?» Aren itaunari Jesusek beste itaun bat egiten dautso: «¿Zer dago Moises´en Legean idatzita?» Eta Lege-gizonak berealaxe erantzun: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, zeure arima guztiaz, zeure indar guztiaz eta zeure adimen guztiaz izango dozue maite; eta zure lagun-urkoa zeure burua lez». Eta Jesusek ari: «Ederto erantzun dozu. Orixe egizu eta bizi izango zara». Eta barriro be, Lege-gizonak, geiago jakin nairik, «¿Eta nor da nire lagun-urkoa?», itauntzen dautso. Orduan, Jesusek "samaritar onaren ipuiña" azaltzen dautso, lagun-urkoa nor izan daiteken agerturik.

Irakatsi eredugarri ta ederra emoten dausku Lege-gizon arek: Jaungoikoaganako ta geure lagun-urkoaganako artu-emonak eta gaiak jakiteko gurari bizia batez be.

Leen, antxiña, gaiak agoz-ago entzuten eta ikasten ziran, liburu gutxi ziran-eta; egoz-anak be paperetan eskuz idatzia ziran, eta leku gutxitan egozan, eta erabili be gutxi erabil-

ten ebezan. Orain, barriz, bosteun urte dirala irarkolak edo inprentak asi ziranetik, liburuak ugari be ugari dagoz. Beraz, gaurregunean, irakurteko ta geroago ta geiago jakiteko erraztasun aundiak doguz.

Eta, ¿egiten dogu guk zerbait Jaungoikoaren eta Jesukristoren irakatsiak jakiteko, gure arimearen gaiak gogora ekarteko, gure bizitza zelan igaroten dan, bide onetik ala txarretik goazan jakiteko? Zerbait, zerbait bai, ordu onean; baiña... aal dogun guztia ez dogu orretarako jarten, ezta urrik emon be.

Emen daukagu Biblia santua, eta, batez be, "Alkartasun Barria", Bibliako azken-liburu sorta. Munduan geien saltzen dan liburua da, milloeka saltzen dira, idatzi dan libururik ederrena, bikaiñena ta Jaungoikozkoena, eta gure Eliza Deunak eskuetan jarten dauskun libururik begikoena, maitekorrena ta irakurgarriena da-ta. (Ikusi Kontzilioko "Const. Divin. Revel.", 25' garren zenbakia). Bertan ikasi ta jakingo dozue benetako kristau izaten.

Izan dagizuela egunoro liburu orretako atalburu bat irakurteko astia.

Pentekoste-osteko 13'garren Domekea (Lk 17, 11-19)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesusek amar legenardun (edo lepradun) osatu ebazan; eta areitariko bat, Jesusen agindua beteta gero, Jesusegana biurtzen da, Ari eskerrak emotera, bere barru-barruko eskerrona agertzera.

Geuri be jarraibide ona emoten dausku gizon arek: ba-dakigu guk ondotxo be, geu gareanez, geure indarrez, ondo gauza gutxi egin daikeguna, beti bearrizanetan gagozana, edozein ondezek edo geisok lur-jota itzi gaikezana; ba-dakigu Jaungoikoari beti mesede-eskatzen jardun bear doguna, gorputz-arimako mesedeak; ain zuzen be, ori egiteko, Jesukristok berak dirausku: «Eskatu egizue, eta emon egingo dautsue; billatu egizue, eta aurkitu egingo dozue; dei egin, eta Jaungoikoak zabaldu egingo dautsue atea» (Mt 7, 7).

Baiña gero, eskatutako mesedea jaristen dogunean, sarritan ez dogu gogora ekarten Jaungoikoari eskerrak emotea. Egunoro, Mezako Kanon-aurrean, auxe esaten dogu: «Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. Egoki da eta zuzen». Gizon elbarridun arek egin ebana: eskerrak emon Jesusi, bere geisoa osatu ebalako.

Geure artean be iguingarri egiten yaku eskertzarrekoa, eta ba-dagoz onelakoak. Zeuek be ezagutzen dozuez. Urteetan, bearbada, arei on egiten, eta areik eskertzarrez ordaindu

urteetako mesedea, baita aurka jagi be, antxiñako esakerea beteaz: «On egifiaren pagua, ateo-ostean palua». Persona motzaren egikerea da ori. Guztiz iguingarri egiten yakuz orrelakoak.

Ez dagigun saldu Jainkoa gure eskertzarraz. Begira: Jesukristok mesedeak egiten jardun eban bere iru azken-urteetan: geisoak osatu, illak biztu, itsuai ikustea eta gorrai entzumena emon, itsasoa baretu, arraiñak eta ogiak ugaritu, eta guztietariko mirariak egin. Orrela, Pazko-egunean judar erriak oiuka, santzoka ta txaloka goratu eban; baiña, sei egun barru, Aregandik ainbeste mesede artu eban erriak, Aregandik urrindu eta arerioen eskuetan itzi eban. Saldukeri baltza benetan!

Geuk be orixe egiten dautsagu batzuetan Jaungoikoari: gure eskerrona Berari agertu bearrean, munduagana biurtzen gara. Baiña, azkenean, judarrak Jesukristo lez artzen gaitu munduak be. Olakoxeak izaten dira mundukoien ondo esanbearrak be. Egia aundia esakera batek diñoan au: «Goraldietan adiskideak ugari; beeraldietan adiskideak urri». Mundua aldakorra danez, barrezka ta ondo-esaka artuko zaitu atsegin eta pozaldietan; gero, barriz, zure atsekabe ta estualdietan, bertan-beera ta bakarrik itziko zaitu.

Jesukristo, ostera, beti izango dozu zure ondoan, besoak zabalik zuri itxaroten.

¿Judar areik txarto egin ebela euren eskertzarraz? Orixe berori egiten dau pekatu astunean jausten danak be: Jauna bere arimatik jaurti ta urrindu.

Jakin dagigun, ba, Ebanjelioko elbarriduna lez, Jaungoikoari eskerrak emoten. Agertu dagiogun gure eskerrona, gure barruan beti Jesukristo eroanez. ¿Zelan ori? Jainkoaren grazian biziak: pekatu astun bagarik, grazian gagozanean, Espiritu Santuaren Eliza ta etxe gara-ta, San Paulo Apostoluak dirauskunez: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?» (Ko 1ª, 3, 16). Eta sendotu dagigun, bide batez, Jesukristoganako gure sinismena, Jesusek elbarridunari esan eutsazan azken-berbak gogora ekarriaz: «Jagi ta zoaz. Zeure sinismenagaitik osatu zara» (Lk 17, 19).

Jesukristo gure zaintzaille ta adiskide zintzo dan ezkerro, ez gaitu ifioiz be bakarrik eta laguntasun bagarik itziko; gutxiago, barriz, gure eriotz-orduan.

Eskerrak Zeuri, Jesus Jauna!

Pentekoste-osteko 14'garren Domekea (Mt 6, 24-33)

Gaurko Ebanjelio-zatian, geure buruaren arduraz lar ez ibilteko dirausku Jesukristok: «Ez arduratu zer jango dozuen, zer edango dozuen edo zer jantziko dozuen pentsatzen» (Mt 6, 31); «Gauza orrein billa Jaungoikoa ezagutzen ez daben guztiak ibiltzen dira» (Lk 12, 30).

Beste bein be auxe diño: «Jaungoikoaren eta diruaren morroi ezin izan zaitekeze batera» (Mt 6, 24). Eta beste bein, garratzago oraindiño: «Benetan dirausuet: nekez sartuko dira aberatsak Jaungoikoaren erreñuan» (Mt 19, 23).

Beraz, entzuleok, ¿aberatsa zeruan ezin sartu aal izango ete-da, ba? Euren itxaropena, euren biotza aberastasunetan jarrita daukenak, ezetz diarusku Jesukristok. Ez da gauza txarra ondasunak eukitea, diño San Ilariok; baiña negurriz bear dira euki ta erabili, diruaren egarri larregi bagarik, zekenkeri bagarik. Aberastasun asko euki ezarren be, izan daiteke zekena, ostera. Ez da bardin ondasunak eukitea eta biotza ondasunetan josita eukitea. Ondo ta zuzen zabalduko dauz ondasunak beartsuai bearrizanetan emoteko daukazanak, enparaduen negarra legortzen (sikatzen) dakianak, estualdietan laguntzeko gertu dagoanak, bere lagun-urkoa norbere burua lez maitatzen dauanak. Orduan, ondasunak bere salbatzaille izango dira, eta zeruko erreñuan be, an aurkituko dauz mundu onetan esku zabalez emon dauzan limosnak, on-egifiak eta laguntzak. Orrelakoak, Jaungoikoaren erreñuan bateko eun eukiko dabe, dirausku Jesukristok: «Benetan dirausuet: etxea, emaztea, anai-arrebak, gurasoak edo seme-alabak Jaungoikoaren erregetzagaitik itzi dagizanak, mundu onetan askozaz geiago jasoko dau eta geroko munduan betiko bizitza» (Lk 18, 29-30).

Batzuek —eta batzuek baiño geiagok be bai—, gaurregunean euren atsegiñetarako eurrez darabile dirua: lantegietan ondo irabazi, etxean gutxi emon, jan-edanetan dirua parra-parra eralgi, jolastoki ta dantzatokietan ardura bagarik ibili, biar edo etziko bearrizanetarako begiratu bagarik ezer aurreratu ez... Ez da ori buru onez jokatzea. Gauzak bere negurriz beti, orretan, aretan eta beste gauza guztietan. Emon bear danean, emon; baiña burubagekeria da dirua edozela eralgitea. Iñori ezer opa ez daušana, zekena da; baiña, bere buruarentzat parra-parra gastatzea be zekenkeria da. Eta ba-dakigu “Kristau-Ikasbideak” dirauskuna: «Zekenkeriaren aurka, esku-zabaltasuna»; baiña bear dan lez erabilita, buru onez, artez, zuzen egiten dan esku-zabaltasuna. Onetan be jakin egin bear izaten da nori egin eta zelan egin.

Eta naikoa gaurkoz.

Pentekoste-osteko 15'garren Domekea (Lk 7, 11-16)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Andra alargun baten seme bakarra ilda daroe, illobiratzera. Eta Jesusek, errukiz beterik, gazteari dirautso: «Mutil, zeuri dirausut: jagi zaitez!» Eta bat-batean, ildakoa jagi eta berba egiten asi zan, eta Jesusek amari emon eutsan.

Mutil bat ilda. Jainkoaren grazian bizi ez dana be ilda dago pekatu astunaz, ilda Jainkoaren adiskidetasunean, Jainkoaren arerio dala. Gorputza arima bagarik dana —gorpua—, orixe da arimea be grazi bagarik: ibili dabillen gorpua. Gorpuak, bizirik dagoanean lez daukaz bere gorputz-atal guztiak, baiña indar bagarik, bizitzarik ez daukela, geldi-geldi. Pekatu astunean dagoan arimeak be ez dauko grazi-bizitzarik, illunetan doa, ez dau zeruko argitasunik ikusten. Itxuraz bizi ba'da be, ez da bizi, pekatariaren bizitza eriotza da-ta.

Es Kerrak, orraitño, pekatariak Jesukristo daukalako ur, bere ondoan, beti besoak zabalitzen dautsazala. Eta noizean bein, pekatariari biotzeko atea josten dautso, damutzeko grazi bereziak bialtzen dautsazala. Eta zorionsua bere pekatuaz damutu ta Jainkoagana biurtzen dan pekataria! Zeruan dagozanak poztu egiten dira damutzen dan pekatariak. Orixo dirausku Jesukristok: «Zeruan poz aundiagoa izaten da, onbideratze bearrik ez daben larogeta emeretzi zintzogatik baiño onbideratzen dan pekatari bategatik» (Lk, 15, 7).

Batzuek ez dabe entzun be nai izaten eriotza gogora ekarterik: bildurtu egiten ei'dira. Eta, alan be, il-bearrak pekatutik urrindu egiten gaitu. Bibliak diñoanez: «Zure egintza guztietan, izan egizu aurrean zure azkena, eta ez dozu iñoiz be pekatutik egingo» (Sirak, 7, 36). Eta Kenpis'ek: «Zorionsua bere eriotz-ordua beti begien aurrean jarteko egunoro gertatzen dana!» (23, 10). Eta barriro beronek: «Eriotz-orduan aurkitua izatea gura dauan lez orain bizi izaten diarduana, bai dala alakoa zorionsua ta zuurra!» (23, 16). Izan be, edozein ordutan, gutxien uste dogunean il gaitkeez, gazterik naiz urtez eldurik, eriotzako ordua jakin-eziña da-ta. Gogapen ori gure buruan ondo sartuta eroango ba'gendu, ez geuke pekatutik egiteko gogorik izango, ez!

Ba-dakigu guztiok eriotza latza ta garratza dana; baiña, bizia galdu ez, aldatu bakarrik egiten yakula jakiteak, poztu egin bear gaitu. Izan be, orduantxe, gure azken-arnasan, asiko da gure benetako bizitza, kristau zintzoen eriotza betiko bizitza da-ta. Sarritan entzuten dozue ildakoen Kanon-aurrean: «Zintzoai, Jauna, bizia ez yake kentzen, aldatu baiño, eta,

lurreko erbeste-etxe au [gorputz au] jausi daitenean, zeruan betikoa jaristen dogu». Kredoa esatean be ba-difogü: «Itxaroten dot illen biztuera, eta datorren munduko bizitza»

Ez gaitzean, ba, kikildu ez samifez bete eriotza gogora ekarriaz. Ez gara jentillak, kristauak baiño; eta kristau gareanez, itxaropena dogu, gerokoaren itxaropen osoa, argitsu ta zoriontsu biztuko gareaneko uste oso-oso. Orregaitik, entzun San Paulok dirauskuna: «Ildakoi burüz zuek ez-jakifean egoterik ez dogu nai, itxaropenik ez dabenak lez naibagetu ez zaitezen. Jesus il eta biztu egin zala sinisten ba´dogu, Jesusegan ildakoak be Jaungoikoak Aregaz beraganatuko dauz... Beraz, poztu egizue alkar berba onekaz» (Ts 1ª, 13-14 eta 18).

Betiko bizitza izan dagigula, ba, eta ez betiko eriotza, galduen eriotza, Jainkoaren arerioen eriotza; betiko bizitza zoriontsua baiño, amairik ez daukan betiko bizitza pozgarri ta zoragarria. Orixe opa dautsuet biotzez guztioi.

Pentekoste-osteko 16´garren Domekea (Lk 14, 1-11)

Gizon ur-geiso baten osaketa dakarkigu gaurko Ebanjelio-zatiak.

Ba-dakizue ur-geisoa beti egarri baten bizi izaten dana, eta ur geiago edan eta txarrago, eta olantxe ilten da.

Ur-geisoa zekenkeriaren irudi da. Zekena be egarri da beti, ondasun-egarri, diru-egarri. Zekenak dirua ta irabazia barri dauz beti, gabez be ezin dau lorik egin irabaziaz pentsatzen, eta iñoiz be ez dau biotza beteten. Dirua dau atsegiñen, eta diruak jarten dau, ain zuzen be, neke-samifetan, diruak berak egiten dau arelakoa zoritxarreko.

Ur-geisoa, edanaz aunditu ta puztuta geratzen da; zekenkeriak be gizona puztu egiten dau, arrokeriz beterik jarten dau.

Zekenkeriaren kalteak: zekenkeriak gizona kaskar eta errukarri egiten dau, aberastasunak pillatzeko izerdi lar atarazoten dautso-ta. Zekenkeriak gizona beartsu ta txiro (pobre) biurtzen dau, alakoa bere aberastasunak galdu ezker zer egingo ete-leukean diardu beti pentsatzen-eta.

Gaiñera, iñor baiño beartsuagoa da, ez dau nai izaten bere ondasunetatik ezer gastatzerik-eta. Beraz, ezer ez ba´leuko lez da. Zekena itsu biurtzen da; zekenak ez dau dirua baiño ikusten; bere biotza irabazietan dauko josita, eta arentzat ez dago besterik, ez zerurik ez Jainkorik, bere jainko dirua egiten dau-ta.

Azkenez, zekenkeriak billoizik izten dau gizona, zerurako balio dauan ezer be egiten ez daualako. Eta Jesukristok dirauskunez: «¿Zetako yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen ba´dau?» (Mk 8, 35). Eta beste bein be: «Ez pillatu aberastasunik mundu onetan; mundu onetako aberastasunak zerendu ta ondatu egiten dira... Zeruan bai, pillatu zeruan aberastasunak; an ez dira zerentzen, ez ondatzen... Zure aberastasunak euki dagizuzan lekuan, biotza be antxe izango dozu» (Mt 6, 19-21).

Dirua ona da izan, gauza ta egitada onak egiteko berebizikoa. Baiña, diru-egarria da gizona lotzen eta ondatzen dauana. Ondo da geroago ta obeto bizi izatea; baiña gure irabaziaz eta ondasunak enparaduen bearrizanak leguntzeko ta osatzeko be izan daitezala, enparaduai laguntza emoteko be izan daitezala: orrelakoak «mundu onetan askozaz geiago artuko dau, eta geroko munduan betiko bizitza» (Lk 18, 28-30).

Pentekoste-osteko 17´garren Domekea (Mt 22, 34-46)

Ebanjelio-zati onetan, Jesukristok bera Jaungoikoa dala agertzen dautse argi ta garbi parisaitarrai.

Eta, izan be, Jesukristo Jaungoikoaren Semea da. Begira:

1) Alkartasun Zaarrean, Mesias edo Kristori buruz, «Jaungoikoa gugaz» izango zala diñoie profetak (Is 7, 14 eta Mt 1, 23), baita Jainko indartsua be, Jauna, gure auzi-epaillea, Jainkoa bera.

2) Profetak Kristori buruz esandako guztia Jesukristogan oso-osorik bete zan: Dabid´en jatorrikoa izango zala, neska garbi bategandik sortu eta Belen´en jaioko zala; Ejipto´ra egingo ebalda igesi, eta illen artetik barriro biztu egingo zala.

3) Aita Jainkoaren autorra: Aita Jainkoak berak esan eban Jesukristo bere Seme zana. Jesukristoren batean: «Eta zerutik urten zan berbots batek auxe esan eban: “Auxe da nire Seme maitea; Beronegan dot nire atsegiña”» (Mt 3, 17), eta Jesukristo Tabor-mendian antzaldatu zanean: «Odeitik berbots au urten zan: “Auxe da nire Seme maitea. Entzun egiozue Beroni”» (Mk 9, 7).

4) Jesukristok berak autortuta: «Aita ta ni bat gara» (Jn 10, 30). «Onelaxe ezagutu aal izango dozue Aita neugan dagoana eta ni Aitagan nagoana» (Jn 10, 38). Auxe esan eutsan Jesusek Felipe´ri: «Ni ikusten nauanak Aita ikusten dau... ¿Ez al-dozu sinisten ni Aitagan nagoana eta Aita neugan dagoana? Nik irakatsi dautsuedana ez da neure buruz izan. Neugan

bizi dan Aita da bere egintza salbagarria egiten diarduana. Sinistu egidazue: ni Aitagan nago eta Aita neugan dago. Sinistu egizue, beintzat, neure egintzakaitik» (Jn 14, 9-11).

Bere berbok mirariakaz sendotu ebazan: ura ardao biurtuaz; ogiak eta arraiñak lau milla gizonentzat ugarituaz; gorrak eta itsuak, elbarridunak, esku-igarrak, errenak, eta beste geiso asko osatuaz; itsasoa baretuaz; illak biztuaz. Aurretiaz iragarri ebazan gaiak / Jaungoikoa izanaz bakarrik jakin eikeazan; esate baterako, Judas'en saldukeria, Pedroren ukatzeak, zelako eriotza emongo eutsoen; Jerusalem'go eliza nagusiaren ondamendia; Jaungoikoaren Seme zala esan ebalako, eriotza emongo eutsoela, baiña irugarren egunean biztu egingo zala barriro. Guzti ori zeatz-meatz bete zan.

5) San Joan Bateatzaillearen autorra: «Uraz bateatzera bialdu nenduanak auxe esan eustan: "Norbaitegana Espiritua jatsiten eta aren gaiñean geratzen ikusten ba' dozu, orixe da Espiritu Santuaz bateatzen dauana". Eta. ori neuk ikusi dodan ezkerro, Jaungoikoaren Semea auxe dala autortzen dot"» (Jn 1, 33-34).

6) Apostoluen autorra: Jesusek ikasleai bera nor zan itandu eutsen. «Orduan, Simon Pedrok auxe autortu eban: "Zu Mesias zara, Jaungoikoa biziaren Semea"» (Mt 16, 16). Eta San Juan Ebanjelariak: «Gauza guztiak asi ziranean, ba-zan Berbea zan a. Eta Berbea dan A Jaungoikoaren ondoan bizi zan eta Jaungoikoa zan» (Jn 1, 1). Eta San Paulo Apostoluak Kristori buruz: «Izan be, ¿zein aingeruri esan dautso Aitak bein be: "Zu neure Semea zara; Neuk sortu zaitut gaur?" Eta beste bein, Leensemea [Jesukristo] munduan sartukeran be ba-diño: "Jaungoikoaren aingeru guztiak gurtu begie [Leensemea]"» (Ebr 1, 5-6). Apostoluak Jesukristoren izenean egiten ebezan mirari guztiak; esate baterako, Jerusalem'go Jauretxean Pedrok erren bat osatu ebanean, auxe esan eutsan: «Jesukristo Nazaretarraren izenean, jagi ta zabiz» (ikusi Ap 3, 1-13).

7) Olantxe irakasten dausku gure Eliza Deunak be. Bateoan: «Neuk bateatzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean»; Kredoa esatean: «Sinisten dot Jaun bat bakarra, Jesukristo, Jainkoaren Seme bakar, mende guztiak baiño leen Aitagandik sortua...». Baita Mezako otoitzen amaiera guztietan be.

Gurtu dagigun, ba, geuk be, apal-apalik, Kristo, Aita Jaungoikoaren Semea da-ta, Irutasun Deunaren bigarren personea, eta Aitagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jainko bakarra, gauza guztien eta guztion Egille, Jaun eta Jabea. Berari aintza ta gorapena gizaldiz gizaldi!

Pentekoste-osteko 18'garren Domekea (Mt 9, 1-8)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Elbarridun (edo paralitiku) bat eroaten dautsoe Jesusi, eta Jesusek, leenen, pekatuak parkatzen dautsaz. Baiña, pekatuak Jaungoikoak bakarrik parkatu daikezan ezkerro, parisaitarrak, ori entzutean, Jesukristok birao egin ebala esan eben. Eta Jesusek, bere Jaungoikozko indarra ta aalmena erakusteko, elbarridunagana biurturik, osatu egin eban bat-batean.

Esan dagitzuedan zerbait biraoari buruz. Biraoa, ondo dakizuenez, Jaungoikoaren, Andra Mariaren, naiz Santuen aurka berba zikiñen bat esatea da. Berbaz esan bearrean kiñuz be egin daiteke birao. Baiña, beti be, biraoa izateko, Jaungoikoaren aurka joan bear dira berba naiz kiñu orreik.

Biraoa, gaiñera, ezaguera argiz eta norbere guraz esaten danean izaten da pekatu astuna; norberak gura bagarik esan ezkerro, pekatu ariña izaten da (orretarako oitura txarra artuta ez ba'dago beintzat). Beste batzuen aurrean esan ezkerro, barriz, gaizpide astuna be izan daiteke, ori entzuten dabena ikasbide txarra emoten yake-ta.

Biraoa pekatu guztietarik astunetarikoa da, Jaungoikoaren aurka zuzen-zuzen egiten dalako. Deabruaren beraren pekatua da.

Guk, euskaldunok, zorionez eta Jaunari eskerrak, ez dogu biraoa esateko berba-erarik; euskalduna beti izan da ago garbia, berba garbikoa; orixe irakurten da, beintzat, liburuetan, euskaldunon goragarritzat. Biraoa esateko, euskaldunak erderazko berba batera jo bear dau, eta, zoritxarrez, entzuten dira noizean bein geure artean be erderazko berba zantar-itxusiok.

Beraz, entzuleok, kontu apur bat izan egizue zuen berbakaz, gazteok batez be; ez artu berba txarrik esateko oiturarik; gutxiago, barriz, berba zikin orrekaz Jaungoikoaren izena naasteko oiturarik, sarritan berba batek atzean bestea ekarten dau-ta.

Judar areik, jazoriko guztia ikustean, bildurtuta geratu ziran, eta Jaungoikoa goratu eben, gizonai arenbesteko eskubidea emon izan eutselako.

Zuetariko norbait biraolari ba'da, bildur izan dakiola zeru-lurren Jaun aundiari eta kontuz ibili daitela, Jainkoak biraoa ainbaten pekatu guztietarik geien zigortzen dauan pekatua da-ta.

Pentekoste-osteko 19'garren Domekea (Mt 22, 1-14)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jaungoikoaren erregetza, bere semearen ezteguak egin ebazan erregearen antzekoa dala dirausku Jesukristok. Ezteguetarako deia askok jaso eben, baita joan be asko joan ziran. Baiña, erregea bazkal-tokira etorri zanean, eztegu-jantzirik ez ekarren gizon bat ikusirik, kanpora jaurtiteko agindu eban. Eta auxe esanez amaitzen dau Jesukristok: «Deituak asko dira; aukeratuak, barriz, gutxi».

Erregea, Jaungoikoa da; bere Semea, Jesukristo; ezteguetara deituak, geu guztiok.

Guztiori egin dasku dei Jaungoikoak bere zorionera joateko, zerura joateko. Orretaraxoxe egin euskun Batea artzeko mesedea, gu bere seme-ordekotzat arturik; gero, Sendotxa artu genduan, Jaunaren gudari egiten gintzazala; geroago, leenengo Jaunartzea be egin genduan, zeru-lurren Egille ta Jauna gure barruan leenengoz artzen genduala; emen diardugu orain, Mezako opari onetan, Jainkoari egin daikeogun oparirik baliotsuena eskintzen. Elduko yaku, azkenez, mundu onetako azken-eguna be, eriotz-eguna, Jainkoari gure egiñen kontua emongo dautsagun eguna.

Ilda bat-batera epaituko gaitu Jesukristok. ¿Aukeratuen artean izango ete-gara? ¿Ondo artuak izango ete-gara, ala baztatuak, betiko galduak? Elduko da eguna, egun zoragarria edo egun negargarria izango dana, Jesukristok bere eskumakaldekoai, bere zintzoai, esango dautsen eguna: «Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok: artu egizue munduaren asieratik zeuentzat atondutako erreñua!» (Mt 25, 34). Bere ezkerraldekoai, ostera, gaiztoai, pekatu astunean il diranai: «Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta beronenak diranentzat atonduta dagoan betiko sutara!» (Mt 25, 41).

Jesukristoren berbak dira orreik, berba uts-eziñak, utsik ezin egin dauanaren berbak: betiko zorionera, edo betiko oiñazetara. Ez dago erdiko lekurik, entzuleok. Garbitokira joanda be, irabazita daukagu zerua. Baiña, ¿non egongo ete-da gure arimea eriotz-orduan? Orixe da ez dakiguna. Gutxi gora-beera bai, orraitifio, ba-dakigu: «zelako bizikera?, alako eriotza» izaten da geien-geienetan-eta («Talis vita, finis ita»). ¿Pekatuko bizikerea daroazu? Kontuz eriotz-aldian, ezkerrekaldera jausi ez zaitez. ¿Bizikera zintzoa daroazu? ¿Jaungoikoa zeugan daroazu bere grazian eta adiskidetasunean bizi izanik? Zigur egon: azken-orduan eskumakaldean egongo zara, aukeratuen artean artuko zaitu Jesukristok.

Alperrik esango dabez munduzaleak iñon diranak, eta barre be egingo dabe eriotz-ostean datorrenari buruz, ilda gero ezer ez ba'lego lez. Ori jentillak esaten eta egiten dabe, kristau ez diranak, sinismena galdu dabenak edo iñoiz be izan ez dabenak. Baiña Jesukristoren berbak ez dira alperrekoak: «Zeru-lurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko» (Mt 24, 35).

Barrero esan: «¿Zelako bizikera?, alako eriotza», geienetan beintzat.

Ba-da gure artean talde bat, oraintsu asita, elizatik urrindu diranak. Zabalkunde (edo propaganda) aundia egiten diardue, gazteen artean batez be, elizara joan ez daitez. eta onelakoak. Marxista egin dira. ¿Zer egingo dautsegu, ba, sinismena galdu ba'dabe? Eurak erantzun bear izango dabe egunen baten. Talde mota onek —talde gaztea zan— leengo egunean, Elorrio'ko jaietan, zine-tokian, kantaldi bat emon eban. Batzuk —edo guztiak— kristausinismena galdu dabenak dira. Dana euskeraz abestu eben. Orrelako taldeak euskera ta Euskalerria jarten dabez aurretik, jendea irabazteko, eta gero euren pentsakerak sartzeko. Eta abesti baten, beste mundutik iñok ez dauala idazten esan eben. Orreaz, eriotz-ostean ezer ez egoala adierazo nai eben. ¿Iñok ez dauala idatzi? Ezta idatziko be. ¿Zetan etorri zan, ba, bestela, Jesukristo bere irakatsia agertzera? ¿Zetako jarri ebazan, ba, bere Apostolu ta ikasleak, munduan zear bere Ebanjelioa zabaltzera? Argi diño Jesukristok San Mateo Ebanjelariaren bidez: «Zoaze, ba, eta ikasleak egizuez erri guztietako bizilagunen artean, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz, eta neuk agindu dautsuedana beteten irakatsiz. Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte» (Mt 28, 19-20).

Baiña, gaiñera, ¿zegaitik eta zetako idatziko daskue, ba, beste mundutik, barrero idatzita be alperrik izango litzake-ta? Begira Jesukristok dirauskuna bere Ebanjelioan, ari-arira dator-eta: «Aberatsak, lezan oiñazetan egoala, auxe esan eban: “Aita [Abraham], Lazaro ori neure aitaren etxera bialdu dagizula eskatzen dautsut, nire bost anaiai berba egin dagitsen, eurak be oiñaze-toki onetara etorri ez daitez. Ildakoren bat berba egitera joaten ba'yake, onbideratu egingo dira”. Eta Abraham'ek ari: “Moises'i ta profetai jarramonik egiten ez b-adutsee, ildakoren bat biztuarren be ez dabe sinistuko” (Lk 16, 23 eta 27-31).

Guztiok izan gara zerurako deituak; zerurako aukeratuak be guztiok izan gaitetzala.

Eskatu daiogun, ba, Jesukristori, egun aretan, une aretan, azken-epaian, bere eskumakaldean egoteko mesedea; bene-benetako eskaria izan dadilla, biotz-biotzez egiña.

Pentekoste-osteko 20'garren Domekea (Jn 4, 46-53)

Gaurko Ebanjelio-zatian entzun dozuenez, aldi aretan errege-etxeke bat bizi zan Kafarnaun'en, Galilea'n, eta bere seme bat geisorik eukan. Eta gizon arek, andik Jesus yoiala entzun ebanean, Ari bidera urtenik, bere semearen osasuna eskatu eutsan. Eta Jesusek ari: «Zoaz zure etxera; onezkero zure semea onik dago». Eta une aretantxe, semea osatuta geratu zan.

Gizona pekatutan jausi zanetik gero, beti izan dira munduan geisoak eta atsekabeak, eta aldi batzuetan itzelak eta ikaragarriak benetan. Orain bosteun-seireun urte dirala, Europa erdia baiño geiago il eban geiso batek, "kolera zuria" izeneko geisoak. Mende onetako ama-zortzigarren urtean gripeak zenbat eriotz egin ebazan be gogoan izango dozue zuetariko batzuek.

Egia esan, orain ez dago arenbesteko arriskurik, garbitasun geiago dagoalako eta osakigaietan eta geisotegietan aurrerakada aundiak egin diralako. Orain beste arrisku batzuk ugaritu dira; esate baterako, bideetan: barikuko egunkariak ekarri ebanez, Alemania'n, azkenengo zazpi illotan, amar milla il dira bideetan; Amerika'ko Estatu Batuetan, amar azken-urteotan, 561 polizia il dabez euron eginbearra beteteen. Ez daigun aitatu Vietnam'en eta Israel-ondoko lurraldeetan guduan (gerran) il diranak, eta osterantzeko zaurituak.

Munduan giro barri bat doa sortzen: atsegin-giroa, jaun eta nagusi atsegiña dala.

Begira: gizonaren griña txarrak eta zalekeriak beti eskatzen dabe geiago: zerbait daukanak beti gura dau geiago; dirua daukanak, dirua geiago gura; ondo bizi danak, obeto bizi gura. Gizonaren gurariak ez dauko amairik, galgea ipinten ez ba'dautso beintzat, griña txarrak ezi ta lotzen ez ba'dauz. Eta au, gure zalekerien aurka erabili bear dogun burruka au, nai ta nai ezkoa da lur onetan bizi garean artean: txikitan, gaztetan, andra-gizon elduak izatera eltzean eta zaartzaroan. Gure zalekerien arra ez da iñoiz be ilten, santurik aundiena izanarren be. Gorputzari berak gura dauan guztia emoten ba'dautsagu, barriz, galduta gagoz: griña txarrak geuk lotu bearrean, eurak lotuko ta ondatuko gaitue-ta. San Paulok bere idazki baten dirauskunez, «Kristo'gaz biztu ba'zaree, goiko ondasunak billatu egizuez... Geroko gauzak izan egizuez aurrean, ez lur-gaiñekoak» (Kol 3, 1-2). Eta beste ataltxo baten: «Neure gorputza astintzen eta menpera ekarten diardut..., neure burua galtzea jazo ez dakidan» (Ko 1ª, 9, 27).

Geisoak eta atsekabeak Jainkoak gizonari bialtzen dautsazan deiak eta egiten dautsazan ikutuak izaten dira, gizonak Jainkoa ta bere arimea gogora ekarri dagizan, gizonak bere eze-reza ikusi dagian eta apaltasunez Jaunaren aurrean auzpaztu daiten, eta, bere pekatuen damu izanik, Jaunari parka eskatu dagion, geisoak eta atsekabeak zigorra baiño ez dira-ta.

Mundu onetako aukerak, aberastasunak eta atsegiñak gizona geienetan Jaungoikoagandik urrindu egiten dabe; atsekabeak, zoritxarrak eta ezbearrak, ostera, Jaunagana urreratu.

¿Zelan artu bear ete-doguz geisoak eta atsekabeak? Lenen eta bein, Jainkoaren eskua ikusi bear dogu, gure lo-alditik iratzartzen eta beraganatzen. Beraz, geure eskerrona agertu bear dautsagu, San Isidorok dirauskunez: «Geisorik zagozanean, ez zaitetz itun (triste) jarri, Jainkoari eskerrak emon baiño».

Gero, eroapena izan: Garbitokian sufritzea baiño mundu onetan nekeak eroatea obe da, izan be. Osasuna, ondasunetarik aundiena ta ederrena da. Eta osasuna Jaunaren eskuan dago, entzuleok, eta ez geure eskuan. Beraz, osasunak Jaunari geure eskerrona agertzeko be izan bear dau, eta, bide batez, gure arazo neketsu, ezbear, estualdi, larrialdi, geisoaldi ta orrela-koak, beti Jaungoikoari eskintzen ikasi bear dogu, gure arimearentzat ongarri izan daitezcan. Orrela, mundu onetan aringarri izanaz gaiñera, besterako be, betiko bizitzarako be, irabazi baliotsu biurtuko yakuz.

Pentekoste-osteko 21'garren Domekea (Mt 18, 23-35)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

¿Zer irakasten dausku gaurko Ebanjelio-zati onek? Zeruko gure Aita gutzaz ona ta errukitsua dan antzera, geuk be gure artekoen iraiñiak eta txarto-egifiak parkatzen jakin bear dogula.

Gutziz bearrezkoa da besteak guri egindako iraiñiak parkatzea:

1) Jaungoikoak orrela agindu daualako. 2) Guk pekatu egiten dogun baktotxean be, Jaunak irain ori parkatu daiskun.

Begira: Jaungoikoak enparaduak egiten dauskuezan iraiñiak parkatzeko agintzen dausku. Jesukristok Apostolui "Gure Aita" irakatsi eutsenean be, an agertzen da agindu au berau: «Parkatu gure iraiñiak, geuk be iraintzen gaituenai parkatzen dautsegunez» (Mt 6 12).

Orixe irakurten dogu gaurko Ebanjelioan be: ugazaba arek ez eutsan parkatu bere morroiari; eta orregaitik, erregeak be ez ugazabari, onek be erregeari zor eutsalako. Eta zigortzailleen eskuetan itzi eban, zor guztia ordaindu egian arte. Eta olantxe amaitzen dau

Jesukristok ipuin-antzeko au: «Orixe egingo dautsue zeuei be zeruko nire Aitak, bakotxak bere anaia? Biotzez parkatzen ez ba dautso».

Baiña, ¿ze modutan parkatu bear izango dautsada nik beste batek egin daustazan iraiñak edo kalteak? Biotzez, berbaz eta egitadakaz. **Biotzez:** geure barrutik, biotzez egiten ez diran egitadak ez dabe zerurako balio-ta, egite onak izanarren be. **Berbaz:** iraindu gaituenen alde berba egiñaz, bere gauza onak zelan-alan goratuaz, Jaungoikoari aren alde otoitz egiñaz. Eta azkenez, **egitadakaz:** bere premiña ta bearrizanetan lagunduaz, ari mesederen bat egiñaz, ari zerbait egiten lagun egiñaz, ari abegi ona erakutsiaz.

Norbaitek, orraitino, auxe itandu daiket: «Niri urliak onenbeste milla peseta zor daustaz. ¿Parkatu egin bear izango ete-dautsat zor daustana?» Ez, ez dozu zetan parkatuenik zuri zor dautsun ori: berak dauko leenen zuri ordaintzeko eginbearra. Zuri egindako kalte guztiak ordaindu egin bear dautsuz, naiz bake-aldian naiz gerratean egin ba dautsuz be. Ez zagoz, ba, zuri egindako kalteok parkatzeko beartuta.

Bestetariko zorretan eta txar-egifetan be bardin jazoten da: leenen, berak eskatu bear dautsu parka, eta gero parkatu zuk. Jaungoikoari buruz be beste orrenbeste izaten da: damutasunez parka eskatzen ez ba dautsagu, ez dauz gure pekatuak parkatzen; biotzez parka eskatuta gero dator gure pekatuen parkamena.

Aztertu dagigun, entzuleok, gure barrua, Jaungoikoaz beti zorretan gagoz-ta. Eta Jaungoikoa gutzaz errukior danez, geu be gure lagun-urkoaz errukiorrak izan eta edozein irain parkatzeko beti gertu egon gaitezala.

Pentekoste-osteko 22'garren Domekea (Mt 22, 15-21)

Gauza bi irakasten dauskuz Jesukristok Ebanjelio-zati onetan: 1^a) azaluskeria edo itxurakeria gorrotogarria dala, eta 2^a) bakotxari berea emon bear yakola.

1^a) Azaluts edo itxurazale guztiak dira gorrotogari, zatorren antzera azpijaleak diralako. Azalutsakaz, agiriz gauza bat eta barruz beste bat diranakaz, ez dago ifior baketsu, ez etxean, ez kalean, ez gizartean, ez ifion be. Azalutsak bigun, gozoro, labankeriz egiten dabe berba; baiña edena (benenoa) daroe barruan, biotzean, aal dabenean besteri ezarteko. Judas saltzaillearen antzekoak dira, eta, arek lez, laztan ustelaz saltzen dabe edonor gutxien uste danean. Kontuz orrekaz zuen artu-emonetan.

2^a) Bakotxari berea emon bear yakola. Irugaz darabilguz guk gure artu-emonak: Jaungoikoagaz, geure lagun-urkoagaz, eta geure buruagaz. Iruroi emon bear dautsegu bakotxari berea.

¿Jaungoikoari zer? Iru gauza: gurtza, maitasuna eta morroitza. Jaunari bakarrik gurtza, gauza guztien egille, jabe ta jaun Bera bakarrik dalako. Eta gurtza orrek maitasunaz joan bear dau, barruko ta kanpoko maitasunaz, batez be egitadakaz agerturik. Eta gurtzak eta maitasunak morroitza, zerbitzaritza sorten dabe: Jaungoikoaren irakatsien esaneko izan gaitezala, bere aginduak beteaz.

Gero, lagun-urkoari, berari dagokiona emon bear dautsagu: maitasuna, laguntasuna eta eurakaz alkartasuna, batasuna.

Eta azkenez, geure buruari be geurea: arimeari, berari dagokiona, eta gorputzari berea, gorputza arimearen morroi ta zerbitzari baiño ez dala aaztu bagarik. ¿Zelan bete gure eginbe-arrak arimeaz? 1) Pekatutik urrinduaz: arimeak bere betiko zoriona pekatuagaitik galtzen dau-ta. 2) Egitada onak egiñaz: egite onak egin bagarik ezin lortu daike arimeak bere betiko zoriona-ta. 3) Egite on oneitan, onbidean, azkenerarte Jaungoikoaren adiskidetasunean irau-naz: il-orduan gareana, axe izango gara betiraun guztian-eta.

Ausnartu dagigun aste-barruan gaur Jesusek esan dauskuna, orretarako astia guztiok artu daikegu-ta.

(I) Pentekoste-osteko 23'garren Domekea (Mt 9, 18-26)

Jesukristok egin ebazan mirari bi azaltzen dauskuz gaurko Ebanjelio-zatiak. Ikusi dagigun bietariko bat.

Jairo izeneko gizon batek —sinagogako nagusienetarikoa bea—, amabi urteko bere alaba bakarra il egin yakola-ta, biztu egiala eskatzen dautso Jesusi. Eta Jesusek, aren etxera joanik eta neskatoari eskutik oraturik, neskatoa jagi eta biztuta geratu zan. Ori ikusirik, etxean egozan guztiak zearo arrituta geratu ziran.

Ikusi dagigun Jairo'k zelan jokatu eban eta Jesusek zelan erantzun eutsan.

Neskatoaren aita zuzen-zuzen joan zan Jesusegana, bere alabatxoa biztu egiala eskatzera. Aitak bere alaba illa baiño ez erabilen buruan, eta eskari bat egiten dautso Jesusi, eskari oso bakana benetan: il egoana barriro biztutea! ¿Ori nok egin eikean? Itxuraz, zorakeri utsa. Baiña, ezegaitik be lotsatu bagarik, orixe eskatzen dautso: eziñezko gauza bat; eziñezkoa

gizonarentzat, baiña ez Jaungoikoarentzat: Jainkoarentzat ezifiekorik ez dago-ta, Jesusek berak dirauskunez (Mk 10, 27). Gizon a sinisteduna zan, bere sinistea Kristogan eukan, Jesus Jaungoikoa zala sinistu eban, bestela ez zan Jesusegana joango. Eta orregaitik, leenen, Jesusen aurrean belaunikotu egin zan.

Geuk be beste orrenbeste egin bear dogu Jaungoikoagaz doguzan artu-emonetan. Beti gagoz bearrizanean, bai gorputzaren aldetik, bai arimearen aldetik. Leenen, Jaunagana urreratu. Jaungoikoa alde guztietan dago, eta «Beragan bizi, ibili gabiz eta gara», San Paulok dirauskunez (Ap 17, 28). Ba-daiteke, alan be, Aren inguruan eta barruan egonarren, gogapena bizitzako arazoetan jarrita eukitea, grifia txarretan lotuta egotea. Orduan, Jaungoikoaz baiño geure buruaz pentsatzen dogu, geure burua dogu maiteago. Eta, jakiña, egoera orretan Jaungoikoari zerbait eskatu ezker, bapezaren aifia da. Jesusek be ez eutsan gizon ari jaramonik egingo eskaria edozein modutan eta ardura bagarik egin ba'leutso. Eskatzen eutsana, gorputzaren aldetiko mesedea zan, eta, alan, be, Jesusegandik lortu egin eban.

Askok auxe esaten dabe: eskatu ta eskatuarren be, Jaungoikoak ez daust ori edo bestea emoten. Ez, ba: ¿zelan emongo dautsu, ba, arimarako egoki ez ba'yatzu, komeni ez ba'yatzu? Orregaitik Santiagok difioana: «Eskatu egiten dozue, eta, zuen grifia txarrai atsegifia emoteko txarto eskatzen dozuen ezker, ez dozue ezer artzen» (St 4, 3).

Irakurrita daukat gizon santu batek esaten ebana: «Jaungoikoak niri, gorputzaren aldetik be, eskatzen dautsadan guztia emoten daust». Eta Teresak Deunak Jaungoikoari esaten eutsana: «Jauna, nik asmo au dot, erabagi au artu dot, auxe egin bear dot Zuretzat; baiña ez daukat nondik egin, eta Zeuk ikusi, Zeu arduratu niri bideak zabaltzeko eta nire egiteko au burutzeko». Eta beti bete ei'eban Jaunak aren asmoa.

Ikasbidea guretzat: sinismen osoa Jaunagan, uste ona Beragan, eta, edozetarako, borondate zuzena izan eta aalegin guztiak egin gure aldetik, gaitetikoa Jaunaren eskuetan itzirik.

(II) Pentekoste-osteko 23'garren Domekea (Mt 9, 18-26)

Jesukristok egin ebazan mirari bi azaltzen dauskuz gaurko Ebanjelio-zatiak. Ikusi dagi-gun bietariko bat.

Jairo izeneko gizon batek —sinagogako nagusienetarikoa bera—, amabi urteko bere alaba bakarra il egin yakola-ta, biztu egiala eskatzen dautso Jesusi. Eta Jesusek, aren etxera joanik eta neskatoari eskutik oraturik, neskatoa jagi eta biztuta geratu zan. Ori ikusirik, etxean egozan guztiak zearo arrituta geratu ziran.

Ildako neskato a, pekatuaz ilda dagoan arimearen irudi da. Arimearen bizitza, grazi santutzaillean egotea da. Arimeak gorputzetik iges egiten dauanean eriotza datorrenez (arimea da gorputzari bizia emoten dautsana-ta), pekatu astunak be bizitza bagarik izten dau arimea, Jainkoagandik urrindu egiten dau-ta. Gorpuak, barriz —gorputz illak—, ezin ezer egin daike, ilda dago-ta; eta bardin, pekatu astunaz ilda dagoan arimeak be ezin egin daike zerurako baliotsu izan daiteken egite onik.

¿Zelan artuko dau barriro bizia, pekatuaz ilda dagoan arimeak? Barriro graziatzko bizia artuaz. Orretarako, Jesukristok neskato ari egin eutsan antzekoa egiten dautso Jainkoak arimeari: 1) argitasunak bialtzen dautsaz, barriro Jainkoagana biurtu daiten. 2) Grazi orreïn bidez, arima ori ikutu ta bizkortu egiten dau, pekatuaren damua izan dagian. 3) Grazi orreïn bidez, Jainkoaren bultzakada orreïn bidez, arimeak, bere erruaz damuturik, parka eskatzen dautso Jaungoikoari, eta barriro graziaren bizia lortzen dau, arimea barriro Jainkoaren adiskide egiten da eta zeruaren duin. Jakiña, arimeak berak gura ba'dau, berak nai ba'dau, Jainkoak ez dau iñor bide onera nai ta nai ez ekarten-eta; arimearen naia edo borondatea be bear-bearrezkoa-da.

Jaungoikoak guztioi emoten dauskuz indarrak, graziak, era egokiak, bultzakadak, Beragana biurtzeko, gure pekatuetaz damutzeko ta Berari parka eskatzeko. Baiña ori, gura dauanak bakarrik egiten dau, gura dauanak, gogorrean ez, norberaren gurariz baiño.

Eta arimako bizitza barriro bizi izaten asi daitenak —edo bardin dana, pekatutik urten eta Jainkoaren graziaren eta adiskidetasunean jarri daitenak— aalegin guztiak egin bear dauz barriro pekatutan ez jausteko. ¿Zelan? Pekatuko arriskuetatik iges egitiñik, norberaren zalekeria okerrak loturik, egunoroko neke-samiñak gogo onez Jainkoari eskiñirik, Jainkoari otoitz egitiñik, munduaren, deabruaren eta norbere aragiaren aurka egiteko Jainkoari graziaren ta

laguntza eskaturik; berba batez, beti norbere buruaren zain eta arduratan egonik.

Norberak gura izan ezker, erraza da Jainkoaren grazian bizi izatea, entzuleok, Jainkoaren laguntzak ez dauku utsik egingo-ta. San Paulok dirauskuna: «Aaltsua da Jaungoikoa, zuekan edozetariko graziak ugaritzeko» (Ko 2^a, 9, 8). Eta beste ataltxo baten: «Guztia aal daiket bizkortzen nauan Aren indarrez (Flp 4, 13).

Jarri dagigun gure uste ona Jaunagan, eta Berak bialduko dauku bear dogun laguntza.

Pentekoste-osteko 24'garren Domekea (Mt 24, 15-35)

Gaurko Ebanjelio-zatian, nire entzule onok, mundu onetako azkenengo egunak eta guzti-guztien azken-auzia azaltzen daukuz Jesukristok. Gizasemearen ezaugarria, edo bardin dana, Jesukristo bera, agertuko da zeruan, odeietan zear etorten, indartsu eta ospe aundiz, eta guzti-guztien aurrean bakotxaren azken-auzia egingo dau.

Izan be, guztiz bearrezkoa da azken-auzi au. ¿Zegaitik? On egiñak, egintza onak, sari-zeko eta gaiztakeriak zigortzeko. Onela izan ezik, Jaungoikoaren zuzentasuna ez litzake zuzena izango. Gaiñera, munduko izaki guztiak sortzeko legeari, jatorrizko legeari, berez jarraitzen dautsoe; gizonak bakarrik austen dauz Jainkoak gizonaren biotzean ezarritako legeak, pekatu egiten dauan bakotxean Jainkoaren aurka jagirik. Eta ori Jaungoikoak ezin itzi daike zigortu bagarik, eta erabagi ori guztien aurrean emongo dala dirausku Jesukristok. Eta era berean, egintza onak be euren saria eroan bear dabe nai ta nai ez, Jaungoikoaren zuzentasuna agertzeko.

¿Eta nor da auzi orretan auzi-epaille, ebazle? Jesukristo bera, Aitagaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko dana. Lur onetako auzietan, gizonak izaten dira epaille, eta sarritan —guztiok dakigunez— okerretara ebazten dabe, gaiak ez dabez ondo edo argi ikusten-eta. Baiña an ez da orrelakorik jazoko: Jaungoikoak ezin utsik egin daike, jakituri bete-betea da-ta. Dan-dana dauko bere aurrean, orain milla urteko egitadak naiz gaurkoak, agirizko egitadak izan naiz bururakizun edo asmorik ezkutuenak izan. Jaunak dan-dana ikusten dau agiri-agirian.

¿Noiz izango da auzi aundi ori? Munduaren azkenean, mundu au ezereztu daitenean, edo-ta bertoko bizidun guztiak il daitenezanean. Eta ori, ¿noiz jazoko da? Iñok be ez daki. Jaungoikoak izan ezik, Jesukristok ez euskun ori agertu-ta.

Leen ez gekiana, ba-dakigu orain: lurreko bizidunak erail (il) aal-izatea, leen ezifnezkoa

zan; orain, barriz, gaurregunean, naikoa dira idrojenezko amar lerkai edo bonba, aizeak katez-kate sua artzeko eta lurreko bizidun guztiak kiskaltzeko. Orixe diñoe orretan jakintsu diranak, eta orrexen bildur dira, izan be, egunen baten orixe jazoko ete-dan.

Beraz, ori gizonak egin aal ba'dau, ¿ezin egin aal izango ete-dau, ba, Jaungoikoak? Bai, orixe: munduak eta izarrak egin dauzan Jaunak, guztiok ezereztuteko aal-izatea be ba-dauko. Eta olantxe jazoko da nai ta nai ez, Jesukristok dirauskunez: «Zeru-lurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko» (Mt 24, 35).

Ea, ba, entzuleok, kontuz ibili gaitezaz guztiok, egiten doguzan egitada ezkutuenak be, egunen baten, azken-auzian, guztien agirian agertuko dira-ta.

Urrillaren azken-Domekea:

Kristo Errege (Jn 18, 33-37)

(OARRA: gaurregunean jai au zemendiaren azken-domekan ospatzen da.)

* * *

Gaur, Kristo Erregearen eguna ospatzen dau gure Eliza Deunak.

Jesukristoren Erregetza ez zan izan eta ez da mundu onetako erregetza lakoa, erri bateko edo besteko erregetza lakoa, munduko arima guztien Erregetza baiña. Ainbat bidar esan eutsen Jesukristok judarrai bera errege zetako zan, eta mundu onetara zetan etorri zan: Jainkoaren Legea iragartera, zeru-erreñuko ateak zabaltzera (Adan'ek pekatu egin ebanetik ateok itxita egozan-eta); berba batez, arimak zeruratzera. Baiña judarrak ez eben ori ulertzen, ezta Jesusen ikasleak be; orregaitik, Jesus biztuta gero Emaus'en bere ikasle biri agertu yakenean, oneik auxe esan eutsoen: «Israel'en askatzaillea Bera zala uste genduan guk» (Lk 24, 21). Eta beste bein, Jesus zerura igo-aurretxoan: «Batuta egozanak [Apostoluak] itaun au egin eutsoen: "Jauna, aldi onetan barriztuko al-do zu Israel'go erreñua?"» (Ap 1, 6). Edo bardin dana: ¿Noiz lortuko do zu Israel erriari dagokion askatasuna?

Alde batetik begiratuta, ondo aditzekoa da arein gurari ori: Israel erria Erroma'ko agintarien menpean egoan, israeldarrak galdu egin eben euren askatasuna, Erromatarren jopu ta azpiko ziran. Egia esan, ba-eben euren erregetxo bat, Erodes izenekoa; baiña, benetako agintari, Pontzio Pilato zan, Erroma'ko agintari nagusiaren ordezkaria. Ba-ekien guzti au judar areik, eta aregaitik euren gurari ta gertakizunak, Mesias'en bitartez, barrero euren askatasuna lortzeko.

Jesusek bera zala Mesias esan eutsen bein baiño geiagotan; baiña ez eurak uste eben Mesias, ez aberri-askatzaillea, arima-salbatzaillea baiño. Argi ta garbi dirautso Jesusek Pilato´ri onek itauntzen dautsanean: «¿Judarren errege zara zu?»... Eta Jesusek Pilato´ri: «Nire erregetza ez da mundu onetakoa» (Jn 18, 33 eta 36). Beste bein be, Santiago ta Joan´en amak auxe dirautso: «Nire semeak, zu errege izan zaitezanean, zeure ondoan jesarri daitezala agindu egizu: bata zeure eskumakaldean, eta bestea zeure ezkerrekaldean» (Mt, 20, 21).

Entzuleok: guztiok dakigu lur onetako bizitza au benetako bizitza ez dana, bidean goazana il-osteko bizitzarako, ibaietako (erreketako) urak itsasorantz doazan antzera, euren amaia itsasoa dalako. Eta betiko bizitza a irabazteko, bear danez jokatu bear dogula, gure gorputzaren gurari okerrak zuzendu egin bear doguzala, gure griñak lotu egin bear doguzala, neke-samin asko eroan bear doguzala, gure naimena edo borondatea sendotu egin bear dogula, mundu onetako ta gure aragiaren atsegiñen aurka egiteko, gure gorputz au arimearen arerio osoa da-ta. Eta gero etorriko dira gure gorapena ta aintza, baiña ez mundu onetan, saritzat zeruko erreñua jadetsi dagigunean baiño.

Kristo Erregeak emon daiskula guztioi bere ondoan errege izateko mesede ori.

Zemendiaren 1^a:

Domu Santu (Mt 5, 1-12) (1968)

(OARRA: gaurko egunez, auzunetako geienak Elorrio´ko eliza nagusira joaten dira. Beraz, lagun gutxi gaur Gazeta´ko baselizan.)

* * *

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesusen irakatsi oni "Mendiko berbaldia" esaten yako. Ementxe irakasten dausku Jesukristok benetako zorionekoak zeintzuk diran, bertan diñoana ondo eroaten jakin ezkerro beintzat.

Indar eta garrantzi aundikoa, benetan, Jesusen berbaldi au. Munduaren eta Jesukristoren bururapenak bata bestearen aurka dabiz geien-geienetan, Jesukristo ta mundua alkarren arerio diralako eta izango diralako beti ta beti.

Jesukristok argi ta garbi irakasten dausku berbaldi onetan / ez dirala benetako zorionekoak munduak zorionekotzat daukazanak; ez dirala zorionekoak, esate baterako, aberatsak, txiroak eta beartsuak baiño. ¿Zegaitik? Zeruetao erreñua beartsuena dalako.

Munduarentzat, beti atsegiñetan, jan-edanetan eta jaietan diarduenak dira zorionekoak; Jesukristorentzat, barriz, negarrez eta neke-samiñez bizi diranak.

Munduarentzat, bai leen Jesusen aldian eta baita orain eta beti be, apaltasuna, gorputz-nekea, zuzentasunaren alde ekitea, garbitasuna, otoitza, alkar-maitasuna eta onelakoak, gauza ezerezak dira; munduak ez dau nai beragaz onelako gauzarik, gorputzaren aurka doazalako, eta gorputzeko nekerik ez dau nai ezelan be munduak, arimearen onerako izaten ba´dira be.

¿Zegaitik esaten yake, ba, zoriontasunak? Ba-dakigu, bai, Jesusek izentatzen dauskuzan zoriontasun oneik bizitza onetan zorioneko egiteko balio ez dabena, bizitza onetan benetako zorionik ez dago-ta. Alan be, zoriontasunak esaten yake, Jaungoikoa betiko jaristeko ta betiko bizitza irabazteko biderik zuzenenak diralako. Zortzi zoriontasun agertzen dauskuz Jesusek. Entzun dozuez, gaurko Ebanjelio-zatian, zeintzuk diran. Gogora ekarri dagiguzan noizean bein.

Gabonillaren 8^a:

Andra Mari Sortzez Garbia (Lk 1, 26-28) (1968)

Emen gagoz guztiok batuta eta alkartuta Andra Mariaren egun aundi onetan.

Gaur, guztiok dakizuenez, Andra Mari Sortzez garbia ospatzen dogu. Zuek, egia esan, zerura jasoa izan zaneke Andra Mariaren eguna ospatzen dozue batez be; baiña, beti be, Jesukristo Jainkoaren Ama ospatzen dogu, urteko egun apartekoetan Aren ezaugarri ospatsuak gogora dakarguzala.

Begira: Adan gure leenengo aitak, Jaunak emoniko agindua ausirik, pekatu egin ebantetik, aren ondorengo guztiok be, sortze-unean bertan, "jatorrizko" deritxon pekatuaz loitzen gara, eta era orretan gatoz mundura.

Kristo Jaungoiko gizon egiñak jarri eban gizadi jausi au leengo maillan: Jaungoikoa danez, Aita betikoaren sabel garbian dau sorleku; gizon danez, Ama garbi baten sabelean sortu zan. Ama au Andra Mari da, jatorrizko pekatu bagarik sortua. Aita betikoak ez eban nai izan bere Semearen Ama iñoiz pekatupean ikusterik. Orretarako, sortzetik garbia egiñaz, guztion loi-bidetik urrindu egin eban.

Aita Santu Pio 10'garrenak sinis-bearreko egiazat auxe autortu ta irakatsi eban: Ama Birjiña, Ana doatsuaren sabelean sortu zan unetik bertatik, graziak aurea artu eutsalako, pekatuzko loi bagarik sortu zala, eta jatorrizko pekatuak be ez ebala egin: sortzetik guttiz garbi ta eder izan zala. Ona emen gaur ospatzen dogun jaia.

Gero, gaur, Seminario-eguna be ospatzen dogu, Jaungoikoari abadegaien alde otoiitz egitekote ta arei laguntza emoteko eguna.

Ba-dakizue Seminarioa zer dan: Abadetzarako gertatzen diarduenen ikastokia.

Seminarioa, elizbarruti guztiko biotza lez da; eta biotzetik gorputz guztira odola joaten danez, olantxe urtetan dira urteoro Seminariotik abade barriak, gure errietara kristau-bizitza eroaten daben abadeak.

Abadegaiak ondo aztea ta gertatzea guztion ardura bizia izan bear da: onak izatez eta onak jakitez izan daitezcan, geroago arazo guztietan abade onak eta zintzoak izan daitezcan, bai euren kristau-bizikeran, baita eliztarrakanako eginbearretan be, beti Jesukristoren irakatsia aurrean dabela.

Izan dagigun, ba, gogoan sarritan gure abadegaiak, Jaungoikoari euron alde eskatzeko.

Eta azkenez, gaurko egun aundirako itzi dogu "Lagunarte" gure tokia bedeinkatzea be.

Zeuen izerdiaz egin dozue toki ori, zeuen egonleku ta batzartoki izan daiten. Toki ori —barriro be ba-dirautsuet—. Andra Mariaren Kopradiaren ondasun bat da, Kopradiaren alde barri bat, Kopradiari arnasa ta indar barria emoteko. Zuen Kopradia antxiñakoa da. Kopradiako leenengo kontu-liburua 1615'garren urtekoa da. Baiña, noizean bein, olako Kopradiak ta antzerako Anaidiak indar barria emon bear yake, bizitu daitezcan; bestela, astiro-astiro il egiten dira. Eta orixe egin dogu zuen Kopradiak be: "Lagunarte" toki ori egiñaz, Kopradiari indar barria ezarri, gaurko erara biztu.

Orretarako, "Lagunarte" toki ori ondo eroateko, arau barriak egin doguz, arau orreinan azpian artez eta egoki egon daiten. Eta ez aaztu: toki ori, Kopradiarena da, eta Kopradia Gazeta'ko Andra Mariarena. Beraz, ez da osterantzeko taberna edo bar bat, Gazeta'ko Kopradiakoen egonleku bat baiño.

Andra Mari Sortzez Garbiak zaindu ta gorde dagizala Bizkai'ko abadegaiak, baita "Lagunarte" eta Gazeta'ko guztiok be.

BESTE BERBALDI BATZUK

(OARRA.— Orain datozen berbaldiak geroagokoak dira. 7'garren orrialdean diñodanez, askoz geiago be idatzi nebazan, baiña ez dodaz aurkitzen. 1975'garren urtean etxe batetik bestera aldatu nintzan, etxeokaz batera. Orduantxe galdu ziran, urrean.

Dana dala, emen doaz aurkitu dodazanak.)

Urteko 11'garren Domekea (B) (Mk 4, 26-34)

1) Erregetza zabaltzea.

Jaungoikoaren erregetza, moztaza-aziaren aldean jarten da, aren antzekoa da; azi txiki batetik landara aundia egiten da (3 edo 4 metrotakoa). Txoriak be aren adarretan jarten dira, Ebanjelioak dirauskunez.

Orrelaxe asi da Elizea. Txiki jaio zan, kazkar: gurutzean jositako Gizon bat, amabi gizon lau eta ezjakiñak, eta persona batzuk geiago. Leenengotan, Apostoluak bildurrez betarik. Gero, Espiritu Santua artuta, alde guztietara zabaltzea; egunoro batzen yakozan Elizeari lagun barriak (Ap 2, 47; 6, 7; 12, 24), eta gaur ondo esan daikegu «iñok zenbatu ezinalako» laguntalde aundia gareala (Ag 7, 9).

Elizea osotzen dogun andra-gizonen utsak, obenak eta errakuntzakarren, Elizeak, bi milla urtetan, santutasun eta ondasun-frutu ugari emon dau munduarentzat. Jaunari geure eskerrona agertzeko be ba-gagoz, Kristoren artaldean gagozalako.

2) Erregetza geure barruan.

Jaungoikoaren erregetza, lurrean azia bota eban gizonaren antzeko be ba-da; azia erne eta azi egiten da, gizonak zelan ez dakiala. Nekazariak lurra gartatzeko aalegiñak egin dauz; baiña, azia ereinda gero, itxaron baiño ez dau egin bear.

Olantxe grazi santutzailleak be gugan. Bateoan azi txiki bat artu genduan —leenengo grazi santutzaillea—, eta gero Jaungoikoak ixillean ekiten dautso gugan, lo gagozala eta iratzarrik gagozala, Berari bakarrik zor yakon aztea geuri emonik, geuk be geure aldetik orretan lagundu daikegunarren eta lagundu bear dogunarren. Grazia Jaungoikozko doaia da, eta ez geure indarren frutua, arri batek berari bizia ezin emon daikeonez; «nigandik banan-

duta, ezin ezer egin daikezue», dirausku Jesukristok (Jo 15, 5). Jaunak arimearen barruan zintzotasun-gurariak ernerazoten dauz, eskintza-gurariak, artu-emon-gurariak, gu «Kristoren adin beteko biurtu gaitez arte» (Ef 4, 13). Orixe da Kristogaz bat egitea, santutasuna.

3) *Auzi-eguna.*

Gaurregunean sarritan entzuten dogu esaten guk doguzan erantzupideak. Galebatea dago —auzia— Jaungoikoak munduan erein dauanerako. Kristoren auzitegian aurkeztuko gara, «bizitza onetan egin izan dogunaren saria edo zigorra artzeko» (2'garren Irakurgaietan entzun dogunez). Emen Batikano'ko Bigarren Batzar Nagusiak diñoana: «Norberak aal dauanez, gorputza azteko laguntzen ez dauan gorputz-atala, Elizarentzat eta norbere buruarentzat gauza alperreko lez artu bear da» (Ap. Act. 2).

Azte orrezaz batera, eta aren oiñarri lez, gure ariman Jaungoikoaren erregetza azteaz erantzun bear izango dogu. Bizitza onetan lortu dogun santutasunaren kontua eskatuko yaku, egunean-egunean artu dogun graziari zelan erantzun dautsagun. Orregaitik, San Joanek auxe dirausku: «Santua santuago izateko arduratu daitela» (Ag 22, 11).

¿Egunean-egunean obeagoak, zuzenagoak, biotz-onekoagoak, santuagoak izateko aalegiñik egiten al-dogu? Gaiñera, San Bernardok diñoanez, arlo onetan aurrera egiten ez dauanak, atzeruntz egiten dau: «Bizitzako bidean aurrera ez egitea / atzeruntz egitea da» (2'garren Berbaldia, "De Purif. B. V.").

Aztertu begi, ba, bakotxak bere barrua.

Urteko 12'garren Domekea (B) (Mk 4, 35-40)

1) Adoretsuak izan.

"Ez" bildurrari.— Deadar oneaz asi eban Joan Paulo 2'garrenak bere Aita Santutza: «Ez izan bildurrik!»

Batzuetan kristauak bildurretan jarri daitekez munduan dagoan gaiztakeria ikustean —galbedarra gari-artean lez—, eragozpenen aurrean, Elizeak eroaten dauzan erasoan aurrean, edo aren barruan sortu daitekezan irakaspen okerrakaitik.

«Ez izan bildurrik» orrek, gaurko Ebanjelio-zatira garoaz, Kristok esan ebazan berbetara batez be: «¿Zegaitik bildurru zaree? ¿Non dago zuen sinismena?» (Mk 4, 40).

Fedea ta adorea. Kristok ez dau nai ikasle geldorik, lotsatirik, epelik, bildurtirik, joan diran egun onai buruz negarrez dagoanik, beti kexaz beterik. Kristok gizonezko ta andrazko

alaiak bear dauz, adoretsuak, kementsuak, geure inguruko dan guztia obeago biurtzeko lan egiteko gertu dagozanak.

2) Adore-ikasbideak.

Auxe esan eban Aita Santu Joan Paulo 2'garrenak bere berbaldi baten: «Arako andrea dot gogoan, seme-alaba askoren ama, bere barruan daroan bizi barria ondatzeko esaten dautsoenean. Andra onek "ez" esaten dau, seme-alaba barria beretzat, senarrarentzat, etxeko guztientzat sorta barri bat izango dala ondo dakianarren be. Bere sabelean daroan bizi barriak baliorik lar dauko / kanpoko esanai jaramon egiteko».

Norbere bizia agurgarria da, itzalgarria, baita enparaduena be, geiago oraindiño ezer ezin egin daiken umetxo errubagearena. «Ez egin jaramonik —dirausku Aita Santuak—, ez jarraitu ezkontza urratu nai dabenai, sein-galtzailleai».

Ez zaiteze kikildu eragozpenen aurrean, ezta kristau-mandatuaren aurkako diran pentsakeren aurrean be. Auxe da mundua azpiratu dauan garaipena: geure sinismena, San Joan Apostoluak dirauskunez (Jn 1^a, 5, 4). Sinismena ta sendotasuna, eskoletan eta ikastoletan seme-alaben kristau-aziera ta eziketaren alde egiteko. Sinismena ta sendotasuna, aldizkari ta egunkarietan, zine ta telebiziñoan zabaltzen diran kristau-oitura ta ekanduen aurka dagozan jokabideak iguintzeko ta baztartzeko. Sinismena ta sendotasuna, ezetako balio ez daben negarretan ez geratzeko.

3) Sendotasunaren oiñarria.

Gure sendotasuna Jesukristogan oiñarritzen da, gizon eta Jaungoiko batera dan Aregan; Berak daroa itsasontzia eta ez dau itziko ezetariko ekatxek ondatzen (Mt 28, 20). Kristo geugaz ba'dago, geu be Beragaz egon bear dogu. Bere Itzaren indarra eta Sakramentuen indarra daukaguz. Otoitzaren indarra daukagu, Andra Mariaren laguntza, zeruko Santu ta Aingeru guztien laguntza.

Elizea, aldi oso nekezetan aurrera egin dauan ezkeru —garbituta eta indartuta urtenik—, oraingo eragozpenetatik be garaille urtengo da.

Izan gaitez an fedean indartsuak (Pe 1^a, 5, 9), adoretsuak, kementsuak, azartiak, baikorak: Kristo dago gugaz!

Urteko 13'garren Domekea (B) (Mk 5, 21-43)

1.— On egiñez igaro zan. — Jesus ur dago.

Emakumeak Jesusen soingaiñekoa ikutu baiño ez eban egin, eta ikutze ori naikoa da osasuna jaristeko. Zorionsua da une egoki ori izan daualako.

Eta, ¿ez ete-yaku emon guri ori baiño zerbait geiago? Jaunaren soingaiñekoa ikutu bakarrik ez, eta bein bakarrik ez; izan be, Kristo egunoro emoten yaku Eukaristian. Kristo bera artzen dogu: Andra Mariaren sabelean sortu zana, Belen'en jaio zana, Nazaret'en bizi izan zana eta Gurutzean il zana.

Noizbait ikusi-ezintxoia izan dautsegu, bearbada, Kristo ezagutu ta Aregaz berba egin aal izan ebenai, euren etxean artu ebenai edo txalupea itzi outsoenai, eta, berba batez, Aren adis-kidetasuna izan ebenai.

Eta guk, egunoro Jauna artu daikegunok, ¿ez ete-daukagu Kristogaz areik baiño artu-emon aundiagorik eta bikaiñagorik?

2) Kristok janaritu egiten gaitu.

Jauna bai beeratzen dala gugaitik! Mundu osoak ezin artu aal dauana —danetan negurri-bagea da-ta—, ezkutatu egiten da, ogi ta ardao-itxurapean, gai txiki baten. Ondo diño, bai, San Paulok: «[Jesukristo], aberats izanik, zuekanako maitasunagaitik beartsu egin zan, bere txirotasunez zuek aberats izan zaitez» (Ko 2^a, 8, 9). Gu aberastera dator. Eukaristia, Sakramentuetan nagusia da: izan be, Sakramentu bakotxak grazi berezia emoten ba'dausku, emen, Eukaristian, grazi guztien Egillea bera artzen dogu. Kristogaz bat egitera eroaten gaituan Sakramentua: «Ez nozu Zuk Zeu biurtuko, janaria zeure aragian lez, baiña Zu neugan aldatuko zara», diño San Agustin'ek. «Janaritu, konpondu, aunditu, poztu ta atsegindu egiten dauan janaria», Akino'ko Tomas santuak diñoanez. Sendotu egiten gaitu lur onetako gure ibiltan. «Nire buztarria, eroateko erraza da, eta nire sorta, ariña», dirausku Jesukristok (Mt 11, 30). Zaindu egiten gaitu bidetik atarateko arerioak jarten dauskuezan sare, arrisku ta tentaldietatik. Poza emoten dau. Indartu egiten dau bere Gorputz Mistikoan parte artzen dogunon batasuna.

3) Kristok bizira garoaz.

Ebanjelioak beste mirari bat aitatzen dauku. Jaunak isilka lez egiten dau, baiña aurreko miraria baiño ikusgarriagoa da: biztuera bat. Kristok bidez doala, ona egiten dau. Naikoa dau

bizitzaren eta eriotzaren Jabeak agindu bat emotea / Jairo'ren alabearen arimea barriro beronen gorputzera biurtzeko.

Orixe egiten dau abadeak, Jesukristoren izenean, arima askotan: Grazi-bizitzarako ilda dagozan personak, biztu egiten dira Kristoren parkamen-berben indarrak: «Zure pekatuak parkatuta geratzen dira... Jagi zaitez —esan eutsan elbarriari—, artu zure ogetxoa ta zoaz etxera». Kristo itxaroten daukagu Sakramentu onetan.

Etixerantz yoiala, auxe dirautsoe Jairo'ri, neskatoaren aitari: «Zure alabea il egin da. Ez egiozu gogaitik eragin geiago Irakasleari.» (Mk 5, 35). Baiña Jaungoikoarentzat ez dago ezifnezkorik. Etxera eltzean, Jesusek «Neskatoari eskutik oratu eta auxe esan eutsan: “Neskato, zeuri dirautsut: jagi zaitez”. Neskatoa —amabi urtekoa bera— jagi eta ibiltan asi zan».

Beti da egoki Jaunagana jotea. Pekatutan guztiz amilduta dagoan ildakoa be biurtu daiteke Jaungoikozko bizitzara pekatuen damuaren eta Penitentziako Sakramentuaren bidez.

Eukaristia ta Autortzako Sakramentuak: Kristo, oraintxe be, ona egiten igaroten da. ¿Zer egiten dogu guk?

Urteko 14'garren Domekea (B) (Mk 6, 1-6)

Jesus eta sinisbageak. — Erabide txarrak.

Kristo Nazaret'era eltzen da. Beste toki batzuetan egin ebazan mirariakaz on egingo eutsen Jesusek bere erritarrai; baiña, gizon arein sinisgogorkeriagaitk, an ez eban ia mirari bat be egin. Areik susmo txarrak daukez, kezkatu dagoz, ez dabe uste onik. Ez dauke gertu euren barrua, Jesusi abegi ona egiteko.

Leenen, gertu egon bear izaten da Jaungoikoak ukatzen ez dauan doai ori lortzeko: fedea euki bear da, sinismena. Gizon areik, mirariak ikusiarren be, ez eben sinistu nai zain, Korozain'en, Betsaida'n eta Kafarnaun'en lez.

Bitariko personak dagozala esan dau norbaitek: Jaungoikoa galtzeko bildur diranak eta Jaungoikoa aurkitzeko bildur diranak. Ez da ori egia biribil-biribilla be; ba-daiteke egia ori estutxoegia izatea. Izan be, batzuk bildur izaten dira Jaungoikoa aurkitzeko. ¿Zegaitik? Euren bizikerea aldatu egin bear leukeelako, eta euren burua eziteko eginbearra artu bear izango leukeelako. Euren burua Jaungoikoaren amar aginduai menperatzeko bildur dira.

Jaungoikoa aurkitzean, txiki ta beeratu egingo dirala uste dabe, okerretara izanarren be: Jaungoikoak aundi egiten gaitu, itxaropen guztiaren gaitetik jasoten gaitu.

2) ¿Galtzen ete-da sinismena?

Bai, urrean. Ba-dagoz sinismena euki ta galdu dabenak. ¿Galdu?, ala norbere erruz alpe- rrik galdu? Landareak, bizi izateko ta azteko dan lur egokia bear dau nai ta nai ez. Landarea ezin bizi daiteke urik ez daukan lurrean, edo ongarririk ez daukan lurrean, edo kaltegarri yakozan galbedar askoren artean: ito, zimeldu, igartu egingo litzake. Kristok berak esan euskun bere Barri Ona lur onean eta lur txarrean jausten zala (Mt 13, 1-23).

Kristau-fedearantzat, lur txarra otoitz bagariko bizikerea, sakramentuetatik urrin bizi izanda eroaten dan bizikerea izaten da. Eta ona emen sinismena galtzeko lur egokiak: lagun ustelak, giro munduzaleak, zine ta telebiziño lizunak, aldizkari ta egunkari zantarrak; zer esanik ez gaurregunean gazteen artean "drogak" egiten dabezan kalteak, gorputz-arimarako kalte ikaragarriak. Jakiña: edozein modutako bizikerea eroan ezkerro, edozein arriskutan sartu ezkerro, ¿ez dau, ba, orrelakoak sinismena galduko? «Orrek fedea galdu dau», diño urliari buruz. Eta auxe erantzun bear litzake: «Bai, ba: orrela bizi izanik, arrigarria izango litzake fedeari eustea».

Eta amaitzeko. Batzuek, eragozpenen artean, euren fedean kikilduta geratzen dira, lur-jota lez. Izan dagigun aurrean Jaunak San Pauloren bitartez dirauskuna: «Naikoa dozu nire grazia, nire indarra makaltasunean agertzen da bete-betean-eta» (Ko 2ª, 12, 9).

Baiña, orretarako, Jaunagana jo bear otoitzaren bidez, Autortzako Sakramentuaren bidez, Eukaristiaren bidez. Ezagutu ta sakondu geiago gure fedea Jesukristoren Ebanjelioa irakurriz, Apostoluen Idazkiak irakurriz, Biblia geiago erabiliz. Gaurregunean asko ta asko irratia eta telebiziñoaren morroi egin dirala esan daiteke, guztiz zorabiatuta eta naastuta dagozala. Gauza guztiak erabili bear dira negurriz, negurriz.

Urteko 15'garren Domekea (B) (Mk 6, 7-13)

1) Garrantzirik aundiena daukana.

Ikusi dagigun Kristok Apostolui emoten dautsezan burubideak: ez egiela ogirik eroan, ez zorririk, ez dirurik.

Lenengo ondorena: ez izan uste aundirik galtzen diran gaietan, oiñarrizkoak ez dira-ta. Auxe dirautse berrero: «Ez arduraz ibili bizi izateko zer jan edo zer edango dozuen, edo gorputza zein jantziz estalduko dozuen» (Mt 6, 25). Bear-bearrezkoaren ardurea izan bear dogu, bai, bizi izateko, giza-bizitza egokia eroateko eta Jaungoikoa otseindu aal izateko. Baiña ez dogu ibili bear guzti orren kezkatu, artegatsu, urduritsu, bururapen guztiak materi-gaietan jarten doguzala. Arduratsu billatu bear doguna / Jaungoikoaren Erregetza da, eta beste guzti ori gero etorriko da (Mt 6, 33). Elizan, gauza guztien gaitetik, Jaungoikoa otseintzen aale- gindu diran erakunde ta personakan ikusi danez, gizabideak beti aurrera egiten dabe; Jaunaren arduratasunak ez dau bertan-beera izten Ebanjelioaren alde lan egiten dauana.

2) Langillearen lan-saria.

Irakaspen onen beste alde bat. «Etxe baten sartu zaitezenean, geratu bertan toki aretatik urten arte». Apostoluek Elizaren leenengo abadeak izan ziran. Mundu guztiak onartzen dau enparaduai egiten yaken zerbitzuak lan-sari egokia merezi izatea. Eta ori gai guztietan eta lan-era guztietan: lantegietan naiz lantegietatik kanpo, edozein arazotan, arazo guztiak lan dira-ta. ¿Nor da gaurregunean langille ez dana? ¿Nor bizi daiteke lan egin bagarik?

¿Eta, zoritxarrez, lan bagarik geratu diranak? Ez dago lantegietan langille guztiai emote- teko lanik. Gutxiago oraindiño produziñoa baiño gastuak aundiagoak diran lantegietan. Irabazirik ez daukan lantegiak porrot egin bear, edo ozta-ozta iraungo dau. Lana eukitea gura ba´dogu, atara egin bear yako gauzeari, geiago produzidu bear da. Orretan bat datoz ekonomilariak. Euzkadi´ko lantegietako lan-saririk geienak —batz-beste— Europa´koen parean ei´dagoz: baiña, produziñoan, azken-aurreko tokian. Orrela nekez be nekez egin daiteke aurrera. Idazlan interesgarri bat irakurri neban orrilleko (maiatzeko) aldizkari baten (eta ez da bakarra); auxe zan bere idazpuru nagusia: «Si queremos remontar la actual crisis económica y combatir el desempleo, tenemos que producir más, gastar menos, y ahorrar más». ¿Ez al-da lotsagarria, Prantzia´n euneko eun egiten ba´dabe, emen euneko berrogeta amasei egitea? ¿Edo alemanen ondoan emen euneko berrogeta amairu egitea? ¿Edo

Beljika´ren ondoan emen euneko berrogeta amabost eta erdi egitea? ¿Nora joan gaitkez, ba, orrein ondoan onen gutxi atarazo ezker? Ez da ori lantegi guztietan jazoten, batz-beste artuta baiño, lantegi guztietako batzbestekoa atarata baiño. Eta ondotoxio dakigu: irabazirik ez dagoan tokian ez dau ifiook dirurik jarten, gutxiago galtzeko bidea ikusi ezker. Eta orren ondorenak guztiak eroan bear, guztiak jasan bear: ugazabak eta langilleak.

Dirua gutxiago eralgi eta geiago aurreratu. Orain illabeteko jardunaldi baten agertu zanez, euskaldunok eralgi bear geukean baiño askozaz geiago eralgiten ei´dogu, eta bear baiño askozaz gutxiago aurreraten. Ori argi dago. Besterik esatea edo pentsatzea geure buruak lilluratzea, atzipetzea, engaiñatzea, izango litzake.

Eta naikoa gaurko. Parkatu, onetan bear baiño geiago luzatu ba´naz; baiña ondo ta egoki etorten da / noizean bein guztioi dagokiguzan gaiak bere lekuan jarrea ta argitzea, egiak batzuetan min emonarren be.

Urteko 16´garren Domekea (B) (Mk 6, 30-34)

Aita Santuagaz bat eginda.

Gaurko Ebanjelio-zatian irakurri dogunez, laguntaldea Kristoren billa ebillen, eta Kristo erruki izan yaken, ardiak artzain bagarik lez ebizan-eta.

Iñor artzain ona izan ba´da, Kristo izan zan, guztiai bakea emonik, jakituria eskifirik, zuzentasuna egifirik, zeruko Aitagandik artutako egia agerturik. Guretat, Kristogaz egoteko ziurtasuna Kristoren Ordezkariari alkartuta bizi izatea da. ¿Nor da Kristoren Ordezkari ori? Aita Santua.

Ona emen, labur-labur, iru urte oneitan Aita Santuak emon dauzan irakaspen batzuk:

- Sendia, etxeokak, familia, bat eginda egon ezik, ez da an bakerik izango; sendi apurtua: ondamendia. Gaur, ifioiz baiño geiago, kristau-familia oso garrantzi aundikoa da Elizearentzat eta gizartearentzat.

- Etxekoak izan bear dabe erlejifioaren leenengo eskola, otoitz egiteko leenengo eskola. (Ba-dira gure artean zortzi urteko mutiko-neskatoak oraindifo "Gurutze santua" egiten be ez dakienak, ezta zenbat Jaungoiko dagoan be ez dakienak. Ori, leenen, gurasoen lana ta egin-bearra da.) Entzun, barriro be, Aita Santuaren berbak: Etxekoak izan bear dabe erlejifioaren leenengo eskola, otoitz egiteko leenengo eskola.

- Ezkontza / bear aifia seme-alaba ekarteko da, eta seme-alabak Jaunaren bezuza edo erre-galua. Bear beste seme-alaba, edo bardin dana, eurai aziera egokia emoteko aifia seme-alaba, eta ez edozenbat seme-alaba.

- Borondatezko sein-galtzea (abortua), gizaki iltea, iltzaille izatea da; eta gaiztakeri ori parkatzeko baimena gotzain jaunari eskatu bear yako; abadeak ez dauko pekatu ori parkatzeko eskubiderik: eskubide ori gotzaiñari, obispuari, eskatu bear yako.

- Gure pekatu astunak Autortzako Sakramentuan agertzeko beartuta gagoz. Eta, guztion ikasbidetzat, bera be, Aita Santua, Batikano´ko autorleku baten jarten da autorkuntzak entzutera.

- Grazian bizi izateko aalegin guztiak egin dagiguzala, Espiritu Santuaren benetako etxe izan gaitzean (Ko 1ª, 6, 19).

- Otoitz egin bear dogula; Elizan bakarrik ez, baita etxean be. Otoitza izten ba´dogu, munduzaletu egingo gareala eta Jaunagandik urrindu. Esan eban ori Kristok: "Otoitz egizue, tentaldian jausi ez zaitez" (Mk 14, 18). ¿Eta zelan egin otoitz? ¿"Gure Aita" eun bidar esanda? Ez; orrela magnetofonak be egingo leuke otoitz. Gaurregunean ondoen, Elizeak beretzat daukazan otoitzakaz bat eginda. Orixe izan bear dala batez be gaurreguneko otoitza, dirauskue Elizako gotzaiñak be.

Ori dala-ta, etxe bakotxerako "Elizearen Otoitza" izeneko liburuxoa emongo dautsuet. Antxe datoz illaren lau domeketarako eta astearen egun bakotxerako otoitzak ¿Ezin artu daikezuez, besterik ezean, egunean bost mifutu Jaunaren aintzarako eta zuen arimen onerako, dana gorputzari emon bagarik? Ez dautsuedala asko eskatzen uste dot...

Urteko 18´garren Domekea (B) (Jn, 6, 24-35)

Ogi-ugaritze-ostean, askok arretaz, ardura aundiz, Jesus billatzen ziarden; Jaungoikoak arein asabak (aurretikoak) basamortuan janaritu ebazala ekarri eben gogora, bearbada, eta Kristok be beste orrenbeste egingo eutsela uste eben. Baiña Jesusek ori aurpegira jaurtiten dautse: «Ase arte ogia jan dozuelako zabize nire billa», dirautse.

Lur onetako gauzai bai emoten yakela garrantzi aundia! Garrantzia / gauza orreik soillik dabela dirudi. Askok dirua gurtzen dabe; aukeran bizi izatea da beste batzuen "jaungoikoa"; edozer egiten da atsegiña eukiteko: "drogea", edana negurri bagarik, edo amaren sabeleko bizia il, trabarik egin ez dagian eta patxadaz eta nasaiago bizi izateko. Dana norbere burua ez ukatzeko, nekegarri danik ez egiteko. Deabrua, mundua ta aragia ez dagoz lo, zoli be zoli

baño. Eta grina txarrak askoren nagusi.

Baia Jesusek gauzak bere lekuan jarten dauz: «Gizona ez da ogi utsez bizi» (Mt 4, 4); gorputzeko janaria baiño garrantzitsuagorik ba-dago: Jaungoikozko berbeaz janaritza, Jaungoikoaren naia egitea.

2) Gaurreguneko askoren elburuak aztertuko ba'genduz, Ebanjelioko gizon arenak lakok dirala ikusiko geuke: (irakurri Lk 12, 16-21). Eta arako gizona lez ilten ez ba'da be, dana daukanak gogait egiten dau bere bizi, alakoa aspertu egiten da bizi izateaz; eta ortik gaurreguneko gazte batzuen "pasotismoa" edo ezeren ardurarik eza. Bardin-bardin dautsoe gauza bat naiz beste. Jung psikiatrarik ospatsuenetariko baten berbak dira: «Nigana datozen geisoetarik irutarik batek ez dauko gaxik, gorputz-gaxik. Arein benetako geisoa euren bizitzak elbururik (edo idealik) ez eukitea da, euren bizitzak zentzunik, sentidurik, ez izatea. Gaurregunean "neurosis" izeneko geisoa geien-geienakan ortixek dator», diño osagille entzutetsu orrek.

3) Egia esan, alperrik ibiliko da jendea obeto ta obeto bizi gurarik. Gauza guztiak lez, oparo bizi izateak be bere negurria dauko. Gauza materialak ez dabe personearen barrua inoiz be aseten, beteten, ez leen, ez orain, ez gero; inoiz be ez: galkorrak diralako, eta galtzen diran gauzak, leentxoago edo gerotxoago, ondatu egiten dira, alperrik galtzen dira.

Bat dogu gudan galtzen ez dana: Jesukristo, Jainkoaren Semea. Bera da personearen benetako janaria: «Neu naz bizitzarako ogia —diño Berak—. Nigana etorri daitena, ez da inoiz be gose izango; sinistea neugan jarri dagiana, ez da inoiz be egarri izango» (Jn 6, 35). Ondo ulertu dabe ori Jaunagaz bat-bat eginda bizi diranak: orrexeik dira benetako zoriontsuak —emen lurrean izan daiteken zorionaz—, euren barrua Jaungoikoak beteten dau-ta.

Urteko 19'garren Domekea (B) (Jn 6, 41-52)

Bizirako ogia.

Bizi izatea nai dogu.

Barru be Elizeak, gaurko Ebanjelio-zatiaren bidez, Eukaristiako miraria ausnartzera egiten dausku dei: bizirako ogia ausnartzera.

¿Nok ez dau bizi izaterik nai? Guzti-guztiak aalegintzen dira euren egunak luzatzen.

Jatorrizko legea da, izan be. Gizaldien gizaldietan gaztetasun amaibagea jaristeko osagarriaren billa diardue mundu guztian.

Irauteko ardura orren erantzuna Jesukristo da, Jaungoikoaren Semea: «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizi; Neu naz bizitzarako ogia», dirausku Berak (Jn 6, 48, 51).

Eta aurrean egozanai auxe gogorazoten dautse: «Ogi onetatik jan dagiana —edo bardin dana, Kristoren aragia jan dagiana— betiko bizi izango da». Argi dago, jakiña, ori lurreko bizitzari buruz ez diñoana, guztiok il bear gara-ta, sortzez-gaiñetik bizitzari buruz baiño; berba batez, zeruan izango dogun betiko bizitzari buruz baiño. Eta betiko bizitza ori lortzeko agiririk argiena / Aingeruen ogiaz janaritza da, Jaunaren Gorputzaz janaritza. Bere berbeaz erantzun dau.

2) Aingeruak emoten dautso jaten Elias profetari, Horeb mendirako bidean il ez daiten eta ara eltzea lortu dagian. Mendi ori zeruaren irudi da. Elias berrogei egunez ibili zan Horeb mendirako bidean, eta bide ori lur onetako geure bidea da. Eta bide onetan aurrera egiteko, Eukaristia dogu janari: geure indarrak sendotzeko, geure kristau-bizitzan zintzoro irauteko.

Eta Kristok dei egiten dausku orretarako. Guztiok eroan nai gaitu bazkari orretara. Baiña batzuek bazkari orretara ez joateko atxakiak jarten dabez. Ez dabe orretarako astirik, euren arimako jantzia ez da garbia eta ez dabe garbitu nai euren barrua.

Kristok Eukaristiako bazkarira eta betiko bizitzako maira egiten dausku dei. Leenengora joaten ez ba'gara, gaitz izango da bigarrenegotea. «Irakaslea ortxe dago eta dei egiten dautsu» (Jn 11, 28), esan eutsan Martak Mariri / Jaunak Lazaro euren nebea biztu bear ebanean.

Geuri be dei bardiña egiten dausku Jesusek berak; ez dagoi gun ezetzik esan: kristau zintzo izateko indarrak geien emoten dauana Mezako oparia ta Jaunaren gorputza artzea da-ta. Geure eskuan dogu betiko bizitza.

Urteko 22'garren Domekea (B) (Mk 7, 1-8a. 14-15. 21-23)

Itxurazalekeria.

Gaurko Ebanjelio-zatian irakurri dogunez, itxurazalekeriak baztarten ikusten dogu Jesus. Moises'en Legea jakituria zan, Jaungoikoagandik etorren-eta. Baiña judarrak, gizaldien barruan, eurak asmatutako beste arau ta agindu asko sortu ebezan, eta batzuetan, Jaungoikoaren aginduai baiño garrantzi aundiagoa emoten eutseen beste agindu txiki arei.

Parisaitarrak euren oiturak zeatzegi gordeten ebezan; esaterako, jaiegunetan bide luzean

ibiltea ez yaken bidezko, sokeaz korapillo bat egitea be ez, osterantzeko egintza on bat egitea be ez. Onelako gaietan oso zeatzak ziran, baiña uts egiten eutsoen nasai-nasai Jaungoikoaren eta lagun-urkoaren maitasunari. Arein eslejiñotasuna be azalezko biurtu zan, arimaz eta barruz utsa edo oso urria. Arein biotza Jaunagandik urrin egoan. Eta Jesusek ori aurpegiara jaurtiten dautse.

Geu be ikutzen gaitue Jesusen berbak. Jaunari egiten dautsaguzan gurtza ta gorapenak / batez be geure barruko egintzak izan bear dabe. Biotzetik sortu bear dira, maitasunetik. «Erri onek ezpanez goratzen nau, baiña orrein biotza nigandik oso urrin dago» (Mt 7, 6), irakurri dogu Ebanjelioan.

Etorri gaitkez, bai, elizara, mezatarra, eta jarlekuak dagozan lez egon, gure aldetik ezer egin bagarik egon. Ori azaluzkeria izango litzake, itxurazalekeria: agirian zerbait egiten dogula eta ezer egin ez. Ori ez da benetako gurtza, benetako gorapena. Geure barrutik egin bear dautsagu dei Jaunari: biotzez eskatu parka, biotzez goratu Jauna, biotzez eskatu laguntza, gorputz-arimako laguntza. Eta ori, ¿elizan bakarrik? Ezetara be ez. Elizan eta elizatik kanpo: geure etxean batez be. Bakarrean gagozala. Emen Jesusen berbak: «Otoitz egin dagizunean, sartu zaitetz zure gelan eta, atea itxita gero, otoitz egiozu an ixillean dagoan zure Aitari [zeruko Aitari]».

Etxekoakaz gagozala: maia bedeinkatzean, esate baterako. Berba egin Jaunagaz, ixillean, edozein lan egin bear dagigunean, edozetarako laguntza eskatuz, gaurregunean ori iñoiz baiño geiago bear dogu-ta: buruko argitasuna, zentzuna, ankakaz pentsatu bagarik buruaz pentsatzeko, eta iñok kristau-jokabidean eta bizikeran okertu ez gagizan.

Gizona, personea, gauza bik osotzen dabe: arimeak eta gorputzak. Emon dagiogun gorputzari beroni dagokiona, eta arimeari beronena. Eta gogora ekarri sarritan / gure burua ez dala gurea, Jaunarena baiño. ¿Dana gorputzari? Ez, ez gara abereak-eta. Emon dagiogun zerbait —eta zerbait baiño geiago be bai— arimeari be, aberetu (animaliatu) ez gaitzean.

Urteko 23^{garren} Domekea (B) (Mk 7, 31-37)

1) Gaurko Ebanjelio-zatia irakurrita gero, ¿zeri eta nortzui emoten dautsegu balioa geienetan? Indarra daukenai, gorputzeko edertasunari ta trebetasunari, agintariai, aginpideari, dirua daukenai. Beraz, banandu egiten doguz personak. Alan be, ¿zer da guban atsegingarri Jaunarentzat? Erraza da jakitea: «Jaungoikoak munduaren eraz beartsu ziranak aukeratu ebazan, sinismenean aberasteko» (St 2, 3). Ori ta Jesukristok iragarri ebazan zorientasunak bat datoz (Mt 5, 3); eta beste toki baten be orixe berori diño Jesukristok: «Barri Ona beartsu iragarten yake» (Mt 11, 5).

2) Ume biurtu. Interesgarri da jakitea “beartsu” berbeak Biblian daukan esanaia. Ez da diruz pobrea izatea bakarrik. Jaunaren ikasleak eta jarraitzailleak guztietarikoak izan ziran: Mateo ta Zakeo: zergabatzaileak; Arimatea'ko Jose ta Nikodemo: oneik parisaitarrak eta aberatsak; Joan eta Santiago: oneik morroiak eukezan. Beartsuak beste batzuk be izaten dira: bertan-beera itzitako personak, gutxitzat artuak, zapalduak, aurrean erabiliak, lauak, apalak, Jaungoikoagaitik txiki egiten diranak, ume lez egiten diranak: «Itzi umeai nigana etorten eta ez egiezue galerazo, Jaungoikoaren erreñua eurak lakoak diranena da-ta» (Mk 10, 14). Orixe da Zeruko atea zabaltzen dauan giltza: apaltasuna, lautasuna, bere burua txiki ta ezerez egitea. Eta orretarako eragozpena / beste au: arrokeria, aundikeria, norbere burua aundi egitea, arropuzkeria.

3) Apaltasunerako deia. Jesusek apalak izan ebazan maite; Erromatarren kapitan bat, jentilla izanarren be, Jesusek abegi onez artzen dau: bere morroia osatzeko eskatzen dautso Jesusi, eta bera ez dala Jesus bere etxean sartzeko duin. Eta, apaltasun ori ikusirik, osatu egiten dau Jesusek kapitanaren morroia (Lk 7, 11-10).

Apaltasuna da gure meriturik ederrena, Jaunaren aurrean ezer be ez gareala autortzea, eta bere grazia ta laguntasuna bear-bearrezkoak doguzala. Eta, Jesukristok bere Ebanjelioan dirauskunez, gure lagun-urkoak geure antzekoak dirala, eta geure burua lez artu bear doguzala, Jaunak geu artzea gura dogunez: guk enparaduai egiten dautseguna / Jaunari egitea lez dala jakiñik.

Urteko 16'garren Domekea (C) (Lk 10, 38-42)

Gaurko Ebanjelio-zatian entzun dozuenez, bein Jesus bere adiskide ziran Lazaro, Marta ta Mariren etxera doa, bertan bazkaltzera. Eta an andrazko bi ikusten doguz: bata, Marta; onek etxeko arazoetan diardu, jo ta su, naiz etxea garbitzen eta atontzen, naiz bazkaria gertatzen, naiz beste zerbaitetan lanean.

Beste andrazkoa, barriz, Mari: onek, Jesusen irakatsia entzuten diardu. ¿Zer esango eutsan Jesusek? Jaungoikoari dagokiozan gaiak, edo lagun-urkoari dagokiozanak. Berba batez, arimeari buruzko gaiak, betiko bizitza irabazteko balio dabezan burubideak.

Marta'ren arazoak oso bearrezkoak ziran, bai, Jesusentzat dana gertu eukiteko, gauzak gertatzeko lan egin bagarik / ez da ezer gertatzen-eta. Zerbait gertu eukiteko / lan egin bear edonon: etxean, soloan, lantegi edo fabriketan, naiz beste edozetan eta edonon. Liburu bat egiteko, leenen ondo gertatu bear izaten da, eta, gaia ondo ikasi ta atonduta gero, orduantxe idatzi ta atara daiteke liburua. Eta orixe beste gauza guztietan be. Baiña orretarako, ardurea artuaz batera, lan egin bear.

Bein baiño geiagotan esan dautsuet, egun-barruko gure arazo ta lan guztiak otoitz biurtu daikeguzala, egunoro Jaunari eskintzen ba'dautsaguz. Baiña, kontuz! Ori bakarrik ez da nai-koa; beste otoitz-mota bat be egin bear dogu, mundu onetako lanetan murgilduta egonez / Jaunaz aaztu ez gaitzean. ¿Zein da otoitz ori? Jaunari ospe ta aintza emotekoa, Berari esker-rrak emotekoa eta laguntza eskatzeko otoitza. Etxe guztietan daukazue "Elizearen Otoitza" izeneko liburua, Eliza osoak egiten dauan otoitz-liburua.

Ondo da Marta'k etxeko arazoak egitea; baiña obeto Marik Jesusen irakatsiak entzutea eta, bide batez, Jesusegaz batera otoitz egitea. Ori orrelaxe dala ondo konturatu gaitzean, entzun dagigun barrero gaurko Ebanjelio-zatia: Luk 10, 38-42.

Urteko 17'garren Domekea (C) (Lk 11, 1-13)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesusek, toki baten otoitz egiten ziarduala, otoitza amaitu ebanean, bere ikasleatariko batek auxe eskatu eutsan: «Irakasle, irakatsi egiguzu otoitz egiten» (Lk 11, 1).

Sarritan ikusi eben Apostoluak Jesus otoitz egiten, Ebanjelioan irakurten danez; baiña, egun aretan, otoitz zelan egiten eban nai izan eben jakin, eurak be Jesusen antzera otoitz egiteko. Eta otoitzik ederrena irakasten dautse Jesusek: "Gure Aita".

¿Zelan jarten gara artu-emonetan Jaungoikoagaz? ¿Zelan egin otoitz? ¿Eta nogana jotzen dogu otoitz egitean? ¿Nor da Jaungoikoa?

Biblia osoan agertzen ez dana, orduantxe irakasten dautse Jesusek Jaungoikoa nor dan: GEURE AITA. Orduan arte, Jaungoikoa gure gaiñetik eta urrin lez dagoan izaki aundi ta amaibagea dala ikusten dogu beti Biblian. Baiña orain, geure Aita be ba-dala dakigu. Eta Jaungoikoaren izena, Aita dala. Eta aitak, ona dan aitak, bere seme-alabak maite dauzanez, zeruko gure Aitak be guztiok maite gaituala, seme-alabatzen artzen gaituala. Aurrerantzean, ba-dakigu, Jaungoikoa gauza guztietan amaibagea dan ezker, maitasunean be amaibagea dana. Ederra, benetan, Jaunak agertzen daskun egia miragarri ta zoragarri au!

"Gure Aita" izeneko otoitz au eskari-otoitza da, gizaki txiki eta ezerezok Izaki Guztiaaldunari egiten dautsagun eskari-otoitza.

Leenengo eskari biak Jaunari buruzkoak dira: santifikatua izan bedi zure izena, edo bardin dana, Zu santu zareala iragarri daitela alde guztietan; eta bigarrena, eldu daitela zure erregetza.

Beste irurak, barriz, geuri dagokiguzan eskariak: egunoroko ogia edo jatekoa; parkatu daiskuzala gure iraiñak, gure pekatuak, uts egiñak, gaiztakeriak. Emen, errazoi bat agertzen dautsagu Jaunari: geuk be iraiñen bat egiten daskun edonori parkatu egiten dautsagu-ta. Onela, gure eskariak indar geiago emoten dautsegu, bai, baiña geuk be aparteko berbea emoten dogu: gure iraintzaileari parkatzea.

Eta azkenez, beste eskari au: ez gagizuz itzi tentaldian jausten, ez egiguzu itzi Zugandik alde egiten. Geuk ez dakigula eta nai ezta sartu gaitkez arriskuan. Arrisku orretatik onik atara gagizala.

Eta, otoitzak daukan indarra agertzeko, Jesusek urrengo au dirausku: (irakurri Mt 6, 14-15).

Jauna: ez dakigula iñoiz be aaztu Aita bat baiño ez dagoana.

Jauna: guztiok Aita beraren seme-alaba lez bizi izaten jakin dagigula.

Emon egiguzu orretarako zure laguntza etenbagea, Jauna, biotz-biotzez eskatzen dautsugu-ta.

Urteko 19'garren Domekea (C) (Lk 12, 32-48, edo 35-38)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jesus Jauna daukagu berbetan. Eta Jesus ez da edonor, Jaungoikoa bera baiño, Aita ta Espiritu Santuagaz batera.

Eta argi ta garbi dirausku: Egon zaiteze gertu Bera etorri daitenerako.

Itxuraz, garrantzi aundia dauko onek, beti gertu egote onek.

Eta ori barruan obeto sartu dakigun, ipuin-antzeko bi jarten dauskuz: 1^a) morroiak euren ugazabaren zain egoten dira: ugazabak, etxera biurtzean, gauza guztiak bere lekuan eta atonduta aurkitu dagizan; 2^a) lapurra edozein ordutan sartu daiteke iñoren etxean.

Jauna da gure ugazaba, guztion eta diran guztien Jaun eta Jabe bakarra. Eta Jaunak sarritan egiten dausku berba, onbidetik okertu ez gaitzean eta gure barrua beti gertu euki dagineun: esaterako, domeka guztietan irakurgai santuak entzutean, geure arteko ezbearretan, geisoaldietan, norbait ilten danean... Jazopen guztiok geure barruan ausnartu ta sakonduko ba'genduz, gure bizitzan beste era batera jokatuko geuke; gauza guztiak euren benetako balioa emongo geuskie eta ez guzurrezko balioa, sarritan egiten dogunez: garrantzirik ez daben gaiak sekulako balioa emon, eta benetan garrantzi aundia dabenai baliorik txikiena edo ezer be ez. Eta balio aundikoak izanarren be, ¿zer galdu daikegu, urte batzuk barru dana itzi bear izango dogu-ta? Emen Jesukristoren berbak: «¿Zetako yako gizonari mundu osoa irabaztea, bere bizia galtzen ba'dau»? (Mt 16, 26)

Uskeri bategaitik, sekulako eztabaidak eta asarreak sortzen dira, eta ori kanpoan bakarrik ez, baita etxekoen artean be. Ez daukagu gure barrua bear danez gertatuta; edozein gora-beerak lapurtu daike Jaungoikoagaz dogun adiskidetasuna, gure burua zaintzen ez ba'dogu. Gorputza zaintzen aalegintzen gara, bear be bai! ¿Eta zegaitik aalegindu ez geure barrua be zaintzen? Euren gorputza lau anakakoak be zaintzen dabe. Gure arimeak gorputzak baiño askozaz geiago balio dau, ez da iñoiz be ilgo-ta.

Emon egidazu indarra, Jesus Jauna, inguratzen naben uskeriak jaramonik ez egiteko: nire azken-orduan, Zeu etorri zakidazanean, nire barrua pekatutik garbi ta apainduta aurkitu dagizun.

Urteko 20'garren Domekea (C) (Lk 12, 49-53)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jokabide bi jarten dauskuz aurrean Jesusek: edo bere alde egon, edo bere aurka. Orrexe-gaitik diño ez dala lurrera bakea ekartera etorri, banaketa baiño, eta banaketa ori —Bera dalata— etxe-barruetan be ikusiko dogula.

Batzuek onartu egingo dabe Jesusen irakatsia eta betiko bizitzarako bizi izango dira; beste batzuek, ostera, ukatu egingo dabe, eta il egingo dira, ez dabe betiko bizitza zorientzua jadetsiko. Eta Kristo onartze edo ukatze ori / personeari beronen askatasuna kendu bagarik. Personeak beronek naita izan bear dau Kristoren jarraitzaille ta betiko bizitzaren irabazle, eta ez indarrez, beronen askatasuna zapaldu bagarik. Izan be, norbait zerbaitetan indarrez beartu ezkeru, onen egintzak ez dauko baliorik, ez dauko irabazirik, ez dauko meriturik.

Baiña Kristoren jarraitzaille izateak bere ondorenak dakaz, pozzarriak eta atsegingarriak batzuetan, mingarriak beste batzuetan. Izan be, batzuetan gaitz eta nekeza egiten yaku Berak esaten dauskuna betetea. Sarri dirausku ori bere Ebanjelioan: «Neuk agintzen dautsuedana egiten ba'dozue, neure adikide zaree» (Jn 15, 14). Eta beste bein: «Nire berbak baztartu eta onartzen ez dauzanarentzat, auzi-epaille bat dago: neure mandatuak berak galduko dau alakoa azken-egunean» (Jn 12, 48). (Irakurri Jn.12, 48 eta abar). Eta beste baten: (irakurri Jn 14, 21 eta 23-24).

Beraz, gure kristau-bizikera guztia Mezatara etortea bakarrik ba'litz, itxurakeri utsa izango litzake. Egun-barruan agertu bear dogu gure kristautasuna, etxean eta etxetik kanpo. Jesusen antzera bizi gaitzezala. Berari eskiñi dagioguzala gure egintza guztiak: geure lan eta arazoetan, bearrizantetan, ezkontzako eta seme-alaben arteko artu-emonetan, jolasetan, eta abar. Eta, batez be, alkar ondo eroatean eta alkar-maitasunean, auxe da Kristoren agindurik nagusiena-ta: «Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean» (Jn 13, 35).

Aztertu dagigun, ba, gure barrua, eta ikusi gure kristau-bizikerea benetakoa ala guzurrezkoa dan; kristauak gareala esanaz bakarrik nasai geratzen garean, ala gure jokabideak zerbait zuzendu bear doguzan. Ba-dogu gure barrua aztertu-bearra.

Urteko 21'garren Domekea (C) (Lk 13, 22-30)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

¿Zeruratuko ete-naz? ¿Jadetsiko ete-dot betiko bizitza zorionsua? Ona emen gure buruan sarritan erabilten doguzan itaunak. Baiña erantzuna erraza da: geuk nai ba'dogu, bai. Geure eskuan daukagu betiko zorionsu izatea edo ez izatea. Ba-dakiguz Jaungoikoaren aginduak, ba-daukaguz Jesukristoren Sakramentuak. (Irakurri emen Lk 10, 25-28.)

Eta orretarako, betiko bizitza errazago lortzeko, Jesusek bere zazpi Sakramentuak itzi euskuzan.

Alan be, ¿naikoa ete-da Sakramentuak artzea? ¿Naikoa ete-da —leengo domekan esan neutsuenez— Mezatarata etorri eta Eukaristia ospatzea? ¿Beteko ete-dogu gure kristau-bizikerea egintza orrekaz bakarrik? Ez, esan bear oso-osorik. Ez da naikoa Sakramentuak artzea, edo Mezatarata etortea. Sakramentuak bizi egin bear doguz gure jokabidean. Orregaitik, Bati-kano'ko Bigarren Batzar Nagusiak —Jesukristok be bai, San Paulok be bai— gorago jotera eskatzen dausku, santutasunera jotera.

Santu izatea ez da erraza; ez gara santuak, baiña santu izatera egiten dausku dei Jesukristok guztioi, santutasun-bizikerara; bakotxari bere arloan: praille-mojai euren etxe ta egiteko-etan, eta beste guztioi geure arazo ta lan-arloetan. Ez diñot santu izango gareanik, baiña bai santu izateko aalegiñak egin bear doguzala. «Zuek bikaiñak izan bear dozue, zeruan dagoan zuen Aita bikaiña danez» (Mt 5, 48), dirausku Jesusek.

¿Eta zer da santu izatea? Leenen eta bein, Jesukristok esandakoa betetea, leen irakurri dautsuedana betetea —Lk 10, 25—; eta gero, egun-barruko arazo ta lan guztiak aalbait ondoen egin eta Jaungoikoagaitik egitea. Orixe esaten eta egiten eban Aita Santu Joan 23'garrenak.

Emon egidazuz zure laguntza ta indarra, Jauna, nik egin dagidan guztia Zeuri eskintzeko eta Zeugaitik egiteko, Zeure aintzarako, lagun-urkoaren onerako eta betiko bizitzan sari argitsua irabazteko. Amen.

(I) Urteko 24'garren Domekea (C) (Lk 15, 1-32, edo 1-10)

Azken-domeka bietan ikusi genduan, Jesus beti dago pekatari damutuari parkatzeko gertu. Ikusi genduzan Zakeo diru-batzaillea, emakume pekataria, eta seme ondatzaillea: irurai parkatu eutsen Jesus Jaunak, damutu ta bide onera biurtu ziralako.

Emen orain beste ikasbide bi: ardi galdua eta drakma galdua.

Artzain batek eun ardi daukaz bere artaldean; baiña, egun baten, areik zenbatzean, bat gutxiago daukala ikusten dau: ardi bat galdu yako. ¿Zer egingo ete-dau artzain onak? Nasai geratuko ete-da galdu dana bat bakarrik dalako eta larogeta emeretziaz geratzen dalako?

Ez. Larogeta emeretziaz an itzi eta galdutakoaren billa doa; eta ez da gelditzen a ikusi arte. Orduan, pozez beterik jarten da bere aurpegia. Ardi aregana arifieketan joanik, besoetan artu eta bere lepoan artzen dau. Etxera eltzen danean, adiskide ta auzokoai dei egin eta ba-dirautse: "Poztu zaitze nigan batera, ardi galdua aurkitu egin dot-eta".

Bardin jazo yakon drakma diru bat galdu yakon emakumeari be: aurkitzen dauanean, pozez beterik albistea bere adiskide ta auzokoai esatera doa.

Ba-daki Jesusek Aitaren poza pekatariak onbideratzerakoan, eta orregaitik, ipuin biok amaituta gero, auxe diño: «Orrelaxe pozten dira Jaungoikoaren aingeruak, onbideratzen dan pekatari bategaitik» (Lk 15, 10).

Parka-eskatzeak apala izan bear dau.

Parkamena lortzeko, apaltasunez joan bear da Jaunagana. Ori, parisaitarraren eta diru-batzaillearen ipuiñaz irakasten dausku Jesusek.

Gizon bi eliza nagusira doaz, otoitz egitera; bata, parisaitarra, agiriz onak ziranetarikoa; bestea, zerga-batzaillea edo diru-batzaillea, agirizko pekatarien ordezkaria.

Parisaitarrak, arropuztuta, bere otoitza egiten dau; iñoren pekatuak eta bere egintza onak darabiz gogoan; eta auxe dirautso Jaunari: «Eskerrak emoten dautsudz, ene Jaungoiko orri, beste gizonen antzera lapur, zuzenbaze eta ezkontza-naastaille ez nazalako, ezta diru-batzaille ori lakoa be. Aste oro birritan egiten dot barau; nire irabazi guztien amarrenak emoten dodaz».

Parisaitarraren otoitz arroaren ondoan, diru-batzaillearen otoitz apala ta mingarritsua agertzen yaku; an ezkutuan dagoala, begiak zerura jasoteko be ez dau aurpegirik, eta auxe

Eta begira Jesusek dirauskun au: «Diru-batzaillea bere pekatuak parkatuta biurtu zan etxera; ez, ostera, parisaitarra» (Lk 18, 14).

Ikasi dagigun, ba, geuk be apalak izaten, Jaungoikoaren aurrean guztiok gara pekatari-ta.

(II) Urteko 24'garren Domekea (C) (Lk 15, 1-32, edo 1-10)

Entzun dozue gaurko Ebanjelio-zatia.

Jaungoikoak, Kristoren bidez, bere erruki aundia agertzen dauku, guri daukun maitasun azkenbagea: «Jaungoikoak mundua bere Seme bakarria emoteraifio izan dau maite», dirausku Jesukristok, San Juan Ebanjelariaren bidez (Jn 3. 16). Jesus, Aita Jaungoikoaren agerkunde oso-oso da. Jesusegan ikusi daikee guztiak, ispilluan lez, zeruko Aitak bere seme-alaba guztiakana daukazan sentipen maitetsuak.

Bakotxak, egizale ta tolesbagea ba'da, bere egintzakaz agertu bear dau berak iragarten dauan irakaspena. Baiña ori, persona batek bakarrik egin dau oso-osorik: Jesukristok.

Eta orrela, Kristo, leenen, erruki-egintzak egiten asi zan, eta gero irakasten, eta bere berbakaz baiño bere egintzakaz erakusten dauku geiago.

Jesus, edozein bearrizan eta zoritxarraz errukitzen da:

a) gorputzeko bearrizanetan: or ikusten dogu osaketak egiten: Bartimeo izeneko itsua osatzen; Jairo'ren alabea biztuten; kanaandar emakumearen alabea osatzen; amar legenardunak osatzen; Nain'go andra alargunaren semea biztuten; odol-jariodun emakumea osatzen, eta beste gorputz-osaketa asko egiten.

b) baiña gorputzeko bearrizanetan bakarrik ez, baita arimako bearrizanetan be. Izan dagigun gogoan emakume pekataria; samaritar emakumea; lapur ona gurutzean...

Geuri be bardin dirausku: «Izan zaiteze errukiorrak, [zeruko] zuen Aita be errukiorra danez» (Lk 6, 36).

Errukiorrak gure eritxi ta erabagietan. «Zegaitik begiraten dozu zure anaiak bere begian daukan samarra, eta ez dozu zeure begian daukazin abea ikusten?», diño Jesusek (Mt 7, 3).

Errukiorrak gure berbetan: «Ez iraindu berbaz gure anaiak» (ikusi Mt 5, 22-24).

Errukiorrak gure egintzetan: bearrizanean dagoanari lagun egiñez; gorputz-arimako erruki-egintzak egiñez.

Errukiorrak arerioagaz: egiten yakun edozein irain parkatzen jakin bear dogu, geuri be Jaungoikoak parkatzea nai ba'dogu. Orregaitik, Jaunari be guk orixe dirautsagu: «Parkatu gure iraiñiak» (Mt 6, 12), parkatu gure zorrak.

Errukiorrak gure lagun-urko guztiakaz, Jaunaren errukia jaristeko.

San Agustin'go Domu Santu

(OARRA: Egun au, Domu Santu-urrengo domekan ospatzen da. Meza onetara, San Agustin'go etxe bakotxetik bat edo geiago etorten dira, euren ildakoak gogora ekartera eta arein alde otoitz egitera.)

* * *

Nire eliztar zintzook: Kristautasunak, Kristogandik artuta, asieratik aurrera, oiñarrizko egia batzuk daukaz kristau guztiontzat, Kristoren jarraitzaille guztiontzat, sinistu bearezkoak. Egia oneik Kredoan dagoz, Apostoluak eurak Eliza guztiarentzat jarritako Kredoan.

Elizea alkarte bat da, Jesukristoren alkarte, ikusten ez dan buru Kristo dala, eta ikusten dan buru, Aita Santua. Elizearen egiok onartzen dauzana, Alkarte onen barruan geratzen da; egiok ontzat artzen ez dauzana, barriz, Elizatik kanpo. Egia orreitariko bat, bat bakarrik, ukatzea, fede-ausle izatea da.

Gaur, San Agustin'go Domu Santu egun onetan, ikusi dagigun egun oni dagokiozan Kredoko egia bi: sinisten dot illen biztuera eta betiko bizitza.

Esan dausuet leentxoago, Kredoko egia guztiak Jesukristogandik artutako egia nagusiak dirala, oiñarrizko egia nagusiak.

Izan be, izentatu dausuedazan egia biok, illen biztuera eta betiko bizitza, Jesukristok argi ta garbi eta sarritan agertzen daukuz bere Ebanjelioan: Jesukristok leenen, eta bere Apostoluak barrero geroago. Luzeegi egongo gintzakez emen orain, egia bi orreik datozen Ebanjelio ta Apostoluen idazki-zati guztiak irakurriko ba'neuskizuez. Itzi egidazue, orraitifio, orreitariko zati batzuk irakurten, gure etxeko norbait il ezkerro be, gure biotza zelanbait poztu dakigun Jesukristo Jainko Seme gizon egiñaren agintzari alaitsu ta ederrakaz. Illen mezetako irakurgaietakoak aukeratu daikeguz:

Lazaro, Jesusen adiskide ta ongille bat, il egin zan, eta obiratu egin eben. Iru egun geroago, Jesus aren etxera joan zan, eta Marta'k, Lazaro'ren arrebeak, auxe esan eutsan Jesusi:

«Jauna, emen egon izan ba'zintzaz, nire nebea ez litzakean ilgo. Oraintxe be ba-dakit, orraitio, Jaungoikoari eskatu dagiozun edozer, Jaungoikoak emon egingo dautsuna». Eta Jesusek ari: «Neu naz biztuera ta bizia. Sinistea neugan jarri dagiana, illarren be, bizi izango da; eta bizi dana eta neu onartzen nauana, ez da ifioiz be ilgo. ¿Sinisten dozu au?» «Bai, Jauna—erantzun eutsan Martak—; sinisten dot mundu onetara etorteko zan Mesias, Jaungoikoaren Semea, zeu zareana». Orduan, Lazaro egoan illobira joan ziran; eta Jesusek deadar aundi bat egin eban: «Lazaro, urten kanpora!». Eta Lazaro illobitik urten egin zan. Guzti au San Joanen Ebanjelioan irakurten dogu (Jn 11, 17-44).

Emen Ebanjelioko beste zati bat: Joan 6, 37-40.

Baita Ebanjelioko beste zati au be: Joan 6, 51-55.

Apostoluak be sarritan eta luze aitutzen dauskuez egia biok. Esate baterako, San Paulok Tesalonika'koai egin eutsen Leenengo Idazkian, 4'garren atalburuan, 13-18 ataltxoetan. Baita San Paulo berak Korinto'koai egin eutsen Leenengo Idazkian be, 15'garren atalburuan, 1-58, luze be luze.

Baiña San Joan Ebanjelariak dirauskuna bakarrik irakurriko dautsuet, larregi luzatu ez naiten (Ag 14, 13: «Eta berbots bat entzun neban, zerutik auxe ifioala: "Idatzi egizu: Zorionekoak Jaunagan ilten diran ildakoak! Aurrerantzean, bai, diño Espiritu Santuak, artu dagiela atsedena euren lanetan, euren egintzak jarraitzen dautsee-ta"»).

Guk, kristauok, auxe sinisten dogu: illen biztuera, eta betiko bizitza zoriontsua Jesukristoren jarraitzaille zintzoentzat.

Eskerrak zeuri, Jesus, gure Salbatzaille orri!

Berak emon daiskula emen batuta gagozan guztioi betiko bizitza zoriontsua!

BESTE BERBALDI BATZUK

Gosearen aurka

Gaur, eliztar maiteok, munduko gosearen aurkako eguna dogu.

Ondo dakizuenez, milloeka dira gosez dagozanak; euneko amabost goseak ilten dagoz. Biafra'n bertan, ia iru urtean guduan (gerran) jardunda gero, guduak eta goseak millo bi il dauz.

Gose au, batez be, Aprika'n eta Asia'n ikusten dogu. Egun bakotxean, goseak amar milla ume ilten dauz.

Eta gorputzeko gosea aundia ba'da, ez da txikiagoa barrukoa. Irakurten eta idazten ez dakienak, milloeka. Jakintza-gosea, janari-gosea baiño lotsagarriagoa da, bearbada: irakurten eta idazten ez dakiana egoera larrian bizi da. Zenbat eta zenbat euren buruak jakituriz lantzeko aukerarik ez dabela; egia jakiteko bide bagarik; gizarteko jazoerak eta arazoan barri jakin bagarik; dirurik ez dabelako, jakintza-bidea itxita. Ainbat eta ainbat euren eritxiak agertzeko eskubiderik ez dabela; euren eritxiak aurrera eroateko egokierarik ez dabela; euren arazoak zuzentzeko, alkartzeko eta bizi izateko eskubide bagarik; berba egiteko bildurrez; indarkeriaren eta jauntxokeriaren azpian lotu-lotu eginda; aukeramen-doaia erabilteko askatasun bagarik; irabazi bear leukeen laurena be irabazten ez dabela. Diruaren, tresnen, aurrerapenen, gauzen, indarraren, aundikien morroitza lotsagarritan menperatuta; nor izateko erraztasun bagarik; erriak euren askatasuna agertzeko eskubiderik ez dabela, euren askatasun-eskubidea zearo zapalduta. Ainbat errialde ogiaren eta diruaren truke euren erritasuna saldu-bearretan dagoz. Ori egiten izten dauan erriak, berak dauan gauzarik onenatarikoa, aberastasunik eder eta baliotsuenetarikoa galduko leuke; izan be, bizi izateagaitik, bizi izateko dauzan bere errazoiak ukatuko leukez.

Kristoren irakatsiak errientzat be balio dabe: «¿Zetako yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen ba'dau?» (Mk 8, 35).

Ainbat erri txiki irunsi dabez erri aundiak istoria-barruan. Zenbat jakin-min, askatasun-egarri, erri-zaletasun eta Jainko-zaletasun dagoan lurbira osoan!

Orrenbeste erri goseak ilten dagozan artean, orrenbeste sendi edo familia bear gorrian

bizi diran artean, orrenbeste gizaki ezjakintasunean murgildurik dagozan artean, orrenbeste eskola, ikastetxe, geisotegi eta tajuzko etxe-bizitza jasoteko premiñan dagozan artean, agiriko naiz ezkutuko bonbonkeri guztia, bakarko naiz lagun-arteko geiegikeri guztia, iskillioetarako (armetarako) leiaketa guztia, izenik ez dauan gaizpidezko pekatu ta gaiztakeri ikaragarria da.

Pekatu au salatzeko beartuta gagoz guztiok. Entzun daiskuela salaketa au erantzupidea dabenak beranduegi izan baiño leen, diño Aita Santuak idazki baten. Bestela, euren diru-zalekeriak Jainkoaren asarrea eta beartsuen gorrotoa sortuko dauz, negurtu ezin alako ondoren baltzaz.

Antxiña esan euskun Santiagok bere idazkian: «Anai naiz arrebaren bat billoizik eta eguneko janari bagarik egon ezkerro, zuetariko norbaitek “zoaz bakean, berotu ta ase zaitetz” esan bai baiña gorputzak bear dauana emon ez ba legio, ¿ori zetako litzakio on?”» (St 2, 16).

Beraz, entzuleok, eskiñi dagioguzan Jaunari gure otoitzak eta lanak gosez dagozanen alde, baita geure diru-laguntza emon be. Eskerrik asko guztioi, gosez bizi diranen izenean.

Epaillak 19:

Los Ríos'ko Misiñoen eguna

Gaur, eliztar zintzook, Los Ríos'ko Misiñoen alde egiteko eguna dogu. Esan dagitzue-dan zerbait, labur-labur, Los Ríos'ko Misiñoai buruz.

Ba-dakizue Kristau-Misiño au Ameriketa'n dagoana, Ekuador deritxon lurraldean. Orain urte batzuk dirala, Euskalerriko abadeak artu eben euren gain Misiño aretako ardurea, gorputz-arimako laguntasunak emotea. Eun eta berrogei milla arimen ardurea dabe ara joan diran euskaldun abadeak. Erririk nagusienetan dagoz bananduta; baiña, alan be, baso-barrura joan bear izaten dabe egun batzuetarako, ango bizilagun asko ta asko basoan ezkutuan dagozan etxetxo ta txaboletan bizi dira-ta. Bakartade ori dala-ta, ez-jakifia ta kristau-egintza eza da laguntalde arein zoritxarra.

¿Eta zein da abadeen arazoa? Ango arimazaiñen lana emengoaren egikizun guztietara zabaltzen da, baita emen bear ez diran beste egikizun askotara be: Kristau-bizikerea irakatsi, geisoai ikustaldia egitera joan, arei berbaldiak egin, oiñez edo zaldiz kilometroctara Sakra-

mentuak eroatera joan; eta, lanik gogorrena ta latzena, oitura txarrak diranak kristau-erara biurtzea edo biurtzeko aalegiñak egitea.

Ba-daukez euren ardurapean beste egikizun batzuk be: eskolak, geisotegiak eta abar egitea; astiro-astiro elizatxo barriak jasoten be ba-diardue...

Egiteko guztiok egoki ta ondo egiteko, geure laguntasuna eskatzen dauskue gaur, batez be geure erreguen laguntza, ango bizilagunen artean gorputz-arimako fruturik aundiena lortu dagien, Jaunaren bedeinkapenez.

Maitasuna ta Eukaristia

(Eguen Santuz naiz Gorputziz)

1.- «Neu maite izan zaituedanez» (Jn 13, 34).

Aitak naiz amak, il-zorian dagoala, bere seme-alabak, onei bere maitasuna erakusteko eta bere azkenengo naiak agertzeko, batzen dauzanez, Kristok be agur egiten dautse bere apostoluai azken-aparitan. Eta, oiñordetzat, maitasun-agindua izten dautse: «Agindu barri bat emoten dautsuet: alkar maite izan dagizuela; nik maite izan zaituedanez, zeuek be alkar maite egizue. Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean» (Jn 13, 34-35).

Orixe da kristautasunaren lege nagusia, kristauaren ezaugarria. Beste onoinen batzuetan jarri eikean Jesukristok agindu nagusia: apaltasunean, negurritasunean, emonkortasunean...; baiña batez be alkar-maitasunean izan gaitzezala ezagutuak nai dau Kristok. «Agindu barria». Ona emen agindu barrikuntza: «neuk maite izan zaituedanez». Edo bardin dana, eriotzararteko maitasuna: «Bizia bere adiskideen alde emotea baiño maitasun aundiagorik ez dago» (Jn 15, 13). Jesusek guztien alde emoten dau bere bizia. Olakoxeak izan bear dau lagun-urkoaganako gure maitasunak: guzti-guztiak maite izan, eragozpen guztien gaitetik igarorik; gure aurkakoak be bai, arerioak be bai, gorroto dauskuenak be bai, guzur-baltzaz zikintzen gaituenak be bai (Mt 5, 43-46). «Neuk maite izan zaituedanez». Eta bein-betiko maitasun-ezaugarri bi izten dautsez Apostoluai: oiñak garbitzen dautsez eta Eukaristia emoten dautse.

2.- Kristo, zerbitzari.

Ez da gaitz Apostoluak mirarrituta geratzea Jesus euren aurrean belauniko eta, morroi bat lez, eurai oiñak garbitzen ikustean. Jesusen bizitza guztia labur-labur artzen dauan egikerea da ori; izan be, ez zan otseindua izatera etorri, zerbitzera baiño. Ona emen bere berbak:

«Gizaseme au be ez da zerbitzariak eukitera etorri, zerbitzari izatera eta bere bizia guztien askatasunaren ordaintzat emotera baiño» (Mk 10, 45). Eta Jauna da; Jaungoikoa da belaunikotzen dana ta zerbitzen dauana. Benetako maitasunak enparaduak zerbitzeko ezaugarria dauko beragan. Eta zerbitzu orrek geure bizikera guztian izan bear dau: etxean, kalean, lanean, adiskidetasunean. Eta orrek auxe adierazoten dau: alkar ondo eroatea; enparaduen ardurea izatea, geure buruaz be aaztuteragiño; iñoren utsak ez-ikusi egitea; gauza txikien gairietik igarotzea; edonor txera onez artzea; edonori abegi ona agertzea; premiñan dagoanari laguntzeko astia artzea; iraiñak parkatzea; eta kristau-maitasunak eskatzen dauzan orreintzeko beste egitada asko burutzea. «Ikasbidea emon dautsuet —esan eutsen Jesusek—: nik zuei egin dautsuedanez egin bear dozue zeuek be» (Jn 13, 15). Kristogana begiratuta, errazago egiten yaku zerbitzea.

3.— Euskaristiako beeratzea.

Maite izatea, norbera emotea da. Eukaristian, maitasun-zorakeritan lez emoten dausku Kristok bere burua. San Joan Ebanjelariak diñoana: «Eta Jesusek munduan egozan bereak beti maite izan ebazan ezkerro, azken-azkenerarte izan ebazan maite» (Jn 13, 1). Ez dau «eriotzararte» esaten; beste au esan nai dau: «eriotza baiño aruntzago», geugaz geratzen da betiko-ta. Eta beeratu egiten da Eukaristian, Apostoluen oiñak garbitzean egin ebanez. Maitasun-ikasbidea. Eta maitasun eta batasun-oiñarria gure artean: gu Kristori alkartzea —Jaunartzea— Aren Gorputz Mistikoaren atal guztiakaz lokarriak estutzea da.

Ausnartu dagigun Jaunak persona baxotxa zenbat maite dauan: bardin-bardin emoten dautse guztiai bere burua, ogi ta ardaoaren itxurapean. Eukaristia, ain zuzen be, maitasun bete-betea da.

Erantzun daiogun bere maitasunari geure maitasunaz.

(I) Bagillak 29:

San Pedro ta San Paulo

1.— Artu dogun fedeari eutsi.

Jaungoikoaganako sinismenak Jesusen ikasle biak eriotzara eroango dauz, Erroma'n: Galilea'ko arrantzale laua: Pedro, eta kristau biurtu aurretik kristauak aurrean erabili ebazana: Paulo.

Gaurko liturjiak sinismena ausnartzera egiten dausku dei. San Paulo, bere odol-isurtearen aurrean, Jaunagan arrotu egiten da urrengo au esatean: «Burruka ona egin dot, amaitu dot nire ariñeketea, gorde dot sinismena» (Tm 2^a, 4, 7). Ondasunik aundienetarikoa, izan be, sinismena. Eta bere ikasleari, San Timoteo'ri, auxe eskatzen dautso San Paulok: «Baiña zu, zagoz sendo ikasi ta sinistu dozun guztian, irakatsi eutsuen guztia gogoan arturik» (Tm 2^a, 3, 14). Orixe berori San Pedrok be Erroma'ko bere ikasleari: «Gogor egiozue [deabruari] sinismenez, lurrean dozuezan anai guztiak neke bardiñetan dagozala jakiñik» (P 1^a, 5, 9). Eta San Joan Ebanjelariak: «Auxe idazten dautsuet Jaungoikoaren Semearen izenean sinisten dozueno, betiko bizitza daukazuela jakin dagizuen» (Jn 1^a, 5, 13).

Orixe da sinismena. Elizearen oiñarri egiña izan danaren burubidea: bera da, Pedro, Jesusen jarraitzaile guztiak sinismenean sendotu bear dauzana. Auxe irakurten dogu «Apostoluen Egiñak» izeneko liburuan: «Apostoluen irakatsian, bizi-alkartasunean, ogia zatitzean eta otoitzean arduratsu irauten eben» (Ap 2, 42). Eta gaurko Mezako otoitzean be: «Egizu, zure Elizeak jarraitu dagitsela sinismenari asiera emon eutsoenen aginduai».

2.— Elizea, irakasle.

Sinismena / ezaguera guztiz ziurra da. Izan be, sinismena ez da giza-errazoietan oiñarritzen: sinismena / agertzen emoten dauan Jaungoikoaren izenean oiñarritzen da. Sinismenak —moralak lez— Jaungoikoaren egian daukaz oiñarriak, eta, beraz, ezin aldatu daiteke. Orain bi milla urte, Jesukristoren eta Apostoluen aldi, fedeko egia zana, sinistekoa zana, orain be sinistekoa da. Elizeak ez dau aldatzen, ezin aldatu daike, bere Kredoa. Antxe dagoz Jesukristoren oiñarritzko legeak.

«Gauza batzuk, leendik ona, aldatu egin dira», esan daike norbaitek. Oiñarritzko egiak ez dira aldatu, ezin aldatu daitezke. Azalezko egikerak bai, orreik aldatu daitezke, gaurko egunai dagokienez eta gaurreguneko kristauen onerako izan ezkerro. Adibide bi, geure bizitzaldian

ezagutuak: leen, Jaunartzerako, gabeko amabietatik aurrera baraurik egon bear izaten zan; orain, barriz, jan naiz edan daiteke Jaunartu baiño ordu bete leenago, eta, irurogei urte dabe-zanak, ordu lauren leenago. Beste adibide bat: leen, Meza osoa domeketan entzun bear izaten zan; orain, barriz, zapatuetan entzunaz be beteten da Elizearen leenengo agindu ori. ¿Zetako aldakuntza orreik? Kristauai erraztasunak emoteko, Jaunartzea ta Meza-entzutea eliztarrai errazago egiteko, geure onerako.

Eskatu daiogun Jaunari Aita Santuaren alde, Jesukristoren ordezkariaren alde: Jaunak argitu ta indartu dagian. Geu be aren irakatsietan sendo iraun dagigula.

(II) Bagillak 29:

San Pedro

Elizearen leenengo Aita Santuaren eguna ospatzen dogu gaur.

Ondo dakizueuz, Elizearen agirizko buru / Aita Santua da, ikusten ez dan buru / Jesukristo dala.

Pedro / Elizearen agirizko leenengo buru, eta gero, aren ostean, Erroma'ko Gotzaiña, Aita Santua. ¿Zegaitik Erroma'ko gotzaiña? Ango leenengo gotzaiña Pedro izan zalako, eta gero gozain guztiak / Pedoren ondorengoak.

«Zu Pedro (Arria) zara —dirautso Jesukristok—, eta arri orren gaiñean jasoko dot nire Elizea, eta ilobiko indarrak ez dau azpiratuko» (Mt 16, 18). Orixe da Aita Santua, Pedoren ondorengo, Elizearen buru, Kristo Jaungoikoaren argiz eta indarrez Elizea zuzentzen dauana, kristau guztion arima-zaintzaillea, agintari nagusi ta aita. Beragandik artzen dabe agintaritzta munduko gotzain edo obispo guztiak, eta bere esanera jokatu bear dabe: Aita Santua, Elizearen buru lez berba egiten eta irakasten dauanean, utseziña dalako, Aita Santuak Elizearen gaietan ezin daikelako utsik egin. Berak dauko azken-itza, azken-berbea, oitura on eta moral-gaietan. Osterantzeko gaietan, esate baterako, politika-gaietan naiz beste edozein gaietan, uts egin daike beste edozein jakitunek lez, baiña iñoiz be ez Elizearen buru ta irakasle lez, maisu lez, irakasten dauanean.

Aita Santua ez da osterantzeko gaietan sartzen; orretarako bere ingurukoak agertzen dabe euren eritxia, naiz ta batzuetan Elizearen arerioak Aita Santuari jaurti errua.

Jesus Jauna: argi egin daiskula beti zure egiak, zure Barri Onak, Ebanjelioak, zure ordezkoko dan Aita Santuaren bidez zuzentzen gaituan irakatsiak. Emon egiguzuz orretarako zure laguntza ta indarra, beti zeure jarraitzaille zintzo lez jokatu dagigun.

Garillak 4:

Berrio-Otxoa'tar Balendin Deuna

(Loiola'ko Iñazio Deunagaz batera, Bizkai'ko Zaindari Nagusia)

Gaur, geure erritar baten eguna ospatzen dogu, Balendin Santuaren eguna. Esan dagitzuedan, ba, zerbait, labur-labur, Berrio-Otxoa'ri buruz.

«Antzuolatarra zan zure ama, Elorrio'koa zure aita, Bizkai-giputsen goragarria», diño «Agur, Balendin» abestiak. Bere aita, Gasteeta'ko jauregi ederrean jaio zan, eta arotzerian egiten eban lan. Eta gure Balendin'ek be, eskolatik urten zanean, bere aitari egin eutsan lagun, aren biziarea aurrera eroateko. Bitartean, barriz, Santa Ana mojetxeko sakristau egiten eban.

Gazte alai ta bizkorra gure Balendin, pelotan jokatzen ondo ekiana, baita «Aureskua» egiten be.

20 urte ebazala, eta bere barruko gogoari jarraiturik, Logroño'ko Seminaria joan zan, abade-ikaskizunai jarraitzera (asierak Santa Ana'ko dominikar prailleak emon eutsazan).

Bost urte geroago, Abadegintza Sakramentua artu eban, abade egin zan. Guztiak, ordukoxe, santutzat eben, eta bertako Gotzaiñak be, bere Elizbarrutiko abade guztietarik onzaleena Berrio-Otxoa zala esaten eban.

Baiña Balendin'ek, abade baiño praille izatea naiago eban, gero Misiñoetara joan aal izateko; eta orretarako, Toledo'n dagoan Okaña'ko dominikar prailletxera joan zan. Elorriarrai agur egiterakoan, auxe esan eutsen: «Nire burua santu egitera noa, Bizkaiak Santu bat izan dagian».

Gero, Manila'ra ta Tonkin'era (Txaiña'ra) bialdu eben.

31 urte ebazala, Tonkin'go Gotzain egin eben; eta iru urte geroago, 34 urte ebazala, 1861'garren urteko zemendiaren 1'ean, samea ebagi eutsoen, Jesukristoren Gurutzea zapaldu nai ez ebalako.

1906'garren urtean, Aita Santu Pio 10'garrenak Elizako Doatsu egin eban, eta 1988'garren bagillaren 19'an, Aita Santu Joan Paulo 2'garrenak Santuen lerroan ezarri eban.

¿Zer egin guk bere omenez? Bere irakatsirik audienari jarraitu, edonoren aurrean Jesukristoren eta Elizearen alde egiñik. Berrio-Otxoa'k pauso bat be ez eban geiago emon, Gurutzea zapaltzeko agindu eutsoenean. Axe izan zan, benetan, Gurutzearen alde jokatzeara!

Balendin Santua: artu egizu zure zainpean Elorrio zure erria, Bizkai guztiagaz batera.

Garillak 25:

Santiago Apostolua

1.— Jesukristo gure Jaunak Zebedeo-ren seme biai, «Nire edontzikoa edango dozue, bai» iragarri eutsen; —judarren esaerea da ori—, edo bardin dana, nigaitik aurrean erabili ta iraindu egingo zaitue, eta eriotza emongo dautsue. Ain zuzen be, Santiago / martiri il zan Jerusalem-en, 44´garren urtean; bere odola isuri eban leenengo Apostolua izan zan.

Ikasbide ona da ori geuretzat be, Jaunak aukeratu ebazan amabi apostolu arein obenak eta utsak ikustean. Ez ziran aaltsuak, ez jakintsuak, ez trebeak, ez aberatsak, ez aundikiak. Aundi-zaleak zirala ikusten doguz Ebanjelioan, eztabaidazaleak, sinismen otzekoak. Santiago odol-berokoa zan, eta Jesusek «trumoi-seme» dirautso, baita asperkunde edo benganza-zalea be, eta orregaitik Jaunak asarre egiten dautso (Lk 9, 54-55). Alan be, geroago, martiri ilten da Kristogaitik, bere bizia emoten dau Kristoren alde.

2.— Apostoluak arelako akats edo obenak eukiarren be, Jaungoikoaren graziak mirariak egiten dauz, gizonak laguntza orri ondo erantzuten ba´dautso. Egoki diño San Paulok «Ondasun au [Jainko-aintzaren ezaguera au] lurrezko ontzietan daroagula» (Ko 2ª, 4, 7), lurrezko ontzi gareala, apurtu daiteken ontzia, barruan ondasuntegia artu daikena, geure makaltasunarren be gizonen bidez Jaungoikoak mirariak egin daikez-eta. Eta orrexegaitik, ain zuzen be, «munduko burubageak aukeratu dauz Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko; eta gizarteko makalak aukeratu dauz Jaungoikoak, indartsuak lotsaz izteko; eta gizarteko zabor, ondar, ezer ez dana aukeratu dau Jaunak, zerbait dana ondatzeko, Jaungoikoaren aurrean iñor arrotu ez daiten» (Ko 1ª, 1, 27-29). Orixe idazten dau San Paulok, kristauak aurrean erabili ebazanak berak. Jaungoikoak eragille egiten dau gurutzea artzen dauana, Nekaldiko edontzikoa edaten dauana, bere gorputzean Jesusen eriotza daroana.

3.— Gogo onaz iraun. Batzuetan, on dan zerbait egiteko asmotan gagozala, gure guraria beteteko orduan aurkitu daikeguzan eragozpenakaitik, kikilduta ta motelduta geratu gaitkez. Baita, batzuetan, gure lepotik barre ta iseka (burla) be egin daikee, eta nekeak be eroan daikeguz. Baiña Jaunak ez gaitu bertan-beera izten, eta San Paulogaz batera esan daikegu: «Atsekabe askotan gabiz, baiña itota ez; larri bai, baiña ustea galduta ez; aurrean erabiliak, baiña eskutik itzita ez; beeratuta, baiña galduta ez. Jesusen eriotza gorputzean daroagu beti. Jesusen bizia be geure gorputzean agertu dadin» (Ko 2ª, 4, 9-10).

Jauna geugaz dago. Eragozpenen aurrean, ikasi dagigun Apostuluakaz esaten: «Gizonai baiño Jaungoikoari esana egitea bidezkoago izan bear!» (Ap 5, 29).

Guztiok izan gaitkez eta izan bear dogu apostolu, Kristoren apostolu, berbaz eta egitez, batez be enparaduai ikasbide ona emonez, guztien aurrean Kristau-jokabide zintzoa agertuaz.

Aztertu dagiala bakotxak norbere jokabidea zuzena ala okerra dan.

Garillak 31:

Loiola´ko Iñazio Deuna

(Gipuzkoa´ko eta Bizkai´ko Zaindari Nagusia)

Nire entzule zintzook: Geure euskaldun aberkide baten eguna ospatzen dogun ezkerro, bere bizitza irakurriko dautsuet, labur-labur. Ez nakizue aspergarri izango.

San Iñazio, 1491´garren urtean jaio zan, Loiola´n, bere jatorri-etxean. Gipuzkoa´ko jatrorrik entzutetsuenetarikoa zan. Bere bateo-izena Iñigo izan zan; ain zuzen be, izen ori erabili eban zerbait izenpetzen ebanean. Baiña gero, Jaunagana biurtu zanean, izentzat Iñazio artu eban, Antiokia´ko Iñazio martiri santuari eutsan oneraspen (edo deboziño) aundiagaitik.

Gaztetan, gudari-bizitza aukeratu eban, eta kapitana izateraiño eldu zan. Milla bosteun eta amaikagarren urtean, Kastilla´ko soldaduak, Duke de Alba buru ebela, Naparroa´n indarkeriz, saldukeriz, arrapakeriz, lapurkeriz eta zuzenbagekeriz sartu ziranean —Naparroa´ri beronen burujabetasuna ta askatasuna kendu eta España´ren menpean jarteko—, gure Iñigo Iruña´n ikusten dogu. Baiña, an egoala, kañoi-bala batek bernan zauritzen dau. Orduan, ogetxo baten artu eta bere etxera, Loiola´ko gaztelura, daroe. An, bernea osatzen yakon artean, liburu bat irakurten dau, “Flos Sanctorum” izenekoa, latiñez idatzita, (euskeraz “Santuen Lorak”). Ain zuzen be, orduantxe konturatu zan / kristau izanarren be, okerreko bidea artu ebala, militar-bizitzari jarraiturik; mundu-zalea zala, arroa zala, militar-bizitzak zuzenbagekeri asko eukazala beragaz, bide gaiztotik yoiala, betiko bizitza galtzeko arriskuan... Eta auxe esan eban berekautan: «Aurrerantzean, Jauna izango da nire Jaun bakarra; Jesukristoren gudari izatera aldatu eta bere menpean bizi izango naz, Jaunaren menpean bizi izatea baiño askatasun aundiagorik ez dago-ta».

Esan eta egin: osatu zanean, militar-bizitza alde batera itzirik, leenen / Arantzazu´ra joan zan, Andra Mariaren oiñetan bere burua eskintzera. Gero, Katalunya´ko Montserrat´era eta andik Manresa´ko artzulora (kobara), leengo bizikereaz damutzera eta penitentzia egitera. Andik Paris´era joan zan, eta, Jaunaren argiz, Lagundi bat sortu eban. Jesusen Lagundia,

orduko erejeen aurka eta Elizearen alde egiteko. Ondo be ondo ulertu eban gure Iñigok San Paulo Apololuak Erroma'koai egindako idazkian dakarrena: «Jaungoikoa geure alde izan ezkeru, ¿nor gure aurka?» (Erm 8, 31).

Batetik bestera dabil gure Iñigo / Jaunarentzat jarraitzaille barriak batzen. Alcalá de Henares'ko Unibersitate entzutetsura be joan zan. An eskua ezarri eutsoen, erejeren bat zalakotan, eta espetxean (kartzelan) sartu eta an euki eben españar agintariak bederatzi egunean. Espetxetik urten zanean, Loiola'ra etorri eta bere etxeko ta senideai agur egiñik, Erroma'ra joan zan.

Arimen onerako, "Gogo-jardunak" deritxon liburua idatzi eban, aurrerantzean mundu guztian oso ezaguna.

Beronek ekarri eban Xabier'ko Prantzisko euskalduna bide ohera, Paris'ko Unibersitatean ikasten ziarduala; au be Elizearen santurik aundienetarikoa dogu, Misiño guztien Zaindaria.

San Iñazioaren goiburua auxe izan zan: «Jaungoikoaren aintzarik aundienerako». Erroma'n il zan milla bosteun eta berrogeta amabosgarren urtean, 65 urte ebazala. Aita Santu Pio 11'garrenak Gozo-jardunak egiten dabezanen Zaindari egin eban.

Auxe izan zan gure San Iñazio, San Pauloren antzera, Kristoren jarraitzaille adoretsua.

Ikasi dagigun beragandik bere elburua aurrean izaten; egun-barruko gure arazo guztiak, gure egiteko guztiak, gure lan guztiak, Jaunari eskintzen, Jaungoikoaren aintzarik aundienerako. Asmo orreaz jarriko doguz garbi egunoroko gure lanak, Jaunaren aurrean lan baliotsu aurkezteko. Berak emon daiskuzala orretarako etenbagako indarra ta adorea.

(I) Dagonillak 15:

Andra Mariaren Zerura Jasotea

1950'garren zemendiaren 1'ean, Aita Santu Pio 12'garrenak Andra Mariaren zerura jasotea kristau-fedeko siniskaria zala erabagi eban, berba onekaz: «Jaungoikoaren Ama orbanba-gea ta beti Birjiña Maria, lur onetako bizitzaldia bete ostean, gorputz-arimaz zeruko aintzara jasoa izan zala / Jaungoikoak agertutako egia dala erabagi, irakatsi eta ebazten dogu».

Ez dira bardin Jesusen zerura igoera eta Andra Mariaren zerura jasoea: Jesukristo bere indarrez igo zan zerura, bere Aitagana; orrexegaitik esaten dogu Jaunaren zerura igoera. Andra Maria, barriz, ilda bereala, zerura jasoa izan zan, baiña ez bere indarrez eta aal-izatez, Jaungoikoaren indarrez eta aal-izatez baiño; orregaitik, jasoea edo jasotea esaten dogu. Igo, norbera egiten da, norbere indarrez; jaso, barriz, gauza bat beste batek, beste indar batek. Alan, ba, Jesukristo bere indarrez igo zan zerura, Jaungoikoa zan-eta; Andra Maria, barriz, Jaungoikoaren indarrez, zerura jasoa.

Andra Mariaren omenez egiten dogun jai au aspaldian be aspaldian ospatu izan dau Euskalerrriak. Eundaka eliza eta baseliza daukaguz euskaldunok Andra Mariaren izenaz, Andra Mariari eskiñita; Elorrio'n be bai: Gazeta'ko Andra Mari.

Gure asabak lez, gure aurretikoak lez, izan daiogun geuk be benetako maitasuna Andra Mariari, zeruko gure Ama ta Erregiñari; gure biotza beretzat toki aukeratua izan daitela, beragaz beti bat eginda egon gaitazan. Zuetariko guztiok dakizue abesti au: «Baiña zugandik alde / biotzak ezin dau, / zuregana dijoa, / zukan bizi nai dau. / Birjin paregabea / bedeinka nazazu. / Agur, Ama nerea, / Agur, agur, agur».

Azken-ordua, eriotzako ordua, eldu dakigunean, izan daiguzala gure ezpanetan eta biotzean Jesusen eta Andra Mariaren izen goragarri ta maitetsuak: mundu onetan Eurak maite izaten bizi gareanok, beste munduan be, betiko bizitzan be, eurakaz eta euren ondoan zoriontsu bizi gaitazan. Orixe opa dautsuet guztioi.

(II) Dagonillak 15:

Andra Mariaren Zerura Jasotea

Uda-erdian, Elizeak Andra Mariaren zerura Jasokundea agertzen dausku. Andra Maria, bere Seme Jaungoikoak, zerura daroa. (Irakurri siniskari au aurreko berbaldian.)

Andra Mariaren seme dan Jesusen garaipena da; Berak egin eban Orbanbage sortzeko leenengo unetik bizi guztian, eta zeruko garaipenera eroan eban. Nazaret'eko Mariaren bizitza / eriotzaz amaitzen da Jerusalem'en, eta jarraian, zerura jaso, gorputz-arimaz zerura eroana.

Aita Santu Paulo 6'garrenak olantxe azaltzen dausku misterio au: Egun au, Mariaren osotasun eta zeru-poztasun jai da. Jesukristoren urrengo, Maria dago goi-mailla orretan, Jaungoikoaren ondoan.

Egun au, Mariaren arima orbanbagearen eta Aren gorputz garbiaren gorapena da. «Gutziz aaltsua dan Arek, izena Santu dauan Arek, nire alde arrigarriak egin dauz», diño Mariak "Magnificat" izeneko abestian (Lk 1, 49). Gaurko egunez autortzen eta goratzen doguz arri-garriok, miragarriok.

Maria / Kristoren antzeko egiten da: Kristo biztua eta zerura igoa; Maria be Jaunak biztua eta zerura eroana.

Olantxe ikusi eban Maria San Juan Ebanjelariak, "Agerpena" izeneko bere liburuan dirauskunez: «Eta ezaugarri aundi bat agertu zan zeruan: emakume bat eguzkiz jantzita, oinpean illargia eta buruan amabi izarreko koroea ebazala» (Ap 12, 1).

Gaurko egunez, Andra Mariak geuri be gora igoteko egiten dausku dei, Kristoganuntz joateko. Kristoren antzeko gara; izan be, pekatuan izan ezik, Kristo geure antzeko egin zan, San Paulok dirauskunez: «[Jesus] pekatuan izan ezik, geure antzera izan zan zirikatua» (Ebr 4, 15).

Andra Mariaren gorapena ospatzen dogu; geure gorapena be opa izan daiogun gure buruari.

Andra Mariaren zerura Jasokundea / azken-itxaropena betetearen irudi ta agiri pozgarria da, diño Aita Santu Paulo 6'garrenak; Kristo biztu ba'da, beragaz biztuko gara. Kristok Andra Maria zerura eroan ba'dau, geu be eroango gaitu. Orixe da gure itxaropena, itxaropen bizia.

Ez dakigula atzamatu inoiz be itxaropen ori, gure barruan eguncan-eguncan biztu dagigula baiño: orretarako, Andra Mariaren bitartez, Jaunari egunoroko laguntza eskaturik.

Or daukaguz Arantzazu'ko Andra Mari, Begoña, Itziar, Izaskun, Estibaliz, eta beste eun.

Andra Mariaren omenez egiten dogun jai au, aspaldian be aspaldian ospatu izan dau Euskalerrriak. Emen dozue zeuek be zuen asabak (aurretikoak) Andra Mariari eskifitako Gazeta'ko Andra Mari baseliza au be. Erdian dagoan irudia 17'garren mendekoa da, orain irureun urtekoa; or sarreran, barriz, leen beste irudi bat egoan; baiña zerenak janda auts biurtzen yoian; 14'garren mendekoa zan; beraz, seireun urte ba-ebazan; eta 1922'garren urtean, Aramaio'ra eroanik, irudigille batek aren antzeko barri bat egin eban, orain or ateburuan dagoana.

Agurtu ta goretsi dagigun zeruetako gure Andra Mari, eta aren irudi dogun Gazeta'ko Andra Mari: «Agur, Jesusen Ama, Birjiña maitea; agur, itsasoko izar diztiratzaillea; agur, zeruko eguzki, pozkidaz betea; agur, pekatarien kaia ta estalpea».

Misiñoen eguna

Gaur, mundu guztiko sinismen-zabaltze eguna dogu, Misiñoen eguna. Urteoro egun au dauko gure Eliza Deunak mundu guztian Misiñoentzat eskifita: gure otoitzak, eskariak, opariak, nekeak eta limosnatxoak Jaungoikoari egiteko, munduko errialde guztietan kristausinismena zabaldu daiten, Ebanjelioko argia oraindiño artu ez daben tokietan, edo artuta be, arekan iraun dagian. Gaurko egun au Aita Santuak izentatutako eguna da, Misiñoen alde egiteko, Misiñoai geure laguntza emoteko.

Millaka misifolarik eskatzen dauskue gaur gure laguntasuna: errekuak eta limosnak eskatzen dauskuez. Lenen eta bein, otoitzak, eskariak Jaungoikoari. Jesus Umearen Teresa-txok, bere moja-etxetik erregutuaz, beste edozein misifolarik baiño arima geiago zeruratu ei'ebazan, eta ori 25 urte ebazala il zala.. Orregaitik, Aita Santuak Misiñoen zaindari egin eban. Jakin egizue, gure errekuak eta neke-samiflak Misiñoen alde eskintzeko egintzarik ederrenak eta baliotsuenak dirana.

Gero, barriz, geure limosnen eske dagoz Misifolariak. Limosnea egitea be otoitz, erreku egitea da, eta erreku baliotsua izan be, geuk daukaguna edo geurea dana emotea zerbait kosta egiten yakulako.

¿Zetako gure limosnak? Gauza askotarako: euren joan-etorriak ordaindu bear dabezalako; geisotegiak, etxeak, elizak, eskolak eta ikastetxeak egin bear dabezalako, beartsuai janaria emoteko, erdi-billoizik dagozanak jantziteko, ez dakienai irakatsia emoteko... milla gauzatarako.

rako.

Misiñolariak eurentzat be bai, baiña geienbat enparaduentzat eskatzen dabe. Kristogana-ko garrak bultza eginda joan dira urriñetako errialdeetara, arimak betiko bizitzara eroateko gurariz.

Guk ez dogu ara joateko adorerik izan; baiña arei laguntzeko beartuta gagoz, guztiok Eliza bat eta Gorputz bat egiten dogu-ta, gorputz onen buru Jesukristo dala.

Zelan-alan, bakotxak bere erara eta aal dauanez, Misiñoai laguntzeko eskatu euskun, biotzez eskatu be, Batikano´ko Batzar Nagusiak: Misiñoai laguntzea guztion eginbear astuna dala; lurralde areitan bizi diranak be, geu lez Jaungoikoaren seme-ordeko izanik, geroko bizitzan zoriontsu izateko geuk aiña eskubide dabelako.

Ekarri gogora Jesusen berbok: «Emaztea, anai-arrebak, gurasoak, seme-alabak naiz lurra- neugaitik itzi dagizanak, irabazitzat bateko eun jasoko dau eta betiko bizitzako oiñor- detza» (Mt 19, 29). Orrexen antzekoa egin dabe misiñolariak: euren guraso ta anai-arreba- kandik urrindu, euren Aberria ta beroni dagokiozan ekandu, oitura, izkuntza eta eurak geien maite dabezan beste gauza guztiak Jesukristogaitik alde batera itzirik, uringo lurraldeetara joan.

Beraz, geuk be misiñolarien arazoan parte-artzaille izan gaitez; gaur eta baita beste egunetan be, gogoan izan dagiguzan Misiñoak, gure otoitzak, eguneko lanak eta neke-sami- ñiak Jaunari euren alde eskintzeko, eta, areik lez, geuk be Jesukristoren betiko agintzaria lortu aal dagigun.

San Agustin´go eliztarrai agur egitea

(1985-XI-24)

Nire eliztar eta osterantzeko entzule zintzok: San Paulok bere idazkietan —geienetan idazkien asieran— eskerrak emoten dautsaz Jaungoikoari Jesukristoren bitartez izan dauzan mesedeakaitik.

Neuk be, gaur, eskerrak emon bear dautsaz zeruko Aitari ainbat eta ainbat mesedegai- tik: esate baterako, zuen artean ainbat urtetan egoteko osasuna emon daustalako; eskerrak / zuek Kristogan dozuen sinismenean sendo iraun dozuelako; eskerrak / zuekandik artu doda- zan laguntza guztiakaitik be.

Gaur, abade arduradun barria aurkezten dautsuet: Don Felix Orobiourrutia, Iurreta´ko

Orobio auzunako semea.

Orain arte, neu izan nozue arduradun. ¿Ondo bete ete-dot nire eginbearra? Geisoaldietan izan ezik beintzat, beti izan nozue emen domeka ta jaiegunetan. Onetan ez dautsuet utsik egin. Baiña, zuei Jesukristo gure Salbatzaillea ezaguerazo ta jakiñerazoteko, ¿aalegin guztiak egin ete-dodaz? Parkatu egin bear daustazue / orretarako aalegin guztiak ez dodazala jarri ba´dirautsuet; baietz esango ba´neu, ez neuke egia esango. Izan be, San Agustin´go eliztarrek neure ur-urreko ta ardurapeko eliztarrek izan zaree, bai; baiña esku-artean beste lan batzuk be erabili dodaz, geien-geienetan Bizkai´ko eliztarren onerako izan diran lanak: esate baterako, “Jesukristoren Barri Ona”, “Alkartasun Barria”, “Elizearen Otoitza” (igaz emon neutsuen liburua), “Biblia” osoa, eta abar. Orreixek izan dira nire lanik biotzekoenak.

Jakiña, gaitz izaten da —edo ezña— gauza guztietara, arazo guztietara eltzea, ondo eltzea; nekeza guztien gogoa egitea be. Orregaitik, ba, eskerrak emon bear dautsuedaz barriro be amazapi urte oneitan —eta leen be beste bost urtetan— ondo artu nozuelako. Onetan, neuk be egin dodaz aalegiñak zuek ondo artzen. Alan be, ba-daiteke batzui ikasbide ona ez emotea be. Abade izanarren, ez gara santuak; miraririk be ez dogu egiten. Ba-daiteke, ba, abade-eredu zeatza izan ez nozuelako, edo noizbait norbait mindu dodalako, edo norbaiti garratzegi erantzun dautsadalako, edo bere gogoa beti bete ez dodalako, edo beste edozegaitik, ni zuei buruz zorretan geratzea. Onelakorik ba´da, ziur nago parkatuko daustazuena, ba-dakit zintzoak zareena-ta. Nik zuei, barriz, ez dautsuet ezer parkatu bear, ez daustazue ezertxo be zor-eta. Zorrik izan ezik, barriz, ezer parkatu bearrenik be ez.

On guztia opa dautsuet, on guztia guztioi, banan-banan. Eta Jaunari auxe eskatzen dautsat biotzez: aurrerantzean be sendo iraun dagizueta Jesukristoren jarraitzaille zintzo izaten eta egunean-egunean Kristogan dozuezan sinismena, itxaropena eta maitasuna geitzen.

Jaunak bedeinkatu gagizala guztiok: abade arduradun barria, zuek eta ni.

BESTE BERBALDI
ETA
OTOITZ BATZUK

(OARRA: orain datozen gai batzuk Francisco García Salve´ren "Pezyunque" liburuan oñarrituta dagoz. "GS" ikurra jarri dautset.)

* * *

Jesukristo

(GS, 379 orri.)

1.- «Jesukristori erion indarrak guzti-guztiak osatzen ebazan» (Lk 6, 19).

Ori zeuk bear dozuna da, ¿ezta? Baita neuk be, eta guztiok.

Orregaitik, Aren ondo-ondoan, Aren biotzaren taupadak entzun dagizuzala,

Aren begiakana adiskide-maitasunez begira egon aal zaitezala,

Aren eskuari oratu dagiozula bizitzako zalekeriak irunsi nai zagiezanean.

2.- «Zuek neure adiskide izango zaree, agintzen dautsuedana egiten ba´dozue» (Jn 15, 14)

Zu Jesukristoren adiskide zara:

– zeure anai-arrebak maite ba´dozuz, beartsuak batez be

– zure begiak garbiak ba´dira

– zuzentasuna odolaz gordeten ba´dozu

– egian bizi ba´zara.

Zorionekoa zu, benetan, Jesus zeure adiskide lez ba´dozu!

Ez egizu iñoiz be itzi. Zorionsua izango zara.

3.- «Irakasle, ¿non bizi zara?» (Jn 1, 38)

Adiskideak alkarregaz egon nai izaten dabe, alkarri gaiak esateko, norbere buruaustek eta gora-beerak azaltzeko, alkarregaz barre egiteko, eta abar.

—¿Non bizi zara, Jauna?

—Leku askotan, adiskide:

– geisotegietan oso itun (triste)

– uri-batzarretan bertan-beera itzita

– beartsuakan oso beartsu

– aberatsakan oso ezetsita

– gazteakan oso baztartuta

– sagrarioetan oso bakarrik.

– Anai bat dagoan tokian, antxe nago ni.

4.- «Jauna, zeu ba´zara, zeugana joateko agindu egidazu» (Mt 14, 28)

Zeu ba´zara...

Izan be, sarritan, zeu ez zagozan tokira noa, galtzeko arriskua daukadan tokira.

Zeu ba´zara, Jesus, nire adiskide aundi ori, zeugaz egon nai dot, zeugaz egon.

5.- «Onezkero ez dautsuet morroi esango, adiskide baiño, nire Aitari entzun dautsadan guztia jakiñerazo dautsuet-eta» (Jn 15, 15)

Jesusi adiskideak eukitea yako atsegin. Arei bere ezkutuak esatea.

Ez itxi zure biotzeko atea Aren adiskidetasunari.

Jesus izan daitela zure adiskide aundia, Jaungoikoaren ezkutuak ezagutu dagizuzan.

6.- «Jaungoikoaren doaia ezagutu ba´zengi, eta "ura emon egidazu" esan dautsuna nor dan ba´zeki, zeuk eskatuko zeuskio Ari» (Jn 4, 10).

Deadarka eskatzen dautsut, Jauna, basamortuan areaz eta eguzkiaren beroaz egarri dan gizonak lez.

Emon egidazu, Jesus, zure ura, nire egarria baretzeko.

Zeure ur otza bear dot odolak pil-pil egin daistanean eta zalekeriak eta griña txarrak nire bekokia erre daistenean.

Zeure bizi-ura bear dot, mundu onetako gora-beeretan izerditan zelan urten eziñik egon naitenean.

Zeure ur bizia, Jauna, nire gazte-egarrirako.

7.- «Neu naz bidea, egia ta bizia. Aitagana ez doa iñor neure bitartez izan ezik» (Jn 14, 6).

Zeu zara, Jesukristo, nire bidea, nire egia, nire bizia.

Zeu zara nire izateari zentzuna emoten dautsana.

Zeugaitik egiten dot burrukan nire zalekerien aurka.

Zeu zara zutik eusten daustan indarra.

Zeu zara nire espirituaren bakea, nire inguruan aausika (zaunka) diarduenen artean.

Zeu zara erbeste onetan nire biotzeko adiskidea; nire naibagean, poza; nire jausi-aldietan, itxaropena.

Zeu zara nire bidea, nire egia, nire bizia.

Nire pentsakerak zeure pentsakerak izan daitezala eta nire bizikerea zeure bizikerea. Zeuk maite dozuna maite dot nik eta zeure lorratzak zapaltzen dodaz bildur bagarik, begiak itxita.

Zeugan dot uste oso-osoa.

Jesukristo: pekatari naz, baiña maite zaitut. Neure bizia zara, biok batera goaz. Zure bitartez Aitagana noa, zeruko Aitagana.

Bizi bat bakarria daukat; ez dagidala galdu; ez naitela, zugandik urrin, betiko galdu.

Argitu nagizu zure argi ditziratsuz, zaindu nagizu zure laguntza indartsuz. Amen.

* * *

Espiritu Santua

Orain urte asko ez dirala, Elizearen buru dogun Aita Santuak urrenko berbok esan eutsezan erlejioso batzuen nagusiai: gaurko munduko gora-beeretan eta naaste-borrasteetan zuzen jokatzeko, Espiritu Santuaren argia ta adorea ta maitasuna bear doguzala, eta erriai premiñazko egia irakatsi dagitseea.

Ori dala-ta, bururakizun batzuk esango dautsuedaz Espiritu Santuari buruz. (GS, 189 orri.)

I

Espiritu Santua: Irutasun Deunaren irugarren Personea, Aitagaz eta Semeagaz batera Jaungoiko bakarria.

Aitak eta Semeak geugana bialdua, guban santutasuna egiteko, burua argitzeko, barrua barrizteko.

Egia emoten dausku, egia osoa.

Egia oso-osorik bizi bear da. Guzur txikiak baietza emoteak gaiztakeri-sarean jaustea adierazoten dau, eta, leenago edo geroago, guzur aundiak ontzat artzera eta esatera beartuko gaitu.

Eta guzurrea esatea Erreiñutik urrintzea da, zeruko Erreiñutik urrintzea.

Deabrua guzuraren aita da, diño Jesusek (Jn 8, 44). Espiritu Santua, barriz, egiaren irakas-

lea: «Egiaren Espiritua etorri daitenean, Berak zuzenduko zaitue egia osoa ulertu aal dagizuen», esan eutsen Jesusek bere Apostolui (Jn 16, 13).

Egia osoa / gizon aragikorak ezin irunsi daikeen janari sendoa da. Areik guzurrean koloka dabiz, guzurrean oiñarrizten dira.

Egia / «Kristoren betetasuna lortzera garozan bidea da», dirausku San Paulok (Ef 4, 13); baita beste au be: «Egiari utsita, azi gaitzean danetan maitasunez, gure buru dan Kristo lakoak izateko» (Ef 4, 15).

Berba batez: Jesukristo da Egia.

«Nire izenean Aitak bialduko dautsuen Espiritu Santu Poz-emoilleak irakatsiko dautsue guztia», diño Jesusek (Jn 14, 26). Egia osoa ezagutzea dan garrantzitsua! Gure kristau-bizitzak, Espiritu Santuak onela argituta, zentzun barria izango dau. Gauzak / eurak diranez ikusiko doguz, eta ez bizitzako orbel guzurtiz estalduta.

Egiaz jaioten da lurra barrizteko burrukan diarduenen adore samurra, samurra bai, baiña gelditu-eziña. Auxe da ikusten dabenai gidari yaken argia.

Espiritu Santuak Jaungoikoa ezagutzea emongo dausku, bere Berbeak daukan zentzun sakona ezagutzea. Berbak ilda dagoz eurenez; berbai Espiritu Santuak emoten dautse bizia. «Espiritu Santua gauza guztien barruan sartzen da, Jaungoikoaren barru-barruraino be bai», dirautse San Paulok Korinto koai (Ko 1^a, 2, 10). Itsuak lez diardugu azaletikoa ikutzen, eta ez dogu barruko egia eskuratzen, geuganetzen.

Espiritu Santu, Aitaren argi, Semearen doai: egizu, ezagutu dagidala zure argiaren sakontasuna, oso-osorik bizi dagidan. Egunoro egin dagidazala aalegin guztiak / nire egitadetan izan daiten maltzurkeria zusterretik atara dagidan. Amen.

II

Espiritu Santuak aldatu egiten dauz gure erizpideak, gure eritxiak.

«Jaungoikoaren gaiak ez dauz ifok ezagutzen, Jaungoikoaren Espirituak izan ezik», dirautse San Paulok Korinto koai (Ko 1^a, 2, 11).

Begiratu bat munduari: edozetariko gurarietan sartuta dabil jendea, itxurakeria nagusi, griña txarrak zabal-zabal, entzun gizonak agertzen dabezan pentsakerak, burua beteten dabezan guzur aundiak.

¿Nire pentsakerak? Ebanjelioaren aurkakoak, kristau-bizikeraz bat ez datozenak. ¿Baliorik aundiena? Dirua. ¿Ardurarik aundiena? Garaille urtetea, irabazle, nagusi urtetea, edozela izanda be. ¿Elburua? Bizitzan atsegin artzea.

Nekea, ez-eukitea edo gutxiaz bizi izatea, laztasuna, negurria gauza guztietan, norbere burua ukatzea enparaduai laguntza eroateko, mesedeak egitea, on egiten igarotea aukerea dagoanean, nire bizitzako egunak oso laburrak dirala ez konturatzea... ¿Ez al-dira guzti orreik ipuiñak niretzat?, askorentzat beintzat?

Pentsakerak dira gizonen eta errien gidari. Egia biribilla San Paulok dirauskuna: «Gizonak bere sen utsez ez dauz Jaungoikoaren Espirituaren gauzak ulertzen: beretzat zorakeria dira eta ezin ulertu daikez» (Ko 1ª, 2, 14).

Gauza asko zuzendu bear dodaz nire bizikeran. Gauzai euren benetako balioa emon. Gauzak / Jaungoikoarentzat balio daben balioa dabe. Orixe da eredia, ikasbidea, jarraibidea. Jaungoikoaren pentsakerearen aurka pentsatzea, Jaungoikoa bide-ertzean itzita ibiltea, oker joatea da, bidean aurrera egin bearrean atzerantz joatea da.

Goiko ezaguera onentzat / Espiritu Santuaren argia bear dogu. Ez gaitez mundukoiak izan; izan be, «guk ez dogu gizarte onetako espiritua artu, Jaungoikoagandik dan Espiritua baiño, Jaungoikoak emon dauskuzan gauzak ezagutu dagiguzan», San Paulok Korinto´koai dirautsenez (Ko 1ª, 2, 12).

Jesus Jauna: bialdu egidazu zure Espiritua / nire bizikereari bide zuzena emoteko. Bizkortu egizu nire barrua, espirituzko pentsakeraz jarduteko. Zure betiko bizitzako berbak / argiak eta garbiak egin dakidazala. Nire egitadak Espiritu Santuaren ezaugarria eroan dagiela.

Gure barruak, Eliza guztiagaz batera, eskari au egiten dau: «Bialdu, Jauna, zure Espiritua, eta bizi barria artuko dogu. Zatoz, Espiritu Santu; bete egizuz zure zintzoen biotzak, eta iziotu egiezu zure maitasun-sua». Amen.

* * *

Sinismena

(GS, 241 orri.)

1.- «Ez izan bildurrik. Sinismena bakarrik izan egizu!» (Mk 5, 36)

Auxe da zure bizitzan oiñarrizkoa: SINISMENA. Zugatzarentzat zuzarra lez, etxearentzat zimentuak lez. Eta aize-boladeak atara ebazan zugatzak, zusterak ondo sakonduta ez eukezalako jausi ziran. Eta lurrera jausi ziran etxe-abeak, zimenturik ez eukelako jo eben lurra. Sinismen sendoa, sakona.

2.- «Sinistea neugan jarri dagiana, illarren be, bizi izango da» (Jn 11, 25).

Griña txarrak eta pekatuak dabenik txarrena, sinismena galtzeko gertatu ta erraztu egitea da. Eta sinismena ilten ba´da, itxaropen guztia ilten da.

Jauna, gaiztoa naz, pekatari naz, baiña ez egizu itzi nire pekatuak nire sinismena ondatzen. Txikia naz, Jauna, baiña Zeugan dot nire sinistea... eta onegaitik, illarren be, bizi izango naz.

3.- «¿Zer nai dozu egin dagitzudan?» Eta itsuak Jesusi: «Irakasle, ikusi dagidala barriro» (Mk 10, 51).

Ez dagidala sator-begirik euki, lurpean bakarrik ikusten daben begiak.

Emon egidazuz, Jauna, argirako begiak.

Sinismenaz ikusi dagidala, Jauna:

- gauzen edertasun ezkutua
- arimen ezkuturik bikaiñena
- zeure aurpegia anai-arrebakan
- espirtuaren garaipena materiaren gaiñetik
- Jaunartzearen Jaungoikozko eragitea.

4.- «Apostoluak Jaunari auxe esan eutsoen: «Geitu egiguzu sinismena»» (Lk 17, 5).

Zeuk be eskatu egiozu Jaunari, geitu dagiala zure sinismena. Izan be, sinismena bear dozu urrengo gaiok sinisteko:

- Mezako oparia Gurutzeko oparia dala jakiteko
- zure Jeunartzea emokorra dala, zuk pozaldirik izan ezarren be
- Jaungoikoaz beteteko, zure otaitza bearrezkoa dala jakiteko
- zure lagunak eta adiskideak Kristo dirala jakiteko
- espirtuak materiak baiño geiago balio dauala jakiteko
- Jesukristo iraintzea baiño bizia galtzea obe dala jakiteko.

Geitu egiguzu sinismena, Jauna!

5.- «¿Zeren bildur zaree, siniste otzeko gizonok?» (Mt 8, 26).

Bizitzan ez dago ikaragarrikerik ezer be, erremediorik ez daukan ezer. Euren sinistea Jaungoikogan dabenak / ba-dakie zeruko Aitaren eskuak zaintzen dabezana.

Ez estutu, ez larritu, ez izan bildurrik. Mundua ondatuarren be, zu nasai-nasai geratuko zintzakez ondamentiaren gainean, izar batetik eskegita lez.

Siniste otzeko gizonak! Ainbat dagoz. Leengo egun baten, egunkari batek gizon entzutetsu bategaz egin eben alkarrizketa ekarren:

«Zu sinistedun zara?», itandu eutsan gizon batek. «Ni bai, obe ez! —erantzun eutsan besteak—; ni oso Jainkozale naz, baiña ez naz "praktikantea", ez naz elizara joaten».

Or dozue alperreko sinisteduna, guzurrezko sinisteduna: gauza bat pentsatu, eta beste bat egin, eginbear astunean. Santiagok dirauskuna: «... sinismenak, egintzarik ez ba´dau, ilda dago beragan» (St 2, 17).

6.- «Jesus [Apostoluakanantz] joan zan itsas-gaiñean oiñez... Baiña areik, mamua zala uste izanik, deadarka asi ziran» (Mk 6, 48-49).

Orixe jazoten yatzu sarritan zeuri be! Ikaratu egiten zaitue gauza askok: jazopenak, ezbear ustebageak... Jozoera guztietan beti Jesus ikusteko / sinismena falta yatzu: larrialdietan, lantegian bearrean diarduzunean, geisoaldian, etxekoren bat iltean... Jaunaren arduratasun maitetsuak beti eroaten eta zaintzen zaitu. Jauna maite dabena, egintza on guztiak onerako ta irabazirako balio dautseez.

* * *

Itxaropena

(GS, 244 orri.)

1.- «Azkenerarte sendo iraun dagiana, orixe salbatuko da» (Mt 10, 22).

Gure itxaropena Jaunagan jarri eta bertan iraun.

Iraupena, onoiemen nekeza da. Asko asten dira zerbait egiten, baiña gutxi irauten dabe azkenerarte.

Zintzoen gogaitaldia gatxaldia lez da. Gatxaldi orrek sakabanatu egiten dauz Jaungoikoaren erromesak. Zu, adiskide, izan zaitez indartsu, egun illuntsuetan sendo irauteko. Gogorra izan zaitez, bizitzako zartadak gora-beera atzeruntz ez egiteko; arimaz sendoa izan zaitez, itxaropenik ikusten ez dozula itxaroteko.

Zerbait geiago eutsi bear yako beti zerbaiti.

Kristau-itxaropena ez da iñoiz be ilten, aren laguntza Jaungoikoa da-ta, eta Jaungoikoa ez da

ilten!

2.- «Munduan atsekabeak izango dozuez; baiña, izan adorea!: neuk azpiratu dot mundua» (Jn 16, 33).

Kristau izateko, auxe izan bear dozu:

biotz zabala, ausartia, baikorra, uste ontsua, alaia.

Kristau izateko, ez dozu izan bear:

lotsakorra, korapillotsua, atzeratsua, bildurtia, koldarra.

Izan be, kristau izatea / Jesusegaz indartsua izatea eta mundua azpiratzea da.

3.- «Geldi!, neu naz. Ez bildurtu» (Mt 14, 27).

Bearrezkoa dozu utsunera bildur bagarik salto egitea. Izan ustea Jesusegan. Aren eskuak zeure txikitasunari eta mundu osoari eusten diardue. Orri bat bera be ez da zugazetik jausten Jaunaren baimen bagarik. Uste osoa Jesusegan!

4.- «Neure bakea izten dautsuet, neure bakea emoten... Ez bedi larritu zuen biotza, ezta kikildu be» (Jn 14, 27).

Eta zu, ¿edozegaitik barru-jausia al-zara? Ez daitela zure biotza iñoiz be artegatu.

Kristau izatea / biotza itxaropenari zabaldua eukitea da. Jaungoikoaren baketan bizi izatea da. Beti aurrera jarraitzea. Gorantz begira beti!

5.- «Orduan, [Judas´ek, Jesus saldu ebanak, andik] alde egin eta bere burua urkatu egin eban» (Mt 27, 5).

Judas´ek egin eban astakeriarik aundiena ta ikaragarriena: Jesusegan usterik ez izatea. Itxaropena galtzean galtzen da gizona.

Jauna, nire uste ona zeure ontasunean ezarrita nai dot uste izatea beti.

Diru-zalekeriagaitik, atsegin labur bategaitik edo beste edozegaitik galdu ba´zagidaz be, zeure Biotzean ezarriko dot nire ustea, Jauna.

Zure adiskidetasuna lastan ustel bat, enparaduen aurrean lotsakorra edo koldarra nazalako saldu ba´zagidaz be, zeure betiko adiskidetasunean ezarriko dot nire ustea, Jauna.

Nire doillorkeriaren eta zatarkeriaren larrigurea izanarren be, gunetaraiño ustelduta eta griña txarra ta adur-urtika egonarren be, ez dot iñoiz be itxaropena galduko.

6.- «Ez estutu zuek, zer jango edo zer edango ete-dozuen billa» (Lk 12, 29).

Zelaiko lirioak lez, egaz dabiz txoriak lez...

Zuk bete egizu une guztietan Jaungoikoaren naia eta ez zaitez estutu, zure bidea Berak, Jaunak, markatuko dau-ta.

Zuk zabaldu egizu zure itsasontziko oiala eta Jaunak puztuko dau bere aizeaz. Izan ustea Jaungoikoagan.

7.- «Ez izan bildurrik; txori guztiak baiño geiago balio dozue zuek» (Mt 10, 31).

Dardara egin dagizunean, zure bizitzan argirik ikusi ez dagizunean, arnasea artzeko aizerik be izan ez dagizunean, ekarri egizuz gogora txoriak: askatasunez beterik eta zoriontsu dabiz.

Jaungoikoak txorien ardurea ba'dauko, ainbat geiago izan bear zure ardurea, bere seme zara-ta! ¿Konturatzen zara txorien eta zure artean dagoan aldeaz? ¿Txoriak izatea edo Jaunaren seme izateaz?

Kristau-itxaropena ez da iñoiz be ilten: Jaunak dau zu zaintzeko ardurea. Eta mundu guztia zeure aurrean ondatuarren be, zeruko zure Aitak bere besoetan artuko zeukez.

Jaunak ez dau iñoiz be utsik egiten, utseziña da-ta. Gure makaltasunaren indarra / itxaropena da.

* * *

Maitasuna

(GS, 247 orri.)

1.- «Eta, gaiztakeria geroago ta geiago ugaritzean, askoren maitasuna otzitu egingo da» (Mt 24, 12).

Norberekeria ta susmokeria geitzen doaz. Eta gizonak banan doaz, bakotxa banaka bere samintasunean. Batak bestearen ardura bagarik, alkarri berbarik be egiten ez dautsoela, alkar iguintzeraiño.

Materialismoak, makiñeriak, nasaikeriak, otzitu egiten daskue biotza. Alkar-maitasuna ilten diardugu. Orregaitik, asko otzez ilten dira, biotzeko otzez.

Nik, Jauna, bizitzan maitasuna mentatzen joatea nai dot, txera oneko arnasea emoten, gure munduari maitasun-itxaropena emoten.

2.- «Auxe da nire agindua —diño Jesusek—: alkar maite izan dagizuela... Onetantxe ezagu-

Norbait bazkun edo alkarte batetako ba'da, alakoak karneta dauko eta batzuetan ezaugarri bat be eroaten dau aldean. ¿Ba-dakizu zein dan zure kristau-ezaugarria? Anaiakanako maitasuna. Onetantxe ezagutzen dira Jesusen ikasleak: alkar maite izatean. Karnet ori ez da diruzorrotxoan eroaten, ezta ezaugarria txamarrearen papar-egalean be: biotzean eroaten da.

Biotzean maitasunik ez ba'daroazu, ez egiozu zure buruari kristau-izenik emon: ez zara kristau. Teoriaz bai, bateoaren bidez, baiña egiñez ez. Egintzak agertzen dabe bakotxa nor eta zelakoa dan, egintzak.

3.- «Soingaiñeko bi euki dagizanak, emon dagiola bat ez dauakanari» (Lk 3, 11).

Egite-zale ta zeatza izan zaitez. Ez egizu jarri maitasuna izarretan.

Maitasuna / norbere burua enparaduen alde emotea da.

Asi zaitez gauzak emoten, limosnak egiten, eta, egunen baten, bearbada, ezer emoteko izan ez dagizunean, zeure burua emoteko aiñako biotza eukiko dozu. Orduantxe jakin izango dozu maite izaten.

4.- «Nik, barriz, auxe dirautsuet —diño Jesusek—: maite egizuez zuen arerioak» (Mt 5, 44).

—Jesus, nire irakasle: ¿zer agintzen dozu? ¿Zelan maite izango dot, ba, ni iraindu nauana, nire aurka guzur-baltza esan dauana eta, orrezaz gaiñera, nire lepotik barre egin dauana? ¿Zelan maite izango dot, ba, nire aurka txarto esaka ekin dautsana?

—Ene seme, ene adiskide —erantzuten daust Jesusek—: zabaldu zure biotza maitasunari. Gorrotoak zitaldu egiten dau eta indarkeriak baiño ez dauz sortzen. Maitasunak bakarrik erosten dau, eta zuk neugaz batera izan bear dozu eroslekide. Maite egizu, eta Neu lakoa izango zara, Ni maitasuna naz-ta.

5.- «Maite zaituenak bakarrik maite ba'dozuez, ¿zer sari itxaron daikezue?» (Mt 5, 46).

Zure aldetik beintzat, zure arerio iñor be ez izateraiñoko biotz aundia izan egizu. Maitasuna guztientzat; maitasuna, banatzen danean, geitu egiten da. Eta gaiñera, maitasunak aundikitu eta apaindu egiten dau. Bere biotza daukan aiñako aundia izaten da gizon bakotxa. Maitasuna dozun aiña balio dozu zuk.

6.- «Nik agintzen dautsuedana auxe da: alkar maite izan dagizuela» (Jn 15, 17).

Zekenak gara maitasunean. Eta emoten ez dan maitasuna usteldu egiten da. Emoten dan

Zekenak gara maitasunean. Eta emoten ez dan maitasuna usteldu egiten da. Emoten dan maitasuna, barriz, ugaritu egiten da.

Paris'en txakur-illobategia dago. Illobi txikitxo batzuk umeentzako lakoak. Eta aurrekaldean, illarriak, maitasun-berbak idatzita. Illarri areitariko askotan, gurari bat be bai: «¿Itxarongo daustazu an beean?»

¿Non?

Ikaragarria, benetan, gizon batzuen norberekeria, txakur baten maitasun-billa ibilteraño!
Txikia, benetan, gizon batzuen biotza, txakur baten ederretsiaz beteten dan biotza!

Adiskide: maitasunik ez ba' dozu, ez zara kristau, eta, gairera, zoritxarrekoa izango zara.

6.- «Samaritar bat eldu zan, eta, zauritua ikustean, erruki izan yakon» (Lk 10, 33).

Aundiki agertzen zara, benetan, laguntza bagearen, baztatuaren, inguratuaren, gizon gizajoa-
ren alde egiten dozunean, eta gizon baztatuaren utsegifak ez-ikusi egiten dozuzanean! Erra-
zena / barre egitea da, barre-eragille izatea, zure burua zentzundun artzea ta erakustea. Baiña
ontasuna / beartsuaren alde egitea da.

Biblian sarritan agertzen da Jaungoikoa nolakoa dan: «makalaren, umezurtzaren eta alarguna-
ren zaintzaillea» (ikusi, gairera, St 1, 27).

Artu egizu Jaungoikoa eredutzat, bere Semearen jarraitzaille zarean ezker. Kristok, gu,
gutziz makalok, salbatzeko eta, geuganako maitasunagaitik, bere burua eskifñi eutsan
gurutzean zeruko gure Aitari.

Erantzun dagiogun bere maitasunari guztiakanako gure maitasunaz.

* * *

Biotz-garbitasuna

(GS, 293 orri.)

1.- «Zoriontsuak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta» (Mat 5, 8).

Auxe izango da euren garaipen-saria: Jaungoikoa ikustea!

Merezi dau, biotza garbi eukitearren, odola emoteraño burrukan egitea.

Biotza garbia, gardena, argiz eta argitasunez beterik.

Biotzaren alde egitearren, il be bai. Ez egiozu iñori itzi zure biotza loitzen.

2.- «Azken-aparitan deabruak Judas'i barruan Jesus saltzeko asmoa sartu eutsan» (Jn 13, 2).

Zoli ez ba'zagoz, zuur eta iratzaririk ez ba'zagoz, deabruak zure biotzean bedar txarra
ereingo dau.

Deabruaren bedar txarra guzurra da, ikusi-ezifña, zikinkeria, lizunkeria, gorrotoa, mormoxe-
tea...

Kontuz! Atara egizu txarkeria erneaz batera: bestela, zusterak egiten ba'dauz, menperatu
egingo zaitu.

3.- «Biotzari gairera dariona diño agoak» (Mt 5, 19).

Berba egitean ago zikiña ba' dozu, zure alkarrizketak lizunak ba'dira, zure adurraz beste
batzuk loitzen ba' dozuz... zure zoritxarra! Biotza ustelduta daukazu.

4.- «Biotz-barrutik urteten dira asmo txarrak» (Mt 15, 19).

Asmo txarrak laifñoa dira, zure izakerarik onena ondatzen dabezan leoiaren erpeak dira.

Arduraz ibili zure asmo txarrakaz, zikinkeri koipatsua erraz be erraz itsasten da-ta

Asmo txarrak bein eta barriro ta etenbagarik etorten ba'yatzuz, ¿ez ete-daukazu, gero, biotza
geisorik?

Esan egidazu zer bizi dozun, zer maite dozun, eta buruan darabizuna esango dautsut.

5.- «Kanpotik sartzen danak ez dau biotza zikintzen, biotzetik urteten danak baiño: orrexek
zikintzen dau gizona» (Mt 15, 18).

Biotza da zure erdilekua, zure bizitzaren motorra. Aztertu ta arakatu egin bear dozu motor
ori, era egokiz joan daiten eta artez erantzun dagian.

Kontuz biotzaz!

Emon egidazu, Jauna, itsasoa lako biotz zabala, izar bat lako garbia, neure ingurukoen one-
rako adoretsua.

6.- «Zuek, onezkero, garbi zagoze, iragarri dautsuedan mandatuari esker» (Jn 15, 3).

Jaungoikoaren berbeak garbitzen zaitu.

Berak emoten dautsu pentsakera zeatza ta arteza gauzai buruz.

Jaungoikoaren berbeak ez dau iñor beeratzen, ez zapaltzen. Jaungoikoarentzat, dana dago argi
ta garbi. Negurri egokia emongo dautsu, gauzen benetako balioa.

Jaungoikoaren berbea azia da. Zeuk erein bear dozu zure biotzean, erne daiten eta bizitzan
zuzentasun garbiz ibili zaitez.

Begi garbiak, arima garbia, biotz garbia izan dagizuzala zure bide ta pauso guztietan!

Jesus Jauna: Emon egidazu biotz sendoa, barruko garbitasuna zaintzeko.

Emon egidazu adorea, zuzentasunaren alde egiteko, egitan bizi izateko, eta maitasunari saldukeriarik ez egiteko.

Auxe eskatu dagiogun Jesusi sinismenez eta biotzez:

Emon egidazuz begi garbiak, bizitzako maltzurkeriak ikusteko.

Emon egidazu biotz aundia, zabala, gure anai-arrebakan Jaungoikoa ikusi eta benetan maite izateko.

Emon egidazu, Jauna, martiri-adorea, indarra, Zugaz batera egunoroko gurutzea eroateko: nekeak, arazoak, lanak eta abar.

Ebanjelioa irakurtean, auxe ikusten dot argi, Jesus: Gizon miragarria zareala, adimen aundikoa, biotz oso zabala. Gertu maitatzeko, Zeu zareana emoteko, norkeriarik bagea, laua, konplejorik bagea, buru-ukatzaillea ta gogorra aitz-tontorra lakoa, begirune garbi ta txeratsua.

Zure berbea bizia da, indartsua, benetakoa, argi ta garbia zure jokabidean.

Ez dozu ifoiz be guzurrik esaten, ezta koipekeriarik be ez dozu erabilten, ez dozu aurrean ondo esaten eta atzean txarto esaten; apala zara, zerbitzari izateko beti gertu.

Neure Jaungoiko ta neure anai zara, Jesus, Maria Birjiñaren Semea, betiko Erreiñua iragarten dozuna, irakasle ta adiskide beti. ¿Noiz ezagutuko zaitut oso-osorik? Zugaz dodazan artu-emonak geroago ta geiago jasoten eta bikaintzen nabe.

¿Zer da kristau izatea?, Kristoren jarraitzaille izatea? Jaungoikoaren semeak izatea, argiaren semeak izatea, pekatutik askatuta egotea.

Emen San Joan Ebanjelariaren berbak: «Ba-dakigu Jaungoikoagandik jaiotakoak pekatu-rik egiten ez dauana, bestetara baiño: Jaungoikoagandik jaio danak, bere burua zaindu egiten dau, eta Gaiztoak ez dautso ikuturik be egiten» (Jn 1ª, 5, 18).

Espiritu txikiak, ifñori mesede bat egiteko gai ez diranak, alkar-maitasunean erkiñak, sistrifiñak diranak... ez dabe Ebanjelioko espiriturik, Jaunaren argia itzungita, atzamatuta, dauke eurakan.

Jesus Jauna: guztiok bat izan gaitezala, Zeu be Aitagaz eta Espiritu Santuagaz bat zarea-nez. Amen.

(GS, 269 orri.)

1.- «Neu naz biztuera ta bizia» (Jn 11, 25).

Jesus, neu be biztuera ta bizia izan naiteke. (Biztuera ta bizia, otzez eta berekoikeriz ilten dagoan mundu onentzat.)

Ni munduan egoteak gauza illak biztuteko miraria egin dagiala, egintza zimel askori bizia emoteko miraria egin dagiala.

2.- «Auxe da betiko bizia: ezagutu zagiezala Zu egiazko Jaungoiko bakar lez, baita Jesu-kristo be zeure bialdua lez» (Jn 17, 3).

Jesus ezagutzea... personarik onenak daben gurari bizia.

Jesus ezagutzeko biderik on eta errazena Ebanjelioa da. Kristauaren giltzarria. Egunoro irakurri bear geukez Ebanjelioko zati batzuk, egunoro. Ebanjelioa, mundu au erabarritzeko liburu illezkorra!

3.- «Ez da illen Jaungoikoa, bizi diranena baiño» (Lk 20, 38).

Nire Jaungoikoa, geure Jaungoikoa, bizi diranen Jauna.

Jo-muga betikorra dot. Ni ezin il naiteke.

Betiraunerako naz. Bere Aita-biotza izango da nire bizitokia, beti bizi izango nizan etxea.

4.- «Neu naz bizirako ogia» (Jn 6, 48).

Paradisuan egoan bizirako zugatza.

Orain Jesus da bizirako ogia.

Zugan gaiñez egiten dauan bizitzak Jesus dau bearrezko, bizitza ori il ez daiten. Jan egizu Ogi ori eta osoro bizi izango zara. Bizitza betea izango zara.

5.- «Ni, guztiak bizia izan dagien etorri naz, eta izan be bizia ugari izan dagien», diño Jesu-sek (Jn 10, 10).

Ez dot nai edozelako bizitzarik, lozorrezko bizitzarik. Ezela be ez geldo-geldoan bizi izaterik!

Pekatua eriotza da.

Ugari nai dot bizia, bidean aurrera ta oso urriñera joan bear dot-eta, lagun-urkoen artean kristau-bizia mentatzen.

kristau-bizia mentatzen.

Orregaitik, Zeugana nator, Jesus, eta bizi ugariagoa eskatzen dautsut deadarka, bizi geiago, bizi betea.

6.- «Jaunagan bizia egoan eta bizia gizonen argia zan» (Jn 1, 4).

¿Eta zuk zer? ¿Argia daroazu zure barruan? ¿Ala, illunetan zoaz, gabeko illunetan?

Zure biotzean pekatua ba dago, eriotz-azia daroazu, illunpeak loituta zoaz.

Grazian bizi izatea, Jaungoikoaren adiskidetasunean bizi izatea da, Jainkoaren bizia iziotuta eroatea da; argi izatea da, Jaungoikoagan illunperik ez dago-ta.

San Paulok Efeso koai zirautsena: «Noizbait illun zintzazen; orain, barriz, argi zaree Jaunagan. Ibili zaitzeze, ba, argi-seme lez. On eta zuzen eta egia dan guztia argiaren frutua da-ta» (Ef 5, 8-9).

* * *

Geisoaren eguna

(1986-V-4)

Gaur geisoaren alde egiteko eguna dogun ezkerro, egin daiogun Jaunari urrengo otoitz au, geisoagaz batera. Berez, geisorik dagoanaren otoitza da izan; baiña guztiok be egin daikegu, gutxi-asko guztiok izaten doguz ala-olako gorputzeko miñak eta atsekabeak-eta.

Jaungoikoari berba egin daiogun.

Jauna: beti izan dautsat bildur geisoaldiari, eta geiago orain, geisorik nago-ta.

Leen, gaztetan, ainbeste bildurrik ez, osasunez beterik ikusten dogu gure burua-ta. Alan be, geisoaldian nire barrua obeto ikusten dot, eta oso gauza txiki gareala be bai. Zerbait aldatu egin da nigan. Leen, nire sendotasuna neure gorputz-endarretan jarten neban. Nik balio nebana!

Baiña orain, geisoaldiak lur-jota itzi dauz nire ziurtasun guztiak. Orain iñoiz baiño argiago ikusten dot gure ezereza, ezer ez gareana.

Eta bildur naz, bildur naz: geisoaldi au ondo eroateko adorerik izango ete-dodan ez dakit-eta. Zeugana joten dot, Jauna, bidea, bizia ta biztuera zara-ta, Zeuk esan zenduanez, Lazaro eriotzatik bizitzara ekarri zenduanean (Jn 11, 1-43).

Ontzat artu egizuz, ba, Jauna, gure bildurrak, eta Zuganako uste on biurtu.

Onartu gure nekaldi ta naibageak, eta Jesukristoren nekaldi-antzeko biurtu egizuz.

Onartu gure isillaldia, eta biotzeko isillune au Zeu gurtzeko izan dadilla.

Onartu gure negar-malkoak, eta Zuri eskari egiteko biurtu egizuz.

Onartu gure ustebagea, eta sinismen biurtu egizu.

Zuganako gure sinismena sendotu egizu, Jauna. Ez gagizala munduak bere sareetan batu eta lotuta itzi.

Onartu gure bakealdia, eta Zeu ausnartzeko balio dakigula.

Onartu gure mingostasun eta samintasunak, eta barruko bake biurtu egizuz.

Indartu gure itxarotea, iraupena eta eroapena, eta geroko itxaropen biurtu egizuz. Zeu zara gure itxaropen bakarra!

Onartu oraindik gure eriotza, eta biztuera biurtu egizu: Jesukristoren eriotza ta biztuera goragarrian parte arturik, betiko bizitza zorionsua izan dagigun.

Jesukristo gure Jaun beraren bitartez. Amen.

* * *

Onartu, Jauna

Onartu, Jauna, gure bildurrak, eta uste on biurtu egizuz.

Onartu gure neke-miñak, eta poz biurtu egizuz.

Onartu gure isillaldia, eta gurtza biurtu egizu.

Onartu gure makalaldiak, eta sendotasun biurtu egizuz.

Onartu gure negar-malkoak, eta eskari biurtu egizuz.

Onartu gure etsipena, eta sinismen biurtu egizu.

Onartu gure bakartasuna, eta zeure gogorapen biurtu egizu.

Onartu gure samĩaldiak, eta barruko bake biurtu egizuz.

Onartu gure egonaldiak, eta itxaropen biurtu egizuz.

Onartu, Jauna, oraindik gure eriotza, eta biztuera biurtu egizu.

Zatoz, Jauna, guri laguntza ekartera; entzun gure eskari gartsua.

Misiñoen alde

Entzun, Jauna, gure otoitza;
emon zure indarra munduan Ebanjelioa iragarten daben guztiai;
bete egizuz zure maitasunez, zure deia pozez beterik erein dagien
eta erri guztiak Jesukristo ezagutzera eldu daitezcan. Amen.

Guztiak salbatzeko bere burua eskifí eutsun Jesukristo zure Seme eta gure Jaunaren
bitartez eskatzen dautsugu, Jaungoiko guztiz Aaltsu orri.
Jaungoikoaren Elizearen alde, gizon guztiai eten bagarik Ebanjelioa iragarri dagitseen.
Geure alde, munduaren argi lez, egintza onen bidez,
Jaungoikoaren Erreñua iragarri dagigun. Amen.

Gure Aita, Jesukristo zure Semearen bitartez
guztiai Ebanjelioa iragarteko, Apostoluak bialdu zenduzan.
Egizu, geuk be, kristauok, Kristoren jarraitzaileok,
Apostoluak lez, lurraren azken-baztarreraraiño,
Jesus'en izena iragartera bialduak izan gareala
somatu dagigula gudan. Amen.

Jauna, atzo lez gaur be,
sinistedun guztiai egiten dautsezu dei:
dana alde batera itzirik, Zeuri jarraitu eta
zure salbamen-egintzan lagun egin dagitzuen.

Aukeratu egizu guretariko norbait,
egiguzu dei errime,
lagun egizuzu baietz esaten,
eta egizu, Zeuk aukeratu ta deitu dozuzanak,
egunen baten, urriñeko euren anai-arreben artean,
misiñolari izatera eldu daitezala.

Eta emen geratu gaitzezanok, besterik ezean,
egunoro misiñoen alde Zuri otoitz egiteko ardurea

biztu daiguzula,

Jesusek, zure Semeak, «eskatu egizue, eta emon egingo dautsue» (Mt 7, 7) esan euskun-eta.
Amen.

* * *

Guztien alderako otoitza

Jesus Jauna, ondo ezagutzen dozu Zuk gizonon gaiztakeria;
gure pekatuen atsa be egunoro artzen dozu.
Gaur guztien alde eskatzen dautsugu, eta, batez be:
berekoiaren alde: bere burua enparaduen alde emoten jakin dagian;
koldarraren, bildurtiaren alde: adoretsua izan daiten;
arroaren alde: bere ezereza ezagutu dagian;
edozelakoan alde: enparaduen premiñak kentzeko esku-zabalak izan daitezcan;
zentzunbageen eta buruariñen alde: euren barruan zerbait ausnartu dagien;
bizigura nasaia nai dabenen alde: aberetu (animaliatu) ez daitezcan;
ikusieziñez bizi diranen alde: arima aundia emon dagiezun;
maitasuna zikintzen dabenen alde: zoritxarrekoak izan ez daitezcan;
euren sabelean euren umetxo errubagea ondatu ta ilten dabenen alde: iltzaille dirala konturatu
daitezcan;
dirua edozelan eralgiten dabenen alde: enparaduen bearrizanetarako erabili dagien;
gure ekonomi-egoerearen alde: ugazabak eta langilleak alkar ondo eroanik, lana guztientzat
egon daiten;
azpi-lanean eta azpikeritan diarduenen alde: egiaz jokatu dagien;
gazteen alde: sasi-jakintsuak usteldu ez dagiezan;
mundukoiak, munduzaleak, ez dagiela emen gagozan bat bera be lilluratu, atzipetu, engai-
ñatu, eurakanatu: astiro-astiro gure kristau-jokabidean otzitu eta betiko galdu ez gaitzezan.
Bat bakarra dogu bakotxak bizitza, bat bakarra arimea; ez daiguzala arima ta gorputza betiko
galdu.
Sakondu egiguzu orretarako, Jauna, sinismena, biztu buruko argia, sendotu barruko indarra,
Zeuk irakasten dauskuzun bidean beti ibili gaitzezan.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Asis'ko Prantzisko Santuaren otoitza

Jaun on, gorengo eta guztiaalduna:
zeureak dira aintza, gorapena ta bedeinkapena;
guzti ori Zeuri bakarrik dagokizu, Jaun gorengo Orri,
eta iñor be ez da zuri abesteko (kantatzeko) duin.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun ori, zure izaki guztiakaz
eta batez be nire anai dan eguzkiagaz;
beronen bidez egiten dozu eguna eta emoten dauskuzu argia,
eta ederra ta oso diztiratsua da: Zeure antekoa da.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun Ori,
nire arreba dan illargiagaitik, baita izarrakaitik be;
or dagoz zeruan Zeuk egin zenduzanez:
argitsu, apain eta zoragarri.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun Ori,
nire anai dan aizeagaitik,
arnasea artzen dogun aideagaitik, laiñoagaitik,
ozkarbiagaitik eta edozein eguraldigaitik:
euron bidez emoten dautsezu Zuk janaria zure izakiai.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun Ori,
nire arreba dan uragaitik,
gutziz egokia, apala, bikaiña ta garbia da-ta.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun Ori,
gaba argitzen dauan nire anai suagaitik,
ederra, alaia, sendoa ta indartsua da-ta.

Bedeinkatua Zeu, nire Jaun Ori,
gure arreba dan ama lurragaitik:
berak eusten dauku ta garoaz,
eta frutu ugari dakar, kolorezko loraz eta bedarraz

Goratu ta bedeinkatu guztiok nire Jauna,
Berari eskerrak emonik
eta Bera apal-apalik otseindurik!

R. Tagore'ren otoitz bi

Rabindranaz Tagore, bein baiño geiagotan entzungo zenduenez, India'ko olerkari ospatsu
be ospatsua izan zan. 1941'garren urtean il zan. Ez zan kristaua, baiña bai Jaungoikozale
sutsua eta gure lagun-urkoa oso maite ebana. "Nobel saria" be irabazi eban 1913'garren
urtean.

Indiarrak otoitz-zaleak dira. Ona emen Tagore olerkari aundiak Jaunari sarritan egiten
eutsazan otoitz bi. Geuk be egin daikeoguz gaur Jaunari otoitz biok; egoki etorriko yakuz.

I

Nire otoitza, ene Jauna, auxe da:
Zauritu, zauritu egizu nire biotzean zekenkeriaren zusterrea eta zearo atara egidazu.
Nire pozak eta atsekabeak arin-aringa eroateko indarra emon egidazu.
Nire maitasunak frutu onuragarriak emoteko indarra emon egidazu.
Beartsua iñoiz be ez iguintzeko indarra emon egidazu,
baita nire belauna lotsabagearen aal-izateari ez makurtzeko indarra be.
Nire pentsakerea egunoroko ezerezkerien gaiñetik jasoteko indarra emon egidazu.
Azkenez, Jauna, nire indarra, maiteminduta,
zeure naiari menperatzeko indarra emon egidazu.

II

Ez dautsut eskatzen, Jauna, ni arriskutik ataraterik,
arriskuan ez dagidala bildurrik izan baiño,
zure laguntzaz arriskutik onik urten naitela baiño.
Nire atsekabearen burrukan pozten ez ba'nozu be,
atsekabea menperatu dagidala beintzat,
atsekabea neure irabazitzat izan daiten.
Lagunik aurkitzen ez ba'dot,
ez daitela nire iraupena auldu, makaldu, jausi.
Nire bizitzan ondamendia gaiñera etorten ba'yat,
maltzurkeria baiño aurkitzen ez ba'dot,
ez naitela ondatuta geratu.
Ez dautsut Zuk ni gatxetik askatzeko eskatzen,
nik aurrera egiteko indarra baiño.

Ni pozten ez ba'nozu
nire zorroa ariñagoa egiñik,
pisu gutxikoagoa bihurturik,
nik aurrera egin aal dagidala egizu.
Egun eder baten, apal-apalik, zeure aurpegia ezagutuko dot:
atsekabe gau baten, azkenengo orduan,
guztiak saldu nagienean,
guztiak bertan-beera itzi nagienean,
nik ez dagidala Zugan ezbairik (zalantzarik) izan.

* * *

Apaltasuna jaristeko otoitza

Otzana ta apala zarean Jesus orrek: Entzun gagizuzu, Jesus.
Onartua izateko guraritik: Gorde gagizuz, Jesus.
Maitatua izateko guraritik: Gorde...
Aintzat artua izateko guraritik: Gorde...
Aundietsia izateko guraritik: Gorde...
Goratua izateko guraritik: Gorde...
Besteak baiño aukeratuago izateko guraritik: Gorde...
Onulari izateko guraritik: Gorde...
Onetsia izateko guraritik: Gorde...
Beeratua izateko bildurretik: Gorde...
Ezetsia izateko bildurretik: Gorde...
Jaurtia izateko bidurretik: Gorde...
Baztartua izateko bildurretik: Gorde...
Irainbaltzaz loitua izateko bildurretik: Gorde...
Aaztua izateko bildurretik: Gorde...
Lotsagarri izateko bildurretik: Gorde...
Iraindua izateko bildurretik: Gorde...
Nitzaz susmo txarra egin daikeen bildurretik: Gorde...
Nire eritxia onartua izan ezik etorri daitekidan naibagetik: Gorde...

Ni baiño besteak maitatuagoak izan daitezala: Gura izan dagidala egizu, Jesus.

Ni baiño besteak guragoak izan daitezala: Gura izan ...

Lurkoien eritxiz, besteak azi daitezala eta ni txikiagotu egin naitela: Gura izan ...

Besteak aginbidea artzeko deituak izan daitezala, eta ni aaztuta itzi nagiela: Gura izan ...

Besteak goratuak izan daitezala, eta ni ez nagiela gogotan artu: Gura izan ...

Besteak, danetan, ni baiño naiagoak izan daitezala: Gura izan ...

Besteak ni baiño santuagoak izan daitezala, ni neure indarra dagokienez santutasunera eldu
ba'nadi beintzat: Gura izan ...

Jesus: Zu Jaungoiko izanik, gure buru-maitakeria ta arrokeria zapaltzeko eta apaltasun-
eredu beti izateko, gurutzeko eriotzaraño beeratu zintzazan: eiguzu, zeure ikasbidea ezagutu
ta egiñez bete dagigula: emen lurrean gure ezerezari dagokionez beeratuak izanik, zeruan
betiko zure pozetan goratuak izan gaitez. Amen.

* * *

Belbillarien (choferren) otoitza

Emon egidazu, Jauna, esku sendoa ta begirakune zuurra:
ni igaro naitenean, iñori kalterik egin ez dagiodan.

Bizitza emoten eta iraunerazoten dozun Jaun orri,
apal-apalik eskatzen dautsut:
zaindu egizu nire bizitza gaur une guztietan.

Nigaz batera datozenak be, jagon egizuz gaitz guztitik:
edozein alkar-jotetik, oztopotik, sutatik naiz beste ezbearretik.

Irakatsi egidazu auto au besteen bearrizanak osatzeko erabilten.

Egizu, Jauna, abiada-zorabioak ez nagiala eroan,
eta, mundu onetako edertasuna ikusirik,
nire bidea zorionez beterik amaitu dagidala.

Geure Zaindari Kristobal Deunaren irabazien bitartez
eskatzen dautsut, Jauna. Amen.

Bake-bidea

Personeak, bearrenetarikoa, bizi izateko poza dauko.

Bizitzaren poza!

Eta bakea, osasunagaz batera.

Personeari dagokion eraz bizi izateko, jakifia.

Orreixek dira giza-biotzaren bizi-giroa-ta.

Arraifaren bizi-giroa ura danez.

Gaurregunean, alan be, poz bagarik bizi dira lagun asko.

Eta alantxe bizi be...

Poz bagarik, eta bake bagarik be bai.

Bakerik ez dagoan biotzean, pozik be ezin izan.

Eta gaur askok bakerik ez.

Ez biotzean, ez etxean, ez kalean.

Biotzean gaur askok bakearen ordezkizka, artegasuna, egon-ezifia.

Etxe askotan, eztabidak eta asarreak.

Kalean, gorrotoa eta ikusi-ezifiak, nor-geiagoka.

Eta orrela, ¿zelan izan daike poza gizonak?

Eroso bizi izateko bideak ugari dabez gaurregunean andra-gizonak. Leen ez-aifia.

Baifia orrek ez dautse oraindifo pozik emoten.

Erosotasun aundi bagarik pozik bizi da ijitoa zubipean, edo burdi-etxetxoan.

Erosopidez gogait eginda larri izan daiteke aberatsa bere jauregian.

Eroso-bidea eta poza ez dabiz beti alkarregaz, ain zuzen be.

Biotzeko poza ta bakea izan ezik, gaurko gizonak ia beste guztia asmatu dauala esan daiteke.

Noizbait asmatuko al dauz beste biok be!

Bitartean, baketsu bizi izaten lagunduko dautsun bide bat irakatsi nai neuskizu.

Ortik ba'zabiz, buruauste asko uxatuko dozuz.

Gizon bati entzun neutsan leengo baten.

Auxe beteten aalegintzen ei'da bera beti.

Eta ondoren onak emon ei'dautsaz. Ona emen:

«Aldatu ez daikedan gauzea edo jazopena,

eltzen yatanez artzen dot,

ezin kendu edo baztatu ba'daiket.

Dana dalako ori bestelatzeari neure eskuan ez ba'dago,

dan lez artzen dot, nire burua mingostu bagarik».

Begiratu egizu ondo eta Kristoren esaera aren lorratza artuko dautsazu orri: «¿Zuetariko nok, aalegin guztiak egiñarren, luzatu daike bere bizia ordubete be?» (Mt 6, 27).

Esate baterako: ogetik jagiten zara, eta euria da.

Beste bagarik, egun guztirako bekozkoz jarten dira ainbat gizon.

¿Zer lortu dabe orrela? ¿Eguzkia urtengo ete-yake laifio-artetik orregaitik?

Zegaitik pentsatu ez: «Norbaiti on egingo dautso euriak. Gauza guztiak dabe euren alde ona».

Iñoiz be ez da euririk guztien pozkarri, ez eguzkirik be.

Orrelako jazopenez beterik dago gizonaren bizitzaldia.

Nai ez geukezan gauza asko jazoten yakuz.

Jaungoikoak bere eskuan gorde dau gizonari jazoten yakozan gauza askoren giltza.

Orrein joerea aldatzerik ez dauko gizonak.

Nai dauala, ez dauala, gauzak arelaxe artu bear.

Aal dagigun guztia egin bear dogu gure aldetik egoerak zuzentzen.

Ezin danean, barriz, auxe esan:

«Egin bedi, Jauna, zure naia».

* * *

Bakelariaren otoitza

(Asis'ko Prantzisko Deunak eginda)

Jauna!, zure bake-eragille egin nagizu.

Gorrotoa dagoan lekuan, nik maitasuna jarri dagidala.

Iraifia dagoan lekuan, nik parkamena jarri dagidala.

Eztabaidea dagoan lekuan, nik alkartasuna jarri dagidala.

Ezbaia dagoan lekuan, nik sinismena jarri dagidala.

Okerkeria dagoan lekuan, nik egia jarri dagidala.

Uste onik ez dagoan lekuan, nik itxaropena jarri dagidala.

Illunpea dagoan lekuan, nik argia jarri dagidala.

Itunaldia (tristurea) dagoan lekuan, nik poztasuna jarri dagidala.

Jauna!, neure atsegifia baiño enparaduen atsegifia billatu dagidala.

Neure burua ulertu izatea baiño nik besteak ulertzea billatu dagidala.

Neure burua maite izatea baiño nik enparaduak maite izatea billatu dagidala:

orrela, emon ezkerro, artu egiten da-ta;

aaztu ezkerro, idoro (aurkitu) egiten da;

parkatu ezkerro, parkamena jaristen da,

eta il ezkerro, betiko bizitzarako berbiztuten da.

Onela izan dadilla, Jauna. Amen.

* * *

Iñor ez iltea

(1982-V-16)

Bizia, guztientzat eta batez be kristauarentzat, mundu onetako ondasunik bikaiñena da.

Eta Jaungoikoak persona bakotxaren barruan lege bat sartzen dau, jatorrizko legea, bosgarren agindua: «Ez dozu ñor ilgo» (Ur 20, 13).

Irakurri dagigun onetzaz Bibliak diñoana (As 4, 1-16):

Adan eta Eba'k seme bi izan ebezan: Kain eta Abel. Abel, artzaiña zan; Kain, nekazaria. Abel, zintzoa zan; Kain, gaiztoa. Bein, biak Jaunari oparia eskifii outsoen. Kain'ek lurreko frutuetarik eskifii eutsan; Abel'ek, bere artaldeko bildotsik ederrenak. Jaunak, Abel eta onen oparia ontzat artu ebazan; ez, ostera, Kain eta onen oparia. Orregaitik, Kain asarratu egin zan.

Egun baten, Kain'ek Abel bere anaiari auxe esan eutsan: «Goazan basora». Eta basora elduaz batera, Kain'ek il egin eban bere anaia. Orduan, Jaunak Kain'í auxe esan eutsan: «Kain, Kain, ¿non dago zure anaia?» «Ez dakit —erantzun eutsan Kain'ek—. ¿Nire anaiaren zaintzaille al-naz, ba, ni?» Eta Jaungoikoak Kain'í: «¿Zer egin dozu? Zure anaiaren odolak deadar egiten daust lurretik. Orregaitik, madarikatua izango zara lurrean. Lurra landu dagizunean, ez dautsu fruturik emongo. Ñon ez dozu bakerik aurkituko». Kain'ek alde egin eban Jaunaren aurretik. Ñon be ez eban arrezkerro bakerik aurkitu. Aren ondorengoak gaiztoak izan ziran, eta arei izena “munduaren semeak” ezarri eutseen (As 4, 2-16).

«Ez dozu ñor ilgo», agindu euskun Jaungoikoak. Personak gareanoi agindu euskun. Otsoak otsoari ez ei'dautso ekiten; beleak belarik ez ei'dau ilten. Bai, ostera, gizonak gizona.

Indarrez ildakoaren odolak deadar egiten ba'dautso Jaungoikoari, a zelako soifnu garratza entzuten dauan Jaungoikoak, gaurregunean, zeru-gaiñetik! Atsedetik artu bagarik, sekula nekatu bagarik, gelditzeko asmorik be izan bagarik, gizonak gizona ilten diardu mundu zabalean. Eta zoritxarrez, geure artean be bai! ¿Zenbat gizakumek artu ete-dau eriotza beste gizakumeren eskuetatik, urtearen barruan?

Bizi guztiak bardiñak dira, baita zeurea ta neurea be, eta bardin balio dabe, munduko urre guztia baiño geiago, munduko ondasun eta aberastasun guztiak baiño geiago. Alan be, ildako gizona ezaguna yakunean, zarrastada aundiagoa emoten dausku aren eriotzak. Iru gizon ospatsu izan dira urte-barruan balaz zulatuak: Reagan, Ipar-Amerika'ko Lendakaria; Erroma'ko Aita Santua, eta Anuar el Sadat, Ejipto'koa. Leenengo biak bizirik geratu ziran; irugarrena, ilda.

Mundu onetako gauzarik baliotsuena gizakumearen bizia da. Eta personearen zerbitzura, persona biziaren zerbitzura, egon bear dogu guztiok.

Bizia, giza-bizia! Ez da munduan ezer, ez politikarik, ez aberririk, ez ñor, ez ezer, personeari bizia geure eskuz kentzeko eskubiderik emoten dauskunik, norbere bizia salbatzeko izan ezik. Orduan bai: norbere bizia ñorena baiño gorago dago, norbere bizia ñiorena baiño leenago dago.

Zuk beste bat ilteko eskubiderik ba'zeuke, beste batek zeu ilteko eskubidea be izango leuke. Es dago ñor ilteko errazoirik. ¿Zegaitik ez? Norbere bizia errazoi guztien gaiñetik dagoalako. Orrexegaitik. Bizia jabe bakarra, bizia emon euskuna baiño besterik ez dalako. «Jaunak emon eustan eta Jaunak kendu: bedeinkatua Jaunaren izena!», Bibliako Job santuak diñoanez (Job 1, 21). Eta beste ñok be ez kendu.

«Kain, ¿non da zure anaia?» —itandu eutsan Jaungoikoak Kain'í—; ¿non da zuk il dozun zure anaia? «Zure anaiaren odolak deadar egiten daust lurretik», aren odolak garrasi ta oi u egiten daust.

Antxiña, Israel'en, iltzaillea arrika ilten eben. Iltzaillea, izan be, ez da personen artean bizi izateko duin. Iltzaillea *basati* biurtzen da, personearen arerio, sendien (familien) arerio, erritarren arerio, biziaren arerio.

Kristauak ezin goratu daike iltzaillea ezetara be; ezta kristau ez danak be, baiña kristauok gutxiago: Jesukristoren agindurik nagusiena Jaungoikoa maite izatea eta gure lagun-urkoa geure burua lez maite izatea dalako. Ezta ifloren eriotzaz poztu be, gogoz, gurariz, iltzaille-kide izango gintzakez-ta. Eta ondo dakizue: gaiztakeria egiñez egin daiteke, baita berbaz, gurariz, bururapenez eta asmoz be.

Izubidea, terrorismoa... ¿Zer da terrorismoa? Izubide edo terrorismoa agirizko indarkeri-egintzak egitea da. Ementxe sartzen dira norbait otzean tiroka iltea, personea baitzea edo sekuestratzea, atrakoak armakaz, iraultza-zerge ("impuesto revolucionario" izenekoa), nor-baiti oiñazeak emotea, baita diktadurak be, giza-eskubideak zapaltzen dabezanean.

Aita Santuak bein baiño geiagotan egin dau berba terrorismoaren aurka. Ona emen aurtengo zezeillean Aprika'n esan ebazan berbak: «Izubidea, demokrata ta kristau lez aurrera egiteko guztiz okerreko bidea da, oso-osorik legearen eta zentzunaren aurka dagoana».

Gaiztakeri ta dongakeriok persona zibilizatuak ezin onartu daikez ezetara be, gutxiago kristauak —leen esan dautsuedanez—, Jesukristoren maitasun-lege nagusia —alkar-maitasuna— zapaldu, ausi ta ezereztu egiten dabe-ta.

Amaitzeko, eliztar zintzook, izan dagiguzan burutasun (idea) argiak gaiztakeri orrei buruz; jakin dagigun nor nor dan eta zer zer dan; eta izan dagigun adorea ona dana ona dala autortzeko, eta gaiztakeria gaiztakeria dala argi ta garbi esateko. Eta ori guztion eginbearra da, kikilduta geratu bagarik: gizon lez, persona lez eta, batez be, kristau lez.

* * *

Jesukristoren Bakea

(GS, 195 orri.)

Jesusek, «bakearen erregeak», Isaias profetak diñoanez (Is 9, 5), lur onetatik joaterakoan, bakea itzi euskun. Bere azken-naia zan. «Bakea izten dautsuet, neure bakea bera. Munduak emoten dauan bakea ez dana. Ez zaiteze larritu, ez izan bildurrik» (Jn 14, 27).

Jesusen bakea dabenak ez dira txepelak, koldarrak, izaten. Guzurrari, zuzenbagekeriari eta gorrotoari aurpegia emoten dautse bildur bagarik. Ez dautsoe ezeri bildurrik, euren indarra barruan daroe-ta. Ifloz be ez daust bakea kenduko / neuk emon nai ez ba'dot.

«Neugan dozuen batasunean bakea aurkitu aal izan dagizuen esan dautsuet guzti au. Munduan atsekabeak izango dozuez; baiña, izan adorea!: neuk azpiratu dot mundua» (Jn 16, 33)

«Bakea zuzentasunetik erneten da» (Isaias 32, 17). Munduaren bakea guzurrezkoa da, itxurakeri utsa; bake orri gudu (edo gerra) otza deritxo. Koloka dagoan bakea da: bere oiñarria zuzenbagekeria izanik, indarkeriak eusten dautso-ta. (Indarkeritik ezin jaio izango da ifloiz be benetako bakerik, indarkeriak indarkeria sortzen dau-ta.) Gaiztakeriaz aunditu egiten diran norberekoiak deadarka eskatzen daben guzurrezko bakea da ori.

Jesusen bakea / apala ta burrukalaria da batera. Norbere burua oso-osorik bizi izaten dan egiari lotzen yakonetik jaioten da bakea. Jaungoikoagan dogun uste onetik sortzen dan bakea da; ondo ezagutzen dau Berak gure ezereza eta maite-maite gaitu. Sinismenetik jaioten dan bakea da, itxaropenean irauten dauana, eta maitasunean geitzen dana.

Jaunarena da bakea. Geugan dago bakea eskatzea eta bakea biztuten dauana billatzea (Erm 14, 19); geugan dago, batez be, uste ona.

Ekarri egizu gogora ekaitz-erdian izan zan Ebanjelioko jazopen au:

«Egun baten, Jesusen ikasleak itsasora jo eben; Jesus be arekaz yoian. Orduan, itsasoan aize-bolara ikaragarria sortu zan, olatuak txalupea estaltzeraiño. Jesus, barriz, lo atzeko aldean, eta iratzartu egin eben, esanez: "Jauna, salbatu gagizuz, galduak gara-ta!" Jesusek aizeari ta itsasoari agiraka egiñik, barealdi ederra egin zan. Eta auxe esan eutsen Jesusek: "Zeren bildur zaree, siniste otzeko gizonok?"» (Mt 8, 23-26).

Nire tentaldietan, naibageetan, atsekabeetan, egunoroko arazo ta lanetan... bakea. Barealdi aundia. Jesus, baretu egizu nire barruko itsasoa!

Esan daiskula geuri be Jesusek, Bera biztuta gero, bere apostolui esan eutsena: «Bakea zuekaz!». Gero, arazo bat guretzat: «Aitak bialdu nenduan ez bialtzen zaituet neuk be» (Jn 20, 21).

Joan munduan zear Jesusen guraria beteten: «Sartu zaitezen etxean, esan leenen: "Bakea etxe oni". An bake-semerik ba'da, zuen bakea aren gaiñean geratuko da" (Lk 10, 5).

Ez naitela ifloiz be izan, Jauna, eztabaida, burruka ta asarre-ardatz. Bakea erein dagidala nire artu-emon tolesbage ta lauaz. Bake-eragille izan naitela.

Gudua (gerrea) zigorrik aundiena danez, bakea gizakien doai bikaiña da. «Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Aren gogoko gizonai!» (Lk 2, 14).

Ona emen bake aundia sortzen daben lau gauza:
«Zeure naia baiño iñorena egiten aalegiñiak egizuz.
Ugari eukitea bagarik urri eukitea aukeratu egizu beti.
Zuretzat beti azkenengo lekua ta guztien zerbitzari izatea billatu egizu.
Azkenez, Jaungoikoaren naia zugar beti osoro betetea gura izan eta eskatu egizu» (Kenpis,
23 lib., 23, 2-3).

Billatu bakea. Bere barruan Jesusen bakea somatu dauanak, ez dau ezer geiago billatzen,
arrezkero ez dau besterik gura izaten.

Zeure adiskide izatean bakarrik dago benetako bakea, Jauna.

Emon egiguzu, ba, zure bakea gure barruan, gure etxean, gure errian, gure Aberrian,
mundu guztian. Amen.

* * *

“Gure Aita”

(ikusi Mateo 5, 9-13)

GURE: geure Aita, guztiona. Ia bost milloer persona gara lur onetan bizi gareanok:
umeak, gazteak, urteetan elduak, naiz zaarrak izan;
edo kolore batekoak naiz bestekoak izan;
guztion Aita zara, Jauna, guztiona. Orrexe gaitik esaten dautsugu «Gure Aita».

AITA: zeruko gure Aita: Zuk zure seme-alaba guztiak bardin ikusten dozuz; bata izan,
bestea izan, seme-alabak dozuz guztiak. Eta guk, guztiok, Aita zaitugu.

ZERUAN ZAREANA: baita lurrean be, baita andrazko ta gizonezko guztiakan be,
osasunez naiz geisorik naiz naibageetan dagozanakan be.

Zu, Jauna, guztiakan zagoz; Zeuk egin gaituzu guztiok, gurasoen bitartez.
Zeuk emon dautsezu gurasoai gu sortzeko indarra. Eskerrik asko, Jauna.

SANTIFIKATUA IZAN BEDI ZURE IZENA: edo bardin dana: Zeu goratu zagiezala guzti-
guztiak; zure izena goragarri egin dagiela, zikindu bearrean.

Izan be, Jaungoikoaren izena zikintzea / zikinkeriarik aundiena da: Jaunaren aurka zuzen-
zuzen egiten dan gaiztakeria da-ta.

BETORKIGU ZURE ERREGETZA: bakezko erregetza, maitasunezkoa, zuzentasunezkoa,
egiazkoa, askatasunezko erregetza.

EGIN BEDI ZURE NAIA: beti ta erri guztietan. Zeruan. Lurrean. Zure bake-asmoa ez
dagiela ausi gizon zapaltzailleak, maltzurkeria ta guzurra maite dabenak.
Iñok ez gagizala maltzurkeriz eroan, galtzeko ta ondatzeko bidera eroan.

EMON EGIGUZU GAUR EGUNOROKO GURE OGIA: gorputzerako bear dogun ogia,
eta arimarako bear dogun ogia; bakeaz, zuzentasunaz eta alkar-maitasunaz oretutako ogia;
eta urrindu gugandik, Jauna, alkargandik banantzen gaituan galbedarra,
baita ikusi-eziña ta banakuntza janaritzen dauzan gorrotoa be.

Gure artean alkartu bearrean banantzen diarduana, Jauna, ez da, ezin izan daiteke Jesukristo
zure Semearen jarraitzaille zintzoa, guzurrezko jarraitzaillea baiño, zure Semea saldu eban
Judas lakoa baiño. Obe leuke arelakoak jaio ez ba' litz!

Gu kristauak gara, Kristoren jarraitzailleak; ez gara marxistak. «Ugazaba biren morroi ezin
iñor izan daiteke batera», dirausku Jesukristok bere Ebanjelioan (Lk 16, 13). Beraz, ezin
izan gaitkez batera kristau eta marxista: Kristo eta Marx aurrez-aurrez dagoz-ta, alkarren
aurkakoak (kontrakoak) dira.

Emon egiguzu egunoroko ogia. Kristo da benetako bizia emoten dauskun Ogia.

Jesus Jauna: emon egiguzu gorputzerako ogia, egunoroko janaria; baiña maite izan zagigu-
zala Zeu: mundu au iztean, betiko bizitza zoriontsua emoten dasukuzun bakarra, bakar-
bakarra, Zeu zara-ta.

PARKATU GURE IRAIÑAK: edo bardin dana, gure obenen iraiñiak, zorrak.

Pekatu egiten dogun bakotxean, Jaunari irain egiten dautsugu, eta zordun geratzen gara.

Zor ori kitatzeko erea: pekatuaz damutu eta Jaunari parka eskatu. Baiña agoaz bakarrik ez,
biotzez baiño.

Zuk, Jauna, biotzeko berbak entzuten dozuz; gure berbak barrutik esaten ez ba' dautsuguz,
gure ezpanetako berbai ez dautsezu jaramonik egiten. Biotzeko damua agertzen ba' dautsugu,
barriz, beti parkatzen gaituzu.

GEUK BE IRAINTZEN GAITUENAI PARKATZEN DAUTSEGUNEZ: au esan bai, esaten dogu; baiña, ¿parkatzen ete-dautsegu, benetan, iraintzen gaituenai? Eta parkatuta gero, ez daitela amorrurik geratu, ez ixilleko gorrotorik be, ezta erre-mifiik be.

Gaitz egiten yaku egiten dauskuen iraiña parkatzea, oso gaitz. Baiña, alan be, parkatzen jakin bear dogu

Bein, «Pedrok, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsan: “Jauna, zenbatetan parkatu bear dautsat nire anaiari, iraintzen ba´nau? Zazpi bidar bai?” (¿Askotan bai?) Eta Jesusek ari: “Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar bidar zazpi aldiz be”» (Mt 18, 21-22). Edo bardin dana: beti.

Eta San Lukas Ebanjelariak Jesusen berbok dakaz: «Maite egizue zuen arerioak eta on egizue gorroto dautsuenai» (Lk 6, 27). Au, beste aurrekoa baiño nekezagoa. Arerioa maite!

«Erriak ez dau parkatuko», irakurten dogu or leku batzuetan. Esaldi orrek esanai bat baiño geiago izan daikez. Bata, gaiztakeria zigortu egin bear dala. Izan be, gaiztakeriak zigorra daroa beragaz leen, orain eta beti eta alde guztietan; bestela, *basati* biurtuko gintzakez. Eta beste esanaia: gaiztakeriaren zigortzaillea zigortu ta ondatu egin bear dala; eta, eskubide ori erriak artu ezker, erritar bakotxak be bai. Baiña pentsakera au ezin ontzat artu daiteke, orduan gaiztakeriari gaiztekeriaz erantzutea libre izango litzake-ta, gaiztakeria nagusi izango litzake, eta gu, guztiok, gaiztakeriaren morroi ta menpeko. Nik baiño obeto dakizue ori, bearbada, zuetariko batzuek. Edozela be, nik ez dautsat esaldi orri kristau-usaiñik artzen, abagadune (okasiño) onetan zuzentasuna baiño gorrotoa geiago dario-ta.

EZ EGIGUZU ITZI ZUGANDIK ALDE EGITEN: edo bardin dana: ez egiguzu itzi tentaldian jausten.

¿Zelan aldendu gaitkez, gutxi-asko, Jaunagandik? Ondo dakizue: gure barruak, gure kontzientziak, guri egitada bat txarra dala esanarren, guk egitada ori egiñaz.

Orretarako, jakin egin bear egitada ori ona ala txarra dan, egitada ori zuzena ala okerra dan.

Orregaitik, egiaz jokatu bear dogu beti, egia zetan dagoan ondo aztertuaz, iñok azpikeriaz, azpi-jokoaz, okerreko bidera eroan ez gagizan.

Edozela be, zerbait egiten dogunean edo zerbait egiten ez dogunean, Jaungoikoak geure naia (borondatea) ona ala txarra dan ikusten dau beti

¿Zeintzuk dira bakearen aurkako tentaldiak? Etxe-barruko eztabaida gogorrek eta asarreak, esate baterako.

Batzuen jokabidea auxe da: zuk zuria dala esaten ba´dozu, nik baltza dala esango dot; gure aurkakoari errazoirik iñoiz be emon ez. Neuk beti errazoa, neu beti ona ta zuzena, eta enparaduak, txarrak.

Jesukristok bere Ebanjelioan dirauskuna: «Enparaduak epaitu dagizuezan epai berberaz epaituko zaitue Jaungoikoak, eta enparaduak negurtu dagizuezan negurri berberaz negurtuko zaitue Berak. ¿Zegaitik begiratzen dozu zure anaiak bere begian daukan samarra, eta ez dozu zeure begian daukazun abea ikusten?» (Mt 7, 1-3).

ETA ATARA GAGIZUZ GAIZTOAGANDIK: Gaizto au txerrena da, deabrua, personearen betiko arerioa.

Iru arerio daukaz arimeak: deabrua, mundua eta aragia.

Mundukoiak deabrua non dagoan itauntzen dabe irri-barreka.

Alan be, sarri be sarri aitatzen dausku Jesukristok arerio au, baita Apostoluak be.

Jesukristok:

«Auxe bakarrik esan egizue: “Bai” edo “Ez”; orren gaiñerakoa Gaiztoagandik dator» (Mt 5, 37).

«Eta atara gagizuz Gaiztoagandik» (Mt 6, 13).

«Eta Gaiztoak, etorrita, kendu egiten dautse biotzean ereindakoa [erreifuko mandatua]» (Mt 13, 19).

«Azi ona, erreifuko bizilagunak dira; galbedarra, barriz, Gaiztoaren jarraitzaileak» (Mt 13, 38).

Jesusek zeruko bere Aitari otoitz egitean: «Ez dautsut oneik [Apostoluak] mundutik atarateko eskatzen, Gaiztoagandik gorde dagizuzala baiño» (Jn 17, 15).

San Paulo Apostoluak:

«Euki egizue beti eskuan fedearen babeskiña, Gaiztoaren gezi iziotu guztiak itzungi (atzamatu) aal dagizuezan» (Ef 6, 16).

«Baiña zintzoa da Jauna, eta Beronek sendotu ta gordeko zaitue Gaiztoagandik» (Ef 2ª, 3, 3).

San Joan Ebanjelariak:

«Zeuei idazten dautsuet, gazteoi, Gaiztoa azpiratu dozuelako» (Jn 1ª, 2, 13).

«Zeuei idazten dautsuet, gazteoi, indartsuak zareelako, eta Jaungoikoaren Itza zeuekan dagoalako, eta Gaiztoa azpiratu dozuelako» (Jn 1ª, 2, 14).

«Ez izan Kain´en antzeko: arek, Gaiztoaren ume zan ezker, anaia il egin eban» (Jn 1ª, 3, 12).

«Jaungoikoagandik jaio danak bere burua zaindu egiten dau, eta Gazitoak ez dautso ikuturik be egiten» (Jn 1ª, 5, 18).

«Ba-dakigu Jaungoikoarenak gareana, eta mundu guztia Gaiztoaren azpian dagoana» (Jn 1ª, 5, 19).

“Deabrua” izena, barriz, ainbat lekutan agertzen da Ebanjelioetan eta Apostoluen Idazkietan.

Jesus Jauna: gorde nagizu Gaiztoagandik!

Entzun, Jauna, nire otoitza eta eldu bedi Zuanaiño nire deadarra!

* * *

“Gazteen urtea”

(1985, orrillean)

Onezkero entzungo zenduenez, aurtengo urte au “Gazteen urtea” da.

Ori dala-ta, Abar-domekan, irurogeta amar errialdetik, irureun milla gazte eldu ziran Erroma’ra, Aita Santuaren bedeinkapena artzera; eta Aita Santuak «bake-egille ta itxaropen-mandatari» izan zeitezala esan eutsen. Eta urrengo otoitz au egin eutsan Jaunari, gazteak be sarritan egin egioen:

Gazteen otoitza bakearen alde

Jesus Jauna, Pedroren ondorengoaren eta erri askatuaren ondoan,
Zeugana gatoz lurreko bazter guztietatik.
Zuk / beti geugaz geratzeko agintzaria egin zeuskun ezkeru,
entzun gaur gaztediaren deadarra
eta izan zaituz gure gizaldiarentzat
bakera daroan irakasle ta artzaiña.
Berba egiguzu, zure berbots jakintsu ta sendoaz,
agintzariari ta egitarauari buruz:
«Zorionekoak bake-egilleak,
Jaungoikoaren Semé esango dautsee-ta».

Ontzat artzen dogu gaur zure deia,

eta munduko bakeari buruz

betebear iraunkor egin nai dogu.

Emon egiguzu zure graziaren askatasuna,

zuzentasunean eta maitasun-arduratasunean bizi izateko.

Irakatsi egiguzu kultura barri bat eratzen,

bertan edozein gizonek, taldek, errik eta endak (arrazak) eskuartu dagian.

Emon egiguzu bakea, bake orren zain egarri be egarri dagozanai eldu dakien,

eta bake ori aundiagotu daiten.

Egin gagizuz Abel’en aldeko, bera edonon biziarren be:

Abel beartsu ta bertan-beera itziaren aldeko,

Abel zaarraren naiz lan ez-egokia daukan Abel’en aldeko,

bere sinismenagaitik aurrean erabilia dan Abel’en aldeko,

bere amaren sabelean babes eta laguntza bagarik dagoan Abel’en aldeko.

Izan zaituz Zeu, Jauna, gure Bakea.

Zure Ama, Jauna, zure ikasle gazteentzat zeure aurpegiaren ispillu izan daitela.

Bera izan daitela gure itxaropen ezitzaille.

Gure bizia arriskutan dago, eta auxe uste dogu:

gure gizaldiko zarraparrak mundu zaar baten azken-arnasak ba’dira,

jaiotza barri baten seingintza-miñak be ba-dira.

Lagun izan zakiguz, Jauna!

Parkatu, Jauna, gure iraiñak

(OARRA: Erderaz sarrera labur bat eginda gero, 1993´garren urteko bagillaren 26´an, Xemein´go eliza nagusian, "Euskalerriko Adiskideen Alkarte"-kook izan genduan Mezatan egin neutsen berbalditxo:)

«... Y, dejando a un lado la homilía que había preparado para este acto, he optado por estos "ruegos de perdón" a Dios, ruegos que hace varios años hizo el Papa Joan Paulo II, a los que he añadido otros de mi cosecha referentes a nuestro País que formamos con el lema IRURAK BAT de nuestra Sociedad, y ZAZPIRAK BAT de nuestro pueblo vasco en general. "Perdón, Señor!"»

* * *

Ona emen Aita Santuak, leengo urte baten, Jaunari egindako eskari ta erregu batzuk.

Geuk be zuzendu daioguzan eskariok zeruko gure Aitari, gaur emen, ixillean, burumakur, apaltasunez beterik eta geure ezereza autorturik, Sagrarioko zeru-lurren Jaunaren aurrean.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, diruaren, politikaren eta militarren azpian errialdeak zapalduta dagozalako.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, andra-gizon askoren oiñarrizko giza-eskubideak lotuta dagozalako, arein oinperatze ta aurrerapen-ezagaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, laguntalde askok askatasunik ez dabelako, premiñazko ez diran gauzak erosteko ardura larregi dagoalako, askoren burubagekeriagaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, iskilloen (armen) bidez egindako bakeagaitik, bildurragaitik, personai egiten yakezan oiñazeakaitik, gudu edo gerrakaitik, espetxe, odol-isurte ta kateakaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, kikilduta dagozanakaitik, susmo txarrakaitik, eragozpenakaitik, bidean jarten dabezan sareakaitik, erbesteratuakaitik, txabola errukarrietan bizi diranakaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, isilduta dagozan abotsakaitik, iñok darabizan kontzientziakaitik, eskuak eta agoa lotuta daukezanakaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, lan bagarik dagozan gazteakaitik, lur-jota eta lur-joteko

zoriar dagozan lantegiakaitik, gizarte-laguntza bagarik dagozanakaitik, erbestean askatasun bagarik dagozanakaitik, bertan-beera itzita dagozan atzeratuakaitik, baztartuta dagozan zaarrikaitik, maltzurkeriz eta azpi-jokoaren bidez darabillezan gazteakaitik, drogapean geisorik eta zoratuta lez dagozanagaitik, "sida" geisoaz oiñaze gorritan dagozanakaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, lerkai edo bonbakaitik, bonbaz etxeak eta bizitzak ondatzeagaitik, ilteakaitik, baikuntza edo sekuestroakaitik, lapurretakaitik, personai egiten yakezan erasoakaitik, iñoren izen ona loitzeagaitik, guzur-baltz edo kalumniakaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, indarkeripean bizi diran erriakaitik, zemaikuntza edo amenazupean dagozanakaitik, bakarrean tiroka ilteagaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, alkarganako ardura-ezagaitik, gure artu-emon otzakaitik, gure adiskidetasun epelagaitik, gure alkar-laguntza ezagaitik, gure berba motzakaitik, biraoakaitik, gordinkeriakaitik, gure arteko jan-edankeriagaitik, lizunkeriakaitik, dirua alperreko gauzetan eralgiteagaitik, gure aundikeriagaitik, arrokeriagaitik, arrozpukeriagaitik, zekenkeriagaitik, gure artean dagoan politika-banakuntza negargarriagaitik, gure kristautasun motelagaitik, gure sinismen otzagaitik, Zuganako gure ala-olako itxaropenagaitik, gure alkar-maitasun urriagaitik.

Parka eskatzen dautsugu, Jauna, irratietako eta telebiziñoko lizunkeri, nasaikeri, loikeri, zikinker, tentelkeri ta lotsabagekeriakaitik, maitasun ustela goratzen dabenakaitik, bananduta bizi diran gurasoakaitik, amaren sabelean dagoan ume errubagea galtzen eta ilten dabenakaitik, zelan-alan iñoren bizia kentzen dabenakaitik.

Ondo ikusten dozuz, Jauna, gure arteko argaltasuna ta gaiztakeria; zeure laguntza bear dogu. Emon egiguzu azpikeria, galbidea ta bide okerra non dagozan ondo ikusteko ta banantzeko buruko argia. Espiritu Santuak bialdu daiskula bere argia, biztu dagiala gudan bere garra.

Azkenez, emon egiguzu, Jauna, kristau zintzoagoak izateko adorea, Zu ta gure lagunurkoa geroago ta geiago maite izateko indarra: zeure aginduen erara bizi izanik, lur onetan zorientsuagoak izan gaitezcan eta betiko bizitza lortu dagigun.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Bakea (I)

(1987-X-11, Gazeta 7ko basilizian)

Aita Santuak, azkenengo egunotan Ameriketako Estatu Batuetara joan zanean, berba egin eban toki guztietan "bakea ta bakea" aitatu eban.

Leengo astean be, Erroma-ra bihurtu zanean eta "Donostia 7ko Abesbatza"-koak ikustaldia egitera joan yakozanean, Euskalerrian bakea izan daitela esan eutsen Aita Santuak. Beraz, egoki be egoki dator bakeari buruz zerbait esateari ekitea.

Gauregunean etxe-barruetako eztabaidak eta asarreak txikiak ez ba 7dira, ez dira txikiak eta urriagoak etxetik kanpokoak.

7Zaintzuk dira bakearen aurkako jokabide orreik? Ainbat eta ainbat. Gauregunean nagusienak edo agiri-agirian dagozanak, oneixek:

1) Geure arteko burrukea. "Jaiak bai, borroka ere bai", irakurten dogu kaleko idazkun (letrero) batzuetan. Eta ori, kristauok, ez da kristau-pentsakerea, kristau ez diranen pentsakera ta jokabidea bai7no. Lotsaz beterik nago eguastenean Elorrio 7n jazo ziran kale-zarraparrazak; lotsaz beterik egon bear geuke guztiok an egin ziran kalteen aurrean. 7Basati biurtu ete-gara, ba? 7Dozena bat mutiko —mutiko ez diranak bultza eta axaxa eginda— naikoa izango ete-dira beste guztiok zapaltzeko eta baztar guztiak apurtzeko? Orreixek dira burruka orrean ondorenak: iforen gauzak ondatu ta apurtu; norberenak ez, iforenak bai7no. Ori be beste indarkeri edo diktadura-mota bat da; militarren diktadurea bagarik, persona zibillen diktadurea, indarkeria. 7Nora goaz bide orretatik?

Euskaldunok gogait eginda gagoz edo egon bear geuke alkar-burruka, gerra ta indarke-riaz. Indarkeri guztiak erriari ondamentia bai7no ez dautsoe ekarten, indarkeria ori zuria izan, naiz gorria izan, naiz baltza izan. Ori, argi ta garbi geratu zan Batikano 7ko Batzar Nagusian eta Aita Santu Joan 23 7garrenak "Pacem in terris" entziklikan, "Bakea lurrean" izenekoa entziklikan.

Ona be ona da egoera batzuk barriztea, zaartuta ta alperrik galduta dagozan egoerak aldatzea; bai7na, beti be, alkarriketaren bidez, onean-onean, alkarren artean berba eginda, eta ez burruka, iraultza edo erreboluzi7no ta gerraren bidez. Iru egintza-bide orreik, egoerak ondu bearrean, ankaz gora jaurtiten dabez, errien ondamentia ta bizikera zoritxarrekoa ekarrik.

2) Bakearen kontrako beste jokabide bat: aurrekoaren antzekoa, bigunagoa izanarren be:

geure arteko banakuntzak eta banaketak. Argi dago eta jakifia da, kristau diranak eta kristau ez diranak alkarren artean bardin ez pentsatzea. Bai7na lotsagarria ta negargarria da, benetan, kristau-taldeak euren artean bat ez egitea, ez alkatzea. Alkartu bearrean alkarandik banantzea. Ori, otsoaren jokabidea dala di7no Jesukristok (ikus Joan, 10, 7-16). Eta otsoa deabruaren irudi da, txerrenaren irudi, teologoak di7noenez.

Zuek, Gazetarrok, leku-izen egoki bat ba-dozue beintzat: "Lagunarte", edo bardin dana, lagun-alkarte.

Jaunak emon dagitzuela beti zuen artean benetako lagun eta adiskide izateko gogo iraunkorra, eta orretarako Bere laguntza.

Bakea (II)

Ona emen Aita Santuak leengo zapatuan Irlanda 7n esan ebazan berba batzuk. Geuretzat be oso ondo ta egoki datorkiguz.

Lenen eta bein: Bakea Kristogan zagozen guztioi.

Indarkeria (biolentzia, terrorismoa), terroristak maite dabela di7noen errialdea ondatzeko ta apurtzeko bai7no ez da. Alaxe da: terroristak eta «7 Viva la muerte! = Gora eriotza!» di7noenak, bide bardi7na daroe, bide bardi7netik doaz.

Irlanda 7ko iparraldeko burrukak eta alkar-ilteak eta lerkaiak (bonbak) ez dira katolikoan eta protestantean arteko burrukak —egunkari batzuetan irakurten danez—, terroristen arteko burrukak bai7no.

Gazteai dei au egiten dautset, eta eurai dautsedan maitasunagaitik egin be: ez egizue entzun, ez egizue jaramonik egin gorrotoaren eta bengantzearen berbakereari. Ez egizue jarraitu eriotzako bidera zaroezan buru edo "liderrai". Ez uste izan adorea ta indarra enparaduak ilten eta ondatzen erakusten diranik. Ez. Benetako adorea, bakearen alde lan egitean dago; benetako indarra alkatzean dago, gizarte zuzen bat egiteko. Bakeak bakarrik eroan daik benetako zuzentasunaren bidetik.

Itzi egizue alde batera indarkeria ta terrorismoa, ez dira Kristorenak-eta.

Izan be, nire entzuleok, auziak, gora-berak eta problemak, alkarriketaz, alkarren artean berba egi7naz ebazten dira.

Ez dira nire eritxiak, Erroma 7n 1979 7garren urteko zemendiaren 14 7an Aita Santu Joan

Paulo 2^{garrenak} esan ebazan berbak baiño: «Indarkeriaren bideetatik ezin lortu daiteke giza-konponketa zuzenik. Zuzenbide berori jakifierazo dau Europa^{ko} Batzarrak be. Ainbat gutxiago erabili daikez orrelako jokaerak bere burua kristautzat darabilenak».

Izan be, pistolak, metrailletak eta kañoiak gerrarako dira, gerrara garoez, ondamendira. Gerreak ez dakar iñoiz be gauza onik; alkar-ilteak baiño besterik ez. Ezer lortzekotan, aalegin guztiak egin bear dira onean-onean lortzeko, ez indarkeriaz eta nor geiagoka. Nor-geiagokeria / basatia izaten da, basoan abereak (animaliak) eta pistiak egiten daberen egikerea. Personeren artean, persona zibilizatuen artean, alkarrizketa erabilten da. Alkarrizketeaz lortu da gure Estatutoa be, Autonomi-Estatutoa. Indarrez ez genduan ezer lortuko, España Euzkadi baiño milla bidar indartsuagoa da-ta. Begiratu baiño ez daukagu zer jazo yakun azken-gerrakaz: iru gerra galdu doguz euskaldunok eun urteren barruan: bata, leenengo karlista-gerrea, milla zortzireun eta ogeta amairugarren urtekoa (1833-1839); bigarrena, bigarren karlista-gerrea, milla zortzireun eta irurogeta amabigarren urtekoa (1872-1876); eta irugarrena, azkenengo gerrea, milla bederatzireun eta ogeta amaseigarren urtekoa (1936-1939). Iruretan, euskaldunok ondatuta geratu gintzazan eta gure Erriaren askatasuna galduta. Gutxi gara, erri txikia da Euskalerrria España^{ren} ondoan, eta lortu nai dogun askatasuna onean-onean lortu bear dogu. Indarkeriaz eta "kukurruku" egiñaz ez goaz iñora, entzuleok, ondamendira baiño, geure Aberria ondatzera baiño.

Bakotxak bere barruan ausnartu dagizala emen entzun dauzan egia biribillok.

* * *

Zoriona

Sarri be sarri entzun dozue mundu onetako bizitza au ez dala benetako bizitza, igarote bat baiño, betiko bizitzarako oinkada (pausu) bat baiño. Benetako bizitza geuk lortu bear dogu lur onetan, geuk irabazi bear dogu gure egintza onen bidez. Argi dirausku Jesukristok bere Ebanjelioan: «Bein, gazte batek Jesusi auxe itandu eutsan: "Irakasle, ¿zer onik egin bear dot nik betiko bizitza jaristeko?" Eta Jesusek ari: "Bizitzan sartu nai ba^{dozu}, bete egizuz aginduak"» (Mt 19, 16-17).

«Itxaroten dot illen biztuera, eta datorren munduko bizitza», difogru Kredoa.

Baiña. ¿zer ete-da betiko bizitza, geroko bizitza? Ain zuzen be, betiko bizitza ori baka-

rrrik da bizitza zoriontsua. Betiko bizitza orren itxaropenaz diardugu kristauok geure kristau-bizikerea lantzen.

Zorion-irritsa.

Zorion-billa gabiz guztiok. Zorion deritxon zerbaitek erreta daukaz gure biotzak. Atsegin-griña ori bere barruan somatzen ez dauan personarik ez dago. Batzuek erreago, nabarmenago, sumiñago; beste batzuek motelago, epelago, baretsuago; baiña, gutxiago edo geiago, guztiok daukagu biotza geisorik, guztiok gara biotz-min.

Zorion-billa gabiz, zorion-amesez; ez, orraitino, bide batetik. Batzuk, zorioneko izateko, zintzo izaten dira; beste batzuk, oker eta gaizto, zorionerako bide laburragoa orixe dalakotan. Batzuk burrukazale, beste batzuk bakezale; baiña bitzuok zoriona dabe egite ta jardueraren elburu. Gure gogoak, giza-maillan, ezin egin daike ezertxo be zorion-amesez izan ezik. Naiz onak, naiz txarrak dirala, gure egintza guztiak zorion-egaria dabe gorengo eragille ta elburu.

Gizartean ez da, ostera, zoriontsurik. Agintari ta menpeko, aberats eta beartsu, ugazaba ta langille, jakitun eta ez-jakin, sendo ta makal, leen izan diranak eta orain diranak, aldi ta alde guztietan, andra ta gizon artega ikusten doguz; zoriona gura eta zorionik ezin jadetsi. Eta gizartea landuago, aurreratuago, asmakizun barriak ugariago eta zorion-egari ori sumiñago; eta zoriona urriñago.

Menpekoak agintaritzan, beartsuak aberaskizunetan, langilleak ugazabatzen, tentelak jakituri ta zuurtasunean, geiso ta makalak osasun eta zendotasunean dagoala zoriona uste dabe. Eta ortik gizonen artean alkarren arteko ikusi-ezin, gorroto ta burrukak. Arako basamortuan, egarriz ito-zorian dagozan bidaztiak, ur biziaren iturria agertutakoan, alkar-bultzaka ta joka, edan eta edan egiten dabenez, alakoxe amorr, alkar joka, alkar ilten etzuten dira gizonak emengo ondasunetara. Baiña, ¿zer? ¿Aseta jagiten ete-dira?, beteta geratzen ete-dira? Ez. Edanago ta egariago. Beroenaz (sukarrez) barrua legortuta, kedartuta daukan geisoak, iturriko ur gardenaz egiten dau ames. Baiña ur ori edanago ta bere agoa legorrago ta erreago geratzen da.

Etxalde ornidua, apain-apain jantzitako etxea, jantzi ederrak eta baliotsuak, janari gozo ta ugaria, edari bizi, atsedeen-aldi luze, bero, epel, eguraldi argi... opa daiteken guztia emon... ¿Ase izango ete-da giza-biotza? ¿Zoriontsua izango ete-da? Bai zera! Opa alak emonarren, beste zerbaiten irrirsak zirikatuko gaitu. Emon, ba, beste zerbait ori. Artu beste zurrutada bat geiago. Baiña... alperrik. Leenaz ez gara, orraitino, aspertzen. Gure buruari

iruzur egin dautsagula konturatzen gara. Baiña leengoa eta oraingoa bardin ez diran ezkerro, ea emen dagoan, ba, gure zoriona, edo an, edo beste ori egitean... Eta onelaxe doa gure bizitzaaldia: iruzurrik-iruzur, eriotz-illunpean jausi arte.

¿Zer agertzen ete-dau, ba, zorion-irrits orrek?, ¿geure oifazerako bakarrik sortzen ete-dau Jaunak giza-erraietan zuzartuta dagoan zorion-grifia ori? Irrits bizi ori ez dau Jaunak gudan alperrik zortu. Zoriontsu izan gaitkez, ez geure aalegitez bakarrik, Jaunaren erruki ta laguntzaz baiño. Eta orduantxe, ain zuzen be, jadetsiko dau kristau zintzoak betiko zoriona, orduantxe izango da kristaua bete-betea zoriontsu, Jaunagan batu daitenean. «Zorionekoak Jaunagan ilten diran ildakoak!», dirausku San Joan Ebanjelariak (Ag 14, 13). Eta Bibliako Salmuetan auxe irakurten da: «Balio aundikoa da Jaunaren aurrean Aren zintzoen eriotza» (Sal 116, 15).

Begira orain zoriontsuen alkartasuna Jaungoikoagaz.

Zoriontsuen adimenak Jaungoikoagaz izango dauan artu-emon eta alkartasuna azaltzeko bide ta erarik ez dogu emen beean. Lurrean zerbait ezagutu ta ulertzen dogunean, ulerkizuna bera gugandik kanpo, urrin, geratzen da; ez dogu ulerkaia adimeneratzen, ulerkai-irudia baiño; izakizuna bera-beragan geratu oi da.

Orra or txoritxo: zer dan jakin nai dot, ulertu nai dot. Ez da orretarako txoria nire buruan sartzen, txori-irudia baiño; txoria bera-beragan geratzen da.

Zeruan osterantzean da. Jaungoikoa da zoriontsuen ulerkizuna. Ulerkizun ori geudan izango dogu. Gure adimen-indariak Jaungoikoa eurakandu egingo dabe. Gure espiritu-barruaren indar, zorion eta argi izango da Jaungoikoa. Arri diriratsuan argitasuna agertzen danez, alaxe izango dogu Jaungoikoa gure adimenaren bizi, indar eta argi. Gure espiritua ez da Jaungoiko-izakizun biurtuko, ezta Jaungoiko-izakizuna be geure spiritu; bakotxak bere izakizuna izango dau; baiña orren urrenena izango da Jaungoikoaren eta gure spirituaren arteko batasuna.

Guk geure burua ezagutzen dogunez ezagutuko dogu Jaungoikoa. Guretzat geu gara urrenen; geu gara, ba, geu. Guk geure burua ezagutzen dogun baiño askozaz be obeto ta argiago ezagutuko dogu Jaungoikoa. Geure buru-jabe izanda be, geu nor garean ezagutzeko, iturri askotara jo bear izaten dogu. Eta ala ta guzti be, asko be asko dira euren buruaz uste okerra dabenak, edo eurak nor eta zer diran gogoratzen ez dabenak.

Lurrean, orraitio, auxe dogu ezaguerarik urrenena. Orain erdizka ezagutzen dot Jaungoikoa; gero, barriz, neure burua ezagutzen dodanez ezagutuko dot (Ko 1ª, 13, 12); geure barruan izango da, eta gu Jaungoikoaren barruan; Jaungoikoa gudan eta gu Jaungoikoagan. Ez, gero, gauza bat tokian izan oi danez: esaterako, gu geure gelan, edo umea amaren altzoan. Ez da ori, Jaungoikoa espiritu utsa da-ta, eta espiritu uts be bai orain zeruan dagoan zoriontsuak be. Ez da, ba, alkarren ondoan nonbait egotea; an, ez goi-beerarik, ez luze-zabalik ez dago-ta. Alkartze ori, Jaungoikoa zoriontsuen barruan, zoriontsuakan izate ori, zerbait bikaiñago ta barrukoagoa da. Su goritan dagoan burdina goria ezin daikee gure begiak suagandik aldendu edo berezi; suak eta burdifeak biok bat dirudie. Burdina goria suaz dan baiño "batago", baterago, izango da Jaungoikoa zoriontsuakaz.

Lurrean be Jaungoikoaren barruan bizi gara, San Paulok dirauskunez: «Beragan bizi, ibili gabiz eta gara» (Ap 17, 28). Eta Jesukristok San Joan Ebanjelariaren bidez: «Benetan maite nauanak nire mandatuan sendo iraungo dau; nire Aitak maite izango dau alakoa, eta nire Aita ta ni etorri egingo gakiok eta aregan bizi izango gara» (Jn 14, 23). Eta barriro San Paulok: «¿Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?... Jaungoikoaren etxea santua da-ta; etxe ori zaree zuek» (Ko 1ª, 3, 16-17).

Baiña orain ez dogu ori somatzen, ez dogu nabaritzen. Gero, bai; zeruan, bai. Orretarako bide bakarrez: Jaungoikoaren idekotsu, Jaungoikoaren antz-antzeko izango gara. Gure bizitzak Jaungoikoaren bizitzaz batera joko dau. Geu geurok bizitza ta argi biurtuko gara. Baiña, ez gure Jaungoikoak, ez guk, ez dogu bakotxak geure nortasuna galduko. Bakotxak daukan nortasun apartekoaz izango da Jaungoikoaren eta zoriontsuen arteko alkartasuna, batasuna.

Entzungo al doguz lurreko gure azken-egunean Jesukristoren berbok: «Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; artu egizue munduaren asieratik zeuentzat atondutako erreñua!» (Mt 25, 34). Orduantxe gure zorion betea!

Biblia

Batikano´ko Batzar Nagusiak, baita azkenengo urteotan izan diran Aita Santuak be, liburu bat ondo ezagutu dagigula esan dauskue: Biblia santua.

¿Zer da Biblia? Jaungoikoaren indarrez eta argitasunez idatzitako liburu-sorta bat.

Liburu-sorta orretan askotariko idazkiak datoz, batek et bestek eginda; baiña guztiok Jaungoikoaren argitasunez. Orrexegaitik dauko liburu orrek daukan indarra: Jainkoaren argitasunez idatzita dagoalako. Liburu orretan, egille nagusia Jainkoa bera da; gizona, barriz, bitarteko bat, guretzat idazkortza naiz boligrafoa danez.

Ba-dakizue Biblia Alkartasun Zaarrak eta Barriak osotzen dabena. Alkartasun Zaarreko libururik beifena Salmutegia da: Salmuak dakaz, Jainkoari otoitz egiteko libururik ederrena ta egokiena. Eta Alkartasun Barriko zatirik ederrena Jesukristoren Barri Ona edo Ebanjelioa, baita —zelanbait esateko— Jesusen irakatsi ori zabalago azaltzen dabezan Apostoluen idazki edo eskutitzak be.

Eta nik, uda onetan beintzat, Alkartasun Barriko zati batzuk irakurri nai dautsuedaz, Jaungoikoaren berbea zer dan zelanbait jakin dagizuen. Guk, abadeok, esan daikeguna ezer ez da Bibliak diñoanaren aldean, gure berbaldietan guztiok Biblian oiñarritzen gara-ta. Baita Aita Santua eta Gotzain guztiak be.

Jaungoikoaren berba au gogoz irakurriko ba´geuke eta egiñez bete, beste bizikera bat eroango geuke, aurki, kristautasun beroagoa ta zintzoagoa gordeko geuke.

Euskaldunok gutxi irakurten dogula esaten dogu sarri be sarri; eta egia da. Orregaitik, gai askotan, gauza askotan, atzeratuta gagoz, tamalez. Ez noa esaten au zegaitik dan. Ba-dai-teke orretarako atea itxita euki doguzalako izatea be, orretarako bear-bearrezko askatasunik izan ez dogulako.

Gauza bat bai esan bear dautsuet, orraitaiño: onetan, Biblia irakurtean, protestanteak gu baiño askozaz geiago dirala: areik euren etxe guztietan ei´dauke Biblia; areik egunoro irakurten ei´dabe Bibliako zatiren bat. Erbesteko ostatu eta hotelik geienetan be mai-gaiñean egoten ei´da Biblia, nai dagianak irakurri dagian.

¿Zegaitik ezin egin daikegu geuk be beste orrenbeste? ¿Jaungoikoaren berbea irakurri, ezagutu, aztertu ta jakin?

Aukera on bi daukazuez: batetik, “Biblia” osoa, eta bestetik, Jesukristoren “Alkartasun

Barria”. Zeuen eskuan dozue Jaunaren berbea ausnartzea.

Edozela be, datorren domekatik asita, neuk irakurriko dautsuet Bibliako zerbait, gero zuek aste-barruan buruan erabili ta ausnartu dagizuen.

* * *

Jesus, ¿nor zara Zu?

(GS, 52)

Ebanjelioan jakingo dogu Jesus nor dan. Berak esango dausku zabal-zabal, argi ta garbi.

Auxe naz ni:

- «Neu naz munduaren argia. Niri jarraitu daistana, ez da illunetan ibiliko, bestetara baiño: alakoak bizitzako argia eukiko dau» (Jn 8, 12).
- «Neu naz egiazko atea. Arditegian ate onetatik sartu daiten edonor, onik urtengo da; sartu-urtenak zabal-zabal egingo dauz eta beti aurkituko dau alakoak bere janaria» (Jn 10, 9).
- «Neu naz artzain ona. Artzain onak ardien alde bere bizia emoten dau. Ezagutzen dodaz nik nire ardiak eta areik be ezagutzen nabe ni» (Jn 10, 11 eta 14).
- «Neu naz bizitzarako ogia. Nigana etorri daitena, ez da iñoiz be gose izango; sinistea neugan jarri dagiana, ez da iñoiz be egarri izango» (Jn 6, 35). «Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Eta nik emongo dodan ogia, neure aragia da. Munduak bizia izan dagian emoten dot nire aragia» (Jn 6, 51).
- «Ni benetako maatsondoa naz, eta nire Aita maastizaiña da» (Jn 15, 1). «Ni maatsondoa naz; zuek, maatsaienak. Nigan bat eginda irauten dauanak, frutua ugari dakar; nigandik bananduta, ezin ezer egin daikezue-ta» (Jn 15, 5).
- «Neu naz biztuera ta bizia. Sinistea neugan jarten dauana, illarren be, bizi izango da; eta bizi dana eta neu onartzen nauana, ez da iñoiz be ilgo» (Jn 11, 25-26).
- «Neu naz bidea, egia ta bizia. Ezin eldu daiteke iñor Aitaganaifño neure bitartez izan ezik. Ni ezagutzen ba´nozue, neure Aita be ezagutuko dozue; onezkero Aita ezagutzen dozue eta ikusi be egin dozue» (Jn, 14, 6). «Ni ikusten nauanak, Aita ikusten dau» (Jn 14, 9).

Zure erantzuna.

Alemania´n dagoan Lübeck´eko Gure Andra Mariaren katedralean, arresi-gaiñean,

urrengo pentsaketok dagoz idatzita. Jesusek bere erriari egiten dauksazan erosta barriak dira:

«Argia nazala diñozue, eta ez nozue sinisten.

Bidea nazala diñozue, eta ez zabize nigaz batera.

Bizitza nazala diñozue, eta ez nozue gura.

Irakaslea nazala diñozue, eta ez daustazue jarraitzen.

Jauna nazala diñozue, eta ez nozue zerbitzen.

Aberatsa nazala diñozue, eta ez daustazue eskatzen.

Errukiorra nazala diñozue, eta ez dozue zuen ustea neugan jarten.

Zuzenzalea nazala diñozue, eta ez daustazue bildurrik».

Jauna, artez nai dauksat erantzun zure mandatuari. Zeu zara mandatua. Munduaren aurrean, baldintza bagarik, zeuri jarraitzeko eskatzen daustazu. Eta, beste gauza guztien gaiñetik, maitasuna izan dagidala.

VI

ELIZKIZUN BATZUETARAKO

Leenengo Jaunartzetarako

Asieran

Anai-arrebok: Gaur, Mezako Opari onetan, Aita Jaungoikoari bere Seme Jesukristo eskintzeko batu gara emen.

Eta, ¿noren alde eskiñiko dauksagu gaur Mezako Opari guztiz baliotsu au? Jesus bere barruan leenengoz artu bear dauanaren alde: I.´ren alde, zeure alde, I., zure bizitza guztian, Jesus zure lagunik audienaren adiskiderik audiena izan zaitez.

Beraz, gorputzez batu garean ezker, espirituz be batu gaitzan: kanpoko gauza guztiak alde batera itzirik, gure bururakizunak Jaunagan ezarri dagiguzan.

Eta, leenen, beti egiten dogunez, parka eskatu daiogun Jaunari gure utsegin eta pekatu guztiakaitik, urrengo otoitzen bidez:

Jesus Jauna, biotz urratuak salbatzera...

Erri-otoitza

I.´ren leenengo Jaunartzea ospatzeko batu garean ezker, otoitz egin daiogun Jaunari Jesukristoren Elizea egiten dogun guztion alde:

(Etxekoren batek): Aita Santuaren eta gure Gotzaiñaren alde: Kristoren eta gure Elizea bide zuzenetik eroan dagien. Eskatu daiogun Jaunari. Entzun, Jauna,...

(Aitak naiz amak): I. gure alabearen (edo semearen) alde: etzeko guztiok maite-maite izan eta beti alkar ondo eroan dagigun. Eskatu daiogun...

(Etxekoren batek): I.´ren alde: bere gurasoak eta etzekoak eta senide guztiak maitatu dagizan orain txikitan eta gero audiagoa egin daitenean. Eskatu...

(Etxekoren batek): Gure guraso, aitita-amama, izeko-osaba ta gaiñetiko senide guztien alde: Espiritu Santuak argitu ta sendotu dagizan, gizabidean eta kristaubidean lagun egin daiskuen, batez be I.´ri. Eskatu...

(Etxekoren batek): Emen batuta gagozan guztion alde: Jaungoiko Bakar eta Irukotxak, Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak, zaindu, gorde, bedeinkatu eta betiko bizitza zoriotsura eroan gagizan. Eskatu...

(Abadeak): Entzun, Jauna, egin dautsuguzan eskariak, eta bialdu egizu aparteko bedein- kapen bat I.´ren gaiñera. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Berbaldia

(ume bat baiño geiago diraneko; bat bakarrik danean, barriz, adizkerak aldatu).

(OARRA: Askozaz egokiago deritxat berbaldi au umeai Ebanjelio-ostean baiño Jaunartze-aurretxoan egiteari; eta laburra izan daitela, umeak nagusiak baiño leenago aspertzen dira-ta, onelako uneetan batez be.)

* * *

Berba labur batzuk zuei, nire umetxo maiteoi. Bost (amar...) zagoze emen, bost aingerutxo, gure Jauna zuen biotzetan lenengoz artzeko. Leenengo Jaunartzea! Egun aundia be aundia zuentzat, geuretzat be izan zanez! Jesus artu bear dozue, ba, zuen barruan.

Ondo dakizue zuek: "Non dago Jaungoikoa? Toki guztietan dago Jaungoikoa, batez be zeruan eta Altarako Sakramentu santuan". Eta emen dagoana, ostia biribil zuri onetan dagoana, Jesus da, Jesukristo, Jaungoikoa, egiaz eta benetan, bere gorputz, odol, arima ta Jaungoikotasunagaz. Jaungoikoa! Izan daiteken izakirik aundiena ta ederrena, jaun guztien Jauna, errege guztien Erregea, gauza guztien Egillea, zeru-lurren egille ta jabea, guztioi oraintxe berton bizitza ta osasuna emoten dauskuzan Jaun Guztiaalduna.

Begira, ba, gaur dozuen zoriona onelako Jaun aundia zuen biotzetan artzeaz!

Gertatu, ba, zuen biotzak, Jesusi esanez: Jauna, sinisten dot bene-benetan altaran zagozana; nik ez zaitut ikusten Zu zarean lez, espiritu utsa zara-ta; baiña biotzez ikusten zaitut, sinismenaren bidez ikusten zaitut. Geroago ta geiago ta obeto ikusi ta ezagutu zagidazala, Jesus, nire sinismenaren begiakaz!

Zeuzara nire itxaropena, Jesus; gertu nago ona izateko, Zeuk laguntzen ba´daustazu.

Jesus: biotz-biotzez maite zaitut; indartu ta sendotu egidazu nik dautsudan maitasun au.

Zatoz, Jesus, nire biotzera eta bizi zaitetz beti nire barruan, Zeure etxea da-ta; zatoz arin nire biotzera.

Jaunartze-ostean

(abadeak)

Umetxook: Jauna artu dozue zuen biotzetan. Orain, Jesus Jaunari eskerrak emon bear dautsazue eta eskariak egin. Lenen, zeuen alde, onak, esanekoak eta biotz-garbiak izan zaitzen, aingerutxo izaten iraun dagizuen, Jaungoikoaren grazia ta adiskidetasuna zeuen barruan eukiaz.

Zeuen gurasoen alde be erregutu bear dautsazue Jesusi, baita zeuen etxeko guztien alde be, gorputzeko ta arimako arrisku ta gauza txar guztietan onik atara dagizan. Zeuen irakasleen alde be bai, irakatsi ona emon dagitsuen. San Agustin´go eliztar guztien alde be eskatu bear dautsazue Jesus Jaunari. Umetxook: asko balio dabe zuen erreguak Jaungoikoaren aurrean, arima garbi-garbia dozue-ta.

Azkenez, aal dagizuen guztietan artu egizue gure Jauna, batez be domeka ta jaiegunetan.

Jaunartze-ostean

(ume batek esateko)

Jesus, nire Jaungoiko Jauna: Eskerrak emoten dautsudzaz nire biotzera etorri zarealako. Eskerrik asko Zuri, Jesus, nire lagun orri!

Emon egidazu indarra, aurrerantzean be zeure laguna izan naiten.

Jesus Jauna: lagun egiezu nire gurasoai, nire anai-arrebai (neba-aiztai), nire aitita-amamai, nire izeko-osabai eta nire lengusu-lengusiñai, eta zaindu ta gorde egizuz gorputz-arimako arrisku ta gaitz guztietan.

Jesus Jauna: emon egiguzu zure bakea, guztiok alkar ondo eroan dagigula, zoriotsuak izan gaitetzala, Zeuk nai dozunez.

Jesus Jauna: bedeinkatu gagizuz emen batuta gagozan guztiok.

Eskerrik asko, Jesus Jauna!

Berbaldia

I. eta I. eliztar zintzook, eta I. eta I. 'ri orain lagun egitera etorri zareen guztiok:

Bein baiño sarriagotan entzungo zenduen onezkero, emen ospatzen diardugun elizkizun au zer dan. Jaungoikoa dala egintza au zuekan, I. eta I. ezkonbarriokan, egiten dauana; Bera dala, zuen gurasoak itzirik, zuek alkartu eta bizikera barri bat artzera eroan zaituena.

Baiña geiago oraindifo: Jaungoikoak zuekan egin dauan ori, Jesukristok, aurretiaz, Sakramentu izateraiño jaso eban, Sakramentu onen egille zeuek zareela, Sakramentu au zeuek egiten dozuela.

Gaur ezker, zuen bizitzan eginbear barriak leporatzen dozuez, batez be zeuei buruz eta Jaungoikoak emon nai dagitzuezan seme-alabai buruz.

Zeuei buruz: gogoan izan egizue, aurrerantzean, zuetariko bakotxa bion maitasunerako ta laguntzarako dala, eta zuetariko iñok ez dagiala uste izan bata bestea baiño geiago danik, biok aragi bat egiten dozuela baiño, San Paulok diñoanez (Ef 5, 31). Eta gaiñera, Aita Santu Joan 23'garrenak diñoanez, biok dozuezala eskubide ta eginbear bardifñak, bai etxe-barruan bai etxetik kanpo.

Guztiok doguz gure akatsak eta utsegiñak; geuk nai dogun eraz nai izaten dogu au, ori edo bestea egitea, guri burura datorkigunez. Orrelakoetan, alkar eroapenez eta gozotasunez eroan bear, alkarren utsegiñak ez-ikusi egifñik, edo-ta alkar maitekiro zuzendurik. (Au ez da zeuentzat bakarrik, beste guztiontzat be bai, obe ez!) Onetantxe agertzen da maitasuna: alkar ondo eroatean. Ain zuzen be, egoki be egoki datorkigu San Paulo, benetako maitasuna zer dan jakiñerazoten. Entzun dagigun adi-adi berak dirauskuna: (orain, Ko 1^a, 13, 1-8 eta 13 irakurri).

Eta onezaz naikoa dala uste dot.

Jesukristo Jaungoikoak, gaur zeuen alkarganako maitasunean batu zaituen Arek, ogi ta ardao itxurapean zeuen biotzean artuko dozuen Jaun Guztialdunak, lagun egin dagitzuela beti bere graziaz eta indarraz, eta zoriontsu egin zagiezala biok, orain artu dozuen bizikera barri orretan.

Asierarako

Anai-arrebok: ¿Zer jazo ete-zan orain (gaur) ogeta bost urte dirala?

Euren bizitzan garrantzi aundiko egintza bat egin ebela emen dagozan andra-gizon bik, I. k eta I. k: ... 'garren urtean, ... ren ... 'an, ... 'go elizan, ezkondu egin zirala, edo, Jesukristo gure Salbatzailleak sortutako Ezkontza-Sakramentua egin ebela.

Orixe ospatzeko batu gara gaur emen guztiok, zuen ezkontza-urteurren onetan Jaunari bere Mezako Opari au eskintzeko, Berari ospe ta aintza emoteko, Berari eskerrak emoteko eta aurrerantzerako laguntza eskatzeko, gorputz-arimako laguntasuna.

Zorionak, ba, zuei, I. eta I., batez be zuen ezkontza-gomutapen ori ospatzeko / leenen / Jauna ekarri dozuelako gogora Mezako Opari au eskintzean.

Eta orretarako, beti egiten dogunez, parka eskatu daiogun Jaunari gure utsegin eta pekatu guztiakaitik, urrengo otoitzen bidez:

Jesus Jauna, biotz urratuak zalbatzera...

1.- Otoitza.

Egin dagigun otoitz: Egun onetan senar-emazte kristauok Ezkontzako Sakramentua egin eben maitasunaren gomutapenez poztan dozuzan maitasunaren Jaungoikoa: emon egiezu gaur euren ezkontzako 25'garren urtea ospatzen dabeno / maitasunaren poza, alkarganako zintzotasunaren atsegiña, eta fedean, itxaropenean eta maitasunean bat eginda dagoan sendiaren (famiariaren) poz bete.

2.- Oparigai-otoitza.

Onartu egizuz, Jauna, senar-emazte oneik bere etxeokak batera eskerronez, maitasunez eta asmo gozoz eskintzen dautsuezan oparigaiok.

3.- Azken-otoitza.

Egin dagigun otoitz: Zure bedeinkapenez, senar-emazte oneintzat bizikera barria zabaldu zenduan Jauna: barriztu egiezu alkarganako maitasuna, bedeinkatu euren etxea, zaindu euren seme-alabak eta lagun egiezu beti euren arazo, jokabide ta egintza guztietan.

Berbaldia.

Anai-arrebok: Gaur, zeuen etxeko jaia da. Gaur, zuen gurasoak, I. k eta I. k, euren zidarrrezko ezteguak ospatzen dabez. Euron poza / etxeko guztien poza da. Guztion poz au, Mezako opari onegaz alkartu dogu. Jaunagaz adiskide izanaz alkartatuta egotea baiño barruko poztasun aundiagorik ez dago. Jauna da, izan be, barruko poza emoten dauskuna, benetako poz bakarra emoten dauskuna. Kanpoko pozak, azaleko pozak, ez dau gauza aundirik balio / barruko pozik ez da daukagu.

25 urte ezkontza-bizikeran, ezkontza-bidean, Jaunaren begirakunepean, Jauna egunoroko zuen testigu ta bide-lagun dala. Eta bide guztietan nekeak egoten dira, jausialdi batzuk be bai, gogo txarrak, ondezak, makalaldiak, geisoaldiak...

Alan be, beti daroagu gure barruan asmo bat, gurari bizi bat, itxaropen bat. ¿Ba-dakizue zer? Zoriontsu izatea, bai, zoriontsu izatea. Ain zuzen be, zoriontsu izateko ekarri genduzan Jaunak mundu onetara. Mundu onetan aalbait zoriontsuen izateko, eta geroko bizitzan betiko zoriontsu izateko.

Baiña, baiña... oso gaitz egiten yaku bizitza onetan zorion ori lortzea. Eta, ¿zegaitik ori? Lenen eta bein, mundu onetako bizitza au benetako bizitza ez dalako, igarote bat baiño, betiko bizitzarako pauso bat baiño.

Gero, onexegaitik be bai: Jaunak personeari izentatzen dautsazan bideak eta personeak artzen dauzan bideak / ezbardinañak diralako. Jaunak bide bat izentatu, eta personeak, geienetan, beste bide bat artu. Ona ta txarra beti alkarren aurka, beti burrukan. «Gizonaren bizitza lurgaiñean, ¿ez ete-eda gudari-bizitza?», diño Job santuak Biblian (Job 7, 1).

Zorion-billa gabiz guztiok, andra ta gizon guztiok. Zoriona deritxon zerbaitek erreta daukaz gure biotzak. Atsegin-grina ori bere barruan somatzen ez dauan personarik ez dago. Batzuek, erreago, nabarmenago, sumiñago; beste batzuek, motelago, epelago, baretsuago; baiña, gutxiago edo geiago, guztiok dogu biotza geisorik, guztiok gara biotz-min. Zorion-billa, zorion-amesez gabiz; ez, orraitino, bide batetik. Batzuk zoriontsu izateko, zintzo izaten dira; beste batzuk, oker eta gaizto, zorionerako bide laburragoa orixe dalakotan. Batzuk burrukazale, beste batzuk bakezale; baiña bitzuok zoriona dabe egite ta jardueraren buru. Gure gogoak ezin egin daike ezertxo be zorion-amesez izan ezik. Naiz onak, naiz txarrak

dirala, gure egintza guztiak zorion-egaria dabe gorengo eragille ta elburu / giza-eraz begiratu ezkeru.

Gizartean ez da, ostera, zoriontsurik. Agintari ta menpeko, aberats eta beartsu, ugazaba ta langille, jakitun eta ez-jakin, sendo eta makal, leen izan diranak eta orain diranak, aldi ta alde guztietan, andra ta gizon artega dabizala ikusten doguz; zoriona nai, eta zorionik ezin lortu. Eta gizartea landuago, eurreratuago, asmakizun barriak ugariago / eta zorion-egari ori sumiñago; eta zoriona urriñago. ¿Zek ase, zek bete personearen biotza?

Alan be, Jaunagaz alkartuta bizi dana, norbere barrua garbi daukana, bere barruaz baketan dagoana, berba batez, Jaunaren adiskide dana, orixe bizi da zoriontsuen. Orrexegaitik diño / persona santuak dirala lur onetan zoriontsuenak, euren barrua Jaungoikoaz bete-beterik daukelako.

Onetzaz askozaz geiago egingo neuskizue berba, baiña amaitzera noa, aspergarri izan ez nakizuen.

Erri-otoitza.

Anai-arrebok: Emen gagozan guztiok bat eginda, agertu daioguzan gure eskariak Jainko gure Jaunari.

A) Aita Santu ta Gotzaiñen alde: kristauon zorion bakarra Kristo dala guztion biotzean sartzeko aalegiñak egin dagiezan. Eskatu daiogun Jaunari. Entzun, arren, Jauna.

B) I. ren alde: aurrerantzean be bere etxean ontasun eta maitasunaren argia iziotuta euki dagian. Eskatu...

D) I. ren alde: bere etxekoak Jaunaren bildurpean zuzendu ta zaindu dagizan. Eskatu...

E) I. eta I. ren seme-alaben alde: euren gurasoak egin dabezan arazo ta lanak eskerronez ikusi dagiezan eta etxeko guztien artean bakea ta alkar ondo eroateko aalegin guztiak egin dagiezan. Eskatu...

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Illetetarako (I)

Anai-arrebok: I. il yaku. Sarritan agurtu neban gure I. Baiña gaur, une onetan, beste era bateko agurra egin bear gure I.´ri. Izan be, emen batu gara guztiok I.´ren omenez, gure eliztar zintzo izan danari azken-agurra emoteko eta beronen alde zeruko gure Aitari otoitz egiteko, Mezako opari baliotsu onen bidez.

I., gizon (andra) eta kristau zintzoa izan da. Ezbai bagarik, Jaunaren besoetan il da gure I., gure aurretiko persona zintzoak lez: «Euskaldun, fededun», antxiñako esakereak diñoanez. «Azkenerarte sendo iraun dagiana, orixe salbatuko da», dirausku Jesukristok bere Ebanjelioan (Mt 10, 22). Eta, ain zuzen be, gure I.´k zintzo iraun dau azkenerarte. Bai, eldu yakon atzo bere ordua: mundu au itzi eta guztion Aita dan Jaungoikoagana joateko eguna. Atzo I.´ri, biar neuri, edo zeuri: gazterik, urtez eldurik, zaaturik, bardintsu da: etorriko yaku ordu ori.

Noizean bein geure barruan ausnartzeko ordua da. Ez gagozala emen betiko. «Nire Aitaren etxean guztientzat dago lekua; orain zuei leku ori gertatzera noa», esan eutsen Jesukristok bere Apostolui (Jn 14, 2). Eta arei esan eutsena geuri dirausku.

Alan be, guk ez nai itzi oraingo leku au beste toki zoriontsura joateko! Jatorrizko legea da, izan be, lur onetan bizi izateko gurari au, Jaungoikoak geugan jarria, geure barru-barruan sartua. Eta, jatorrizko legea danez, guretariko bakotxa gure bizitza zaintzeko beartuta dago.

Orregaitik, gugan indar bik diarduela burrukan dirausku San Paulo Apostoluak: batetik, geure espirituak, Jaunak egiña, bere Egilleagana joateko gogo biziak; eta bestetik, gure gorputz onek, beronen zentzunakaz, beti mundu onetan bizi izatea gura izanik (Flp 1, 23). Eta ori, munduari larregi lotuta gagozalako, ez dogu pentsatzen bear dan beste, sinistea Jaunagan dogunon bizia ez dala emen amaitzen, aldatu baiño; eta lureko bizitoki au, gorputz au, jaustean, ondatzean, zeruan betikoa jaristen dogula, gero Prefazioan irakurriko dogunez.

Guztiok, jakiña, geure biotza dogu, geure sentipenak, geure senitartekoakanako biotz-miña, gugandik alde egiten dabenean; min aundia artzen dogu biotzean, baiña itxaropena be bai, kristau-itxaropena, egunen baten barrero biztuko diraneko eta gareaneko itxaropen osoa. Orrexegaitik Kredoan be: «Sinisten dot illen biztuera, eta geroko betiko bizitza».

Pauso latza ta garratza, benetan, azken-pausu ori emotea gorputzeko begiakaz begiratu ezkeror; baiña ariña ta itxaropentsua kristau-sinismenaren begiakaz begiratu ezkeror. Geure arteko batek esan ebanez:

«Ilteko jaioten gara,
gau-egun antzera;
baiña biziteko ilten
bizitza betera».

Izan dagiguzan aurrean San Joan Ebanjelariaren berbok: «Zoriontsuak Jaunagan ilten diran ildakoak! Aurrerantzean, artu dagiela atsedena euren lanetan, euren egintzak jarraitzen dautsee-ta» (Ag 14, 13). Beraz, ilda gero be, zintzoari bere egintza onak jarraitzen dautsoe. Pozgarria, benetan, Jaunaren besoetan il diranentzat, baita orrela ilteko ustea dogunon guztiontzat be!

Beraz, anai-arrebok, geuri be geure ordua elduko yakun ezkeror, zuzendu dagigun oraindik gure bizikerea, ordu aretan poztu gaitzean gure bizitzan zuzen eta artez jokatu gendualako. Ordu aretan nai izango doguna, oraintxe nai izan dagigun. Ez luzatu zuen onbideratzea. «Gertu egon zaiteze —dirausku Jesusek—, Gizaseme au [—Jesukristo—] gutxien uste dagi-zuenean etorriko da-ta» (Lk 12, 40).

Biztuko gara, bai, baiña garaitsu, irabazle, edertasunez, aintzaz, gorapenez eta zoriontsu bizitu gaitzela betiko bizitzarako. Auxe da, izan be, emen batu gareanon guztiontzat nire asmorik eta guraririk biziena, beroena eta gartsuena.

I´ren etxekook: aurrerantzean bitarteko bat geiago dozue Jaunaren aurrean, Jesukristoren jarraitzaille zintzo izan dana: I.

Agur, I., Egun Aundirarte, gure biztuera-egun aundirarte!

Illetetarako (II)

Anai-arrebok: Entzun dozuez Jesukristoren azken-berbok: «Gertu egon zaitezte, Gizaseme au [—Bera, Jesukristo—] gutxien uste dagizuenean etorriko da-ta» (Lk 12, 40).

Gure I. ʼri etorri yako Jesukristo. Orain urte bete, I. ʼk ez eban uste izango urte onetan ilgo zanik; (gaztea zan;) osasuna eban; ez ebalda ilterik uste, esan daikegu. Baiña, or ba: Jaunagana joan yaku, Jesukristogana, zeruko gure Aitagana, [ogeta amar] urte ebazala.

Izan be, anai-arrebok, urteak ez dauke zer ikusirik eriotzaren aurrean; eriotzari bardin dautso umezaroa, gaztaroa, naiz zaartzaroa; ifñok ez dauko eriotzaren ordu-arturik: gutxien uste danean eltzen da, geien-geienetan beintzat. Eriotza / jakintzaren gaitetik dago. Orrexe-gaitik irakurten dogu Biblian beste au: «Gizona, eriotzarako izakia» (ikusiz Iz 3, 20). Giza-eraz begiratuta, ortxe amaitzen da personearen bizitza.

Baiña... ementxe dago alde, alde zoriontsua: eriotza kristau-eraz begiratu bear dogu, kristau garean aldetik, Jesukristoren jarraitzaille garean aldetik, Jainko-gizon egifñaren jarraitzaille garean aldetik. Eta onela, beste era batz az ikusiko dogu eriotza: bizi baten amaia da, bai, eriotza, baiña ekintza barri baten asiera be bai, betiko bizitzaren atea. Lur onetako igarotea, urrunagorako bide-asiera, osotasunera garoazan indarra. Bizia aldatu, amaitu ez; bizia aldatu, baiña biziak jarraitu, iraun; kristaua ez da ilten, bizitzan sartzen da. Iltea betiko bizitzarako jaiotea da. Orregaitik San Agustin ʼek: «Zeuretzat egin gaituzu, Jauna, eta biotza artega daukagu atsedena Zeugan artu arte» (“Autorkizunak”, I, 1, 1). Eta Teresa Deunak esaten ebana: «Ordua da alkar ikusteko, Jauna». Orixe da kristau zintzoaren eriotza: Jauna ikusteko ta besarkatzeko atea.

Kristau zintzoarentzat diñot; ez, ostera, Jaunagandik urrin bizi diranentzat, kristau zintzoarentzat baiño. Orrexe-gaitik San Joan Ebanjelariaren berbok: «Zoriontsuak Jaunagan ilten diran ildakoak! Aurrerantzean, artu dagiela atsedena euren lanetan, euren egintza [onak] jarraitzen dautsee-ta» (Ag 14, 13). Eta Bibliako Salmuetan irakurten dana: «Balio aundikoa da Jaunaren aurrean Aren zintzoaren eriotza» (Sal 116, 15).

Eta zintzoa izateko, San Paulok dirauskunez (Ko 2^a, 1, 17): «BAI» eta «EZ» esaten eta egiten ikasi ta jakin bear dogu: BAI Aita Jaungoikoari, BAI Jesukristo gure anai ta Salbatzailleari, BAI egintza onai ta zuzenai, BAI alkar-maitasunari, BAI egiari, BAI alkar-laguntzari, BAI alkartasunari, BAI bakeari ta alkar ondo eroateari, BAI biotz-ontasunari, BAI

biotz-zabaltasunari, BAI esku-zabaltasunari, BAI asmo zintzoai, BAI alkar-parkatzeari, BAI biotz-garbiari, BAI negurritasunari... eta abar.

Eta EZ gaiztakeriari, EZ Jaungoikoaren izena loitzeari, EZ ikusi-eziñari, EZ aragikeriari, EZ lizunkeriari, EZ atseginkeriari, EZ guzurrari, EZ ifñori kalte egiteari, EZ alkar-zapaltzeari, EZ jan-edankeriari, EZ asarrekeriari, EZ diru-goseari, EZ zekenkeriari, EZ indarkeriari, EZ gorrotoari... eta abar.

Aztertu dagigun, ba, gure barrua. Ifñoren eriotza / Jaunak egiten daskun dei bat da, geure bizikerea aztertzeke, Jaunagana biurtzeke. Gaur, I. izan da; biar zeu izango zara, edo neu. ¿Nok jakin Jaunaren asmoak? ¿Nok jakin / Jaunak batzuk beste batzuk baiño leenago zegaitik Beraganatzen dauzan? ¿Nor da gizona, Jaunari kontuak artzeke? Orrexe-gaitik San Paulok Erroma ʼkoai dirautsena: «¿Nok ezagutu dau Jaunaren asmoa?, ¿edo nor izan da Aren onulari? ¿Nok emon dautso leendik, Ari ordaiña eskatzeko?» (Erm 11, 34).

Makurtu dagigun burua Jaunaren aurrean: Jauna, parkatu gure uts-egifñak, gure obenak, gure oker-egifñak, eta geitu gugan Zuganako sinismena, itxaropena ta maitasuna. Nire azken-orduan neugana etorri zaitezanean, esan daistazuzala Ebanjelioan diñozuzan berbok: «Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok!; artu egizue munduaren asieratik zeuentzat atondutako erreifñua» (Mt 25, 34): betiko bizitza zoriontsua!

MEZETAKO JARRAIKIAK

Jaunaren Biztuera-egunekoa:

“**Víctimae paschali**”. (Wipo’rena, † 1039.)

- 1.– Goratu begie kristauak Pazko-Bildotsa.
- 2.– Bildotsak, ardiak erosi dauz; Kristo errubageak, bere adiskide egin dauz pekatariak.
- 3.– Eriotzak eta bizitzak alkar-burruka gogorra egin dabe; bizitzaren Jauna errege biztua da ilda gero.
- 4.– Esan egiguzu, Mari: ¿zer ikusi dozu bidean?
- 5.– Kristo biztuaren illobia eta Berbiztuaren aintza ikusi dodaz.
- 6.– Aingeruak ikusi dodaz lekuko (testigu), baita il-zapia ta jantziak be.
- 7.– Biztu da Kristo, nire itxaropena! Bera joango da zuen aurretik Galilea’ra.
- 8.– Ba-dakigu Kristo illen artetik biztu egin dana benetan. Zu, Errege garaille, erruki izan zakiguz. Amen. Aleluia.

Pentekoste-egunekoa:

“**Veni, Sancte Spíritus**”. (Esteban Langton’ena, † 1228.)

- 1.– Zatoz, Espiritu Santu, eta bialdu egizu zerutik zure argi-izpia.
- 2.– Zatoz, beartsuen aita; zatoz, doai-emoille; zatoz, biotzen argi.
- 3.– Poz-emoille bikaiña, arima-lagun atsegingarri, bizkortzaille gozo.
- 4.– Lanetan atsedean, nekeetan bake, malkoetan pozgarri.
- 5.– Bete egizu, argi guztiz doatsu orrek!, zure zintzoen biotzen barru-barrua.
- 6.– Zure laguntza bagarik ez dau gizonak ezer, ez dau ezer on danik.
- 7.– Garbitu egizu zikin dagoana, busti legor dagoana, osatu geisorik dagoan guztia.
- 8.– Bigundu egizu gogor dagoana, berotu otz dagoana, zuzendu oker dagoana.
- 9.– Emon egiezuz, Zugan ustea daben zintzoai, zure zazpi doai santuak.
- 10.– Emon egiezu onoinen-saria, emon azken-salbamena, emon betiko zoriona. Amen.
Aleluia.

Gorpuzti-egunekoa:

“**Lauda, Sion**”. (Akino’tar Tomas Deunarena, † 1274.)

- 1.– Goratu egizu, Sion, zure Salbatzaillea; goratu ereserkiz eta abestiz zure zuzendari ta artzaiña.
- 2.– Zabaldu Aren aintza aal dagizunez, gorapen guztien gaiñetik dago-ta. ¿Nok A bear danez goratu?
- 3.– Gaur ospatzen dogun gai berezia, bizia emoten dauan ogi bizia da.
- 4.– Azken-aparitan apostoluai emon eutsen ogi bera.
- 5.– Izan dadilla, ba, betea, zolia, alaia ta garbia gure arimearen gorapena.
- 6.– Janaldi eder au leenengoz egin zan egun aundia ospatzen dogu-ta.
- 7.– Errege barriaren mai onetan, lege barriko Pazko barriak Pazko zaarrari azkena emoten dautso.
- 8.– Barriaren aurrean, zaarrak iges egiten dau, baita illunak argiaren aurrean be, eta argiak gaua uxatu egiten dau.
- 9.– Kristok azken-aparitan egin ebana, bere gomutaz egiteko agindu euskun.
- 10.– Aren irakatsiaz argituta, ogia ta ardaoa sagaratzen (konsagatzen) doguz, salbamen-opari izateko.
- 11.– Kristauak sinistu egin bear dabe au: ogia aragi biurtzen dala, eta ardaoa odol.
- 12.– Ez ulertzen ez ikusten ez dozuna, izadi-legearen gaiñetik sinismen biziak indartzen dau.
- 13.– Zerbaitzuen itxurapean —antza dabe bakarrik, ez dira gauzak—, ondasunik aberatsenak gordeten dira.
- 14.– Aragia janari da eta Odola edari; alan be; Kristo osorik dago.
- 15.– Artzen dauanak ez dau ebagiten, ez zatitzen, ez banantzen: oso-osorik artzen dau.
- 16.– Batek artu naiz millek artu, millek aiña batek artzen dau, artuarren ez da amaitzen-eta.
- 17.– Onak eta gaiztoak artzen dabe, baiña ez daroe zori bardiña: areintzat bizitza, oneintzat eriotza da.
- 18.– Gaiztoak il, onak bizi: begira janari berberak egiten dauzan ondoren ezbardiñak!
- 19.– Sakramentua zatitu daitenean, zalantza bagarik gogoratu egizu Jesukristo osoan aiña zatian dagoala.
- 20.– Itxura dana zatituarren, benetan dana ez da zatitzen; Kristoren izatea ta gorputza ez dira txikitzen.
- 21.– Ona emen Aingeruen janaria, geure bidelagun egiña, semeen egiazko

ogia, ez daiegun txakurrai jaurti.

- 22.– Antz-irudietan iragarri yakun: Isaak opariz eskintzean, Pazko-bildotsa iltean, *mana* gurasoi emotean.
- 23.– Artzain on, egiazko Ogi, Jesus!, erruki izan zakiguz. Zaindu ta gorde gagizuz, ikusi dagiguzala ondasunak bizi diranen lurrean [zeruan].
- 24.– Dana dakizun eta aal dozun Orrek, emen bizi garean artean zaintzen gaituzun Orrek, egin gagizuz an [zeruan] zure maikide ta Santuen oiñordekide ta lagun. Amen. Aleluia.

Iraillaren 15'ean:

Andra Mariaren Zazpi Naibageetakoa:

“Stábat Mátér”.

- 1.– Ama naibagetua negarrez egoan Gurutze-ondoan, Semea dingilizka egoala.
- 2.– Aren arima negartsu, itun eta oiñazetua, ezpateak urratu eban.
- 3.– Bai larri ta atsekabez egoala Seme Bakarraren Ama Deuna!
- 4.– Itun eta naibagez egoan Ama samurra, bere Jainko-Semea ikusirik.
- 5.– ¿Zein gizonek ez leuke negarrik egingo, Kristoren Ama ain oiñaze gogorretan ikusi ba'legi?
- 6.– ¿Nor ez litzake naibagetuko Kristoren Ama Semeagaz neketan ikusirik?
- 7.– Bere erriaren pekatuakaitik ikusi eban Jesus oiñazetan eta zigorkadaz josita.
- 8.– Azken-arnasea emon ebanean, lagun bagarik ilten ikusi eban bere Seme gozoa.
- 9.– Ama, maitasun-iturri! Zeure oiñazearen indarra izan dagidala, zugaz batera negar egin dagidan.
- 10.– Nire Jaungoiko dan Kristoganako maitasunean sutu dadilla nire biotza, gogoko izan nakion.
- 11.– Ama Deuna!, auxe egizu: Jarri nire biotz-barruan Gurutzetuaren zauriak.
- 12.– Zauriz beteriko zure Semearen naibageak egin erdibana nigaz, nigaitik arenbeste neke eroan ebazan-eta.
- 13.– Errukiz negar egin dagidala zeugaz batera, eta Gurutzetuari nekeetan lagun izan nakio-la, bizi naiten artean.
- 14.– Gurutze-ondoan zeugaz egon nadilla, malkoetan zeugaz alkartu nai dot-eta.

- 15.– Birjiñetan birjiñarik bikaiñena!: ez zakidaz gogorra izan; egin dagidala negar zeugaz batera.
- 16.– Kristoren eriotza eroan dagidala; Aren neke-lagun egin nagizu, eta Aren zauriak gurtu dagidazala.
- 17.– Aren zauriz zaurituta, zeure Semearen Gurutze ta Odolaz ase naitela.
- 18.– Sugarretan erre ta kiskaldu ez naiten, neure alde jarri zaitetz, Birjiña ori!, epaiketa-egunean.
- 19.– Ene Kristo!: emendik urten bear dagidanean, emon egidazu, zure Amagaitik, garaipen-abarra.
- 20.– Nire gorputza il daitenean, emon egiozu nire arimeari zeruko aintza. Amen.

Zemendiaren 1'ean:

Zintzo il diran guztien gogorapena:

“Dies irae”. (Zelano'tar Tomas'ena, XIII'garren mendean.)

- 1.– Asarre-eguna egun a, lurra austuko dauana, Dabid'ek eta Sibila'k autortzen dabenez.
- 2.– Itzala izango da bildurra, guztia zorrotz ebazteko Auzi-epaillea agertu daitenean.
- 3.– Turutak, illobietan ots ikaragarria zabaldurik, guztiok Jaungoikoaren aurrera eroango gaitu.
- 4.– Eriotza ta izadia arritu egingo dira, Auzi-epailleari erantzuteko gizakiak jagi daitezanean.
- 5.– Dana idatzita daukan liburua irakurriko dau, munduaren epaiketeari asiera emoteko.
- 6.– Auzi-epaillea jesarri daitenean, ixilpeko guztiak agertuko dira; ezer ez da zigor bagarik geratuko.
- 7.– ¿Zer esango dau orduan ni lako gaisoak? ¿Nor jarriko dot nik bitarteko, zintzoa be larri aurkituko da-ta?
- 8.– Zeruratzen dozuzanak utsean (doan) eroaten dozuzan Errege aundi ori!: salbatu nagizu, erruki-iturburu Orrek!
- 9.– Gogoratu egizu, Jesus samur Orrek!, guztia neugaitik egin zenduala; egun aretan ez nagizu galdu.
- 10.– Neure billa ibiltean, nekatuta jesarri zintzazan; gurutzean eriotza eroanik erosi nenduzun; ez bedi alperreko izan arenbesteko lana.
- 11.– Zigorraren Auzi-epaille zuzena: parkatu nagizu epaiketa baiño leen.

- 12.– Errudunaren antzera nago negarrez; erruak gorri-gorri jarri dau nire aurpegia; arren,
parkatu nagizu, Jauna!
- 13.– Mari Madalen parkatu eta lapurra entzun zenduan Orrek, neuri be itxaropena emon
zeustan.
- 14.– Nire otoitzak ez dira Zure duin; baiña Zu, Jaun on ori!, samur izan zakidaz, betiko
sutan kiskaldu ez naiten.
- 15.– Egidazu lekua zure bildotsen artean, eta akerrakandik aldendu nagizu, ni zeure eskuma–
kaldean jarrerazorik.
- 16.– Gaiztoak min-garretara ondatu dagizuzanean, zure aukeratuakaz batera dei egidazu.
- 17.– Auzpaz eskatzen dautsut, biotza damuz austuta; izan egizu nire azkenaren ardurea.
- 18.– Negargarria benetan egun a, gizon erruduna epaitua izateko autsetik jagiko dan egun a!;
parkatu egiozu, Jauna.
- 19.– Jauna, Jesus samur Ori!: emon egiezu atsedena guztiai. Amen.

VIII

Bibliako Abesti batzuk:

- “**Magnificat**”: (Lukas 1, 46-55): “Euskal-Biblia”n, 1534’gn. orri.
“**Benedictus**”: (Lukas 1, 68-79): “Euskal-Biblia”n, 1534’gn. orri.
“**Nunc dimittis**”: (Lukas 2, 29-32) “Euskal-Biblia”n, 1536’gn. orri.

* * *

Jaungoikoari errukia eskatzeko otoitza:

- “**Miserere**” (51’garren Salmua): “Euskal-Biblia”n, 832’gn. orri.

Ildakoen alde:

- “**De profundis**” (130’garren Salmua): “Euskal-Biblia”n, 913’gn. orri.

**Espiritu Santuaren omenez:
"Veni, Creator Spiritus"**

1.- Zatoz, Espiritu Egille,
zure zintzoen arimetara,
bete grazi zerutarrak
Zeuk sortu zenduzan biotzak.

2.- Zeu zara gure Poz-emoille,
Jainko Gorengoaren Doai,
iturri bizi, su, maitasun,
eta miritza (ukendu) zerukoia.

3.- Zeu zara zazpi doaien isurle,
Aitaren eskumako atzamarra,
Aitak Berak guri agintzariz bialdua,
egin bear doguna argitzen dauskuzuna.

7.- Aintza Aita Jainkoari,
eta illen artetik biztu zan Semeari,
eta Espiritu Pozkillari,
gizaldien gizaldietan. Amen.

4.- Iziotu zure argiaz gure zentzunak,
isuri zure maitasuna gure biotzetan,
eta, zure laguntza etenbageaz,
sendotu gure gorputz makala.

5.- Jaurti urrin gugandik arerioa,
emon egiguzu bereala bakea,
eta, gidari Zeu zaitugula,
kaltegarri guztitik aldenduko gara.

6.- Zure bitartez Aita ezagutu dagigula,
baita Semea be;
eta Zeu, Bien artetik zatozan Espiritu Ori,
sinistu zagiguzala aldi oro.

IX

OLERKI BATZUK

(“Orbelak, Bitargi, Udazken” liburutik jasota)

Biotza Jaunagan

(BAC'ek “Dios en la poesía actual”-en argitaratua,
Madrid'en, 1972, 398'gn. orri.)

1.- Itxirristuan, eztabaidan,
biotzeko atea;
aizeak ez dautso emon nai
bear dauan bakea.

2.- Zabaldu eta^itxi aizeak
nire ate geiso au:
zartadaka erdi-etenda,
ia Erio'k jo dau.

3.- Burruka luzea darabilt,
gogor arerioa,
kemena guztiz kikilduta,
zauriz josita noa.

4.- Bakar-bakarrik aurkitzen naz,
orain ez dot lagunik:
iges egin dauste guztiak
etsaiak izan ezik.

5.- «Ta, ¿zer egin?», diraust buruak.
Biotza eztabaidan.
Itxi dagiodan atea,
sar nadin nire baitan

6.- Ixi, aize!, urrun zakidaz,
amaitu dozu lana;
nire bakartade onetan
ba-dot bear dodana.

7.- Irutan Bakar zaran Ori,
Zeu zaitut Maitasuna,
Biztuera, Argi, Bizia,
Benetako^Ondasuna.

8.- Zeugan dot, Jainko, uste ona,
Zeu zaitut laguntzaille:
nire aterpe Zeu izanik,
neu naz beti garaille!

Bide biak

1.- Buru-makur nago, apalik,
nire joanaldi luzean;
barrua makalduta daukat
egun oroko lanean.

2.- Orduak ez dira gelditzen;
arin joan yataz urteak;
ez dakit zelan izan diran
bizitzako[^]ustebageak.

3.- Egun argi ta laiflotsuak,
biak banandu-eziñak;
bata bestearentzat dira
betiko lagun egiñak.

4.- Bide[^]estuak eta zabalak
egitada guztientzat;
baifia, zabalak izanarren,
geienak estu niretzat.

5.- Emon daiodazan eskerrak
Goiko gure Jaun onari;
eta jarraitu dagiodan
Salbamen-bide[^]estuari.

Benetako zoriona

1.- Izar igeskor bat lez,
arin nire gogapena;
¿jakin bai nora doan
nire lagunik onena?

2.- Egoetan daroa
joanaren oroipena;
gaitz yako jaristea
gerokoaren baimena.

3.- Guztiok diardugu
zorionaren atzean;
Andera[^]ori, alan be,
egunez-egun aidean.

4.- Aldizka ba-dakarstaz
bere gorantzi bigunak;
biaramon-ostean
nirekin agur illunak.

5.- Betiko zorionik
ez dago mundu onetan;
itxaron dagiodan
bizitza illezkorrean.

Euri-tantak

1.- Uda au negu lez yat
urte-biotzean;
udazkena datorkit
ia ez-ustean.

2.- Urteen udazkena,
aldi-[^]igarrotea:
zabaldtu egin bear
barruko atea!

3.- Euri-tantak leioan
gabeko soifnutzat;
eurak datoz ondoen
barruko laguntzat.

4.- Ba-datoz ta ba-doaz
bizitz-irudia;
bardintsu izaten da
kanpai-durundia.

5.- Ikarea sartu yat
biotz-barrenean;
taupadaka narabil
iruntsi naiean.

6.- Baifia, nire utsean,
ez nago bakarrik;
Jauna neugaz izanik,
¿zeri nik bildurrik?

7.- Atsedan, ene biotz;
jarraitu bakean;
Jauna bego nirekin
amasa betean!

Zeru-lurren artean

1.- Gaurko lana osotzen
diardut egunez,
nasai geratu naiten
eguneko gaez.

2.- Giza-[^]arazoak itziz,
sar nadin barruan,
Goiko[^]itzak diraustana
artez entzun daidan.

3.- Leengoari begira
betirauna dakust;
aldi bion uneak
dardar eragin daust.

4.- Oraingo egin onak
geroko[^]irabazi;
izan dakidazala
beste bizitz-argi.

5.- Zeru-lurren artean
zubia izanik,
beioaz nire oiñak
bide orretatik

Izadiaren erdian

1.- Ziri-ziri aizea
pagadian,
zuri-zuri laiñoa
ibarrean,

2.- iruntzaren izpiak
orrietan,
ardien arran-otsa
zelaietan,

3.- Anboto'ko tontorra
urrunean,
txakurraren saunkak
atarrean,

7.- Zure Ezpiritua,
bitartean,
sar dakidala, Jauna,
biotzean!

6.- Lagun zakidaz, Jauna,
aurreko bizitzan,
besarkatu zaidazan
betiko bestean.

4.- latseko ur-negarra
ur-urrean,
eguzkiaren munak
tantaietan,

5.- kukuaren leen-deia
areitzean...
Izadia kantatzen
isillean.

6.- Bizia somatzen dot
inguruan,
bakearen arnasa
gorputzean.

II, baiña bizi

1.- Aizeak odei baltzizkak
daroaz goietan;
jausi ta jausi euria
areitz-orrietan.

2.- Gaur be geldiro[^]illundu da
gure baratzean;
egunak negar egin dau
agur egitean.

3.- Illunetan geratzean
nire inguruan,
abotsak auxe ziraustan
nire barranean:

4.- «Ilteko jaioten gara
gau-egun antzera;
baiña biziteko ilten
bizitza betera».

II naitenean

1.- Il naitenean,
ez busti zapirik
alperrik;
ez jarri, arren,
ilkutxa-gaiñean
lorerik.

2.- Ez erakutsi
guztien aurrean
penarik;
gorde betiko
gure maitasuna
bakarrik.

3.- Jaso Jaunari
zure biotzeko
samifia,
Goian dagigun
lur ontako bete
eziña.

4.- Lotu eskuan
nirekin Gurutze
Gurena;
ta jaso Gorantz
bizitzako[^]otoitzik
onena!

ALKARTASUN BARRIKO AITAMENAK
BERBALDIETAKO ATALBURUETAN

Mateo

Pág.	
2, 1-12	56
4, 1-11	70
5, 20-24	108
6, 24-33	118
7, 15-21	110
8, 1-13	62
8, 23-27	64
9, 1-8	123
9, 18-26	129
11, 2-10	47
28, 18-20	94

Pág.	
13, 24-30	65
13, 31-35	66
17, 1-9	72
18, 23-35	127
20, 1-16	67
22, 1-14	124
22, 15-21	128
22, 34-46	121
24, 15-35	132
28, 18-20	93

Markos

4, 26-34	137
4, 35-40	138
5, 21-43	140
6, 1-6	141
6, 7-13	143
16, 1-7	78

6, 30-34	144
7, 1-8a. 14-15.21-23.....	147
7, 31-37	114
7, 31-37	149
8, 1-9	150

Lukas

2, 1-14	51	13, 22-30	154
2, 33-41	54	14, 1-11	120
3, 1-16	50	14, 16-24	100
5, 1-11	105	14, 16-24	101
5, 1-11	106	14, 16-24	98
6, 36-42	96	15, 1-10	111
7, 11-16	119	15, 1-32; edo 1-10	155
8, 4-15	68	15, 1-32; edo 1-10	156
10, 33-37	115	16, 1-9	111
10, 38-42	150	17, 11-19	116
11, 1-13	151	18, 9-14	113
11, 14-28	73	18, 31-43	69
12, 32-48; edo 35-38 ...	152	19, 41-47	112
12, 49-53	153	21, 25-33	46

Joan

1, 19-28	48	10, 11-16	81
1, 19-28	49	10, 11-16	82
2, 1-11	60	13, 1-15	76
4, 46-53	126	14, 23-31	88
6, 1-15	74	14, 23-31	89
6, 24-35	145	15, 25-27; 16, 1-4	87
6, 41-52	146	16, 5-14	85
6, 56-59	97	16, 16-22	84
8, 46-59	75	16, 23-30	86
20, 19-31	79		

AURKIBIDEA

Berba bi	7
I.- Berbaldiak (1954-1955)	9
II. - Beste berbaldi batzuk	46
III.- Beste berbaldi batzuk	137
IV.- Beste Berbaldi batzuk	159
Gosearen aurka	159
Los Ríos'ko Misiñoen eguna	160
Maitasuna ta Eukaristia	161
Bagillak 29: San Pedro ta San Paulo (I)	163
Bagillak 29: San Pedro (II)	164
Garillak 4: Berrio-Otxoa'tar Balendin Deuna	165
Garillak 25: Santiago Apostolua	166
Dagonillak 15: Andra Mariaren Zerura Jasotea (I)	169
Dagonillak 15: Andra Mariaren Zerura Jasotea (II)	170
Misiñoen eguna	171
San Agustin'go eliztarrai agur egitea	172
V.- Beste berbaldi eta otoitz batzuk	174
Jesukristo	174
Espiritu Santua	176
Sinismena	178
Itxaropena	180
Maitasuna	182
Biotz-garbitasuna	184
Bizitza	187
Geisoaren eguna	188
Onartu, Jauna (otoitza)	189
Misiñoen alde (otoitza)	190
Guztien alderako otoitza	191
Asis'ko Prantzisko Santuaren otoitza	192

R. Tagore´ren otoitz bi	193
Apaltasuna jaristeko otoitza	194
Belbillarien (txoferren) otoitza	195
Bake-bidea	196
Bakelariaren otoitza	197
Iñor ez iltea	198
Jesukristoren bakea	200
“Gure Aita”	202
“Gazteen urtea”	206
Gazteen otoitza bakearen alde (Joan Paulo II)	206
Parkatu, Jauna, gure iraiñak	208
Bakea (I)	210
Bakea (II)	211
Zoriona	212
Biblia	216
Jesus, ¿nor zara Zu?	217
VI.- Elizkizun batzuetarako	219
Leenengo Jaunartzeetarako	219
Ezkontzetarako	222
Zidarrezko ezteguetarako	223
Illetetarako (I)	226
Illetetarako (II)	228
VII.- Mezetako Jarraikiak	230
Victimae paschali (Jaunaren Biztuera-egunekoa)	230
Veni, Sancte Spíritus (Pentekoste-egunekoa)	230
Lauda, Sion (Gorpuzti-egunekoa)	231
Stábat Máter (Irailaren 15´ean)	232
Dies irae (Zemendiaren 2´an)	233
VIII.- Bibliako zati batzuk	235
Magnificat (Andra Mariaren abestia)	235
Benedictus (Zakarias´en abestia)	235
Nunc dimittis (Simeon´en abestia)	235

Miserere (Jaunari errukia eskatzeko)	235
De profundis (Ildakoen alde)	235
Veni, Creátor Spíritus (Espiritu Santuaren omenez)	236
IX.- Olerki batzuk	237
X.- Alkartasun barriko aitamenak berbaldietako atalburuetan	243

KEREXETA REN IDAZLANAK

OBRAS DE KEREXETA

(A = Agortuta - Agotado.)

1. Orbelak (1959) (A).
2. Bitargi (1960) (A).
3. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-61) (A).
4. Apostoluen Egiñak (1961) (A).
5. Eguneroko Meza (Missale Romanum: 1962-63) (A).
6. Gogarteak (Aita Basabe — Kerexeta: 1963) (A).
7. Didaje eta Apostoluen Siniskitza (1965) (A).
8. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965) (A).
9. Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak (1965) (A).
10. Argi-bide Txikia (Zugasti — Kerexeta: 1965) (A).
11. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1966) (A).
12. Jesukristoren Barri Ona (lau Ebanjelioak: 1966) (A).
13. Itun Berria (Novum Testamentum, gipuzkeraz: Orixe — Kerexeta — Zugasti: 1967; 2ª edición: 1974) (A).
14. Salmutegia (1967) (A).
15. Salmudia (gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1968) (A).
16. Umeen Biblia (1969; 2ª edición: 1974; 3ª edición: 1982) (A).
17. Umeen Biblia (gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1969) (A).
- 18-22. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco (cinco volúmenes: 1970-74) (A).
23. Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun Barria: Ascea-PPC'na: 1972) (A).
24. Alkartasuna Barria (Novum Testamentum, osorik; 2ª edición: 1972) (A).
25. Jesukristo ren Barri Ona (2ª edición; bilingüe: 1973) (A).
26. Ebanjelio Alkartuak (1973) (A).
27. Kristau-Ikasbidea (4-garena) (1974). (A).
28. Eliz-Guraso-Apostolikuak (Padres Apostólicos) (1975). (Premio "Agirre-Saria" en Baiona (Laburdi) en 1976). Ale dotorea: 1.420 pta.
29. Euskal-Biblia (Biblia completa) (1976; 2ª edición: 1993). 2.000 y 4.000 ptas. (3ª edición, aebolsillo: 1994). 1.800 ptas.
30. Mezako Irakurgaiak Euskal-Biblian (1976). 125 pta.
31. Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko-Erriaren Otoitza (1977). 300 pta.
32. Diccionario Euskérico (1977). 200 ptas.
33. Iparragirre ren Bizitza (L. de Kastresana — Kerexeta: 1978). 920 pta.
34. Gernika ko beste Arbola (L. de Kastresana — Kerexeta: 1979). 842 pta.
35. Orbelak, Bitargi (2ª edición), Udazken (1980) (bilingüe). 300 pta. (A).
36. Elizearen Otoitza (1982). 500 pta. (A).
37. Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak Abade bagarik (1982). 300 pta.
38. Bolibar (Bohórquez — Kerexeta; bilingüe: 1984). 800 ptas.
- 39-40. Vascos en Colombia (2 volúmenes) (Kerexeta - F. de Abrisketa) (1985). 8.500 p.
41. Casas Solariegas de Bizkaia (vol I: en orden alfabético) (1987). 1.500 ptas.
42. Linajes y Casas Solariegas de Elorrio (245 págs. de texto y 402 fotografías). (1988; 2ª edición: 1991). 1.000 ptas.
43. Lau Ebanjelioak (de la "Biblia Interconfesional": 1988). 700 pta.
44. Berrio-Otxoa (bilingüe; P. Carlos — Kerexeta) (texto y 34 fotografías) (1988). 100 pts.
45. Fededunen Otoitza (1988). 160 pta.
46. Alkartasun Barria (1989). 1.500 pta.
47. Kenpis (Jesukristoren Antz-bidea) (1989). 500 pta.
48. Kunran (esku-idazkiak — manuscritos) (1989). 300 pta.

49. Casas Solariegas de Bizkaia (vol. II: por pueblos; incluido en el vol. VIII del "Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco") (1989).
50. Ebanjelio Alkartuak (3ª edición; de la "Biblia Interconfesional") (1989). 500 pta.
51. Diccionario AMAIA de la Lengua Vasca (euskera-castellano) (1991). 5.500 ptas.
52. Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII (años 1704, 1745 y 1796-98) (1992). 2.500 ptas.
53. Linajes y Casas de Gipuzkoa (1993). 1.200 ptas.
54. Kristau-Gaiak (1995).

ERATUAK – ADAPTADOS:

- Ipuñak:** Bustintza'tar Errose, "Mañariko" (1990). 1.000 pta.
Eusko-Umeak Atzerrian: Goitia'tar Xabier (1991). 1.375 pta.

COEDITOR DE:

- El Sínodo del País Vasco:** José Mª San Sebastián, "Latxaga" (1990). 500 ptas.
La representación del tiempo en el verbo vasco: José Mª San Sebastián, "Latxaga" (1994). 2.000 ptas.
El Clero Vasco en la clandestinidad: Serafín Esnaola y Emiliano de Iturrarán (1994). 4.000 ptas.

Jaime de Kerexeta. (Pbro.)
Elizburu, 24.
48230 ELORRIO (Bizkaia).
Tel. 682 00 12.